

Uste gabean

Manuel Matxain





Antonio Zavala (Tolosa, 1928) aspaldiko ezaguna dugu. Bertso zaharrak biltzeari ekin ondoren, *Auspoa* bilduma sortu zuen 1961-an, eta 277 alea eskuartean dugu gaur. Sei liburu haundi atera zituen *Auspoa* sail berdean (1974-1976); hamalau *Auspoaren sail nagusian* (1993-2002). *Biblioteca de Narrativa Popular* ere sortu du (1993) gazteleraz; bai hogeitabost ale eskeini ere dagoenekoz.

Gai ezberdinak ditu: bertsopaperak, bertsolari zaharren biografiak, bertsolaritzaren kondaira, erromantzeak, esaerak, kontaerak... Gure herri-jakintzaren bitxiak jaso, alegia, iturriak errespetatuz.

Biltzaile eta bilatzaile izan da. Bilatu, bildu, ikertu, sailkatu eta argitara eman. Ehiztariak piztiaren arrastoa bezela, horrela usnatu eta aurkitu du galzorian zegoen altxorra. Kontakizunak idaztera ere jende asko animatu du, herri-literaturaren sail eder eta berri bat osatuz.

Gaurko hontan Manuel Matxain jartzaile oparoaren bertso-emitza eskeintzen digu, ia mila eta berrehun bertso bilatu eta bildu ondoren.

Holako lana nola eskertu? 1990-XI-17-an Deustun *Doctor Honoris Causa* eta 2000-X-6-an Tolosako *Seme Kutun* izendatu zutenean, bi pauso haundi eman ziren. Baina Basarrik idatzia eskerrik onena: liburu hoiak jaso eta irakurtzea. Eta gordailu hortatik ezer hartu eta erabilitakoan, bilatzaile-biltzailearen aitopena egin, nori berea emanez. **(Joxemari Iriondo)**



Uste gabean



AUSPOA • SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Manuel Matxain
(1916-1999)

Uste gabean
(Bertso guziak)
(1963-1993)

Auspoa Liburutegia
2002

© Manuel Matxain

© SENDOA ARGITARALDIA

ISBN: 84-95378-58-2

Lege Gordailua: NA. 3.054/2002

Fotokonposizioa eta imprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Lizarra (Nafarroa)

Itzaurrea

Itzaurre onek asmo bakarra dauka: liburu ontan zer arkituko duan irakurleari itz laburretan azaldu.

Leenengo, Manuel Matxainen bizitzaren berri ematen da; nork eta bere billoba batek, aren alabaren seme batek –Jon Alberdi Matxain izen-abizenak– idatzia. Mutil orrek ez det uste orain arte beste idazkirik argitara eman duanik. Baiña, nik beintzat, idazle-ezpala ikusten diot. Aitonaren gora-beerak eman nai ditu, eta ortara zuzen dijoa, bere bidetik kanpora pausorik eman gabe eta esan bearrak al dan argien eta garbien adieraziz. Irakurleari zerbait jakiñerazi edo komunikatzeko gogoia egin zaio, eta orixe egiten du, alperrikako apainkeritan asi gabe. Eta esaera bada: otar bat egiten duanak eun ere egin lezazkela.

Baiña ez ditu aitonaren kontu guziak aitutzen. Ala, nik Matxaini berari entzundako gertaera batzuk adieraziko ditut orain.

Aitonak, gaztetxoa zalarik, eta billobak agertzen digunez, korrikan ere egin oi zuan, eta sari mordoska irabazi ere bai. Jaiotetxetik, Aieteko Txabolatik alegia, Donostiarako joan-eto-riak egan bezela egiten omen zituan, ia-ia lurrik ikuitu ere gabe, eta ez al da ori naiko entrenamentu?

Bein, kale batean aren parean kotxe bat gelditu eta onela galdetu omen zioten:

–*Oye, muchacho: ¿por dónde se va a la calle tal?*

Zuzenbide bat eman zioten. Eta mutillak erantzun:

–*Síganme ustedes.*

Bera aurretik jarri zan eta korrika asi. Kotxeak atzetik segi eta Donostiako kaleetan barrena orrela joan ziran, gidaria gelditu arte.

Manuel Matxain gerratean ibilia zan, errepublika-zaleen aldetik. Etsaiaren aireplanoen bisita sarritan izaten zuten, eta

egazti aiek beren ziriña bota. Bein baiño geiagotan arrantxoia jatera zijoazela etorri ere. Alakoetan, danak iges egiten zuten, gordeleku baten billa. Matxain, berriz, pertzak lurruna zeriotele zeuden tokira lasai-lasai joan, bere platera bein eta berriro bete eta ustu, eta artan segi ase-ase egin arte, aren inguruan bonbak leertzen ziran bitartean. “Iñork ez daki bere suertea nun eta nola izango duan; bitartean, gaurko egokiera ontaz baliatu nadin” esaten zuan bere artean. Iñoiz etzitzaion ezertxo ere gertatu, eta gerra-denborako otordurik onenak burnizko egazti oiei esker egin zituan.

Lantokia Donostian zeukanez, Aietetik arako joan-etorria egunero egin bear. Eta beti oiñez, berak ala naiago zualako. Ibi-llaldi oietan egosten omen zituan bere bertsoak buruko lapikokan, eta gero etxerakoan paperera pasa. Antziña zaarreko Aristoteles eta bere ikasleen filosofiari *peripátetica* deitzen zaio, itz orrek *paseoa* edo olako zerbait esan nai dualako, eta beren burutazio sakon aiek *paseatuz* ausnartzen, eztabaidatzen, mamitzen eta erabakitzen zituztelako, alkarrekin itzegiñez. Ala, gure Manuel Matxainek moldatzen zituanak ere bertso *peripatetikoak* ziran. Olakorik bai al da besterik gure artean?

Batzuetan, ordea, etxe aldera zetorrela, kamioiren bat kargadeskargan ikusi oi zuan etxe baten aurrean. Olakoetan, gelditu, buruan zerabillen bertsogintzari utzi eta langilleei laguntzen asten zan, zelebrekeri batzuk esanez eta lagun berri aiek parre-algaraz jarriz. Iñori laguntzeko beti prest egoten zan ura.

Japoi aldera ere joan zan batean, beste lagun batzuekin. Ango telebistaren batek emengo erri-kirolak erakutsi nai omen zituan, eta bera tokalari eta bolari bezela aukeratu zuten. Itzultitakoan, alkar topo egin genduan eta onela galdetu nion:

– Zer modu Japoi aldean? Lurralde ura gustatu al zaizu?

Eta aren erantzuna:

–Ikusgarria da. Sinisteziña. Baiña neretzat naiko mundua da Donostia eta bere ingurua. Naiago det emen.

Bai; jaiotako txokoa naiko mundua zan arentzat; baiña ezer gutxi bear zualako zoriontsu izateko. Zorionaren loretxoak, izan ere, gure barruan erne eta azi bear du.

Zer kontatu geiago izango zuan arek, noski. Eta kontalari bikaiña zala ere badakigu arekin tratatu genduanok. Ala, ni,

beintzat, pena aundi batekin gelditua naiz: ez niola eskatu bere bizitza idaztea. Ez dakit baiezkorik emango zidan; baiña liburu ederra izango zala dudarik ez det egiten. Denbora faltaren aitzekia atera dezaket; baiña esaera-pilla datorkit une ontan burura: “il da gero salda bero”; “arraia pasa ondoren sarea bota”; “ura joan da gero presa egin”; “damua garaiz”...

Dana dala, badaki irakurleak liburu onen leen atala zer dan. Manuel Matxainen bizitza, bere billobak kontatua.

* * *

Bigarren atala da, alde aundiz gaiñera, oparoena, mardule-na eta aberatsena. Bera agertzeko egin baita liburua. Manuel Matxainen bertsoak danak batera eskeiñi nai izan diogu irakurleari; arek ogei ta amaika urtean, 1963-tik 1994-ra, moldatu eta papereratu zituan bertso-saillak, alegia. Bilduma ori badakigu oso-osea izango ez dala; baiña aal dan osoena izan dedin gogotik aalegindu gera. Kontatu ditugu eta 1.170 bertso dira guzira.

Baiña gure egitekoa ez da eta ez gera asiko ura bertso-jartzaille bikaiña zala eta aren bertsoak goi-maillakoak zirala esaten. Orrela uste ez izatera, ez genduke ainbateko lana gure gain artuko. Adieraz dezagun, ordea, arek bere bertsoak argitara emateko izan zituan bideak.

Leenengo, usuario zaarrari jarraituz, bertso-paperetan plaza-ratu zituan sail batzuk, 1965 urte inguruan: Arantzazuko Amari jarria, Kennedy zanari, Polipaso eta Errekalderen apustuari... Oietxek eta garai artako beste jartzailleak atera zituztenak izan ziran Euskal Erriko azken bertso-paperak.

Baiña jartzaille oiek danak bereala pasa ziran aldizkari eta egunkarietara. Aldizkarietan, *Zeruko Argia* izan zan leku ematen ziena. Eta bai Donostiako *Goiz-Argi* eta Iruñeko *Príncipe de Viana* ere. Egunkarietan, berriz, leenengo *La Voz de España* eta gero *El Diario Vasco*. Auetarako atea zabaldu zizkiena Basarri izango zan.

Ala, euskal bertso-gintzak bide berri bat arkitu zuan, paper sueltoen aldean bentaja aundiak zituana. Batetik, jartzailleak etzuala dirurik aurreratu bear inprentari pagatzeko; bestetik, banatzeko eta saltzeko lanik ere ez; eta, irugarren, irakurleak ugaldutik egiten zirala.

Erreztasun oiekin, udaran euri mardul baten ondoren ontoak bezela, nun-nai eta ugari sortu ziran bertso-jartzailleak: gure Manuel Matxain au, Segundo Kalonje, Sebastian Salaberria, Basarri, Xalbador, Inozentzio Olea, Ibaiertz, Gillermo Albisu, Ataño, Xanti Zabala, Jose Aierbe, Martzelino Manterola, Jose Mari Lertxundi, Jose Mari Arrieta, Mondragoiko kalezaia, Txomin Garmendia, Izazpi, Rufino Iraola eta abar eta abar. Izendatu gabe dozena bat baiño geiago utziko nituan eta barka dezaidatela, arren!

Ogei ta amar bat urtean zenbat millaka bertso, gure agerrietan argia ikusi zutenak? Geienak onak, gaiñera. Olako aberastasuna ez genduan agian bear ainbat estimatu garai artan.

Baiña orain, euskal aldizkariak bertso-rik gabe ikusten ditudanean, utsune orrek pena ematen dit eta zera pentsatzen det sarritan: euskal bertsojartzailleen urrezko aroa orduan izan zala. Zeruko opari oiek, ordea, osasuna bezela dira: galdu artean estimatzen ez ditugunak.

Matxainen bertsoen goi-maillaz ondo konturatuta, aren ordurarteko saillak bildu eta liburu batean argitaratu genituan 1969-an, *Auspoa*-ren 84-garrena bera, *Uste gabean* izenburuarekin. Itzaurrea ere berak idatzi zuan. Orrenbeste bertso jarri zituanak, lerro oiek izango ditu, bearbada, prosaz idatzi zituan bakarrak. Alda ditzagun, beraz, onera:

Uste gabean jarri diogu liburu oni izen-burua, uste gabean sortua dalako, uste gabean deitu didatelako esanaz nere bertso-sorta argitaratzera dijoazela; ta aurrera jarraitzeko pazientzirik duanak, jakingo du nere asiera bertso-jartzalle bezela nola izan zan.

Orain sei bat urte, Donostiko ostatu batean, iñulabarreko amarrak aldean, juntatu giñan iru lagun: bi erdi bertsolari; ta irugarrena, Aieteko baserritar bat.

Nere lagun erdi bertsolaria asi zitzaidan puntuak jartzen. Egun artan ni bapo nengoan, txuleta ederra janda, ta –zergatik ukatu?– litroko botilla bat ardo edanda. Eztakit ondo edo gaizki, baña zerbait erantzuten nion.

Ta, beti gertatzen dana, jokoa egin genduen zeñek bertso obeak jarri. Euskaldunak, geienak beintzat, erdi bertsolari ta erdi jokalari gera, ta gure seta guziak zerbait jokatuta bukatzen dira. Guk iru txuleta jokatuta ginduzen. Eta erabakitzeke juradu ona jarri ere: Euskal Akademira, bertso-paper-txapelketara, bialdu gure bertsoak edo lanak, eta berak erabakitzen zutenarekin danok konforme.

Neri bigarren saria eman zidaten urte artan. Bai poz ederra artu ere! Geroztik jarraitu det tarteka-tarteka beste lan batzuek egiten; ta, gutxien uste nuanean, deia izan det, nere bertso-sortarekin liburua egin bear zala esanaz.

Ikusten dezute: uste gabean osatu dan ezker, izen orrekin ateratzea nai det.

Besterik gabe, milla esker *Zeruko Argia*-ri nere bertso kaxkarrak bere orrietan leku izan dutelako; milla esker Basarri lagun jatorrari ainbeste kontseju on eman didalako, ta milloi bat esker *Auspoa* liburutegiari bertso zaar guziak ateratzen ari dalako ta, nik merezi gabe, neretzako izan duan begiramen aundiagatik.

Ta, azkenik, zuretzat, irakurle biotzekoa, eskatuko diot Jaungoiko guzieldunari, eman deizula osasuna ta pazientzia nere bertso-sorta au irakurtzeko. Bertan arkituko dituzu –ontan seguru nago– zure gustokoak ez-tiranak. Oientzako aurretik itz bakarra esaten dizut, ain biotz xamurrekoa zeralako: barkatu! Manuel Matxain».

Lerro oiek irakurri ondoren, irakurleak berak epai dezala ainbat bertso eder utzi zigun gizona ez ote zan gauza izango prosaz orrialde ederrik asko idazteko ere.

Uste gabean izeneko liburu ori, leen esan bezela, 1969-an atera genduan. Matxainek leengo antzera jarraitu zuan gogoz eta maisutasunez bertsoak jartzen. Bai kate luzea osatu ere. Eunka eta eunka bertso. Ala, aren beste bertso-bilduma bat osatzea aspalditik buruan nerabilkian. Bera bizi zalarik ori egitea izango zan onena. Baiña erioak aurea artu zigun, gizon ura gu danok eramango gaituan bidetik eramanez.

Noizbait ere ekin nion lantegi orri, gure Manuel itzali ondoren bada ere. Leenengo liburu ura atera ondoren moldatutako bertsoak askoz geiago ziran, ordea. Zer egin, bada? Liburu zaarreko lanak liburu berritik baztertu? Ala bertso-uzta guzia batera bildu eta argitara eman? Auxe onena, noski, Aieteko bertso-jartzaille ura zer zan erakusteko, eta orrela egin degu.

Ortiz gaiñera, *Auspoa*-ren orduko eta oraingo liburuen neurriak ez dira berdiñak. Luze-zabalean aunditu egin dira. Orrek mesede egin digu: bertsoak bi zutabe edo illaratan jarri aal izatea. Ala, leengo doblea baiño geiago sartzen da gaurko orrialde bakoitzean. Orri eskerrak, zenbait bertsolariren lanak, garai batean bi edo iru liburutan banatu bearko genituzkenak,

orain batean eskeiñi dizkiogu irakurleari: Sor Justina Aldalurren *Ama Birjiñaren bizitza*; Atañoen *Jesusen bizitza*, Jose Insausti-
ren *Beti bertsoa buruan*, eta orain Manuel Matxainena.

Eta izenburua zer jarri? Ortaz pentsatzen ari giñala, alako batez zera bururatu zitzaigun: eta zergatik ez leengoa bera? *Uste gabea*, alegia. Matxainentzat batere uste gabekoa izan zan liburu ura, berak orduko itzaurrean esan digunez. Ala ere, orain dagoan goi artatik mundu ontara begiratuta, liburu berri onen susmurrak izango zituan, noski, zerutarrak gure aragizko auek baiño begi txorrotxagoak dituzte eta. Baiña zera naiko lukela oiruditzen zait: leengo aretxen segira izan dedilla oraingo au, bai izenburuz ere, mamiaz ala dan ezkerero. Gaurko gure eskeintza mardul au, izan ere, leengo txiki ura bera da; landare bera, alegia, ogei ta amar urteren buruan gorakada aundia egin duana.

Ortaz gaiñera, leengo liburua zenbat euskaldunek izango dute orain? Plazaratu ditzagun, bada, orduko bertsoak eta geroztikakoak, bertsozale guzien gozamenerako.

Matxainen bertsoei zer irizten diegun galdetuko digu agian orain norbaitek. Leen ere esan det ez dala ori gure eginkizuna, baizik-eta bertso-jartzaille aren emaitzak aal dan garbien irakurlearen eskuetan jartzea; eta besterik ez.

Bertsolarien merituak literatur-kondaira batek neurtu bear-ko lituzke; baiña bertsolaritzaren barrutik epaituta; ez kanpoko irizbideekin. Olakorik ez da egiten, ordea. Euskal literaturaren berri ematen duten liburuetan, bertsolaritzari leku gutxi ematen zaio, gai ortatik aalik-eta lasterren iges egiñik. Zergatik? Meriturik ikusten ez diotelako? Garai bateko euskalzaleak ala pentsatzen zuten. Ez gera, beraz, ortan aldatu? Bai; gaur bertsolaritza benetan estimatzen da. Baiña gure literaturaren berri emateko libururen bat prestatzen dutenak, egille eskolatuen lanekin naikoa dute, eta eskola zanpatu ez dutenen emaitzak alde bat uzten dituzte, gure erri-literatura ondo ezagutzeak geiegizko denbora eramango lieke eta.

Ala ere, zerbait esan dezagun Matxain bertsogintzaren do-aiak zein diran. Bertsogintza erreza du. Batere beartu gabe bo-robiltzen du bertsoa. Nekerik gabeko lana balitz bezela. Baiña engaiñagarria izan liteke alde ortatik: edozeiñek egin lezakela ematen du; baiña berez ez da batere erreza. Era ontako idazleen-

tzat bada erderaz esaera egokia: *la difícil facilidad*. Probatzen duanak ikusiko du Matxainen erreztasuna ere zein zailla dan.

Aren pentsamentua ere oso argia, bai bertso bakoitzean eta bai sail osoan; eta aria ere zuzen eta garbi eramana..

Euskera ere ona. Arritzekoa da ori, bera erderaren muga jaioa eta bizia izanik. Ain zuzen, leen aitatutako bertso-jartzaille oparo oietatik iru Aietekoak dira. Bi, bertan jaio, bizi eta illak: Manuel Matxain eta Segundo Kalonje; eta irugarrena, Sebastian Salaberria, Oiartzunen jaioa, baiña bere denborarik geiena Aieten egiña, gaur Ernanin bizi bada ere. Beste bi oiek ere, Manuel Matxain zan bezela, oso euskera ederraren jabe ziran.

Gerra aurreko bertso-paperetako gaietatik, Manuel Matxain eta bere garaiko jartzailleen gaietara alde aundia dago. Auek leengo gai zaarrei ez diete muzin egiten: estropadak, apustuak, baserritar kontuak, fedea, nagusi-morroiak... Baiña berriak ere erabiltzen zituzten. Orrela egin bearko litzake beti: leengo tradizioa ukatu gabe, berritasun oiekin aberastu.

Gai berri oiek, naiz eta zaillak izan, etzuten Matxain bildurtzen; erabili egiten zituan, baiña bere ikuspegi eta neurritik atera gabe. Bere mugak zein ziran bazekian arek, eta andik aurrera etzuan pausorik ematen. Ori ere buruz argia izatea da.

Bertsogintza era askotara artu eta neurtu diteke: bertso bakoitza, sail oso bat edo bertsolari baten emaitza guzia. Matxainen bertsoak, banaka artuta, bikaiñak dirala ikusiko degu: sail guziak ere, zein baiño zein ederragoak; eta emaitza osoa ere aintzagarria. Altxor bat, beraz, arek ondareztat utzi ziguna, eta guk bildu eta irakurleri eskeintzen dioguna.

Bilduma ori, ainbat gai ezberdin dituan ezker, garai artako kronika bat bezela degu. Ez dizkigu urte aietako gertakizun guziak aitatzen; baiña bai naikoak orduko euskal gizaldiaren ispillu biurtzeko. Bertso-jartzailleak, olakorik burutik pasa egiten ez bazaie ere, bertsoak moldatzerakoan istoria idazten dute. Matxainen liburu onek ere ortatik asko duala esango nuke.

* * *

Irugarren zati bat erantsi diogu liburu oni, *Aitorpenak* izenarekin. Alde batetik, Matxainek, ain gizon leial, biotz oneko eta

alaia izanik, lagun asko zituan; bestetik, goi-maillako bertso-jartzaille, bolari eta tokalari genduan. Ala, bein baiño geiagotan aitortu izan zitzaizkion bere doai oiek, omenaldiak an-emen egiñez, eta bai idatziz ere, batzuetan prosaz eta besteetan bertsoetan.

Aitorpen oiek biltzen saiatu gera, orrela irugarren zati ori osatuz. Leen bertsoengatik esan deguna gertatuko da emen ere: guk gogotik aalegindu arren, banaka batzuk onera gabe geldituak izango dirala, taldetik galdutako ardiak bezela. Baiña gizonak ez du nai duana egiten, aal duana baizik.

* * *


Itzaurre ontan esan bearrak esan ditudala uste det. Bukaera eman dezaiodan, bada, Basarriren bertso batekin:

O, lagun Matxain, nik galdetzen det:
zuk barren ortan zer dezu?
Gure Jainkoak ainbat birtute
batera eman dizkitzu:
bertso-jartzalle txit egokia,
buruz argi ta jakintsu,
bolarietan lenengo mailla,
tokan errege ta maixu,
txalogarririk iñon badago
txalogarria zera zu.

A. Z.



Manuel Matxain, gaztetan.



Aieteko etxe ontan bizi izan zan Manuel Matxain
1920-tik 1965-era arte. *Matxaiñene* du izena.

Manuel Matxain, nere aitona

Pedro Manuel Matxain Ezpeleta 1916-ko urriaren 13-an jaio zen, Aieteko "Txabola" etxean, gaur egungo Gurutzeaga parrokia-aren ondoan.

Aita, Jose Matxain, usurbildarra, irrintzilari oso famatua izan zen. Behin batean, Euskal Festak deiturikoetan, irrintzia egin ondoren, Txirritak harrituta honako bertso hau bota zion:

Bejondeikela, Matxain,
oi dek irrintziya!
Ez dek nolanaikua
ire itzontziya.
Orain bazeukagu guk
komentziya,
goratu nai badegu
gure probintziya.

Ama: Eustakia Ezpeleta, oñatiarra, etxekoandrea.

Anai-arrebak: bost ziren guztira. Baina bi oso txikitan hil ziren, Santi (lau urte) eta Iñazi (sei urte). Arreba Anttoni, zaharrena, 1990-ean hil zen. Anaia, Migel, 1973-an hil zen, Parisen, erbesteraturik.

Manuelek bi urte bakarrik eman zituen eskolan. Irakurri eta idazten ikasi zuen On Zezilio Agirre apaiza irakasle zuela. Amar urterekin Donostiko harategi batean hasi zen lanean. Egunero hamabi ordu lan egiten zituen, eta bost duro irabazten zuen hilean. Ilunabarrean Aieteko Munto sagardotegira joaten zen tokan egitera.

Kirolerako zaletasuna gaztetatik sortu zitzaion, batez ere tokarako. Bere aitona ere, Pedro Matxain, tokalari ezaguna izan zen aurreko gizaldian.

Hamabi urte zituela, Munton arrantzale koadrila batek merienda jokatu zuen toka jokoan. Lau gizon beste lau gizonen aurka.

Tirada baten faltan, bost kolpe behar zituen talde batek bestea berdintzeko. Ezinezkoa zelakoan, Manuel umeari eman zioten fitxak botatzeko aukera, guztien barre artean. Manuelek seiak jo zituen –sei fitxa erabiltzen dira tokan–, egunero ibiltzen baitzen bertan tokan. Arrantzaleek sorbalda gainean eramane zuten sagardotegira.

Hamahiru urterekin, Donostiako Triunfo kaleko baldosa fabrika batean hasi zen lanean. Geroztik han egingo zuen lan. Baldosak egiteko moldeak mugitzen landu zuen Matxainek, gero tokan egiteko behar zuen besoa.

Beti oinez egiten zuen lanerako joan-etorria, eta askotan korrika. Hala, egun batean, gazte lasterketa batekin egin zuen topo Donostiako kaleetan. Espaloitik korrika jarraitu zituen lasterkariak eta haiekin batera iritsi zen helmugara. Horrela hasi zen Manuek korrika.

Hamabost urterekin, Gipuzkoako Infantilen Txapelketa irabazi zuen Tolosan. Handik aurrera Uliako Jimnastikan hasi zen korrika, eta txapelketa ugari irabazi zituen: *Campeonato de Debutantes*, *Campeonato de Neófitos*, Gipuzkoako Eusko Gaztedi etabar...

Lehenengo toka txapelketa ere hamabost urterekin irabazi zuen, Herreran.

Hemeretzi urte zituela, 1936-ko Gerra Zibila hasi eta Frankoren aurka boluntario joan zen.

Ez dakigu zein soldadu taldetan egon zen; baina berak *el 5º de UGT* aipatzen zuen. Batalloia izango zen hori. Mendian ibiltzen zirala gehienbat, eta lo txabolatan edo kanpamendutan egiten zutela.

Frentean beti, alegia, 1937ko Ekainaren 18-ra arte, Bizkai aldean. Gero, Sopuerta eta Castro Urdiales aldean, eta azkenik, 1937ko Abuztuaren 26an, errenditu eta preso hartu zituzten Santanderren.

Lehenengo hiru egunetan ez zuten mokaurik probatu ere egin. Gero, *Batallón de Trabajadores* delako batera bidali zituzten.

Santandertik Santoñara eramán zituzten; gero Miranda de Ebro, León –emen bideak konpontzen ibili ziren–, San Emiliano –ontan, berriz, alanbradak jasotzen–, eta azkenik Bartzelonara.

Preso garaiko oroitzapen latzenak gosea eta hotza izan ziren harentzat. Behin, gainera, goserik gelditu eta bigarren aldiz iladan jartzean, kapitana sekulako muturrekoa eman omen zion. Manuelek gerora aitortu izan zuenez, inoiz etzituen zeruko izarrak orduan bezain garbi ikusi.

1939ko Urrian etxera bidali zuten, bi urte eta bi hilabete preso egon ondoren. Frankoren aginduz, ordea, 1940ko Uztailak 7an, «*todos los que han servido al ejército republicano doble*», berriz ere *Batallón de Trabajadores* batera, 1943ko Martxoak 27ra arte.

Galizia aldean eman zituen ia hiru urte horiek. La Bacollako aireportu egiten igaro zuten denbora gehiena. Bostetan jeiki eta lanean aritzen ziran ordubiak arte. Bitartean, opil bat bakarrik jaten zuten hamarrak aldean. Zutik egoteko aina bazkaldu ondoren, instruzioa egiten zuten arratsaldean, eta gero lotara. Sei hilabete egin zituen *Cuerpo de Artillería, nº 8, de Pontevedra* delakoan ere, lizentziatu aurretik. Azkenean, hogeitazazpi urte zituela, etxera bidali zuten.

Tokan jarraitu zuen; batez ere, herriz herri ibili ohi zen, herriko festetan sari ugari irabaziz. Bola mundua ere gustatu eta piskanaka hartan hasi zen. Lehen bola lehiaketara hogeitazazpi urterekin aurkeztu zen.

Handik aurrera, inon diren txapelketa guziak irabazi zituen, bai tokan eta bai bolan: Gipuzkoako Txapelketa, Espainiakoa, Erregulartasunarena, Binaka... Baina beti toka gehiago gustatu izan zaio. Ia jaietro trofeoren batekin itzultzen zen etxera; batzuetan bi edo hiru koparekin ere bai.

Bertsotarako grina txikitatik izan arren, 1960ko hamarkadan hasi zen bertso jartzen. 1963 urtean, Donostiako ostatu batean, ilunabarreko hamarrak aldean, Matxain bi lagunekin elkartu zen; haietako bat, bertsolaria.

Bertsolari hori hasi zitzaion puntuak jartzen; eta Manuelek ondo edo gaizki, baina beti erantzun zion. Egun hartan bapo baitzegoen, txuleta ederra janda, eta zergatik ukatu? Litroko botila bat ardo edanda.

Eta, holakoetan gertatzen dana, apustua egin zuten nork bertso hobek jarri. Hiru txuleta jokatu zituzten. Eta erabakitzeko juradu bezela, Euskaltzaindira, bertso-paper txapelketa batera bialtzea erabaki zuten. Bigarren saria irabazi zuen aldi hartan Matxainek; eta bere lehenengo bertso saila zuen hura, Arantzazuko Amari jarria, ain zuzen.

Geroztik bertso sail ugari argitaratu zituen *Zeruko Argia*-n, *La Voz de España*-n eta *El Diario Vasco*-n Basarriren sailean eta bai *Goiz-Argi*-n ere.

Azkenik, 1969ko Otsailean, bere bertsoak bilduz, liburu bat ere argitaratu zuen, *Uste gabe*an izenekoa, *Auspoa* saileko 84 zenbakia.

Urte berean Japonera joan zen. Euskal Jokoen erakusketa bat egitera, hango telebista batean. Lau lagun joan ziren: Matxain, Soarte, Usategieta eta Rafael Agirre Franko. Oso gustora itzuli ziren handik.

1993 urtean, Donostiako Udalak “*Medalla al Mérito Ciudadano*” delako saria eman zion. Omenaldi ugari egin zizkionten, bai toka eta bola munduan –Aieten, Herreran, Ibarra...– eta bai bertsolaritza munduan ere: 1994, *Bertsolari eguna*; 1995, *Euskararen Udal Patronatua*...

Kristau eta pakezale porrokatua izan zen beti. Ordulari gabe ibili ohi zen, baina zer ordu zen zekiela.

Kirol guztiak gustatzen zitzaizkion, eta zahartzaroan ere telebistako emanaldi gehienak ikusten zituen: pelota, tririndularitza –Indurainen jarraitzaile sutsua–, futbola –kinielak ere egiten zituen–, atletismoa...

Familiako datuak: 1950 urtean Maria Teresa Etxarriekin ezkondu zen, eta bi urte beranduago Marian Matxain bere alaba jaio zen; 1977ko Urriaren 13-an, Manuelek hirurogei ta bat betetzen zituen egun berean, bere iloba bixkiak jaio ziren: Iñigo eta Jon Alberdi Matxain.

Manuel Matxain 1999ko Abenduaren 18an hil zen, Aieten.

Jon Alberdi Matxain

Bertso Berriyak Manuel Matxain-ek Arantzazuko Amari jarriyak

Borondaterik onenerakin
ekiten diot lanari,
bertso batzuek eskeñitzeko
Arantzazuko Amari.
Agertu ziñan ezkeroztandik
Rodrigo artzai zanari,
egin dituzu kristau guziyak
arritzeko ainbat mirari;
orregatikan jarri zaituzte
Euskal Erriyen zaindari.

Ai, Ama ona, izan ezazu
zuk neretzat kupira,
nere bertsoak zerorrentzako
modukoak ez badira.
Arantzartera etorri ziñan
gure Aloña mendira,
ordu ezkeru andikan zaude
euskaldun danoi begira,
ongi etorriya izan zaitea
gu sortu giñan errira.

Txit indartuta nik ikusten det
gaur arantza orren zaña,
bere gañean sortu da beintzat
santuariyo bikaña.
Gizon azkarrak zuri eskeintzearren
saiatu dirade baña,
naiz kanpotikan ederra egin
da barrendikan apaña,
ala ere ezta, Ama maitia,
zuk merezi dezun aña.

Zure maitasun berdin gabea
beti agertzen diguzu,
ta gure erri eta mendiyak
bedeinkatutzen dituzu.
Mundu onetan egonagatik
zenbait toki dizdiratsu,
danak utzita Euskal-Errira
zerutik jetxi ziñan zu,
pekatariyen itxaropena
geroztik da Arantzazu.

Txikitatikan artua naiz ni
fedea santuko itzian,
nere guraso maitagarriyak
kristau zintzoak baizian.
Otoitz beroak egiten nitun
lanerakoan goizian,
andik irtenda errosaiua
senide danak etxian,
iñor ez dago ondo izaterik
oitura oiek galtzian.

Denborarekin asi nitzan ni
bide on danak baztertzen,
grña gaiztoak ari baiziran
nere barruan indartzen.
Danok dakigu arbol gaztia
erreza dala okertzen,
Jainkoak naita ez bada ere
lur jotzeraño erortzen,
oso zalla da biartu gabe
lengo lekura ekartzen.

Esker txarreko gizona naiz ni
nere Jangoiko on bati,
pekatuakin bere biotza
egiten diot ba zati;
zure Semean esanetik
ibilli banaiz urruti,
nere moduan erdi galduan
arkitzen diran zenbaiti
al dan azkarren laguntzearren
zai egoten zera beti.

Mundu guzira zabaldu dira
arantza baten sustraiak,
badakizute oiek dirala
frantziskotarren anaiak;
utzi dituzte beren etxe ta
munduko gauza alaiak,
berai biziya kenduagatik
lur-alde aitan etsaiak,
pozez dijoaz anima batzuk
zerura ekarri naiak.

Gau illunian izar argiya
guziyontzako zerade,
zuri jarraituz bide onian
asko sartuak dirade;
esan liteke oien artian
nagola neroni ere,
zure eskutik artuagatik
askotan milla mesere,
beraren truka orain artian
ez dizut eman ezere.

Lurreko gauza danak utzita
begiratuaz goruntza,
gure anaiak badijoazte
orain emendik aruntza;
uzten dituzte beren guraso,
senide eta izkuntza,
gerta liteke oietakon bat
ez etortzia onuntza,
ez badiogu azkar bialtzen
an bear duten laguntza.

Munduak ditun bost zati oitan
ezkutun zeuden erriyak,
ari dirade orain jakiten
fedea santuko egiyak;
bi milla urtian euki dituzte
itxita beren begiyak,
gaur zabaltzera joanak dirade
euskaldun mixiolariyak,
oso pozgarrik apenas diran
andik datozen berriyak.

Oso bearreko gauzak dira an
ospital eta eskola,
badakizute emen daukagun
aurrerapenik eztola;
Kristok esan zun beartsuari
lagundu bear zaiola,
ta ez bazaigu ori jakiñik
guri batere ajola,
kristau zintzoak geradenikan
guk ezin esan iñola.

Ez ote degu beraz entzungo
andik datorren antsirik,
zer bearrian arkitzen diran
guk ain garbi ikusirik?
Bere itxaropen guziya dauke
aiek gure gain utzirik,
ori jakinda ez badiogu
luzatzen geren eskurik,
gureztat Kristo alperrik il zan
gurutze baten josirik.

Anai-arreba biotzekoak,
eror gaitezen kontura,
Ama Birjiña gu zaitzearren
etorri zala mundura;
jarraitu zagon zintzo ta leial
guraso zarren oitura,
al dan guziyan bisitatxo bat
egiñaz Arantzazura,
azken orduan eraman gaitzan
danok betiko zerura.

Euskal-erriyak bere denboran
amaika prueba eman du
lagun urkoa maitatze ortan
ez dala txarra izandu;
aurrera ere al dan guziya
mixiyoari lagundu,
oraiñ añako premiyarekin
beñere ez dira egondu,
azkar ibilli, geroko ez utzi,
izan liteke berandu.

Bertso-papera, *Gráf. Izarra*. – *San
Sebastián*, Manuel Matxainen eskutik
jasoa.
Zeruko Argia, 1963-I-5.
Auspoa, 84, 1969.

Aiton-amonen festa Oñatin

Andreak beren mantilla eta
gizonak beren txapela,
gaur oso apañ etorri dira
gazte denboran bezela;
kolorietan ezagun dute
bapo gosaldutela,
gure Jainkoak urte askuan
gorde ditzala orrela.

Gosaldu ondoren Erri-Etxetik
badijoaz parrokira,
ta ilanderak arriturikan
daude berari begira;
ximur batzuek azaldu arren
gure zarren arpegira,
ia gaztetan bezin airoso
oraindik ibiltzen dira.

Plaza guzian entzuten dira
txistuen doñu goxoak,
gure dantzarik ortxe dijoaz
altxata beren besoak;
gerri biguñak, anak ariñak,
ondo neurtuta pausoak,
a zer ederki ematen duten
gure ilanderatxoak!

Berrogei urte onuztik datoz
gaurko festaren sustraiak,
aurtengo onek bi alde ditu
pozgarri eta alaiak;
piztu argiak, apaindu dana,
jarri bueltaka kanpaiak,
gaur Don Felixek ospatzen ditu
bere urrezko eztaiak.

Dantzari-talde izugarria
da Oñatiko errian,
gazte zintzoak eta apalak,
danak sasoi ederrian;
euren biotzak zerura jaso,
oñak bakarrik lurrian,
orregatikan dantzatzen dute
gure Jaunaren aurrian.

Festa ederra antolatu du
gaur Oñatiko erriak,
ugariago bear lirake
olako omenaldiak;
Gipuzkoako agintariak
danak dira etorriak,
goraldu nairik gure aitona
zintzo ta agurgarriak.

Gaurko eguna derrigorra da
guk izatea goguan,
ori bai dala jokaturtea
Jaunak nai duan moduan.
Eliz-gizon ta agintariak
aitona zarren onduan,
era ortako anaitasunik
gaur gutxi dago munduan.

Itz neurtuetan alkate jauna
oso dotore itzezin,
bera entzutea guretzako bai
izandu zala atsegin.
Gogoratu du kristau guziok
badaukagula zer egin,
guraso zarrrik laguntzik gabe
iñun gelditu eztedin.

Sinismena da gauza bat emen
maitatzen deguna egiz,
orregatikan gaur askok ezin
ikusi gaituzte begiz.
Andre ta gizon aldareraño
dijoaz arreta aundiz,
Jauna ematen omenaldia
egiten zaion Don Felix.

Epelde jaunak ematen digu
Patronatoaren berri,
esanaz nola maitasun gabe
ori ez titeken jarri.
Aitona oiek bere laguntza
izango dutela sarri,
eurak baitira gure errien
ta izkuntzaren oñarri.

Koro ederra egin dezute
baturik zar eta gazte,
lasai jarraitu beti aurrera,
bide onetik zoazte.
Zuen errien izen maitea
igo dezute dexente,
esker berorik ta sutsuenak
guziontzako, Bixente.

Parra-irria ezpañetan da
barrutikan otoitzean,
esan diteke egon dirala
eten gabe gaur goizean.
Lore apañak eskuetan da
illobatxoak atzean,
oiek zer poza ote daukate
orain euren biotzean!

Epelde jauna muñ ematera
aurreratu da lenengo,
alkate jauna ta erri guzia
euren atzetik urrengo.
Kriston legeai gure erriak
gaur jarraitzen dio sendo,
Don Felix nola eskerrak eman
eztakiala omen do.

Lendakaria alde batetik,
amonatxo bestetik,
gaur oso ondo konpondu dira
biak lenengo itzetik.
Saria emanaz esaten dio
ikusi duala oñetik,
guraso zarrak maite ditula
gauza guzien gañetik.

Ikusten dira Epelde jauna
eta Reyes Korkostegi,
Arrazola ta Panizo ere
Elizaren ordezkari.
Euren eskutik partitu arren
gaur emen sari ugari,
urrengorako zerbait prestatzen
ari dirala dirudi.

Instrumentu ori zer ote degu:
korneta edo tronpeta?
Aitona xarrak orain artean
eduki digu gordeta.
Orain jo ta jo or ari zaigu
umore onez beteta,
orren birikak dudarik gabe
oraindik sano daude ta.

Goi-mallakoak nola ditugun
Oñatiko dantzariak,
une ederra pasatu zuan
begira zegoen jendiak.
Da an barruan Araotz aldeko
neskatx ta mutil argiak,
zeñek gordea oraindik bada
gure oitura garbiak.

Zuen moduko otxoteak gaur
mundu ontan daude gutxi,
artu dezuten izen aundia
al badezute ez utzi.
Lanean gogor jarraitu beti
ez ezerगतikan etsi,
goi-mallaraño iritxi arte
Oñate eta *Irrintzi*.

Guk Pello Kirten ikusten degu
orain ere betikua,
gizon jatorra eta leiala
ta etorri aundikua.
Bere esanakin parra egiteko
izango da arrixkua,
gure biotza ezpada beintzat
burni edo arrizkua.

Kanpotik onuntz etorri arren
berriro milla mudantza,
oraindik ere bizirik dago
gure erriaren dantza.
Zu ikusita, gazte maitea,
sortu zaigu esperantza
azi ote dan kimu berriak
ematen gure baratza.

Agintari ta aitona xarrak
orra nun dauden batera,
kuadro oberik nere ustetan
gaur eztiteke atera.
Aundi ta txiki esku emanda
emen ibiltzen bagera,
bildurrik gabe jua gindezke
Jaungoikoaren aurrera.

Gaztetxo auek etorri dira
dantzan ondo ikasita,
txalo ederrak entzun dituzte,
danak oso merezita.
Guk lenbiziko pentsatu degu,
zuek plazan ikusita,
aingeru batzuk ote zeraten
zeru ederretik jetxita.

Agirrebaltzategitar Joxe
degu gure apaiz jauna;
aspaldi ontan, ikusten danez,
gogor egin dezu lana.
Lagun arturik larri alditan
zuk Arantzazuko Ama,
lorategia biurtu dezu
lenago ozpiña zana.

Gaur bi gizaldi etorri dira
esku emanda onera,
ori bai dala errenditzea
Jaungoikoaren legera.
Gurasoari eztiogunak
merezi duten arrera,
azken orduan kostako zaigu
juaten zero ederrera.

Gure zarrari apetiturik
etzaie galdu zartzera,
ia Aitaren egin orduko
garbitzen dute platera.
Zuek orrela ikusi eta
gu asko poztutzen gera,
berriro aber alkartzen geran
emendik urte betera.

Aitagure bat erreztuaz
asi dute bazkaria,
danak batuta ikusten dira
morroi ta agintaria,
Jaunak nai duan eran partituz
ardoa eta ogia.
Sermoia ona degu guk, baña
ejenploa da obia.

Garbi jantzi ta txukun orraztu,
urte ugari gañean,
baña oraindik azaltzen dira
beste batzuek añaan.
Oso gustora pasatu dute
gazte-denbora lanean,
orain zartzaro on bat igaro
zazute zorionean.

Manuel Matxain zanaren esku-
-idazki batetik artutako bertsoak.
Ez dakigu zein urtetakoak diran.
Auspoa, 84, 1969.

Pedro Aiestaran zanari

Itz bi bakarrak egingo ditut
bolariaren jaiean,
neri barruak eztit laguntzen
triste nagon garaiean;
bi begitatiek negar-malkoak
dauzkat nik irten naiean,
gure lagunik onen-onena
falta dalako maiean.

Gureztat aita bezelaxe zan,
beti daukagu goguan,
orretxengatik zu, Ebaristo,
jarri zera mai-buruan;
ta ez begiratu erregaliai
zer prezio ote duan,
jakin zazu zuk bolari danon
biotza dala barruan.

Ia urtea bada zerura
bera juan zala emendik,
bolari danok maite genduan
biotzen barren-barrendik;
zer ikasia badegu danok
emen gaudenak argandik,
lagun oberik ez tet billatu
nere denboran oraindik.

Bolari danok jarraitu beti
anaitasun ta pakean,
geronen esku nola ez dagon,
Jaunak nai duan artean;
ta Aiestaran gaur ariko da
Jaungoikoari eskean,
danok berakin junta gaitezen
goien egunen batean.

Manuel Matxain zanaren esku-idazki batetik.
Auspoa, 84, 1969.

Aurreko itzak:

«Pedro Aiestaran bolari famatua ta gizon jatorra genduan. Omenaldia prestatu zitzaion, bañan egin baño len il zan. Egin ziotenean, bere semea egon zan mai-buruan. Erregalia artzerakoan, bertso auek kantatu nituan».

Kennedy zanari

Besteari barkatzen
diogun moduan,
barkatuko digute
gure azken orduan;
gizon guziyak, artu
egi au goguan,
bestela pakerikan
ez dago munduan.

Beltzari eman arren
biotz gogorren sona,
zuriyak ez du eman
ikasbide ona;
batere kulpik gabe
il dute gizona,
erriya zaindutzeko
jarriya zegona.

Eziñ sinistaturik
nago oraindikan
gertatu danarekin
Ipar-Amerikan;
berri negargarriyak
gaur datoz andikan,
Dallas deitzen dioten
erri batetikan.

Kennedy izan arren
aintari prestua,
ark ere ezin egiñ´
danaren gustua;
anai beltzai luzatzen
ziyolako eskua,
galdu degu betiko
gizon on askua.

Arrazoen gañetik
badabiltz indarrak,
maiz izango ditugu
guk notizi txarrak;
garaia juanda ez du
baliyo negarrak,
aurretik lotu bear
askon atzaparrak.

Zeñek ez dakit bañan
nola edo ala
lepotik zuzen asko
sartu dio bala;
batzuk esaten dute
Oswald ura zala,
geientxuenak berriz
besteren bat dala.

Tiroak adituta
mugitzen asi zan,
bañan ezertarako
denborik ez izan;
biotz gabekon batzuk
naiko zuten gisan,
andrearen ondora
erorita ill zan.

Agur egiten diyo
berai belauniko:
“Juan zera ta etzera
geiago etorriko;
ez ote naiz ni ere
penarekin ilko,
zurekin egon nadiñ
zeruan betiko!”.

Gelditu gabetandik
kotxe ura bera,
azkar eraman zuten
ospital batera;
gogor saiatu arren
berari eustera,
ilda sartu zan da ezin
bizirik atera.

Bukatuak dirade
Kennedy-n ametsak,
pakean ikusteko
zurik eta beltzak;
munduko agintariyak,
entzun nere itzak:
bere odola alperrik
ez deilla izan beintzat!

Kriston esanetatik
gaur urruti xamar
gutxiyenez gabiltza
ogeitatik amar;
gizonak ez dulako
maitatutzen alkar,
Jacqueline or dago
negar eta negar.

Ondo bukatutzeko
asitako lana,
au da Manuel Matxaiñek
eskatzen duana:
danok errezzatzeko
aita gure bana,
zeruan gerta dediñ
John Kennedy zana.

Matxainen esku-idazki batetik.
Bertso-papera, *Izarra* - S. S., Ma-
txainen eskutik jaso.
Zeruko Argia, 1964-V-31.
Auspoa, 84, 1969.

Pernandori

Berreun urte dira
aurtengo onetan
izar argi bat sortu
zala Amezketan;
bertsolari bikaña,
iaiuia izketan,
erantzuteko etzan
egoten kezketan.

Denbora ugari xamar
igaro dalako,
batzuk ez dute artzen
Pernando aintzako;
zor aundia daukagu
guk berarentzako,
lan asko egin baizun
euskerarentzako.

Batzuk galdetzen dute
Pernando au zer zan,
Zeruko Argia-n bidez
nai diotet esan:
naiz basarrian bizi
da ibilli artzantzan,
titulorik etzuan
abogadu bat zan!

Bere bertso ta ipuiak
ara ta onuntza,
danari itzegin-aziz
geronen izkuntza;
gaur abiatua da
berriro goruntza,
Pernando, ez diozu
zuk gutxien bultza.

Berari jarri arren
makiña bat lazo,
danetatikan errez
libratzen zan oso;
nun-nai emanagatik
ark milloika pauso,
apenas egin zuan
iñun estropozo.

Batzuk era batean,
besteak bestera,
saiatutzen dirade
izkuntzari eustera;
lenago naiko larri
egon zan euskera,
orain indar-berritzen
ari da ostera.

Nik badakit seguru
zerutik begira
egongo zeradela
zerorren errira;
azia bota zendun
zu azitegira,
orain bestea pozik
biltzen ari dira.

Egin nai dezutenak
parra ta algara,
Pernandon jai auetan
juan Amezketara;
jendea pranko noski
bilduko da ara,
ni ere an izango naiz
okerrik ez bada.

Nola bertsolaria
ez naizen jatorriz,
zu goratzeko ez daukat
bear dan ainbat itz;
nik baño azkarraguak
lan ortan badabiltz,
danak txalotzen ditut
bein da milla aldiz.

Zeruko Argia, 1964-IX-6.
Auspoa, 84, 1969.

Basarri, Uztapide ta Lazkao-Txiki

1965-garren urtean, Urte Berri egunean, Donostiako Anoetan jokatu zan bertsolari-txapelketan, juradua erabakitzen ari zan bitartean, bertso au kantatu nion Basarriri, *Aizak i, Manuel Mañontzi*-ren doñuan:

Bertsolaririk onena
gaur ixilik dagoena,
itz bitan ezin nik adierazi
jendearen pena;
bertsoa altxa duena,
Basarri bere izena,
merezi du ta jo zaiozute
txaloik beroena.

* * *

Aurreko bertso ori Basarriri kantatu niolako. Uztapide asarre xamar jarri ote zan esan zidaten nere lagunak; ta Lopategiren omenaldian, *Urbia* ostatuan, bertso auek kantatu nizkion:

Nere Uztapide maite,
sinisturik egon zaite:
mundu onetan uste gabean
okerra egin leike;
lagunak esan didate
egin dizudala kalte;
ni berriz ez naiz trankill egongo
ori jakin arte.

Geroztik nabill ni larri,
ederrak entzunaz sarri,
nere lagunak maite zaituzte
zu ikaragarri;
eguna zan urte Berri
kalte egiña zerorri,
esan bainuan onena zala
bertsotan Basarri.

Nik ori esan nuala
badakit egia dala,
aitortzen det gaur barru-barrutik
irten zitzaidala;
gizon ona ta apala
nola dakiten zerala,
pentsatzen det nik len bezin lagun
izango gerala.

Bakoitzak bere ustia
libre du adieraztia;
egun ortan zu saiatu ziñan
alegiñ guztia;
Lazkao-Txiki gaztia
etzan erreza austia;
Matxain poztu zan berriro ere zuk
txapela jaztia.

* * *


Ondorenean, Lazkao-Txiki bertan zegoan ta au kantatu nion:

Makiña bat negar-malko
txapeldun etziñalako
zure lagunak ixuri zuten
jakin ordurako;
zuk abildadia pranko
badezu bertsotarako;
animorikan beintzat ez galdu
beste baterako.

Matxainen esku-idatzi batetik.
Auspoa, 84, 1969.



Ezkontza, 1950-ean, Maria Teresa Etxarriekin.



Españiako txapelketa, Lasarte, 1934. Manuel Matxain, aurreko korrikalarietan, ezkerretik bigarrena.

Amari entzunak

Gizaldi onen amaseiean,
urrillaren amairuan,
gerra gogor bat omen zebillen
ni jaio nintzan orduan.
Berdiñik eztun Donosti ontan
argia ikusi nuan,
bertatik ere, Jaunak nai badu,
nai nuke zerura juan.

Txikitandikan azia naiz ni
otoitz goxoak entzuten,
aita ta amak euskera garbiz
beti egiten zituzten.
Era ortako guraso asko
eztira orain ikusten,
merezi aña eztakit nola
nik goratuko nituzken.

Negu beltzean seaskatxoan
egiten banun eztula,
ama ondora etorri gabe
etzan gelditzen sekula.
Ikusten nuen tapaki danak
ederki jartzen zitula,
berealaxe igarri nion
guraso onak nitula.

Ta gau erdian nere negarrik
iñoiz entzuten bazuan,
zer ote nuen ikusi gabe
lorik egiten etzuan.
«Maitia» esanaz laztan goxo bat
ematen zidan musuan,
lo arrazteko bost bertso auek
berak kantatzen zituan.

«Ai, euskerari lagun zaiogun,
baserritar da kaleko,
bera nundikan galduko dabiltz
gaur zenbait biotz-gabeko.
Eztezagula bakarrik utzi
ta edozeiñen mendeko,
kapaz lirake ilda, gaxoa,
lurpera eramateko.

Erromatarrak emen dabilta
etorri nairik onuntza,
bein da betiko galdu naiean
gurea degun izkuntza.
Baña euskera zorionean
gaur eztago umezurtza,
eztu paltako bere erriko
seme leialen laguntza.

Ikusirikan geronen Ama
etsaiez inguratuta,
laguntzera gu azkar joan giñan
lizar-makillak artuta.
Gudari aiek esaten zuten
gu ikusirik batuta:
«Euskera etzekit, baña gu laister
gaituk lurpean sartuta!».

Ama beldur zan ez ote nitun
bertso auek ikasiko,
urte bat nula berak kantatzen
zizkidan lendabiziko.
Nik esan aiek eztitut iñoiz
bazterturikan utziko,
biotz barrura sartu baizaizkit
nere denbora guziko.

Pentsa bezela etziran irten
erromatarren ibillik,
nunbait etzuten ezagutuzten
Euskalerriko mutillik.
Onuntz kantari etorri ziran,
baña bueltatu ixillik,
apenas asko gustatu zaien
emengo lizar-makillik.

Ikusirikan erri geienak
gaur nola dabilzan setan,
anai-arreba biotzekoak,
orra zer pentsatzen detan:
Jaungoikoari eskatutzea
eguneroko otoitzetan
maitasun geio jarri dezala
gizon danen biotzetan.

Erromatarrak eduki arren
gudari gogorren sona,
ez pentsa gero, nere semetxo,
ori danik gauza ona.
Geren errian errendi gaiten
joan gabetandik iñoa,
alkar maitatuz bizituzteko
sortua baita gizona».

Pakeak aña balio dunik
ezta munduan ezere,
gerra dabillan tokian ezta
gauza onikan beñere.
Gizon guziak bizi gaitezen
alkarren gorroto gabe,
azken orduan egin gaitezen
zeru ederraren jabe.

*Zeruko Argia, 1965-IV-11.
Auspoo, 84, 1969.*

Kontuz, gazteak, nola batzuk ala besteak

Danok dakigu Adan da Ebak
izan zuten utsegiña,
egun artantxen bukatu ziran
pakea ta atsegiña;
geroztik emen badabilkigu
gerra, naigabe ta miña,
ori bakarra balitza utsa,
ondorengoia jakiña
ondo betetzen ez duanentzat
Jesuskristoren dotriña.

Osasuna da mundu onetan
dagon gauzikan onena,
pakea eta anaitasuna
nere ustetan urrena;
diru atzetik alare dabill
orain jenderik geiena,
lapurretari negoziyua
gaur jarri zaio izena,
kristau batentzat zeruratzeko
ori ez da bide zuzena.

Griña gaiztoak gallendu dira
da ezin ditugu ezi,
oiek barruan dauzkagun arte
ezin leike ondo bizi;
geren burua maitatzen degu
emen geienok lenbizi,
lagun urkorik gu baño obeto
ez genduke nai ikusi,
aundi-naia ta lizunkeriya
jarri zaizkigu nagusi.

Kanpo aldetik etorri dira
gaur amaika moda zikin,
Euskalerriyen gustora dabiltz
batzuk oitura oiekin;
gizonak beren melen luzea,
emakumeak galtzakin;
negar-malkoak irteten zaizkit
neri pentsatu utsakin
santu egiten ez dala errez
ikusten diran gauzakin.

Gure artean zan lotsa pixka
nola ari dan urritzen,
lizunkeriya indartutzea
ez naiz batere arritzen;
garai batean gure ama onak
etziran orla ibiltzen,
ikusten diran gauzak ikusi
ta ez da erreza ixiltzen,
pertsonak eta animaliyak
asi gerade berdintzen.

Aragiyari baldin segika
asten bazera gazterik,
zure barruan ez da izango
iya beñere pakerik;
egi triste au ez dago ondo
azaldu gabe uzterik:
senda-etxe asko ikusten dira
mutill da neskaz geterik,
pekatu onek ez baitu ekartzen
negar samiña besterik.

Nere lagun bat bisitatutzen
atzo izan naiz klinikan,
nere denboran nik ez det artu
orrenbesteko penikan;
bere esanak gogoan artu
ta irten nintzan andikan:
«Len aiñ sasoiko banintzan ere
gaur ezin egon zutikan,
arrokeriyak ez du ekartzen
beñere gauza onikan.

Dirua eta gauza geiago
ibiltzia aukeran,
nik pentsatzen det gaztearentzat
askotan kalte ote dan;
nere burua ikusirikan
gaur daguan egoeran,
ni milla bider gogoratzen naiz
lengo zarren esaeran:
«Esan zaidazu norkin zabiltzan
da esango dizut zein zeran.

Lagun txarrakin juntatu nintzan
da okertu nindun ziaro,
ni aiñ apala edo umilla
izandakua lenago;
zigor ederra gañean daukat,
merezi nuan geiago;
erruki pixkat nundik izango
begira jarriya nago,
gaizki bizitzen danarentzako
azken onikan ez dago.

Nik aiñ arrua nuan gorputz au
dana egin zait zauritu,
ankak elbarrik eta besoak
iñora nola mugitu?
Begietako indarrak juan,
belarrik ezin aditu,
oñazeakin ezin niteke
minutu baten gelditu,
ongi etorriyak pekatu-truka
Jaunak bealtzen baditu.

Nere denbora igaroa da
bide ta era txarretan,
gazte-denboran arro banitzan
umildua naiz zarretan;
Arantzazuko Ama maitia,
nere ordu larri onetan
biotz-biotzez eskatzen dizut,
jarririk zure oñetan,
ez nazazula bakarrik utzi
etsaien atzaparretan!».

Gazte maiteak, baztatu beti
pekaturako bideak,
galeraziyak daduzkalako
Jangoikoaren legeak;
Eba bezela etzaitzabela
gaur engañatu subeak,
txit onak izan etzeratenak
saiatu izaten obeak,
ez izan beintzat lenengo intzak
galduko ditun loreak.

Bertso auek Manuel Matxain zarenaren esku-idatzi batetik ditugu. Baiña *Zeruko Argia* aldizkarian azaldu ziran, 1965-VII-25-ean, zenbait aldatzarekin. Bearbada, bi aldiz idatziko zituan Matxainek.

Zeruko Argia-k amar bertso ditu: esku-idatziaren 1, 2, 3, 4, 6, 7, 8, 9, 10 eta 12-garrena, aldaketa auekin:

1/3: egun artantxen galdu ziraden;
1/5: geroztik emen eztegu palta; 1/9: ondo betetzen eztunarentzat.

Bigarren, esku-idatziak ez duan bertso au:

Gure Jainkoak amar agindu danori dizkigu jarrik,
dakizutena, gazte maiteok,
eztaukat esan bearrik.
Zeruetako nere ustetan
bide bat dago bakarrik,
grina txarrari ez utzi artzen
zuen barruan indarrak,
gero bestela botika danak
izango dira alperrik.

Orregatik, esku-idatziaren 2, 3, eta 4-garrenak, 3, 4, eta 5-garren daude *Zeruko Argia*-n, aldaketa auekin: 2/10: au ezta bide zuzena; 3/1: Grina txar asko indartu dira; 3/4: ez-titeke ondo bizi; 3/7: lagun urkorik geu baño obeto; 4/5: gizasemeak ille luzea; 4/9: santu egiten eztago errez.

Ondoren, *Zeruko Argia*-k esku-idatziaren bostgarrena ez baitakar, emendik aurrera lumeroetan biak batera dijoaz.

6/5: egi triste bat ezta komeni;
6/7: sendaetxeak arkitzen dira; 6/9: pekatu onek ezte ekartzen; 7/1: La-

gun maite bat ikustearren; 7/3: nere denboran eztet artu nik; 7/5: aren esanak gogoan artu; 7/9: lizunkeriak ezte ekartzen; 8/1: Dirua eta beste gauz asko; 8/2: gaur ibiltzea aukeran; 8/6: orain dagon egoeran; 8/7: milla bider ni gogoratzen naiz; 8/10: esan-go dizut nor zeran; 9/1: Lagun txarrekin juntatu eta; 9/2: okertu nintzan zearo; 9/3: guziz apala edo umilla; 10/1: Oso arroa nuen gorputz au; 10/3: ankez elbarri eta besoak; 10/4: inora ezin mugitu; 10/6: belarriz ezin aditu; 10/7: sei illabete paseak dira; 10/8: ni ez naizela zutitu; 10/9: orrax mutilla ezertarako; 10/10: gauza ez-tala gelditu.

Urrena, 11-garrena, *Zeruko Argia*-k ez dakar. Baiña ordainetan beste au eskeintzen du:

Gazte denbora baldin bi aldiz
pasa bear bagenduke,
nik urrengoa beste eratan
ziur jokatu nuke.
Oraindik bete gabea nago
ogeitomezortzi urte
ta irurogei ote dauzkadan
geienak esaten dute,
orra zer sari etorri zaidan
atsegin batzuen truke!

12/1: gazte maiteok, baztertu beti;
12/3: galeraziak dauzka zearo; 12/8: saia izaten obeak.

Ondarrabi ta Pedreña

Bertso berri batzuek
estropadakoak, *(bis)*
Santoñan da Donostin
jokatutakoak.
Nun dira kuadrilla bi
oien neurrikoak?
Txapeldun atereak
Euskalerrikoak,
edo obeto esan:
Ondarrabikoak!

Desapio modura
biak ziran irten *(bis)*
txapeldun aterea
zan Pedreña aurten.
A zer bi estropada
jokatu dituzten!
Ez dira ederragoak
sarritan ikusten,
jo zizkaten txaloak
merezi zituzten.

Lendabizi Santoñan
ziran jokatzeko, *(bis)*
urrengo egunean
Kontxara etortzeko.
Ordua iritxi zan
indarrak neurtzeko,
bietatikan iñor
etzegon galtzeko,
etzuten asko falta
mutillak lertzeko.

Ontziak berdintsuak
gutxi gorabera, *(bis)*
beste bat nai zuanak
bazeukan aukera.
Gauzak esango ditut
pasa diran era,
zer pelea jo zuten
kontuak atera:
sarri iritxi ziran
biak bat-batera.

Ori ez da bentaja
alkarri kentzia, *(bis)*
segundo batena zan
an diferentzia.
Biak azaldu zuten
zeukaten guzia,
ta iritxi zanean
Lujanbion ontzia,
Ondarrabin entzun zan
bere irrintzia.

Urrengo egunean
Donostira etorri, *(bis)*
arpegi ematera
berriro alkarri;
Kontxan ikusi zana
ikusten da sarri:
erriogan oituta
itxasoan larri,
au ez ditekkelako
nai dan eran jarri.

Juraduak egin du
irteteko seña, (*bis*)
berebiziko txanpan
asi da Pedreña;
Bedia zarrak zerbait
gaur nai luke baña,
erriorako dauka
kuadrilla bikaña,
itxasoan ez dira
Ondarrabi aña.

Garai batean ziran
Kiriko ta Karrill, (*bis*)
orain Lujanbio oien
bidetatik dabill.
Gure estropada zarrak
nola demontre ill?
Ondarrabin or daude
apal eta umill
berari laguntzeko
nai ainbeste mutill.

Naiz Pedreña gelditu
pixka bat atzera, (*bis*)
sartu zera euskaldun
danen biotzera.
Jokoan beti dator
norbaitxo galtzera,
ta galtzen dakizuna
gaur azaldu zera,
orregatikan nator
zu zorientzera.

Asarre ta burrukak
dira gauza txarrak, (*bis*)
oiek daude emendik
uxatu bearrak.
Lur ontan maite dira
beti kanpotarrak,
ori ondo badaki
gaur Bedia zarrak,
gora Pedreña eta
Ondarrabitarrak!

Zeruko Argia, 1965-X-17.
Auspoa, 84, 1969.

Tripazaiak

Donostiako txoko batean
juntatu gera sei lagun,
Jaunari esker, a zer nolako
apetitua daukagun!
Zeziñ, odolki, aza berriak,
beste iru lakai babarrun,
geienak janda Joxe Martiñek
ez du askorik ezagun.

Danen ondoren eskatu digu
kafia ta frantzes kopa,
bere buruari gauza txarrrik
beñere ez dio opa.
Berak dionez, oraindik ere
erdi goseak dago-ta,
aztutzearren dantzan asi da
maian gañean igota.

Alde batean iru plakoak,
bestetikan iru lorik,
jan-kontu ortan ez dago noski
igarrak bezelakorik.
Joxe Martiñ au txit aparta da,
ez dago orrelakorik,
Jainkoa lagun, etxean artu
olako apopillorik.

Batzuk ez dakit zer apetitu
arraio izaten duten,
Joxe Martiñi gaxotuta ere
ez omen zaiola joaten.
Kontuk atera soldautzan ori
nola asiko zan jaten,
amabost egun pasa baño len
etxera bialdu zuten.

Aiñ arrituta utziak ditu
txoko ontako jendiak,
berak bakarrik janak baititu
ateratako erdiak.
Tripa aundirik ez dauka baño
nunbait or ditu gordiak,
zer komeriak izango ditun
ori artzen dun andriak!

Geroztik berak artu omen zun
jale gogorraren fama,
naiz lenagotik arruinatuta
eduki aita ta ama.
Berak dionez, gazte denbora
gose batean darama,
amaika zerrak artuko luke
orretxek daukan entrama.

Ortzak ederrak dauzkala esanda
ez det esango gezurrik,
iñor ez dago orrek bezela
garbitzen dunik ezurrik.
Besterik ez ta pasatzen bada
jornalarekin bakarrik,
berak ez dauka estomagua
perforatzeko beldurrik.

A zer laguna ekarri degun
gurekin ostaturaño!
Jaten zuala aitzera banun,
bañan ez ainbesteraño.
Eltze aundi bat babarrun janik
txit betea puntaraño,
lau txerri azten errezago da
tripa ori betetzen baño.

*Zeruko Argia, 1965-XII-5.
Auspoa, 84, 1969.*

Polipaso ta Errekalderen jokua

Irurogei ta bost urte dira
gure ogeigarren gizaldin,
joko ederra ikusi degu
Abenduaren amabin:
Polipaso ta Errekalde gaur
etorriak ditugu fin,
zarra gelditu zaigu nagusi
naiz biak iñalak egin.

Errekalderi tokatu zaio
lenengo tronko erreza,
ia aitaren egin orduko
eginda zegon bi pieza.
Eun berrogeiri korredoriak
kantatzen dute trabesa,
orduan gutxik pentsatzen zuten
gero izango zan sorpresa.

Lengo neguan zala badakit
joko au egin zanian,
geroztik beste gauzarik ezta
entzun probintzi danielan:
«Bi gizon auek pasatu dute
urte guzia janian,
ai zer ezpalak saltako diran
oiek astian lanian!».

Lendabiziko tronkoan dute
iru minutun aldia,
«Emen ez dago zer egiñikan!»
asi da esaten jendia.
Polipasoren pentsamentuak
askok ez jakin ordia:
egur zalletan enpleatzeko
dauka indarra gordia.

Launa kanako ebakitzia
ez pensa danik jolasa,
onenari ere bukatzerako
berotzen zaio arnasa.
Erakusle bat eramatia
erabaki zuten plaza,
Errekaldekin Agiñeta zan,
Polipasokin Latasa.

Gaur Polipaso etorria da
ill edo bizi lanera,
da oso ederki erantzuten du
Latasaren esanera;
azaldu nairik bezela bera
txapeldun dala zartzera,
tinpiti-tanpa ez da gelditzen
makina baten antzera.

Urrutitikan begiratuta
iruritutzen zait neri
bigarrenian egurra itxi
zaiola Errekalderi.
Ez dira ari korredoriak
lengo moduan kantari,
da Polipaso errez aurrera
ote dijuan diruri.

Iru minutu atzetik zana
iru aurretik bukatu,
aukera ederra jarri diote
nai duanari jokatu.
Zarra jo ta jo ez da gelditzen,
gaztea berriz nekatu,
tronko batian orra ederki
gauza guziak mudatu.

Kanako egurrak ez dira mozten
kana erdikuen gisan,
da Errekalde eskuetatik
txit ondatuta jarri zan.
Egia esan, Isidro, ez dezu
suerte aundirikan izan,
bañan geiago egingo zendun
asmoarekin joan nitzan.

Zuk, Errekalde, egur txarren bat
emen izandu bazendun,
nik ondo dakit, penik aundiña
zerorrek artuko zendun.
Egia esan, zurekin nago
oraindik ere fededun,
da espero det zu ikustia
aurten Donostiñ txapeldun.

Ai, Polipaso, mundu guzia
emana dago tankera,
ardo zarraren gisa obia
zergatik zauden zartzera;
buelta bat egin bearra nago
Aldanondoren etxera,
zure moduko txuleta batzuk
al dan guzian jatera.

Animo, Mikel, jarraitu zazu
oraingo bide orretan,
gatza ta indarra sobra daukazu
gerri ta atzaparretan.
Mundu guziai zuk erakutsi
nola berrogei urtetan
aizkolarien txapela ez dagon
oraindik esku txarretan.

Bertso-papera. *Gráficas IZARRA - San Sebastián*, Matxainen eskutik jaso.
Izenburuak: *Bertso berriyak Matxain eta Lexotik jarriyak*. Bertso aukeratuak, oker
ez banago, Oiartzungo Lexoti bertsolariak saldu zituen, eta ortarako beraren
izena izenburuan jartzea.

Zeruko Argia, 1966-V-22.

Auspoa, 84. 1969.

Amaikagarren bertsoan aitatzen dan *Aldanondoren etxe* ori, Donostiako os-
tatu bat da.

Aita Salvatore Mitxelena zanari

Ordu pare bat pasatua naiz
ia sinistu ezinda,
urrutitikan etorri zaigun
berri triste bat jakinda.
Mundu ontako uskeriaren
berri ederki zekin da,
azken orduak arrapatu du
lana galanki eginda.

Salvatore nik ezagutu nun
Donostiako Aieten,
aste oso bat igaro baizun
mixio-lanak egiten.
Bere esanak ai zenbat aldiz
gogoratutzen zaizkiten!
Galtzen dan arte ezta gauz askok
zer balio dun jakiten.

Bertso batzutan ezin azaldu
erri oso baten pena,
ain bearrezko baigendun emen
Salvatore Mitxelena.
Bere erritik urruti xamar
iritxi arren azkena,
Euskalerrriak eztu aztuko
beñere bere izena.

Bere laguna izandu nintzan,
orgullu det aitortzea,
ez naiz arritzen gure errian
beragatik oroitzea.
Zuk ezañetan beti kantua
ta eskutan gurutzea,
barrenen berriz asmo bakar bat:
animak zeruratzea.

Illabete bat atera zala
gaxo zegoen susmurra,
ori ez izan iñoiz bezela
kontua edo gezurra.
Ainbeste bertso ta kanta eder
jarri zun biotz xamurra,
ardiak zaitzen zegon tokitik
egin du azken agurra.

Kantuan bidez anima asko
zeruratuak dituzu,
ta gaur aiekin bat egiñikan
atsegiñean zaude zu.
Zuk jarritako abesti goxo,
zorioneko *Arantzazu*,
euskaldunikan bizi dan arte
zerutik entzungo dezu.

Amaika aldiz entzun nizun nik
mundu ontako uskerik
baztertu gabe etzegoela
zerua irabazterik.
Zuk parr-irriaz zure bizia
eskeñi dezu gazterik,
era ortara eztira iltzen
santu diranak besterik.

Nere lagunen kanpai negarrak
gaur entzun ditut ederki,
ta urrengoak zeñentzat diran
Jainkoak bakarrik daki.
Neretzat ere jotzeko ordua
nola eztagon urruti,
egun aretan, Jesus maitea,
izazu nitzaz erruki!

«Zorioneko –esaten zendun–
Baltategiko artzaia!
Zorioneko mutiko arek
bein entzun zuen kanpaia!».
Zorioneko esaten det nik
gaur Mitxelena anaia,
ain maite zendun Ama ikusteko
etorri zaizu garaia!

Beltzez jantzita dago Aizkorri,
ixill Urbiako gaña,
ezta entzuten urretxindorren
lengo abesti bikaña.
Gerta diteke beste batzuek
inguratutzea baña,
zeñek alaitu zuen gallurrak
mututu dan orrek aña?

*Zeruko Argia, 1966-I-23.
Auspoa, 84. 1969.*

Xenpelar zanari

Milla zortzireun da ogeitamabost
oso urte señaia,
mundu ontara sortu zitzaigun
Xenpelar bertsolaria,
gizon umilla, umillik bazan,
da oso pake-zalia;
gaurko munduko agintariak
orrelakoak balia,
ez litzake emen sortuko sortzen
diran ainbeste pelia.

Ene, Xenpelar, zure bertsoak
ederki dauzkat jasoak,
amaika aldiz kantatzen ditu
nere amatxo gaxoak;
biotza alai jartzen dituzte,
dira xamur da goxoak,
memoriz ondo ikasi zitun
gure Euskalerrri osoak,
zori txarrean gaur gutxi daude
zure moduko maixoak.

Eskola gutxi izanagatik
buruz zan oso argia,
kristau jatorra zan aldetikan
izketan oso garbia;
bere izenean jarri da aurren
bertsolarien saria,
goratu nairik bear bezela
Errenteriko semia;
zorion sutsuk bialtzen ditut,
gure Euskal Akademia.

Amar urtekin aterea zan
morroi etxetik kanpora,
eguneroko ogien truke
ganadu-kontun sorora;
bertso ederrak ipiñi zitun
zai egon gabe gerora,
gure Jainkoak oparo zion
orretarako denbora,
ogeitamalau urte zitula
igo zun bere ondora.

Mutiko arek igarri zion
munduko martxari azkar:
ondoren txarra dator gizona
maitatzen ez bada alkar;
geroztik gerrak ekarri digu
milla naigabe ta negar,
ainbeste urte pasa ta gero
derrigor aitortu bear
jakintsu aundia izandu zala
Errenteriko Xenpelar.

Denbora gutxin ark ikasi zun
mundu onetako berri,
bestela ez leike orren gazterik
olako bertsorik jarri;
gerraren kontra pakien alde
kantatutzen zuan sarri,
pake santua nai zualako
Euskalerrira ekarri,
zenbat naigabe eman zizkion
gauza onek Xenpelarri!

Ene, Xenpelar, ia eun urte
zu il da pasa ondoren,
aitortzen degu bazekizula
guregana zer zetorren;
gizona ez bada alkar maitatzen
gera sortzen zaigu emen,
da gauza onek erakusten du
nere ustetan nabarmen
gaurko kristauak ez daukagula
bear dan ainbat sinismen.

Europan eta Afrikan berdin,
gizona dagon tokian,
ikusten degu nola dabilen
beti gorroto bizian;
nun-da gizonak Kriston legera
laixter etortzen eztian,
alper-alperrik asiko gera
justiziaren eskian,
era ontara jarraituko da
geren denbora guztian.

Gizon arruak bera añakorik
danik sinistu ezin du,
danak mendean nai ditu artu,
berak bakarrik agindu;
arrazoiakin bazoaz ere
olakoakin berdin du,
bere legea indarra da ta
mugitzen dana astindu;
Jesus maitea, lagun zaiguzu,
gureak ia egin du!

Erroman dago danon Artzaia,
aditzen degunez, triste,
Asia aldiari ikusirik
gaur iltzen ainbeste gazte;
Nazioaren Etxera joan da
umill pakearen eske;
gizonak alkar maitatu ezker
berak nai digun ainbeste,
mundu guztian paradiso bat
eginda bizi gindezke.

Gaur arrazoiak bide bat dauka,
ori uste det beintzat nik,
ortik aurrera ez da izango
lurrean iñoiz gauza onik:
ez bedi sortu munduan geio
alkar iltzeko makinik,
geiago ez jarri emen agintzen
gera maitatzen duanik,
naiko negarra ekarri zuten
Hitler eta Mussolinik.

Erri aundiak, etzazutela
gaur indarra jarri lege,
arrazoiakin gobernatzia
danontzat dalako obe;
zuen justizi leialarekin
guk izan dezagun fede,
ez utzi, arren, Aita Santuen
deiari erantzun gabe,
aurrera ez dediñ munduan izan
gaur arte ainbat naigabe.

Matxainen esku-idazki batetik.
Zeruko Argia, 1966-II-6.
Auspoa, 84. 1969.

Auster-egun bat

Auster-eguna nola zan atzo
beste urtetako gisan,
zazpiretako meza entzun nun
gure auzoko elizan.
Aitona xar bat nere ondoan
naiko lanekin jarri zan,
ardik irtenda ordu erdi bat
berakin egondu nitzan.

Berak dionez, gazte denboran
omen zan oso arrua,
mendekoari burla egiteko
izaten zuen gogua.
Bere erruak ezagututa
gaur makurtzen du burua,
gizona zenbat umillago dan
ordun da aundiagua!

Laguntza-eske bezela etorri
zitzaidan nere ondora,
biok elduta atera giñan
elizatikan kanpora.
Negua da ta presko xamarra
egonagatik denbora,
bere esanak entzuten antxe
egondu nintzan gustora.

Gazte denbora igaroa da
bere ustetan dotore,
berak etxean ezpaizun falta
nai zuenetik ezere.
Txanpan-botilla beti gañezka,
nai ezik jatena ere,
morroiak berriz trago bat ardo
etzuten izan beñere.

«Larogei urte beteko ditut
Aita San Josen bezperan,
geientsuenak pasatua naiz
nere animan galeran.
Auster-eguna a zer ederki
jarria billatzen dedan,
gizon guziok gogoratzeko
zeñen gauza gutxi geran!».

Gaur gauza onek sortzen dizkio
kezka aundiak barruan,
naiz damututa benetan egon
Magdalenaren moduan.
Jaunari kontu eman bearra
ia iritxi dan orduan,
gogoratu da bide txarretik
ibili zala orduan.

Berandu baña konturatu da
gurutzeko oñaziak
izan zirala munduko gizon
guziongatik pasiak.
Danok aztuta gabiltzalako
Kristoren erakutsiak,
aitonak dio sortzen dirala
emengo oker guziak.

Erriak eta gizon asko gaur
estalita urre gorriz,
ta beste batzuk ogi-koxkor bat
sortu eziñikan berriz,
Lagun urkoa bear bezela
lurrean maiteko balitz,
guk ezkenduke egon bearrik
negarrez ainbeste aldiz.

Eztet esango jakintsu oiek
gaur dabilzanikan oker,
goi alde ortan billatu nairik
Marte, Venus da Jupiter.
Auxe dalako egoten naiz ni
pentsatzen millaka bider,
emen lurrean ez ote dagon
konpontzekorikan ezer.

O, jakintsuok, apalki nator
zuengana ni galdian
aurrerapenak gizonak alkar
iltzeko sortu al dian.
Gerraren otsa berriro ere
daukagu naiko aldian,
zer konpondua badala uste det
oraintxe Viet-Nam aldian.

Nik au esanda atzeratua
askok esango didate,
neri or goiko ibili oiek
etzaizkit gustatzen bate.
Txit ondo dago eskuratzea
Venus, Jupiter da Marte,
baña ez emen ainbeste aurtxo
goseak dauden bitarte.

Lenengo beintzat jarri gaitezen
lurralde oni begira,
aurrerapenak guk eramanaz
premian dauden tokira.
Tripa beteta aurtxo-negarrak
iñoiz ixiltzen badira,
ordun da ordua abiatzeko
emendikan illargira.

Zeruko Argia, 1966-VIII-14.
Auspoa, 84. 1969.

Ondarrabi ta Pasai San Juan

Ogei ta zortzi mutil,
zein baño zein obe, *(bis)*
arraunerako ondo
prestatuak daude.
Bi patroï sonatuak
ontziaren jabe,
txapelan billa datoz
kupirikan gabe:
Lujanbio Ondarrabin,
Pasaian Etxabe.

Estropada Pasaitik
Donostiraño zan, *(bis)*
don Ramon Peironcely-k
eratu zuen gisan.
Ikusi eztunari
nai diot nik esan:
pesta ederragorik
eztiteke izan,
ni beintzat txoratuta
begira egon nitzan.

Agorrak ogei ta bost,
eguzki berua, *(bis)*
iparretik aizea,
garbia zerua.
Itxasoak dirudi
dala erriua,
beti ezta izaten
olako girua,
zerutik entzun dute
gure erregua.

Mutillak ezin egon
arraunak artuta, *(bis)*
lanean asi dira
urean sartuta.
Ontziaren atzetik
zientoka txalupa,
batetikan irrintzi,
bestetikan aupa,
indarrak probatzeko
ordua jo du ta.

Pasaitik irten dira
arraunketa biziñ, *(bis)*
ikusi eztuanak
sinistatu eziñ.
Burua makurtuta
danak beren ontziñ,
jo ta jo or dijoaz
gogor bide guziñ,
ogei ta bost minutun
or ziran Donostiñ!

Ondarrabi sartu da
gaur ere aurrena, *(bis)*
aurten dudarik gabe
bera da onena.
Baña gauza bat da nik
esan nai nukena,
askori ikastea
komeni zaiena:
galtzen jakitea da
gauzik ederrena!


Emengo estropadak
beste batzun ordez (*bis*)
beti egiten dira
garbi eta legez.
Naiz lurrera erori
gure milla amets,
aurretikan egiñak
egunez ta gabez,
San Juanek galtzen daki
ta beste batzuk ez.

Emengo arraunlarik
nun eztira maite, (*bis*)
irabazten da galtzen
erakutsik baite?
Ikasi nai duanik
badago norbait e,
Gipuzkoa aldera
inguratu leike;
erakutsiko zaio
ondo eta merke.

Pesta ederrik emen
iñoiz egin bada, (*bis*)
nere uste apalez
atzoko estropada.
Millaka bildu giñan
Pasaiko barrara,
millaka gaztelura
eta Santa Klara;
ikusi genduana
berdin gabea da.

Nere lagun on batek
esan zidan neri: (*bis*)
«Estropada eder au
urtero egin bedi!».
Begira egon giñan
eun milla begi,
Peironcely-n ametsa
biurtu da egi;
asitako bidetik
luzaroan segi!

Zeruko Argia, 1966-X-23.
Auspoa, 84. 1969.



Manuel Matxain, berak irabazitako sari batzuk aurrean dituala.

Isidoro Fagoaga jaunari

Eskola gutxi izan det beti,
oso motela mingaña,
auxe bai dala gaztetan nuan
alperkerian ordaña!
Orain berriro pixka-pixka bat
saiatu izan naiz baña,
eztet ikasi bertso batzuek
tajuz moldatzeko aña.

Ixilik nola ikusten nuan
alako lagunartian,
euskerak berak entenditzen zun
galdetu nion kolpian.
Erantzun zidan Baztan aldeko
izkuntza goxo batian:
«Euskera etzait neri aztuko
bizirik nagon artian!».

Bi illabete izango dira
izan nuala gustua,
boda batean ezagutzeko
gizon bat jator askua.
Orain idazle argia degu,
len abeslari prestua,
mundu guzia korritu duan
euskaldun egiazkua.

Erri txikia ta euskalduna
da Naparruako Bera,
orgullu aundiz esan dit neri
an jaioa dala bera.
Gaur ikutua izango det nik
Isidoron biotz bera,
negar-malko bat ixuri zaio
beintzat masallean bera.

Berreun lagun izango giñan
bazkaritako orduan,
umore onik etzan paltatu
gure artean orduan.
Nik Isidoro de Fagoaga
eduki nuan onduan,
gizon umillak oraindik ere
topatzen dira munduan.

Gaztea zala bere erritik
irtena zan Fagoaga,
mundu guziko antzokietan
geroztik ezaguna da.
Abeslarien bizimodua,
ez uste arren, zalla da,
ta batez ere iritxitzeko
ori igo zan mallara.

Orain idazle argia degu
len abeslari izana,
Euskalerrian izena toki
askotara eramana.
Diruarekin ezta pagatzen
gaur egiten duan lana,
mundu guzian irakurtzen da
berak idazten duana.

Liburua da, iñor bada-ta,
gizonarentzat laguna,
galduak gaude nere ustetan
ori galtzen dan eguna.
Zuri ordaña bialtzea zan
gaur nere eginkizuna,
baña nun daukat zuk idazteko
daukazu erreztasuna?

Bere aurrean konturatu naiz
nere jakinduri motzez,
egia dana gaur aitortzeko
enaiz ni egongo lotsez.
Gizon azkarra eta umilla,
ezta konpormatzen itzez,
berak idatzi dun liburu bat
dedikatu dit biotzez.

Badakizu zuk zer gertatzen dan
orain, Fagoaga, sarri:
len eskolara joan ezkeranok
gaude jakinduriz urri.
Zuri eskerrak eman naiean
orra amar bertso berri,
zuk ere zerbait izan dezazun
beti nere oroigarri.

*Zeruko Argia, 1966-XI-27.
Auspoa, 84. 1969.*

Florenzia-ko ondamena

Kontu trixteak datoz
belarri-ertzera,
orregatikan nua
bertsuak jartzera.
Florenzia guzia,
paper baten era,
urak txikitua du
gabetik goizera.

Lur-ikara izandu
balitz bezelaxe,
gaur lurrean or daude
dozenaka etxe.
Ipurdiz gora jira
arbol eta kotxe,
zuten dana galduak
asko dira ortxe.

Beltzez jantzia dago
Italia dana,
negargarria baita
or gertatu dana.
Ain erri atsegiña
ta polita zana,
lengo moduan jartzen
badaukate lana!

Orra erri ederra
bizi zana parrez,
gabetikan goizera
ipiñi negarrez.
Garbi ikusten degu
danok, zoritxarrez,
bere penak arintzen
eztagola errez.

Uralde izugarri bat
biurri da jetxi,
ta guk ezin iñola
aterikan itxi.
Gaur lurrean eztago
aurrerapen gutxi,
baña gizona ezta
ortaraño iritxi.

Gure anaiak dira,
eztitzagun aztu,
beurak gure laguntza
bear dute prestu.
Ikusirik daudela
larri eta estu,
laguntzen eztionak
biotzikan eztu.

Eun da geiago illak
ta milla eritu
uralde gogor orrek
bertan utzi ditu.
Naiz gure ondasunak
pixka bat urritu,
zerbait lagundu gabe
ez iñor gelditu.

Ikasbide txarrikan
ez iñori eman,
alkar maitatuz ere
badago naiko lan.
Aurtengo loteria
tokatu zaie an,
nork daki urrengoa
geronentzako dan!

Itzak legunak eta
biotza sekoa,
ori ezta gizonak
dun egitekoa.
Goxo itzegiñakin
ezpaita naikoa,
lurretik altxatzeko
eroritakoa.

Eztet nik bukatu nai
neronen lanikan,
egi bat esan gabe
orain emendikan:
egiten ezpadegu
karidaderikan,
ez pentsatu zerura
juango geranikan.

*Zeruko Argia, 1967-I-8.
Auspoo, 84. 1969.*

Erromako bixitari

Borondaterik onenarekin
jartzera nua bertsoak,
adierazteko lengo astean
gertatu diran kasoak.
Geiago emen ez izateko
odolezko erasoak,
Erroma aldera etorri dira
agintari errusoak,
pakean alde eman naiean
bertan lenengo pausoak.

Pauso luzeak eman ditugu
orain aurrerapenetan,
ta batez ere gizonak alkar
azkar iltzeko gauzetan.
Gure barruan pentsamentu bat,
beste aldera izketan,
lagun urkoa guk aintzakotzat
eztegu artzen ezertan,
gizaldi ontan au gertatzea
lotsagarria benetan!

Katolikoak ta ez tiranak
beti gabiltza muturka,
orregatikan sortzen zaizkigu
emen ainbeste burruka.
Aita Santuak zer gertatzen dan
ederki ikusten du-ta,
ixildu gabe Erromatikan
ari zaigu erreguka,
beti besteri ez botatzeko
gure pekatuen kulpa.

Arrokeriak utzi ditzagun,
zuriak eta gorriak,
pake santuan bizi gaitezen
mundu ontako erriak.
Pozgarri dira Erromatikan
zabaldu diran berriak;
errusitarrak baldin badaude
gerraren aurka jarriak,
biotz-biotzez opa dizkiet
nere ongi etorriak!

Zeruko Argia, 1967-II-26.
Auspoa, 84. 1969.



Manuel Matxain, Mamo Wolde korrikalariarekin,
Lasarteko *kros*-egun batean.

Lasarteko laisterketa

Mamo Wolde-ri

Arriturikan egondu gera
zu korrika ikusita,
pama aundiak dauzkatzu baña
danak ondo merezita.
Iru alditan egin dituzu
Donostiraño bixita,
prantzes ta ingles, belga ta ruso
danak atzean utzita,
Euskalerritik joaten zera zu
beti txapela jantzita.

Gure erria maite dezula
ortantxe seguru gaude,
orregatikan lur maite ontan
ain ixtimatua zaude.
Jantzi dituzun txapel oietan
euskaldun biotzak daude;
ta erregu bat egiten dizut
orain zuri, Mamo Wolde:
zure etxera eramatean
kutxa urrezkoan gorde.

Mutil bizkorrak izaten dira
Beljikan eta Prantzian,
zer esanikan eztago berriz
Inglaterra ta Russian.
Ederki asko ikusi degu
guk Lasarten gaur goizian,
bedi berdiña edo aldapa,
motxean edo luzian,
kontrariorik eztaukazula
korrika mundu guzian.

Maiz-i

Mundu ontako berrogeitamar
onen-onenen artetik,
gipuzkoarra aterea da
bigarrena Lasartetik.
Mutil bizkorra eta trebea
jetxi da Aia aldetik,
zer egingo dun eztakit baña
zer egin zuan badakit:
galanki jota bat bakarrikan
etorri zaio aurretik.

Nere ondoko neskatxa batek
besteari ala zion:
«Jose Migel au bezelakorik
mundu guzian etzion!».
Neronek ere egia zala
gustora aitortu nion,
ta nere itzak eztakit orri
animoa eman dion,
berak jo zitun txaloak ondo
entzungo ziran Ernion.

Otsaillaren bostean berriz
Urnieta jo genduan,
Lasarten ezik antxen ere zuk
zerbait azaldu zenduan.
Gipuzkoako txapela orain
zuk jantzi dezu buruan,
urte batzutan dagola uste det
ori leku seguruan,
Españiako txapela ia
jazten dezun urrenguan.

Nere zorion biozkorrenak
Maiz-i eta Aguilar-i,
Gipuzkoaren izena oiek
goraltzen baitute sarri.
Biok lagunak zerate eta
beti lagunduz alkarri,
illan bostean ez utzi artzen
zuek aurrerik iñorri,
bata ezpada bestea beintzat
txapelarekin etorri.

*Zeruko Argia, 1967-II-26.
Auspoa, 84. 1969.*

Morroi baten arrenkurak

Esku batean daukat
luma ta papera,
bestean kartera,
bertso batzuk jartzeko
auxe da aukera!
Orain sei illabete,
gutxi gora-bera,
morroi etorri nintzan
baserri batera,
porru-azi aundirik
eztet nik atera.

Indiano zar bat da
nere nagusia,
oso itxusia,
asko ikusi baña
gutxi ikasia.
Nere moduko plako
ta sudur luzia,
besterik eztu jaten:
patata egosia
eta txerri-janean
datorren guzia.

Orain sei illabete,
esandako gisan,
morroi irten nintzan,
ez jakin izan banu
nagusia nor zan.
Eztakienik bada
orain jakin dezan,
nere pasadizoak
nai nituzke esan,
suerte aundirik ezta
neretzako izan.

Goizeko bostetako
asiko da *kin-kan*
ori sega-pikan,
morroia lo badago
esnatzegatikan.
Ogei urte egiña
degu Amerikan,
naiz diru askorekin
etorri andikan.
itxura danez ezta
konporme oraindikan.

Bostetan segara jun,
nola naizen piña
egiñ alegiña;
gero gosaitarako
bakallu gordiña.
Ori eztagonean
pare bat sardiña,
edateko pitarra
biñagre egiña,
ondorenean berriz
tripetako miña.

Beti sardin zarra ta
bakallua jaten,
este danak eten;
tripetako miñikan
etzait neri joaten.
Jai aundietan berriz
iru aza-txorten,
gure etxean ezta
besterik izaten;
ia amabi kilo
galdu ditut aurtan.

Inpernuak badaude
suak eta garrak,
indiano zarrak
ikusi bear ditu
an komeri txarrak.
Pillatuta dauzkatzun
urre ta zillarrak,
laister dituzu emen
zuk utzi bearrak,
ta gorputz ustelkorra
jango dizu arrak.

Oso gaizki dagola
berriro det jakin
pulmoniarekin;
laister a zer burrukak
demoniñuekin!
Gaitzak ematen dion
bero gogorrakin,
ametsetan ari da
beti diruakin;
danak emen utzita
il da Joxe Joakin!

Bukatu dira Joxe
Joakinen ametsak
eta interesak;
orain izango dira
danak besterentzat.
Bakallu ta sardiña
zituan neretzat,
orain diru guziak
bere illobentzat;
Jaunak izan dezala
erruki beretzat!

Nagusi ta morroiak
zertan oinbeste lan
beti emen da an?
Ez al dakizu laister
zer etorriko dan?
Modua dan guzian
perietara juan,
ardo zarrak edan da
txuleta onak jan;
dirua alperrik da
gu sartzean kajan!

Zeruko Argia, 1967-III-26.

Auspoa, 84. 1969.

Errerako festak

Poztu gaitezen, zar eta gazte,
poztu, mutill eta neskek,
egun batzutan zokoratuta
utzi lanak eta kezkak;
zerura bota etxefuegoak,
eman kanpaiari bueltak,
pakean danok igarotzeko
gure zaindarien festak!

Larogei aiton izango ziran
bilduak gutxieneko,
aukera ederra izandu zuten
nai zan guzia jateko:
salda ta arrautz, aragi ona,
ardo zarra erateko...
Batzuek bapo ipiñi ziran
kontu zarrak esateko.

Zuek deituta lengo urtian
etorri nitzan onera,
etzait aztuko txoko onetan
egin zidaten arrera;
guraso batek bere bi seme
maite dituan antzera,
era ortara maite ditut nik
Aiete eta Errera.

Aitona batek auxe da neri
orduian esandakoa:
«Amaiketako ederra izan da
gaur guri emandakoa;
festa ederra, ederrik bada,
izandu degu gaurkoa,
gure Jainkoak ez dezala nai
izatea azkenekoa!».

Txoko onetan ikusia nik
geroztik daukat goguan,
ori bai dala jokaturtea
Jaunak nai duan moduan.
Eliz-gizon ta agintariak
aitona zarren onduran,
era ortako anaitasunik
gaur gutxi dago munduan.

Gaur alkatea Urdangarin da,
nik eztizut esaten *Don*,
dakitelako itz orrek zuri
eztizula egiten on.
Errera ezta gaurko moduan
beñere batuta egon,
ikusten danez, esku on baten
premia bertan bazegon.

Gaur ez lirake, jaunak, sortuko
sortzen dan ainbat gerrate,
erreratarrak bezela danok
ibilliko bagiñake;
barrio umill da langillea,
gizon jatorra alkate,
txalogaririk gaur iñor bada
txalogarriak zerate.

Apal da umill jarraitu beti,
lagun maiteak, aurrera,
arrokeriak ekartzen baitu
mesede ainbat galera;
aundi ta txiki esku emanda
emen ibiltzen bagera,
danen ixpillu izango degu
orain da beti Errera.

Manuel Matxainen esku-idazki batetik.
Auspoa, 84. 1969.

Uriona zanari

Lanaren mende nabil
korri eta korri,
orregatik ez naiz ni
lenago etorri.
Gaur ipiñi nai dizkat
amar bertso berri,
Bartzelonan il zaigun
euskaldun on orri.

Sasoirik onenean
orain zegoan da,
askok ezin sinistu
il dala esanda.
Jaunak egiten digun
oju bat izan da,
esan nairik bezela:
laister zure txanda.

Mundua onela da
naiz askok ez uste:
egun batean alai
ta bestean triste.
Lengoan alkarrekin
kontatzen lau txiste,
gaur beretzako nator
otoitz baten eske.

Erri oso bat dago
ixilka negarrez,
daukan pena gordetzen
ezpaita ain errez.
Gaur ni bakar-bakarrik
nago irriparrez,
zu zeruan zaudela
egin baitet amets.

Berri bat zabaldu da
alderdi guzita:
Uriona il dala
katea autsita.
Erri bat otoitzean
ari da ixilka,
bere seme onena
ilda ikusita.

Beti bezela aixa
igoaz aldapa,
zeruko atietan
zuk jo dezu: *ta-ta*.
San Pedrok esan zizun
kanpora aterata:
«Pasa, kristau zintzoa
izandu zera-ta».

Amets zoragarri au
egin nun ordutik,
iñola ezin kendu
neronen burutik:
millaka aingeru ta
zu erdian zutik,
sari eder bat artzen
Jaunaren eskutik.

Ametsa bukatuta
berriro lurrian,
orain zer ikusten det
begien aurrian?
Negarrez Muxikan da
negarrez Mungian,
danak pozez txoratzen
egon bearrian.

Or eztago *Fagor*-ik,
or eztago *Kas*-ik,
or ezta asarrea
sortzen duan gauzik.
Jaunarentzat berdiñak
aundi eta txikik,
or ezta pakea ta
zoriona baizik.

Merezi zenduan da
gaur zeruan zaude,
egin zera betiko
zorionen jabe.
Balentin, erregutu
beti gure alde,
ez gaitezen gelditu
zu ikusi gabe.

Zeruko Argia, 1967-VIII-20.

Aldizkari onek onako argibidea auek ematen ditu aurretik:

«Uriona, bizkaitar ziklista trebeak bukatu du bere mundualdia.

Danok dakizute bizikletako erori baten bidez il zaigula.

Manuel Matxain erne egoten da beti, garaian garaiko gaiak erabiltzeko.

Irakurri arretaz ondoren eskeintzen ditugun Aieteko seme jatorraren itz neurtuak».

Auspoa, 84. 1969.

Aieteko berri

Orain berrogei urte gu nola
izaten giñan Aieten,
al dan modurik onenean ni
astera nua esaten.
Aietearrak eliza baten
premi aundia zeukaten,
lagunza askok eskeñi baña
iñork etzuan ematen.

Gure Jainkoak gizon jator bat
ipiñi zion onduan,
bien biotza nolakoa zan
ondo ikusi genduan.
On egitea beste gauzarik
etzegon oien buruan,
orrelakoak gaur oso gutxi
ikusten dira munduan.

Pulamentuzko eskolik etzan,
gure fedea auldua,
euskera berriz aurtxo txikien
ezpañetatik galdua.
Bi gauza auek lur jo baño len,
zorioneko ordua!,
aingerutxo bat etorri zaigu
gure Jaunak bialdua.

Kulturik-eza txarra baitegu
erriak aurreratzeko,
elizakin bat agindu zuten
eskola ere egiteko.
Nola etzeuden fedea eta
izkuntza galtzen uzteko,
apaiz jaun bati deitu zioten
danori erakusteko.

Oso ezagun degu guziok
Villa Emma jauregia,
aingeru ori bertan bizi da
Frantziatik etorria.
Bere izatez frantsesa baña
maite du gure erria,
bere kontura eginda dago
gure eliza berria.

Apaiz gazte au andoaindarra,
Don Zezilio izena,
Agirre berriz apellidua
edo bere abizena.
Konpesorea aparta da ta
eskolan maixu zuzena,
nik ezin neurtu aietearrak
berari zor diotena.

Aiete oso atzera zegon
bera etorri zanean,
badakizute zer izaten dan
eskolarik ezteanean.
Iritxi eta berealaxe
gogor asi zan lanean,
nunbait gorputza ezta nekatzen
gustora dabillenean.

Ikusi gabe egondua naiz
ia ogei bat urtean,
baña banekin nola zegoan
Lekeitioko partean.
Emen bezela, beti lanean
aurtxo txikien artean,
Ea izenez ezagutzen dan
erri atsegin batean.

Ainbat mutiko emen zeudenak
len oso atzeratuak,
berari esker ikusten ditut
gaur guziz aurreratuak.
Lantegi onak artu dituzte:
opizina ta Bankuak;
Don Zeziliori zer zor diogun
ortik atera kontuak.

Aietearrak eztira aztu
berrogei urte buruan,
barrio danak eskeñi dizu
oroigarri bat lenguan.
Bertso batzutan al zan modura
bertan azaldu genduan:
egin zitzaizun omenaldia
ondo merezi zenduan.

Euskaldun jator eta zintzoa
Euskalerrian bat bada,
oraintxen ere ala izango da
oso mudatu ezpada.
Gerra zala ta juañ zitzaigun
Bizkaiako lurretara,
etzait aztuko an ikusita
eman nion besarkada.

Don Zeziliokin, egia esan,
aspaldi zorretan nengon,
gizona berriz era ortara
eztiteke ondo egon.
Len aurrez aurre bertso batzuek
emen kantatu nizekion,
orain paperez bialtzen dizkat
berriro milla zorion.

Zeruko Argia, 1967-XI-5.

*3/6 lerroa onela du Zeruko Argia-k: maite du bertan bizi da. Matxain za-
nak berak zuzendu zuan ori, maite du gure erria bear duala esanez.*

Auspoa, 84, 1969.

Txe Gebara

Aita Llano, zuk artikulu bat
idatzi dezu lenguan,
Zeruko Argia-n etorri da ta
pozik irakurri nuan.
Txe Gebara-ren berri egoki
bertan ematen zenduan,
esanaz berak zer ikasbide
guziontzat eman duan.

Kristo mundura etorri zala
badira bi milla urte,
beñere baño okerrago gaur
gaudela esango nuke.
Langille askok irabazia
beren izerdien truke,
beste batzuek litxarkerian
geiena gastatzen dute.

Lenengo aitak Jaunaren aurka
altxa ziran egunetik,
agindu zuan danok ogia
jango gendula lanetik.
Orretarako ipiñi zuan
aukera ederra danetik,
Asan da Eba Paradisoan
jarri zituan unetik.

Batzuek beti ler egiten da
beste batzuk guri-guri,
mundu eder au aberatsentzat
egiña dala dirudi.
Injustizien aurka norbaitek
ematen badu arpegi,
komunistaren izenarekin
bataiatzen dute ori.

Eguneroko ogian truke
ipiñi bazuan lana,
orain arte nik ondo bete det
berak agindu zuana.
Aurrera ere saiatuko naiz
egiten bere esana,
naiz ta gaizkien ikusi beti
geien egiten duana.

Anaitasuna nola ari dan
mundu onetan urritzen,
Aita Santua apuratzea
ez naiz batere arritzen.
Batzuk igeri geiegian da
besteak goseak iltzen,
Jesukristoren dotriñak eztu
orrelakorik agintzen.

Ordua da ta beldurrik gabe
egia esan bear du,
kristautasuna geronen kulpaz
ez ote dan asko galdu?
Rusian ere komunismorik
etzan oraindik azaldu,
gizonak ditun eskubideak
ezpazituzten zapaldu.

Utzi zituan bere guraso,
diruak eta karrera,
beartsuaren eskubideak
atera nairik aurrera.
Lagun txar batek galdua baitu
Judasek Kriston antzera,
amabi tiro artu ta gero
or sartu dute lurpera.

Nagusi batek bere txakurra
erdi goseak badauka,
tripa pixka bat bete artean
gogor egiten du zaunka.
Janaren partez makil batekin
ematen badio *kanka*,
erruki det nik berak lenengo
arrapatzen duan anka.

Batzuek ori oso gustora
etzuten ikusten baña,
lagun urkoa nork maite zuan
arek maite zuan aña?
Bere eriotzak utzia digu
gaur ikasbide bikaña,
zoritxarrean au da munduak
ematen duan ordaña.

Txakurren gisa gizona ere
makillaz ibiltzen bada,
seguru egon joko duala
berak nora edo ara.
Pertsona eztago ixiltzerikan
animalien erara,
orretxen aurka altxa ta il da
Amerikan *Txe Gebara*.

Komodidade danak utzita,
ortxe mendi tontorrean
ibili zera urte batzutan
oso modu gogorrean.
Lagun urkoa maitatzea da
gauzik onena lurrean,
azken orduan lasai jartzeko
Jaungoikoaren aurrean.

Zeruko Argia, 1967-XII-24.

Au mundua!

(Nagusia ta morroia)

Nagusiak:

–Au da mundua! Zazpiak jo ta oraindik zaude oiean, aldameneko Martin ari da bi ordu ontan laiean. Gelditu gabe ikusten det nik astean eta jaiean, orretxegatik zugana nator zedozer esan naiean.

Morroiak:

–Aukera ederra daukazu, jauna, oraintxe itzegiteko. zu agintzeko jaioa zera, ni berriz obeditzeko. Baña ordua dala uste det emen danak jakiteko: sei egun dira lanerako ta beste bat jai egiteko.

Nagusiak:

–Barkatu zazu, morroi maitea, gaur artu badizut kargu, nik pentsatzen det naikoa dala lotarako zazpi ordu; basarritarrak udaran gogor beti saiatu bear du, bere ganbaran negu gorrian zerbait eduki nai badu.

Morroiak:

–Zortzi orduan lan egiteko lege bat jarria bada, ta nagusiak jartzen diote berari amaika traba. Negu gorrian txit onak dira arto, babarrun da baba, baña gizona deskantsatzeko Jaunak jarri zuan gaba.

Nagusiak:

–Zuk lo eginda zeñek jorratu babarrun eta artuak? Erdi negarrez begira egon naiz: danak belarrak artuak. Zortzi ordu ta *sábado inglés* ta orrelako kontuak onera ekarri nai dizkigute granuja purrukatuak.

Morroiak:

–Zuk nai zenduke ni ibiltzea beti batetik bestera, egun guzian gelditu gabe makina baten antzera; atzo sorotik amarrak jota etorri nitzan etxera, ukullun dauden zortzi bei eta lau txekor gobernatzera.

Nagusiak:

–Atzo amarrak jota etorri
ta zuk zortzi beiak jetzi,
baña goizeko zazpiak ere
zuri oiean iritxi;
soroan dauden artuak eziñ
guk belar artean utzi,
gero neguan izango degu
bestela jateko gutxi.

Morroiak:

–Ondo dakizu, oraindik ere
udaran erdian gaude,
ta daganeko negu beltzaren
beldurrak jarria zaude;
egiñ zaitea arta-jorrako
makina on baten jabe,
gaur basarrian eztago ezer
aurrerapenikan gabe.

Nagusiak:

–Kaltetarako ez ote dira
guretzat aurrerapenak?
Gaur asko dira zuk bezelaxe
oker pentsatzen dutenak;
makina oiek austen dituzte
landare eta aienak,
oraindik ere atxurrak dira
erremintarik onenak.

Morroiak

–Esan dituzu, nagusi jauna,
zuk astakeri bapoak,
lanaren mende egongo dira
beti zu bezelakoak;
ez badituzu gaur ondo artzen
morroiak esandakoak,
belar tartean galduko dira
babarrun eta artoak.

Bertsolariak:

–Ejenplo gisa pasadizo au
bertsolariak jartzen du,
emen bakoitzak bere aldera
beti gogor tiratzen du.
Milloika gizon dauden tokian
okerrak nola zuzendu,
bi alkarrekin etxe batean
ezin badira konpondu?

Era ontako gauzak ez dira
zoritxarrez gaur asiak,
beti asarre ikusten ditut
morroi eta nagusiak;
aurrera ere izango dira
emen eziñ ikusiak,
alkar maitatzen ikasi arte
munduko gizon guziak.

Zeruko Argia, 1969-IV-6.

Auspoa, 84. 1969.

Bertso auk ez datoz beti bat *Zeruko Argia*-n eta *Auspoa*-n. Ontarako ikutu batzuk egingo zituan Matxainek berak. Bertsoak oni kopiatzen dizkiogu, beraz; baiña *Zeruko Argia*-k aldaketa auk ditu: 3/7: negu guzian bere ganbaran; 4/7: baña Jainkoak deskantsatzeko; 4/8: emen jarri zuan gaba; 6/1: Zuk nai zenduke gelditu gabe; 6/2: batetik eta bestera; 6/3: egun guzian ibiltzea ni; 7/2: gañera zortzi bei jetzi; 7/5: soroan dagon kosetxik ezin; 7/6: gentzake guk galtzen utzi; 8/3: dagonerako negu gorrian; 8/4: beldurrez jarria zaude; 8/7: gaur baserrian ezer ez dago; 9/2: etorri aurrerapenak?; 9/3: Zu bezelaxe asko dira gaur; 9/7: atxurrak dira oraindik ere; 10/1: Nagusi jauna, esan dituzu; 10/5: Ezpadituzu gaur ontzat artzen; 10/7: belar artean galduko dira; 11/1: Bertsolariak pasadizo au; 11/2: ejenplo gisa jartzen du; 11/7: etxe batean gaur bi bakarrik.

Joxe Migel Maiz-i

Ogei ta zortzi ditu Ilbeltzak,
aztuko eztan eguna,
goi mallaraño igoa dezu
gure erri euskalduna.
Zure izena mundu guzian
izan arren ezaguna,
ikusi gabe nola sinistu
Lasarten egin dezuna?

Lengo urtean bigarren ziñan,
ta aurten berriz aurrena,
nai izan arren iñola ezin
geiago egin urrena.
Orrentxengatik bialtzen dizut,
al nezaken azkarrena,
bolari eta tokalarien
zorion biozkorrena.

Cisneros jaunari

Inguratua atera ziñan
zu kontrario gogorrez,
ta badakit nik aurrean jartzen
etzala izango errez.
Gorputz txikia eduki arren
sobrante zaude indarrez,
munduko onenak or ziran baña
zu añakorik iñor ez.

Zure mutilla aparta dala
nai zenduke adierazi,
fama pixka bat kendu naiean
zuk Joxe Migel Maiz-i.
Zu irabazten oitua zaude,
galtzen eztezu ikasi,
onena zein dan ez al genduan
Lasarten ondo ikusi?

Txingurriaren gisa ugari
bertan emanaz pausoak,
atzean laister utzi ziñuzen
inglesak eta rusoak.
Arraira iritxi ziñanean zu
gora altxata besoak,
zer ziran, jaunak, ango irrintzi
besarkada ta musoak?

La Voz de España, 1968-II-3.
Auspoa, 84. 1969.

Uztapideri omenaldia

Uztapide bertsolarien txapeldunari, Ilbeltzaren 21-an eta Astoria antzokian egin zitzaion omenaldia ezta beingoan aaztutzekoa. Euskalerrri guzietatik jendea erruz, txaloak, oroigarriak, malkoak... Gizarajoak malkotan eziñean bukatu zuan bere azken bertsoa, eskerrak ematera altxa zanean. Estukuntza galanta eman zion bere biotzari. Irakurri bere bertsoa:

Badakizute justu-justuan
dadukatela bizia,
bestela pozik egingo nuke
al nezakian guztia.
Nere biotza gaurko egunian
dezute irabazia,
zor au ordaindu arte, Jainkoa,
eman zaidazu bizia.

Aitona deitzen asi zaio jendea, biziro zaarra ez bada ere; 58 urte besterik ez. Gaixorik dabilkigu, ordea, aspaldi ontan biotzetik, eta zaar itxura artu, nunbait. Bere bizitzan bertso eder, gozo, bizkor eta atsegingarririk asko kantatu digu. Txapeldun ere badegu joan daneko bost urte auetan. Eta ondo merezia zun omenaldi bat. Egin ere ederrena egin dio Euskalerrri osoak. Alde guztietan baita maitatua. Izan ere, bertsolari bezela oso ona badegu, gizatasunez eta jatortasunez askozaz ere maitagarriagoa degu.

Omenaldian gaiak eta puntuak ematen Basarri jauna izan gendun. Asieran, bere itz gozo, naro eta biotzekoakin bero-bero egin zitun entzuleak. Ondoren, Euskalerrriko bertsolaririk onenak (Xalbador, Lopategi, Azpillaga, Arozamena, Lasarte, Lazkao-txiki, Mitxelena, Agirre eta Lizaso) euren barruko bertsorik xamur, eder, unkigarrienak jaulki zituzten. Lenengo, Uztapide eta jendeari agur egiñaz; gero, gaiak jarrita; puntuak emanda...

Bukaeran, Basarrik eta Matxainek ere abestu zuten. Ona emen Matxainen bertso eder mamitsua:

Garai batean gure izkuntza
ia etorri zan iltzera;
baiña Jainkoak bertsolariak
bialdu zitun piztera.
Ixildu gabe beti kantari
erri batetik bestera;
esan diteke gaur oiengandik
bizi zaigula euskera

Guk ere, *Goiz-Argi* onen bitartez, zorionak eman nai dizkiogu biotz-biotzez Xalbadorrek abestu zion bertsoa aitatzuz:

Ai, Uztapide, zu bezalako
behar litzake mundua;
bertsolaritzan iaio bazera,
gizon gixan aingerua;
zu bezalako izan naihian
dago zure ingurua,
zure aurrean denok makurtu
behar genduke burua.

Uztapide laguna, Jaunak urte askotan gorde zaitzala gure artean euskeraren eta bertsolaritzaren goralmenerako.

Antzi
Goiz-Argi, 1968-III.

Urtain

Bertso berri batzuek
nai ditut ipiñi,
ta nere bi laguni
biotzez eskeñi
Zeruko Argia-tik,
esango det zeñi:
Joxe Lizarazu ta
Manuel Urtaiñi.

Anastasio-n bodegan
lengo astelenez
bapo ibilli giñan
antxumea janez.
Denbora joan zitzaigun
kontuak esanez,
ta geren iritziak
alkarri emanez.

Kontratista azkarra
iñor bada Joxe,
onezkero egin ditu
iru milla etxe.
Apizio berria
artu du oraintxe,
Kojuaneko Justo (1)
jauna bezelaxe.

Batzutan ezta errez
ixilik egoten,
ta alako batean
galdetu nioten
mundu guzia nola
ari dan esaten,
bien artean ia
zer tratu daukaten.

Urtain berriz altxea
eun milla arri,
orain bozeadore
nai digute jarri.
Laguntzalle jator bat
irten zaio orri,
laister emango det nik
guziaren berri.

Entzutekoa noski
Joxen arrazoia:
mantendu ta jornala,
otelean oia.
Batek dirua jarri,
besteak sasoia,
nagusia añean
badago morroia.

Tratua egin zuten
ta lanean ekin,
entrenatzen or dabill
zuri ta beltzakin.
Nora iritxiko dan
Jaungoikoak jakin,
ezta ezer galduko
prueba egiñakin.

Urtaindar oiek dira
odol berokoak,
pruebak emanak daude
beren aurrekoak.
Ordua orain da ta
gero gerokoak,
Manuel, zintzo egin
agindutakoak.

Euskaljerri guzia
daukazu peskizan,
danak jakin baitute
orain zer zabiltzan.
Uzkudun goi-mallara
oso iritxi zan,
zu're igoko zera,
ez dudarik izan!

Gerri eta petxuak
dituzu apartak,
zer esanik ez berriz
beso eta anakak.
Nola etzaitun galduko
indarraren paltak,
ia austen dituzun
Uzkudunen markak!

*Zeruko Argia, 1968-VI-12..
Auspoa, 84. 1969.*

(1) Uzkudun aurrera atera zuana.

Robert Kennedy-ren eriotza

Oso berri tristeak
datozkit gaur neri,
indarraren ametsa
biurtu da egi.
Len bi tiro emanak
bere anaiari,
orain berdin il dute
Roberto Kennedy;
pamili baterako
ez al da geiegi?

Amerikan odolak
dabiltz oso bero,
berri tristeak beintzat
datoz egunero.
Orain denbora gutxi
il zuten ezkerro
pake-zale aundia
zan Martin Lutero,
ez nuan gauza onik
andik nik espero.

Motiboak badira
egoteko triste,
pake-zale onenak
iru il dituzte.
Alperrik ari gera
justizian eske,
danontzako plomoa
izango da merke,
mundu ontan indarra
nagusi dan arte.

Amaika aldiz entzun
izan det lenago,
mundua dijoala
gero ta okerrago.
Gauza bat ikusten det
emen oso klaro,
ortan eztago dudik,
ziur-ziur nago:
indarraren mende gaur
arrazoia dago.

Gizonak eriotza
badu berezkua,
geuk alkar iltze ori
ezta legezkoa.
Mutil gazte petral bat
da preso artua,
baña mundua dago
gaur konturatua
nor dan oiek armatzen
dituan eskua.

Beñere ez naiz izan
ni gerraren alde,
ortik zer etortzen dan
ikusiak gaude.
Baña beste batzuek
amorratzen daude,
oiek egin nai dute
munduaren jabe,
nola egiten diran
begiratu gabe.

Biotza txit sekoa
ta mingaña legun,
oieri berdin zaie
bat il edo eun.
Ondo gordeta daude,
iñork eztaki nun;
Jesus errukitsua,
egiguzu lagun,
ia oien mendetik
guk irtetzen degun.

Pakea Amerikan,
pakea Frantzian,
pakea Españian,
pakea Rusian,
pakea Aprikan da
pakea Asian,
pakea Israelen,
pakea Persian,
pakea nai degu guk
gaur mundu guzian.

Kennedy-ntzako dira
gaur nere bertsuak,
ta beretzako gaurko
danon errezuak.
Pena ematen digu
bere gurasuak,
aitarik gabe dauden
amaika aurtxuak,
ta batez ere beintzat
emazte gaxuak.

Amar aingerun ama
ta laister amaika,
erradiotik ala
enteratu naiz-ta.
Gizona il dizute
beste batzuk naita;
pazientzia artu
segurua baita
gaur zeruan dagola
aurtxo oien aita.

Zeruko Argia, 1968-VI-23.

Auspoa, 84. 1969.

Meza berri batean

Nere lagun baten semea apaiz egin zan. Aieteko lenengo apaiza ain zuzen. Xabier Martiarena Oreja, bere izena. Aieteko eliz-atarian, meza bukatu ondoren, bertso aukeratu nituan:

Nere barruan daukadan poza
nik ezin nezake esan,
bertso batzuek gaur kantatzeko
Xabierren lenengo mezan.
Gustoragoko lanik neretzat
iñun ezteke izan,
ilko nitzala jakinda ere
pozik etorriko nitzan.

Guraso onak dauden etxean
semerik ez leike galdu,
ta frutu ona orra munduan
nola dezuten zabaldu;
Jesukristoren artalde ortan
zuen semea soldadu,
ejenplo ederra eman dezute
iñork jarraitu nai badu.

Karmengo egunez zure auzuan
zuk meza eman lenengo,
Aietekoak pozez txorutzen
nola ez gera egongo?
Bildur giñan gu apaizik emen
etzala iñoiz izango,
Jaunari esker gaurtik aurrera
ez degu ori esango.

Guraso batek izan lezaken
orgullorikan aundina,
bere semeak ondo ikastea
Jesukristoren dotrina;
neronek berriz egin nezaken
gauzarikan egokina:
biotz-biotzez zoriontzea
Manolo eta Benigna.

Orain egia biurtu zaigu
lenago ametsa zana,
meza berria entzutera gaur
bildu da Aiete dana;
ta ikusirik gaur aldarean
beren semetxo laztana,
erdi negarrez ikusten ditut
bere aita eta ama.

Mundu ontako gauzak, Xabier, zuk
utzi dituzu gazterik,
nik baño geio dakizu eta
eztaukat erakusterik;
emen eztago griña txarra ta
arrokeria besterik,
bide ortatik ez dago berriz
zerua irabazterik.

Orain artean pasatakoak
kontatzen dira ederki,
gaurtik aurrera zer pasako dan
Jesusek bakarrik daki;
mixiotara joaten bazera
Euskalerritik urruti,
zuk gure alde, Xabier maitea,
otoitz egin zazu beti.

* * *

Xabier Martiarena mixioetara zijoan, Japongo lurretara. Ballara guzia bil-
du zan *Idoia* ostatuan afari eder bat egiñaz agurra emateko. Ona emen bertan
kantatutako bertsoak:

Ikusten degu, Xabier,
nola zuregana
onera etorri dan
gaur Aiete dana;
Jaungoikoari zaude
zu itza emana
mixio-lurretara
juango zerana,
bere alde ill arte
egitera lana.

Laister abiatzeko
egunetan zaude,
gaurko arrats eder au
biotzean gorde;
Japon aldean noski
anai asko daude,
ez etxe ta ez jantzi
ta federik gabe,
erregutuko degu
beti zuen alde.

Umilla jaiο ziñan
ta umilla azi,
edozeñek ez dauka
orrenbeste grazi;
arrokeria dago
munduan nagusi,
anaiak ezin gera
gaur alkar ikusi,
ori etzaio berriz
gustatzen Jesusi.

Entzun, Xabier, azkenik
zer esaten detan,
auxe bururatu zait
neri bat-batetan:
arkitzen zeranian
lur-alde aietan,
oroitu zaitte beti
egun da gauetan
uzten dituzun lagun
ta gurasuetan.

Manuel Matxain zanaren
esku-idazki batetik.
Auspoa, 84. 1969.

Jose Artetxe, idazle argiari

Astero-astero *Zeruko Argia*
baltzen didate neri,
eta bertatik esaten dezu
aspaldi amaika egi.
Zuk ardoari ardo deitzen da
ogiari berriz ogi,
idazle batek egin lezaken
gauzik onena da ori.

«Zeñen bertan da zeñen urruti»
zan zure lan baten gaia,
egun artatik, Joxe, baneukan
zurekin itzegin naia.
Zure luma da pake-zalea
ta burrukaren etsaia,
ongi dakizu nundik datorren
oker askoren sustraia.

Zure lan ori gutxienez det
sei aldiz irakurria,
bear zan mallan jartzen zenduan
Toribio Etxeberria.
Bere erritik urruti il da,
ta ez da arrigarria,
zuk bezelaxe baizuan arek
biotza xamurregia.

Gizon langille eta umillik
Euskalerrian bat bazan.
nere ustetan, len esandako
Toribio ori izan zan.
Ain goxo eta xamur idatzi
zenduan bere gorantzan,
bukatu arte irakurtzen ni
negarrez aritu nintzan.

Enteratua nengon aurretik
nola zegoan makala,
baña alare pena artu det
jakindakoan il dala.
Ain zan leiala, ain zan umilla,
ona ta esku-zabala,
seguru nago Jaun Zerukoak
bere ondoan daukala.

Beste lantxo bat oso ederra
idatzi dezu lenguan,
esanaz garbi Sara aldean
zuk zer ikusi zenduan:
bi donostiar joanak emendik
gerra asi zan orduan,
nekatu gabe gogor lanean
tonbola baten onduan.

Guk txartzat jotzen genituanak
karidadea egiten,
neronek asko ikusi ditut
ta ez da zalla sinisten.
Ba al dakizu zer burutapen
iñoiz etortzen zaizkiten?
Onak nor diran Jaunak besterek
ez ote duan jakiten.

Gaur munduari begiratuta,
Joxe, pena ematen du:
aurrerapena galanki baña
okerrik ezin zuzendu.
Aita Santuak au ikusita
erdi negarrez esan du
tiroka baño obe degula
guk itzegiñaz konpondu.

Askok daukagu, zoritxarrean,
santuak geran ustea,
obea degu iritzi ori
danok lenbailen uztea.
Zuk idea bat badaukazu ta
nik berriz badet bestea,
gauz orregatik ez dago ondo
biok burrukan astea.

Zazpi urtean pasatua naiz
kanpoan egun da gabak,
Jaunari esker ez ninduten ni
sekula ikutu balak.
Baña alare jarriko dizkat
al badet gerrari trabak,
gure moduan ez ibiltzeko
geronen seme ta alabak.

Oraintxen ere burrukan dabill
ia munduan erdia,
osoa ere jartzeko dago
orain arrixku aundia.
Ainbeste gerra eta naigabe
ez ote da etorria,
bere neurritik irten dalako
gizonen arrokeria?

Gizon argi ta pake-zalea
zera, Artetxe, benetan,
ori ederki ikusten det nik
egin dituzun lanetan.
Neroni berriz oso eskaxa
idazten eta izketan,
beingoogatik barka zaidazu
utsegin badet ezertan.

*La Voz de España, 1968-VIII-?:
1, 2, 4, 7, 9 eta 11-garren bertsoak.
Zeruko Argia, 1968-X-13.
Auspoa, 84, 1969.*

Jacqueline

Barkatu zazu zuk, Jacqueline,
gaur ez banator iñoiz bezela;
esan nai dizut egun batzutan
oso kezkatu egon naizela.

Aztu zaizula badala erri bat
bere izena duana Dallas;
aztu zaizula zure aurretik
nola izan dan Maria Callas.

Kennedy zana il zutenian
jarri nituan bertso berriak,
zure samiña nolako zana
ikusituz zezan Euskalerrak.

Ezta naikoa; oraindik nunbait
askoz geiago esaten dute:
zure burua saldu dezula
zillarria eta urrean truke.

Ordutik onuntz, ondo dakizu,
gauzak zearo aldatu dira;
len bezelaxe mundu guzia
jarria dago zuri begira.

Marmarlariak diotena gaur
eztet sinisten egia danik;
era ortara ez leike jarri
Amerikako lenengo damik.

Ta ixildu gabe or ari dira
zuregatik gaur marmarlariak,
oroitu gabe mundu onetan
danok gerala pekatariak.

Esaera bat ikasi nuan
orain berrogei urte inguru:
bein bi ezkeru irugarrena
izaten zala ia seguru.

Esan didate zure samiña
etzala egia, zala gezurra;
zuk ez dezula, nion bezela,
biotza ona eta xamurra.

Zillar da urrez gañezka dago
zuretze artu dezun gizona;
millaka milloi badauzka baña
ezin billatu du zoriona.

Egazkiñ eta itsas-ontziak
eduki arren ia amar milla,
zoraturikan beti or dabill
ara ta onuntz zorion billa.

Ez lotsez egon zu, Jacqueline,
Onassis orri gaur esateko
ordua dala bere burua
pixka-pixka bat asentatzeko.

Zorionik ez iñun billatzen,
zoriona ez edozeñentzat;
zoriona da biotz garbia
bere barruan daukanarentzat.

Baña bildur naiz Onassis orrek
bere barruan daukan biotza
negoziotik irten ezkeru
ez ote daukan bastante otza.

Ai, Jacqueline, gaur gauza batek
nere barruan jartzen dit kezka;
orretxengatik apal da umill
natorkizu ni zuri galdezka.

Ikusten badet denborarekin
deskuidatuta egon naizena,
beste batean goi-mallaraño
nik igoko det bion izena.

Pentsatu al dezu bear bezela,
pentsatu al dezu bear dan eran,
zure aurreko bi oien gisa
laixter zedorri egongo zeran?

Manuel Matxain zanaren esku-idazki
batetik.
Auspoa, 84, 1969.

Bertso berriak Japoi aldean

Ostegun Santu egunarekin
ia eguardi aldean,
nere burua lenengo aldiz
ikusi nuen aidean.
Gure jolasak mundu guzian
erakusteko idean,
lau kiroltzale jarriak gaude
Japoi aldeko bidean

Gorputzez txiki ditugu baña
danak ederki eziak,
errespetu ta edukazioz
betik goraño josiak.
Garbitasunez berdin gabeak,
gañera ondo jantziak,
ikusi ditut lur aietako
andre ta gizon guziak.

Usategieta, Agirre jauna,
bestea berriz Soarte,
egazkiñean animo pranko
neroni eman didate.
Naiz egun argiz ta ondo pasa
Alaska ta Polo Norte,
nere burua etzan lasaitu
Tokio-n jetxi bitarte.

Erri eder au nik ezin esan
len zegoenik atzera,
baña goraka gogor dijoa
ogei urtetik onera.
Auxe da antxe japonese bati
nik egin nion galdera:
gerra galduta ez ote diran
irabazian atera.

Egia esan, joan aurretik ni
nengoen itza emana,
bertso batzutan adierazteko
bertan ikusten nuana.
Erri umilla eta ixilla,
gogor egiten du lana,
urte gutxian konpondu dute
gerrak ondatu zuana.

«Ondo dakite –erantzun zidan–
orain agintzen daudenak
denborarekin erriarentzat
zer diran gauzik onenak.
Eskolak gogor ugarituta,
bakandu berriz tabernak,
auek baitira gizona iñoiz
asto biurtzen dutenak».

Gaur japonesak artua dute
zentsuz bide bat berria,
ikusi dute zer dan gezurra,
ikusi zer dan egia.
Ta len taberna zegon lekuan
eskola dago jarria,
goi-mallaraño igotzearren
maitatzen duten erria.

Ez dezagula gure zentzua
jarri alkolaren mende,
ori egiten duten erriak
txit atzeratuak daude.
Izan gaitezen ordu guzitan
geure buruaren jabe,
bestetan ere bizitzen dira
orrenbeste edan gabe.

Barka zaidazu gaur gogor samar
banator, tabernaria,
neurrian ona dala badakit
saltzen dezun edaria.
Baña illuna dagon tokian
egingo bada argia,
liburuetan geiago bear,
ardotan berriz erdia.

Musean egin, kontuak esan,
ta lasai edan ardua;
egia esan, beti izan det
orretarako gogua.
Baña uste det zorionean
iritxi dala ordua,
pixka-pixka bat kanbiatezko
neronen bizimodua.


Bein entzun nion mediku bati
euskaldun askon odola
erdi-erdia gutxienean
izaten dala alkola.
Pena eman zidan au entzuteak;
ezin ukatu iñola,
frutuagatik jakiten baita
nolakoa dan arbola.

Ez det esaten tabernetara
berriz ez naizenik joango,
gauza bat dakit: lenago aña
nik ez dedala edango.
Promesarikan egin dedanik
ori ere ez det esango,
danak kolpean uztea noski
ezpaita errez izango.

*La Voz de España, 1969-V-25:
4, 5, 7, 9 eta 11 garren bertsoak.
Zeruko Argia, 1969-VI-1.*

Basarriren aurreko itzak:

Manuel Matxain zintzoa Japon aldetik ibilia da, dakizutenez. Erri ixill, langille ta eskolatua arkitu du an. Euskaldunok ezer izan nai badegu, aien bi-dea artu bearrean gaudela pentsatzen du Matxain-ek. "Ardo gutxiago ta eskola geiago" esango digu. Bertso biribill eta giartsuak, bere guziak oi diran bezela. Laister konturatuko dira *Zeruko Argia*-ren irakurleak.



Japonen. Ezkerretik bigarren, Tomas Ezeizabarrena, donostiarra eta jesuita, lurralde aietan urte asko daramazkiena. Irugarren, Manuel Matxain



Japonen, ango telebista batean, toka zer dan erakusten.

Silbestre Igoa futbolistari

Gizonak egin arren
beti milla amets,
eriotzak mendean
artzen gaitu errez.
Sinistu bear degu
guk egi au fedez:
naiz gaur gañezka egon
osasun da urrez,
biar egon gindezke
tapatuak lurrez.

Gure lagun bat bada
zerura igoa:
Añorgako semea,
Silbestre Igoa.
Eriotzantzat berdin
izan mutikoa
edo gizon aberats
izen aundikoa;
Jaungoikoa bakarrik
degu betikoa.

Txit goi-mallan egona
ostiko jolasan,
amaika idatzia
da bere gorantzan;
leiala ta umilla
kalean da plazan,
berdin lagunartera
inguratzen bazan,
berdiñik etzuen
nere ustetan zan.

Ama alargundua
ta gogor lanean,
Silbestre Valencia-k
artu zuenean;
ta lenengo txanponak
jaso zitunean,
danak jarri zituen
bere izenean;
ez da olako asko
gaurko egunean.

Zu denbora askoan
egon zera gaizki,
Jaunaren naia ala
izango zan noski.
Iltzeko jaio giñan
aundi eta txiki,
eguna ta ordua
Ark bakarrik daki,
iñor ez da betiko,
or gaituzu aurki!

*La Voz de España, 1969-VI-7 eta 8.
Zeruko Argia, 1969-VI-22.*

Maiorazko baten kontuak

Doña: *Baita itzaiak ere duten enpliuu, esatera nua...*

Jaunaren laguntzakin
zortzi bertso berri
nai nituzke jarri,
itz gutxitan emanaz
baserriko berri;
emen gabiltza beti
korri eta korri,
danak asarretuaz
familiar sarri
lanakin gañezka ta
diruakin urri.

Egunsentian jeiki
ta lanari eldu,
gaberako auldu;
jo ta jo aritzen naiz
amasei bat ordu.
Negozio kaxkarrak
artuak gaude gu,
nekazari geienak
berdin egiten du:
esnea asko kostatzen
eta merke saldu.

Gauzak esango ditut
argi eta klaro:
maiorazko nago,
lanerako ez daukat
len ainbeste gogo.
Naiz morroi batek egin
bastante anparo,
onela ez nezazke
jarraitu luzaro;
baserrian zer dagon
ikusia dago.

Naiz baserria egon
aspaldian bentan,
bizi naiz errentan,
saldu nai dutelako
iru milloi peztan;
ta nola nere mende
orrenbeste eztan,
alperrik asiko naiz
pujan edo setan;
Jaunak nai duen arte
biziko naiz bertan.

Orra bildurrik gabe
nik esan egia:
lau bei ta zaldia
da neronen mende gaur
daukadan guzia;
egun auetan nago
kezketan jarria:
norberea ezpada
orain baserria,
maiorazko ote dan
titulu txikia.

Dirutan urri xamar,
urtietan gora,
gaur nere ondora
zerbait balio dunik
nor etorriko da?
Andregaiak esan dit
orain dala moda
kondizio auetan
egitea boda:
gizonak lanera ta
berak pasiora.

Utzi bear izan det
nere andregai,
txit neska alaia,
baña baserritarren
gauzaren etsaia.
Laister igerri nion
zer zan bere naia:
neronentzako sega
atxurra ta laia,
ta beretzako berriz
zinea ta plaia.

Ni lanean lertzen da
berak guri-guri,
tratu-klase ori
etzaitela gustatzen
esan diot neri.
Oso pitxi polita
izan arren Mari,
beste bat engañatzen
gaur saiatu bedi;
nik obe det mutilzar
len bezela segi.

Zeruko Argia, 1969-VIII-3.

Aieteko jaietan

Pozez txoratzen begira egon naiz
gaurko egunsentiari,
eguzkiaren printzak musuka
soro eta mendiari;
nere biotza oso poztuta
laxter asi da kantari,
«Festa on batzuk pasa» esanaz
aietear guzieri.

Gerri makurka itaia artu,
egun guzia garitan,
an itzal gutxi izaten da ta
ari bear eguzkitan;
burua zerbait altxa orduko
maiorazkua erritan,
auxe zan oien bizimodua
len bizi ziran erritan.

Aldakuntza asko izan ditugu
urte auetan Aieten,
bertso batzutan ezta erreza
guzien berri ematen;
kanpotik asko etorri dira,
batek ez du aldegiten,
orretxengatik ariko dira
ainbeste etxe egiten.

Oiek onera inguratzea
gaur iñork ezin ukatu,
kristau zintzoak bezela beintzat
nai badegu guk jokatu;
ta naiz Aiete gauza auekin
erabat oso aldatu,
datorrenari pozikan emen
ematen zaio ostatu.

Arindu dira Extremadura,
Andaluzi ta Kastilla,
izugarria aspaldi ontan
emen sortu dan naspilla;
famili asko onera datoz
ogi koxkor baten billa,
oien ametsa gure errian
egi biurtu dedilla.

Jendea asko ugaritzeak
bere lana badu noski,
eskolatxo bat eta eliza
ez dira izaten aski;
bi leku eder oraingoz beintzat
jarri dituzte egoki:
Jolas-tokia goiko aldean,
Isturin-en Ezi-toki.

Ezi-toki au zertarako dan
saiatuko naiz esaten:
nai duan danak ordu pare bat
bertan igaro dezaten;
zurruterako danak gogua
nola ez duten izaten,
nai duana or ari diteke
euskeraz zerbait ikasten.

Lagun jatorrak jarriak daude
leku oietan agintzen,
kostako dala uste det iñun
obeagorik ipintzen;
berak zuzendu ta lana egin,
berak baztarrak garbitzen.
Aiete maite, eztuna ezta
era ortara ibiltzen.

Dirua pranko gastatua da
or egin diran obretan,
naiz xentimorik guk ez eduki
soziedadeko libretan;
biotz oneko gizon batekin
arkitzen gera zorretan,
baña Aietek pagatuko du,
seguru egon orretan.

Jaun Zerukoak esaten digu:
«Auzoko eta erbeste,
danok anaiak zerate eta
alkar maitatu zaitezte».
Agindu auxe ondo beteta
bapo ibili gindezke,
emen ez baitu ezerk balio
anaitasunak ainbeste.

Zeruko Argia, 1969-IX-14.

Mineroen bizitza

Erdi negarrez irakurri det
gaur periodiku batean
amar minero galdu dirala
Alemaniko partean.
Zoritxarrean berri txar asko
datoz aurtengo urtean,
eun metrora gelditu dira
langille oiek lurpean,
negarren paltik etzan izango
famili aien artean.

Pikatxioia ta mallu aundia
arturik beti besotan,
zenbat langille ari ote da
munduko mina-zulotan?
Gaur gizon oiek goraldtu nairik
nator onera bertsoan;
beren bizia arrizkatuaz
aritzen dira askotan,
familiari ogi kokkor bat
eramateko asmotan.

Mineroentzat dezute, beraz,
neronen ekin-aldia,
gizon oientzat nere biotzak
dauka maitasun aundia.
Zortzi orduan, gelditu gabe,
kopetetik izerdia;
beste ainbeste ikusi gabe
eguzkiaren argia,
ondo kostata jaten dezute
eguneroko ogia.

Mineroari etzaio ématen
daukaten ainbeste gradu,
alde ortatik kontzientziko
karga ederra daukagu.
Langille oien bizimoduaz
ez gera egiten kargu;
satorran gisa enterratuta
egunero zortzi ordu,
aurtxoarentzat ogi kokkor bat
baldin eraman nai badu.

Mundu guzian mineroaren
bizimodua tristea,
irabazten dan jornalarekin
ezin pasatu astea.
Jaun Zerukoak agindu zigun
danok lana egitea,
seme-alabak azi ta ezi,
mantendu eta jaztea,
orretarako derrigorra da
itxuraz irabaztea.

Mineroaren opor-aldi bat
an edo emen dala-ta,
zer demontretan sortzen da beti
komunistaren zarata?
Ori dionak egin dezala
urtebeteko kontrata;
bestearekin batean ari,
berdiña jaso soldata,
ikasiko du zer dan jatea
ogia ondo kostata.

Osasunakin mina-zulotik
irteten bada, ezer ez;
silikosis-ak arrapatuta
pranko badago negarrez.
Erretiroa geiegizkoa
eztaukate zoritxarrez,
bear ainbeste ematen ere
badakit eztaala errez,
baña jornala oso-osorik
merezi luteke legez.

Nagusi jaunak, entzun zazute
zuen morroien ujua:
soldata eta erretiro on bat
beñere ezta lujua.
Berrogeitamar urte baño len
asko egoten da jua:
arpegi triste, pausoa motxa,
kolorez oso bajua;
errukarri da era ortara
dagon langille gajua.

Zeruko Argia, 1969-X-19.

Eskerrak emanaz

Lengo illean iritxia naiz
lenengo aldiz Zeraiña,
nork esan neri erri au zala
ain paketsu ta apaiña?
Bertan bizi da nere lagun bat
bertso-jartzalle apaiña,
neretzat batzuk moldatu ditu
ez nitun merezi baiña.

Zure bertsoak etorri dira
lengo *Zeruko Argia*-n,
bolatokiko berri emanaz
oso euskera garbian.
Gogoan daukat zer esan zendun,
Joxe, zure itzaldian:
jolas oberik etzala iñun
ogeigarren gizaldian.

Naiz pena eman au esateak
ezin ixilik gelditu,
gaurko gazteak geienak beintzat
futbolak txorutzen ditu.
Zelai aundiak danak gañezka,
jenderik ezin kabitu,
urrezko mina txarra ez tute
agintariak arkitu.

Futbolera jua, antxe bullaka
lepoko zain danak eten,
berak eztira konturatuko
zein gaizki ematen duten.
Galdutakoan oien ondoan
ezta atsegin egoten,
erradiotik entzuten ditut
Jesukristonak esaten.

Zorionean danak eztira
lengoak bezelakuak,
laguntzalleak ere baditu
gure erriko jokuak.
Bolatokia aparta egin,
berak pagatu gastuak,
kostako ziran ango txapela
ta kopa zillarrezkuak.

Laborde jaunak bolaren alde
egiñak dituan gauzak,
bertso batzutan danak esaten
eztira oso errezak.
Aurrera ere orren barruan
indarrrik badu arnasak,
laguntza ona izango dute
Euskalerriko jolasak.

Zeraiñen ondo ikusi gendun
biotzez maite duana,
bera izan zan ainbeste sari
bertan ipiñi zuana.
Egia esan, etzait damutu
neroni orruntz juana,
daukadan kopik ederrena da
ortik ekarri nuana.

Zertan esaten didazu, Joxe,
neri maixu ta errege?
Eztan gauzarik etzait gustatzen
aitatzerikan beñere.
Eta aurrera etzaidazula
bialdu oinbeste lore,
zoritxarrean, ni gabe emen
naikoak daude len ere.

Azken aldeko bertso batean.
Joxe, esaten dezunez,
gure Jainkoak ipiñi nindun
ni gañezka zorionez.
Jaunari asko zor diot eta,
gabaz ezpada egunez,
bost bat minutu pasatzen ditut
berari esker emanez.

Uste gabeen dijoaz emen
orduak eta egunak,
ta laister utzi bearrean naiz
mundu ontako jardunak.
Baña oraindik sasoi onean
zaudete, nere lagunak,
al badezute ez utzi galtzen
gure jolas euskaldunak.

Zeruko Argia, 1969-XI-30.

Bertso berriak

Doñua: “Baita itzaiak ere duten enplua...”

Esaera bat bada
diona erderaz:
«*divide y vencerás*»;
gu nastu gaituzte ta
egia da, beraz.
Biotzez itzegiten
degunak euskeraz,
lotsatu bear degu
gabiltzan jokeraz:
irabazterik ez da
galtzen oso erraz.

Asarrerikan gabe
moldatu gaitean,
bestela kolpean
galduko da euskera
alako batean,
burrukan gabiltzala
gizonen artean.
Ez ote da izango
guzion kaltean?
Itzegiñez konpondu
gaitezen pakean.

Gure artean letra
txiki bat dalako,
nere anai pranko
ia prestatu dira
gaur burrukarako.
Ortik eztegu iñork
ezer aterako,
len ere ixuri degu
makiña bat malko;
indarrak gorde beste
zerbaitetarako.

Ondo itzezin beti,
esango nuke nik,
ezpaita gizonik
gaizki itzegiteko
baimenik duanik.
Aotan ibiltzea
iñoren izenik
ezterizkiot beintzat
derrigorra danik;
badegula uste det
aurregoko lanik.

Biurri xamar, jaunak,
gaude gaur jarriak,
ta euskaldun garbiak
naikoa zapuztuta
gabiltza erdiak.
Geronen tellatura
boteaz arriak
ari baldin badira
idazle argiak,
eztu gorako asko
egingo erriak.

Gazteak esatea
«kulpa da zarrena»
artzen det nik pena;
«zu pekatari» degu
nunbait errezena.
Naiz ta zuen idea
gaur izan onena,
pakea egiteko
gauzik ederrena
errespetatzea da
besteak dutena.

Naiz orain norbaitekin
pixka bat utsegin,
gaur nai det itzegin,
beti ixilik ere
ezpaita atsegin!
Gazte batzun esanak
eman didate min:
or dabilta kontatzen
iru buru-arin
eztegula euskeran
alde ezer egin.

Guk ere izan giñun,
jaunak, ogei urte,
naiz batzuk ez uste;
baita saiatu ere
gaur asko ainbeste.
Burruka gogorrean
beti jai ta aste
zerura igo ziran
makiña bat gazte;
aiek ez ote zuten
euskerarik maite?

Alkarri enbidoka
beti gau eta egun
oinbeste euskaldun
eztezagula beintzat
guk geiago jardun.
Gorroto danak utzi
ta itzegiñaz legun,
zarrak eta gazteak
bear degu lagun;
bestela euskera geuk
ia galtzen degun.

Zeruko Argia, 1970-II-8.

Gerraren aurka

Neronen gisa kaxkar xamarra
nola dagon egualdia,
bertsoak jartzen igaroko det
igande-arratsaldia.
Gerraren aurka egin nai nuke
gaurko nere itzaldia,
negargarria dijoalako
ogeigarren gizaldia.

Ederki asko erakusten du
Jesukristoren dotriñak
zeru ta lurak guziontzako
ditula berak egiñak.
Baiña oraindik zoritxarrean
badaude buru ariñak,
uste dutenak gizon guziok
ez ote geran berdiñak.

Mundua mundu degun ezker
gerrak izan dira baiña,
sekula noski ez zan izango
gizaldi onetan aiña.
Gizonak emen ereiten badu
gorrotoa ta zizaiña,
belar txar ori ugaria da
ta ematen du ordaiña.

Zer demontretan joaten gera gu
gure anaien etxera,
beren izerdiz irabazia
indarren bidez kentzera?
Pakezaleak gerala esan
beti itzetik ortzera,
naiz gero kozka egin aguro
suge gorrien antzera.

Gaur ere gerran ikusten ditut
sei edo zortzi nazio,
ta indartsuak mendekoari
egurra ematen dio.
Iñoiz pentsatzen egoten naiz ni,
gauza au dala merio,
arrazoiaren indarrak emen
ez ote duan balio.

Aitzekiren bat artuta goaz
orain nolana gerrara,
alkar iltzeko jaio bagiña
bezela mundu ontara.
Egun auetan begira nago
erdi negarrez Biafrara,
biotzak lertu bear derrigor
galtzairuzkoa ezpada.

Biafra aldean ez da faltako
aurtxo txikien negarrik,
emakumeak auleriak
ez dutelako bularrik.
Jaio orduko sufritzen asi
goseak eta egarrik,
nola ez zuten gerra galduko
ezpazeukaten indarrik?

Biafrako gerra bukatu dala
mundu guzira zabaldu,
beti bezela indartsuenak
aula zegona zapaldu.
Indarren bidez erri txikiak
naiz txikitu ta kixkaldu,
seme jatorren errimiñikan
ezin diteke itzaldtu.

Gerrak utzita gizon guziok
ekin zaiozun lanari,
ortik bakarrik etorri leike
gugan zorion ugari.
Danok pakean lana egiñaz
frutua kendu lurrari,
ia gosea kentzen diegun
mundu guziko aurreri.

Beltz eta zuri, gizon guziak
alkar maitatzen dutela,
justizia ta askatasuna
beti izan dezatela.
Aurtxoak berriz naiko ogia
eta sukalde epela,
gerrik geiago ez izateko,
Jaunak nai duan bezela.

La Voz de España, 1970-II-17.
Zeruko Argia, 1970-III-29.

Bertso berriak Endañetari

Seme indartsu pranko
badu gure erriak,
marka galantak beintzat
badaude jarriak.
Beso sendoak eta
bigunak gerriak,
oien eskutan luma
dirudi arriak.

Naiz Aretxa etorri
gaiñezka indarrez,
menderatu zenduan
zuk bastante errez.
Galdu ta zoriondu
zindun irriparrez,
ez da olako asko
orain, zoritxarrez.

Goiz-goizetik jarria
nengoan peskisan,
eiz txakurra goizetan
egoten dan gisan.
Bizkaitik mutil latza
onuntz etorri zan,
pranko egin zun baiña
naikoa ez izan.

Endañetak zearo
ni arritu nindun,
orrek kontrariorik
gaur ez dauka iñun.
Galdera au geienok
or egiten giñun:
Zenbat altzako zendun
estutu baziñun?

Endañetan indarrak
joak neuzkan begiz,
kostako da aurrean
iñor jartzen berriz.
Bere motorra egiña
dago amar zaldiz,
bestela nola altza
ogeitabi aldiz?

Gizon indartsuena
Españi guzian
izendatu zinduten
izan zan auzian.
Ala izango zera
denbora luzian,
ta nunbait okerren bat
zuk izan ezian.

Bein ikusi zindutan
segan Galarretan,
ta lenengo gelditu
ziñan txapelketan.
Berdin arrijasotzen
edo belarretan,
kontrariorik gabe
zaude gaur ezertan.

Auxe esan gabe nik
ez zaitut nai utzi,
apaltasun orri zuk
luzaroan eutsi,
jendeak jakin dezan
biar edo etzi
indar asko zendula,
arrokeri gutxi.

Aize pixka bat danok
badegu gaztetan,
geran baiño geiago
gerala ustetan.
Zu beti burumakur
da umil izketan,
deportista onena
euskal jolasetan.

Amar ordu eskutan
maillu ta paleta,
probak egiteko noiz
artzen dezu beta?
Zuk egiten dezuna
ez da berriketa,
biotzez zoriontzen
zaitut, Endañeta.

Zeruko Argia, 1970-III-8.

Basarriren aurreko itzak:

«Endañeta indartsuak bazter danak arriturik utzi ditu. Gogoangarria Azpeitiko zezen plazan egin berri duan marka. Luzaroetan gogoan izango dana. Manuel Matxain argi egoten da olako zerbait gertatzen danean. Bertso batzuk moldatu ditu betiko egokitasunez».

Lagun baten eskeintza

Anjel Albizu, zuretzako da
gaurko neronen jarduna,
lengo urtean egin nintzan ni
zurekin oso laguna.
Ibillaldia zoragarria
Japoirra egin genduna,
etzait aztutzen gu emendikan
atera giñan eguna.

Ondarrabian egazkiñean
sartzeko nengon peskisan,
nere bururik ez ikusi nai
or egaztiaren gisan.
Gaur lagun ona dedan Soarte
ezpazan gurekin izan,
maletak artu eta etxera
laister etorriko nintzan.

Berari eldu ta sartu nintzan
ontziaren barruraino,
lotan ez nuan ordurik galdu
ia Japoi alderaino.
Naiz or ikusi mendi, itxaso,
izar, eguzki ta laino,
oiñez ibili naiago det nik
katxarro oietan baino.

Urte askotan egondu zera
arri jasotzen nagusi,
zure markarik ezutelako
ia oraiñarte autsi.
Milla plazetan azaldu arren
galdu edo irabazi,
gizatasuna zuretzat, Anjel,
beti izan da lenbizi.

Buru argia, beso sendoak,
berdingabeak gerriak,
toki prankotan marka galantak
zuk badituzu jarriak.
Trapuan gisa beti ibili
dituzulako arriak,
zuri omena eskeintzen dizu
gaur Debako erriak.

Pena bat daukat: omenalditik
egon bearra aparte,
bolariaren txapelketa bat
gaur ipiñi didate.
Ezpadet artzen Deba aldera
joateko ainbeste tarte,
biotz-biotzez barkazioa
eskatzen dizut, Soarte.

La Voz.de España, 1970-VIII-15.

Jose Lopetegiri

Azia pranko badezu, Joxe,
pelotan alde botea,
orain besteak jasotzen dute
zuk utzitako dotea.
Euskalduna jatorra
ta langille gogorra,
maite dezu deporteia,
ez naiz arritzen gaur zauden maillan
Gipuzkoan egotea.

Batzuk lanean gozaten dira,
beste batzuek izketan,
seguru nago, Joxe, zaudela
beti lenengo oietan.
Jainkoari graziak,
gure jolas guziak
maite dituzu benetan,
ori ederki ikusi zuan
izan zanak Anoetan.

Ondo egiten dakizu gauzak
eta bear dan orduan,
irudi batek mundu guzia
arrituta utzi zuan.
Arrigarri ta fiña,
zure eskuz egiña
beste askoren moduan;
gaur egiten dan omenaldia
ondo merezi zenduan.

Garai batean izandu ziñan
lendakaria pelotan,
ta gero berriz jarri zinduten
gurekin bolan da tokan;
Jaunari gaur goizean
jardun naiz otoitzean
beti bezela bertsoan,
ta osasuna eskatu diot
zuretzat urte askotan.

Asarraldi bat eztezu izan
ia berrogei urtean,
beti ikusten zaitut nik alai,
zoriontsu ta pakean.
Gaur egiten dan pesta
arritzekoa ezta,
emengo txoko batean;
arrats eder bat opa dizut nik
biotzez *Lagun Artean*-n.

La Voz de España, 1970-X-20

Basarriren itzak: Gaur Donostin omenaldi bat eskeintzen omen zaio Joxe Lopetegiri. Au dala-ta. Manuel Matxainek bertso batzuk moldatu ditu.

Luzianori

Zorionsua mundu onetan
daukana langille fama,
izan diteken kargik onena
bere gaiñean darama.
Geronen onez ipiñi zuan
gure Jaungoikoak lana,
alperkeria dalako beti
bizio guzien ama.

Bertsorik nola eztedan jarri
nik sei illabete ontan,
esaten dute bertsolariak
danok ote gauden lotan;
beste gauzetan gertatzen dana
gertatu oi da bertsoan:
irabazirik eztan tokian
galera dago askotan.

Denbora eta askatasunez
gu ibiltzen gera urri,
irakurleai adierazteko
nai gendukenaren berri.
Geronen itzak zeñiek neurtua
nola izaten dan sarri,
pentsatu bear ondo bertsoak
zeiñi eta nola jarri.

Gaurko aleak zuretzat dira,
Luziano Ormaetxea,
barka zaidazu baimenik gabe
leku onetan jartzea.
Bolara ontan ikusi dezu
ondo zer dan supritzea,
baiña pazientziz eraman dezu
bizkarrean gurutzea,

Urte osoa igaroa da
irten ziñala etxetik
Basurkon dagon sendaetxera
zerbait osatzeagatik.
Otoitza pranko egiñik gera
egun ura ezkeroztik,
gaitza lagata ea len-bait-len
altxatzen zeran oetik.

Urtebetean pasa dituzu,
Luziano, oñaze latzak,
baiña jakin det eztituzula
iñoiz galdu esperantzak.
Emen guziok supritu bear,
pobre eta aberatsak,
arrosak baiño askoz geiago
sortzen baitira arantzak.

Bi makuluak botata arrika
ikusiko zaitut aurki,
kolpean ezta iñor sendatzen
baizik poliki-poliki.
Sanoaldi ta okerraldiak
pasa dituzu gizonki,
orrelakoak bere garaian
Jaunak ordaintzen badaki.

Esan didate laister zerala
zerbait ibiltzeko eran,
zuk ez dakizu berri orrekin
nik zer poza artzen dedan.
Zu bertsozale purrukatua
beti nola izan zeran,
bakar batzuek kantatuz ea
gu laister juntatzen geran.

La Voz de España, 1970-X-31

Zeruko Argia, 1970-XI-15

Don Zezilio Agirre apaiz jaunari

Argitasunik ematen badit
neri Jaungoiko altsuak,
On Zeziliontzat izango dira
gaurko neronen bertsuak.
Eginkizun bat izugarria
izaten dute maixuak,
zer erakutsi ura ikasi
digutelako aurtxuak.

Orain berrogei urte inguru
gu egoten giñan gisan,
berriro ere bilduak gaude
gaur Aieteko elizan.
Begen bixtan daukagu baño
ala ere nai dizut esan:
zuk ereindako azi bikaña
etzala alperrik izan.

Orduan aurtxo giñanak asko
orain gera gurasuak,
zuk emandako kontseju onak
ondo dauzkagu jasuak.
Ta gaur omena eskeintzen dizu
zuri Aiete osuak,
zure eskutik eman bait-giñun
lendabiziko pausuak.

Gogoangarri benetan apaiz
zu egin ziñan eguna,
ta gaur urrezko eztaiarekin
emen ospatzen deguna.
Berrogeitamar urte luzean
lanean gogor jarduna,
Aietek ez du iñoiz aztuko
zuk emen egin zenduna.

Lagun zaiguzu, Jesus maitia,
kristau jatorrak izaten,
nik ondo dakit zeñen zalla dan
zure grazian egoten.
Ez gaitezela gu beti ari
«Damu det, Jauna» esaten,
ta elizatik irten orduko
esker gaiztoak ematen.

Azkenik, Jauna, zugana gatoz
beti bezela eskera,
sufritzen dauden guzientzako
batera edo bestera.
Gaxo daudenak senda itzazu,
preso daudenak atera,
pakean danok bizi gaitezen
kristau zintzuen antzera.

Zeruko Argia, 1971-I-3.

Egindako ametsa

Jesus maitea, neronen gaurko
erregua entzun beza,
ondo dakit nik laguntzik gabe
naizen gauza ezereza.
Ta baldin ori ematen badit
derizkiot lan erreza,
bertso batzutan adieraztea
bart egindako ametsa.

Mendekoari erakutsia
zan ori amaika gose,
litxarrerorik urrearekin
iñork ezin baitu ase.
Emen jarriak eduki arren
milla negozio klase,
bertan utzita aldegin bear
ez duanak bezelaxe.

Kanpai-negarrak entzun nituan
Eliz Nagusian din-dan,
enteratu naiz gizon aundi bat
nola derrepente il dan;
titulu eta milloia pranko
utzita nola joana dan,
amets egin det ez ote duten
gauza oiek balio an.

Pobre, aberats, txuri ta gorri,
danon bizitza da motza,
ustegabeen etortzen zaigu
guregana eriotza.
Errukarria iñon izerdiz
gizentzen duana poltsa,
gaiñera laister erorko zaio
Kriston justizi zorrotza.

Jakin dudanez, berak bazeuzkan
lur da jauregi ederrik,
orain bi metro naikoak ditu,
ez du geiagon bearrik.
Langilleari zupatudako
diru guziak alperrik,
arrokeriak Kriston aurrean
ez dualako indarrik.

Aspaldi ontan ugaldtu zaigu
gorrotoa ta zizaiña,
au ez ote da len esandako
pekatuaren ordaiña?
Anaien gisa gu ibiltzeko
Jaunak agintzen du baiña,
lagun urkorik ez dugu maite
arratoi-txakurra aiña.

Negargarria gure artean
dabilen zurrumurrua,
negargarria alkarrentzako
gaur daukagun amorrua;
alare santu juzgatzen dugu
geronen buru-arrua,
au ez ote da oker guziak
sortzen dituan errua?

Mundu onetan izan ditugun
santu ta santik aundiñak,
esaten zuten Kriston aurrean
danok gerala berdiñak.
Baiña oraindik zoritxarrean
badaude buru-ariñak,
uste dutenak oiek dirala
komunistaren dotriñak.

Dotriña on bat emen badago
guziontzako jarria,
ondo betetzen saia gaitezen
morroi ta agintaria.
Gogoan izan Kristok eman zun
sententzi izugarria:
pekaturikan ez duan arek
bota dezala arria.

Morro, nagusi, agintariak,
ni bertsolari apala,
danok aitortu bear genduke
pekatariak gerala.
Urteberriak asmo berriak
gugan ekarri ditzala,
arrazoiaren indarrak beti
emen agindu dezala.

Zeruko Argia, 1971-I-31.

Manuel Lasarteren omenaldia

Irixten naizen leku askotan
egiten didate galde
omenaldia noiz egiten dan
Imanol Lasarten alde.
Eguna esanaz jarri nai ditut
nik sei edo zortzi ale,
ia pixka bat trankiltzen diran
orrenbeste bertsozale.

Orra nik esan zein egun dagon
berriro izendatua,
guk entzuteko Euskalerriko
urretxindorren kantua;
bertsolaririk onenak bertan,
Basarri jartzen puntua,
azkar ibili nai dezutenok
egun ortako lekua.

Ote da ñor lagun Lasarte
ezagutzen ez duanik?
Izatekotan kanpotarren bat,
oso nekez euskaldunik.
Ñoiz sortu dan gizon jatorren
ta umillena izanik,
nola gelditu gu egin gabe
merezi duan omenik?

Lengo urteko jaiaren gisa
izango da Astorian,
ordua ere beti bezela
ia eguardi aldian;
bertso bikaiñak entzun ondoren
gero Donosti zarrian
anaitasunezko bazkaria
egingo degu *Urbia*-n.

Giro txarrakin badakizute
len atzeratu genduna,
garai aietan zerualdea
zegoalako illuna.
Datorren illan emeretzia
da aukeratu deguna,
edo obeto esatekotan
Aita San Josen eguna.

Ordubietan jarria dago
bazkaritako ordua,
bertara noski bilduko gera
gu bertsozale mordua.
Berriro pozik inguratzen da
lenago or egondua,
zoragarria izaten baita
bertako bazkalondua.

Jan eta edan bapo eginda
asten dira bertsolarik,
komerri latzak izaten dira
artu eziñik txandarik.
Or ez da izaten teatroetan
izaten duten kezkarik,
neronentzako munduan ez da
era ortako pestarik.

Anai-arreba biotzekoak.
nere esana aditu:
Urbia-n toki asko da baiña
askotan ezin kabitu.
Egun ortako bear duanak
txartela, azkar mugitu,
pesta eder au ikusi gabe
iñor ez dedin gelditu.

La Voz de España, 1971-II-27.

Zeruko Argia, 1971-II-28.

Emazte baten samiñak

(Doiñua: "Oraingo tren eta tranbe eta automobil...")

Emakume bat neri
etorri zait atzo
itzegiñaz gozo,
moldatzeko esanaz
amartxo bat bertso.
Nunbait biurri gabiltz
gaur zenbait guraso,
an da emen egiñaz
milla estropozo;
famili batean au
tristea da oso.

Jaunak, entzun nituen
enbusteri pranko
nik ezkontzerako;
gaur, deskuidatzen banaiz,
bi matraillondoko;
etzuela gogorik
lagun arterako,
etzala etxetikan
iñoiz aterako,
entzun nizkion eta
neure kalterako.

Orain amar bat urte,
Lezoko elizan,
ni ezkondu nintzan,
garbi esango det nik
gaur nola gabiltzan:
geroztik egun on bat
ez det iñoiz izan,
gau ta egun lanean
txingurrien gisan,
gizonak zurrutean
enpliatu ditzan.

Eten gabe lanean
nabil egun da gau,
astean bi barau,
luzaro bizitzeko
martxa txarra da au.
Len ogei nituena
gelditzen zaizkit lau,
ta topatu ezker
esku erantsi, rau!,
gizon alproja onek
erotu bear nau.

Egunero mozkortu,
ala ere lasa,
nork ez eman traza
zortzi egun auetan
etzaiola pasa?
Berak badu eizeko
txakurraren antza,
nola ez dakit baiña
aurkitu du poltsa,
laurekin zegoena
gelditu da utsa.

Gauzak orra esan nik
argi edo klaro,
arriturik nago
nola edan ditekén
orrenbeste ardo.
Naiz-ta onek eduki
emezortzi grado,
errez egiten ditu
berrogei bat trago;
lau oiñean ibiltzen
ikasía dago.

Mozkor eta alperrak,
neronen ustean,
amar bat urtean
egon bear luteke
danak giltzapean;
oiek libre badabiltz
guzion kaltean,
ez dutelako uzten
bizitzen pakean,
bi griña oiek zerbait
auldu bitartean.

Orra esan bezela
nik jarri bertsoak,
olako kasoak
jakitea ona da
probintzi osoak;
ardi-larrua jazten
badaki otsoak,
mendean erortzen dan
arkume gaixoak
igaro bear gero
egun penosoak.

Pena da esatea:
geronen lurrean
gaur, zoritxarrean,
jokoa ta zurruta
daude indarrean.
Asko ez ote gabiltz
bide okerrean?
Liburuaz denbora
pasa bearrean,
buelbaka galtzen degu
Donosti zarrean.

Zentzua ezpazaigu
gaur zearo auldu,
egin gaiten kargu,
guk zerbait aldatzeko
badegula ordu;
tabernak bakanduta,
eskolak ugaldtu,
jakintza liburuak
danean zabaldu,
daukagun izen pixka
ez dezagun galdu.

La Voz de España, 1971-V-1. eta 2.
Zeruko Argia, 1971-V-2.

Eskudero prokuradoreari

Bi milla urte, Jesus maitea,
jexi ziñala zerutik,
zenbat gerra ta zenbat naigabe
ez dira izan ordutik?
Auxe bakarra eskatzen dizut,
Jesus, biotz-biotzetik:
anaitasuna jarri dedilla
gauza guzieren gaiñetik.

Iru urtean burrukan jardun
ta azkenik errenditu,
gerra onenak ere ondoren
tristeak izaten ditu.
Millaka anai bertan il ziran,
beste asko elbarritu,
gizon oietzaz orain artean
ez da iñor errukitu.

Kriston dotriña ez betetzeak
sortzen ditu emen gerrak,
ortikan datoz nere ustetan
mundu ontako okerrak;
azkenengoan neronek ere
pasa nituan ederrak,
paseak pasa dexente nabil
Jaungoikoari eskerrak.

Eskudero jaun agurgarria,
zugana nator apalki,
Madrid aldean zu itzegiña
zeralako txit egoki;
orain artean gu aintzakotzat
iñork ez gaitu eduki,
guk ez genduan nunbait merezi
besteak ainbat erruki.

Ogei bat urte nituan ekiñ
ziotenean gerrari,
kinta garaian nenguan eta
jarraitu bear berari.
Errepublikan alde ibilli
nintzan Bizkaian gudari,
zer irabazi gutxi zegoan
ta zer galdua ugari.

Nik ondo dakit zu goratzeko
ainbat almen ez dedala,
baiña eskerrak gaur eman bear
zuri nola edo ala;
ikusten baidet zorionean
zu konturatu zerala
txuri ta gorri, ezker da eskubi,
danok anaiak gerala.


Itz auek dira Eskudero jaun
agurgarriak esanak:
«Gure anaiak badira emen
Rusian gerran izanak;
lur aietatik elbarrituta
onuntz etorri ziranak,
zorionean gogoan dauzka
gaur gobernu alemanak».

Lagun urkoai guk emen nola
artzen diegun neurria,
guri ere gero artuko zaigu
ta au da izugarria;
ez begiratu koloreari
txuria edo gorria,
kontrarioai on egitea
ori da txalogarria.

Erri guziak egiten dira
mutilatuaren jabe,
errepublikan gudarik daude
iñundik anparu gabe;
ori dala-ta gobernuari
auxe egin zion galde:
ez ote leiken zedozer egin
gure anai oien alde.

Anaitasuna dala uste det
pakea lortzeko giltza,
ta ortik kanpo emen gizonak
alper-alperrik gabiltza;
Eskudero da gure *escudero*,
bera gure alde mintza,
merezi du ta gure eskerrik
sutsuenak artu bitza.

Zeruko Argia, 1971-V-9.



Manuel Matxain, bolan.



Manuel Matxain, token.

Donostiako txoko polit bat

Donostiako txoko polit bat
beti izan da Aiete,
bera aitatz bertsu batzuek
jartzeko esan didate;
enkargu ori al dan ondoen
nik orain nai nuke bete,
naiz aspaldian bertso ipintzen
ibili naiko arlote.

Zuek ziñaten garai batean
izkuntzaren gordeleku,
bañan bildur naiz zuen azkena
ez dabillen oso gertu;
zuen lekuan egin dituzte
jauregi eta konbentu,
gauza oiekin nere biotza
ez dago oso kontentu.

Gizon jatorra eta umilla
neri etorri zaidana,
barrioaren alde gogotsu
lana egiten duana;
neretzat ere gustokoa da
berak agindu didana,
aitatu gabe nik nola utzi
ainbeste maite dedana?

Bearrezkoak dira, badakit,
etxeak eta fedia,
bearrezkoak diran bezela
ardoa eta garia;
beste gauza bat bada ordea
argia eta garbia:
guretzat nundik aterako dan
eguneroko ogia.

Bertsu batzutan esango det nik
zer ziñan eta zer zeran:
basarri txuri zoragarriak
len bagiñuzen aukeran;
orain geienak bota dituzte
beste lekutako eran,
denborarekin jakingo degu
mesedetako ote dan.

Aurrerapen da aundikeriaz
gu ari gera puztutzen,
egia esan, gauza auekin
ez gera asko poztutzen;
lujoko gauzak ugaldu dira
ta basarriak ustutzen,
geu ari gera ustegabeen
bizimodua estutzen.

Danok aurrera egin naiean
ez ote guaz atzera,
itsas ertzean ibiltzen diran
txangurruaren antzera?
Eta beldur naiz, beldur gogotik,
baserriakin batera
ez ote zaigun guri galduko
ain maite degun euskera.

Ikastoletan badakizute
naiko larri gabiltzala,
ez dutelako oraindik artu
bear luteken itzala;
batzuk patxaran gauzak egin nai
ta bestiak beriala,
uste det laister beren bidean
urak sartuko dirala.

Kontseju bat gaur emango dizut
nik, biotzeko Aiete,
oraindik dana etzaigu galdu,
zedozer konpondu leike;
Ama Euskera eta semeak
zuk nola dituzun maite,
ikastolara zedorren aurrak
bialtzen saiatu zaite.

Munduko gauza danak badute
beti zerbait gozo gazi,
baiña gozoa piparrarekin
jarri leike bizi-bizi;
ondo dagona ez gaitezela
geiegi mugitzen asi,
gure artean belar txarrikan
ez dedin geiegi azi.

Zeruko Argia, 1971-IX-26.

Artetxe joan zaigu

Ordua ez jakin, eguna ere ez,
bizia ain da laburra,
ustegabeen etortzen zaigu
guri eriotz lapurra.
Aspaldi ontan gaixo zebillen
Artetxen biotz xamurra,
bertso batzugin eman nai diot
neronen azken agurra.

Jose Artetxe idazle ona
gure artetik juan da,
bere biotzak aspaldi ontan
asko supritzen zuan da.
Amaika aldiz entzuna nago,
lagun aundia nuan da:
«Zergatik gabiltz beti burrukan
danok anaiak izanda?».

Naspillatuta daude mendiak,
naspillatuta kaleak,
bolara ontan larri gabiltza
geran euskaldun aleak.
Euskerarentzat nai baditugu
guziok egun obeak,
lenengo beintzat izan gaitezen
benetan pakezaleak.

Egiak dira dudarik gabe,
Joxe, zuk esandakuak,
lengoak lengo naiko komeri
badu gure sorlekuak.
Pena da baiña aitortu bear,
euskaldun biotzekuak:
batasunaren itz ederrakin
oker jo digu kukuak.

Ordua da-ta danok makurtu
ditzagun geure buruak,
ez gaitezela izan egoskor,
setoso eta arruak.
Garaia degu guk aztertzekeo
ondo geronen barruak,
ta anaiari ez botatzeko
gureak diran erruak.

Ez dezagula aurrera segi
begi-belarririk itxita,
euskaldun onak batu gaitezen
umekeriak utzita.
Gure etsaiak tartean dabilz
gu burrukan ikusita,
euskera nundik galduko duten
arkume-larruz jantzita.

Ni gogor samar ari naiz baiña
esan bearra zeguan
gu gabiltzala emen txakurra
eta katuan moduan.
Euskera maite degunok zertan
bide batetik ez juañ?
Bestela ia azken arnasa
segitun ematen duan.

Garbi ikusten da pakezalea
ziñala zure lanetan,
pakea beti goraltzen zendun
zure liburu danetan.
Millaka lagun San Inazion
giñan elizkizunetan,
or ikusi zan gure erriak
maite zindula benetan.

Zorioneko batasun ori
egin dedilla ementxe,
iñoiz bada-ta premi ederra
daukagulako oraintxe.
Zeru goietan aurkitzen zeran,
nere lagun on Artetxe,
larrialditan lagun iguzu
santu batek bezelaxe.

Joxe Artetxe, zu egin zera
betikotasunan jabe,
baiña zerua ez da irixten
lurrean supritu gabe;
lur triste ontan, ondo dakizu,
gizonok biurri gaude,
erregu zazu oraindik emen
gelditu geranon alde.

*Zeruko Argia, 1971-X-24.
Auspoa, 111. 1972.*

Pakea

Urte au ere aurreratu da,
badijoa abendua,
lengoan gisa au ere ez da
pakezale izandua;
mundu guzia ikusten det nik
zearo erretxindua,
ez degulako zintzo betetzen
Jesukristok agindua.

«Alkar maiteaz bizi zaitetze»
esan zuen milla aldiz,
ta ori bera esango luke
berriz etorriko balitz;
baiña gizonok aren esanak
erabat aztuta gabiltz,
orretxengatik ainbeste gerra
gaur ia piztuan dabiltz.

Gizaldi ontan orra gizona
illargiraiño iritxi,
ontzi batean lurretik igo
ta beste batean jetxi.
Aurrerapenak sortuak ditu
orrelako milla pitxi,
ta beartsuei laguntzeko zer?
Ortarako ezer gutxi.

Maitasun-garra ez ote zaigu
zoritxarrean itzaldtu,
ta bere orde arrokeri ta
zitalkeria ugaldtu?
Gaur egunean danok nai degu
aundi-itxuran azaldtu,
naiz ortarako gure anaien
eskubideak zapaldtu.

Zapaltzen degun gure anaia
asten bada jartzen zutik,
trabaren faltik ez du izango
goitikan ezpada beetik.
Nik politika kontu oietan
ez det konprenditzen tutik,
baiña ez bota komunisteri
gure pekatuen kulpik.

Gizon geienok jarriak gaude
suge gorrien antzeko,
berealaxe prestatzen gera
gu mendekoa jotzeko;
xixtima ederra billatu dute
emen pakea jartzeko:
erri probiei armak bidali
lenbailen alkar iltzeko.

Alde batetik ikusten ditut
India eta Pakistan,
bertan aurtxoak goseak iltzen
mundu guziaren bixtan;
alkar iltzeko armak bidali,
jateko berriz gutxitan,
komunismoa ortatik dator
amarretatik zortzitan.

Bestetik berriz Persepolis da
guk daukaguna goguan,
bertan milloiak ondatu dira
pena artzeko moduan;
aldamenean milloika aurtxo
goseak dauden orduan,
eskandalo au esan zazute
itxuraz ote dagan.

Milla milloika juzkatzen dute
or egin duten gastua,
amaika bada errien bizkar
ederki aberastua.
Dalako Sha gaur ibiliarren
aundikeriaz puztua,
ez da faltako berari ere
nork artu kontu estua.

Au ikusita emen zedozer
esan gabe nola laga?
Gizaldi ontan au gertatzea
gauza lotsagarria da.
Langillearen jornalari bai
ipintzen diote traba,
auentzat nola izango dute
pestetan gastatzen bada?

Beingoagatik entzun zazu, Sha,
bertsolarien esana:
ez dago ondo errien bizkar
orrela gastatzen dana;
batzuentzako irabaziak,
beste batzuentzat lana,
ia denboraz gertatzen zaizun
Rusian gertatu zana.

Nai badituzu pozik eduki
beti zure erritarrak,
bete itzazu bear bezela
dauzkatzun eginbearrak.
Oso eskaxak izaten dira
gizonak ditun indarrak,
ez du balio garaia joanda
egiten diran negarrak.

La Voz de España, 1971-XII-12:
3, 4, 6, 7, 8 eta 9-garren bertsoak.
Zeruko Argia, 1971-XII-26.
Auspoa, 111, 1972.

Euskaldun berri dan Pedro Maria Okariz'i

Berri tristeak gure lurrean
guk beti ezin zabaldu,
alaiak ere bakar batzuek
nik nai nituzke azaldu.
Naiz erdaldunak urte auetan
Euskalerrian ugaldu,
guk ain maitea degun euskera
oraindik etzaigu galdu.

Garai batean gure izkuntzak
bazituen milla etsai,
beti begira azken arnasa
ematen ote zuen zai.
Bakar batzuek oraindik ere
berak izango ditu, bai,
baiña millaka gaude euskera
iltzerik eztegunak nai.

Gure lurrera etorria da
ia Kastilla erdia,
baiña alare bizirik dago
gure izkuntza garbia.
Mudantza asko ikustekotan
jaiotako gizaldia,
laiño beltzaren ondorenean
sortuko al da argia!

Ai, zugaitz zarrak badakit kimu
berriak bota ditula,
oien artean, lagun Okariz,
bat zerorri zaitugula;
atzo artean nik etziñutan
euskeraz entzun sekula,
aitortu bear bi urtean zuk
bapo ikasi dezula.

Unamunok bein au esan zuen
orain larogei bat urte:
«Euskera laister ilko da eta
lurpean sartu zazute».
Aren esanik eztala bete
garbi ikusten dezute,
iru urteko aurtxoak ere
askok itzegiten dute.

Ainbeste urtez erdera utsez
izketan ari ta gero,
gurea ikasten ia lau ordu
jardun zera egunero.
Zu zureakin atera zera,
guk ez genduen espero,
zenbat mirari egiten diran
gogoia izan ezkerro!

Ixtimatzeko dira biotzez
emen euskaldun berriak,
danon premia daukalako gaur
gu jaio giñan erriak.
Guk eztaukagu meriturikan
seaskatik etorriak,
zuek zerate, lagun Okariz,
benetan txalogarriak.

Batasunaren itz eder ori
beti ari naiz entzuten,
baldin itxuraz egiten bada
nik eztet gaizki ikusten.
Oraiñartean saiatu gera
zarrak euskerari eusten,
ia aurrera, gazte maiteok,
ondo gordetzen dezuten.

La Voz de España, 1972-II-13.

Zeruko Argia, 1972-II-20.

Auspoa, 111, 1972.

Pakean bizi ditezen

Gizaldi onen irurogei ta
amabigarren urtean,
bertso batzuek jartzea neri
bururatu zait kolpean.
Gizonak beti ari bear du
emen burruka batean,
injustizien arrastorikan
munduan dagon artean.

Naiz berdin jaio, gero munduak
ez gaitu berdin ipintzen,
batzuek beti morrontzan eta
besteak berriz agintzen.
Entzun dedanez leku ederrak
badira, Mikel, Parisen,
baiña etxean bezela ezta
gizona iñun ibiltzen.

Bere orriak eskeiñi dizkit
neri *Zeruko Argia*'k,
Frantzian dagon anaiarentzat
jartzeko bertso berriak;
diran bezela ta beldur gabe
esango ditut egiak,
eginkizunik nagusiena
ori du bertsolariak.

Amar urtekin zu morrontzara,
ni arategian asi,
gu ez ginduzen batzuk bezela
lujo geiegian azi.
Len bost senide giñanak orain
iru bakarrikan bizi,
pulmoniakin il zan Xanti ta
txarranpiñakin Iñaxi.

Ogeitamar bat urte badira
zu etxetikan joanik,
ezta egunik zutaz norbaitek
galdetutzen eztauenik.
Nola eztedan iñundik jakin
okerrik gertatu danik,
ondo zaudela pozikan asko
erantzuten diotet nik.

Urte batzuek pasa genitun
benetan oso tristeak,
pena batzuek bukatzerako
etorri ziran besteak.
Anai arteko gerra garaian
giñan sasoiko gazteak,
eskerrak orri pasako ziran
itzalpe eta goseak.

Gerraren otsak mugitu zitun
gure mendi ta kaleak,
nunbait etziran naikoak lendik
genituen naigabeak.
Gizonak nola daramazkien
barruan bere ideak,
orra gudari biurtu lendik
giñanak pakezaleak.

Errepublikan alde joan giñan
boluntario gerrara,
egia esan, gu ez giñuzen
iñork beartu ortara;
gauza triste ta negargarririk
mundu onetan bat bada,
probatu duan batek au dio:
anai arteko gerra da.

Gerra guzieren ondorenean
datoz neke eta lanak,
ta asko dira orain eraman
eziñean dabiltzanak;
errepublikan alde ibili
ta elbarritu ziranak,
anparu gabe ikusten ditut
zoritxarrean nik danak.

Bukatu bitez bein da betiko
munduan gerraren otsak,
ez ote gaitu gu naigabetzen
inuxente eriotzak?
Jaungoikoari zuzendu danok
beti geronen otoitzak,
ea pixka bat xamurtzen diran
gizon guzior biotzak.

Alkarrentzako maitasun gutxi
ta ika-mika ugari,
ateak onek zabaltzen dizka
mundu guzian gerrari.
Errugabeak gerala esaten
ez gaitzela gu ari,
batera edo bestera danok
geralako pekatari.

Kristok esanak aztuta gabiltz,
arengandikan aparte,
ta gauza onek ekartzen digu
mesede ainbeste kalte;
aurrera ere ezta paltako
munduan milla gerrate,
lagun urkoa bear bezela
maitatzen eztan bitarte.

Askatasuna eskubiko ta
ezkerrekoarentzako,
askatasuna txuriarentzat
ta berdin beltzarentzako;
askatasuna fede oneko
gizon guziarentzako,
ta itzalpea odolzale ta
gizon lapurrarentzako.

Bide jator bat artu dezagun
ta bertatik danok goazen,
guziontzako bentaja baita
ibiltzen bagera zuzen;
burrkak utzi kristau bezela
emen moldatu gaitezen,
gure semeak geronen partez
pakean bizi ditezten.

La Voz de España, 1972-VI-4: bost
bertso: 3, 4, 5, 12 eta 14-garrena.
Zeruko Argia, 1972-VI-4.

Manuel Zubillagari

Aitabitxia deziditu dek
bertso batzuek jartzera,
kontseju batzuk emen emanaz
guraso baten antzera;
orain bost urte andrea artuta
i joan intzaken kalera,
len ainbat aldiz ez aiz etortzen
orain Aiete aldera.

Txit mereziak ez ote dituk
ik artu dituken sonak?
Propagandaren bearrik ezтик
izaten langille onak.
Probatua dek eta bazekik
orain au emen dionak
lanean eta ezbearretan
neurtzen dirala gizonak.

Zubillaga dek ik abizena
eta Imanol izena,
gorputza baiño eure biotza
aundiagoa dekena;
bultoz aundia ez izan arren
lanean badek kemena,
neronen bixtan ikusi dedan
zapaterorik onena.

Lanetik zaila dek aberasten,
ortan etzegok dudarik,
baiña kastatik aiz langillea
eta ez izan damurik.
Lana izanda alperkerian
ik etzak pasa ordurik,
alperrak emen oso gutxitan
altxatzen ditek bururik.

Zapateroa aizen ezkeru
zapateritxo bat jarri,
ori dalako orain ez gaituk
ikusten len bezin sarri;
lanez buruzgain abil i beti
ta denborarekin urri,
neri alabak ematen zidak
ire kontuaren berri.

Bizimodua ain zaila zanik
ez uan noski usteko,
emen gogotik saiatu bear
seme-alabak azteko;
oien eskola ta amaika pitxi
mantendu eta jazteko,
iru bat milla pezeta beintzat
bearko dituk asteko.

Gastu aundiak dauzkate orain
danon seme ta alabak,
gauza guzien prezioak gaur
eztiralako makalak.
Naiz gurasoak oraintxe izan
langille bezin formalak,
ai zein en errez uxatzen diran
gure asteko jornalak!

Zuen zapatik konpontzekotan
badaukazute etxean,
eraman orri, jarriko ditu
dotore eta utsean;
edo kolorez aldatu bear
dituzuten bakoitzean,
toki onena Prim kalea da,
Bellas Artes-ko atzean.

La Voz de España, 1972-VII-8.

5/2 lerroan *orretan etzegok dudik* edo olako zerbait idatziko zuan Matxainek; eta gero norbaitek aldatu, *dudik* itz ori osatzearren. Baiña era ontan rimak asko galtzen du.

Aita Kolbe martiariari

Bertsolariak kantari pasa
bear jai eta asteak,
naiz berak triste askotan egon,
alaitu nairik besteak;
batzutan kontu negargarriak,
bestetan berriz txistek,
zerbait meritu izango al du
lagun urkoak pozteak!

An edo emen billatzen degu
geienean zer esana,
nik gaur apur bat aitatuko det
emen erri alemana.
Ainbeste kezka eta naigabe
mundu guzian emana,
gaur pakezale biurto zaigu
lenago gerrero zana.

Zorionean bukatu zaie
gerra beltzaren larria,
gizon on batzuk bide onean
daukatelako jarria;
urte gutxian altxea dute
lur jota zegon erria,
eta berairi eman diote
aurtengo Nobel saria.

Nun dira Hitler eta Goering,
nun Eichman eta Goebbels?
Nun dira oiek zoritxarrear
egindako milla amets?
Gizonak nola artu lezake
munduan ainbeste lainñez?
Jainkoa bera zirala uste,
euli bat aiña izan ez.

Oien ametsak badakizkigu,
euskaldun biotzekoak,
baiña uste det ez ote diran
gaur emen esatekoak.
Aientzat berdin ziran polako,
juduak eta txekoak,
errukarriak oien eskutan
erortzen ziran gajoak!

Arrokeriak jarri zituen
oiek arro bezin ero,
olako zerbait pentsatu bear
gauzak ikusi ta gero.
Berri tristeak zabaldu ziran
gerra bukatu ezker:
bildotsen gisa erre zituzten
millaka prisionero.

Iñork eztauka eskubiderik
iñuxenteak iltzeko,
nor da gizona Jaungoikoari
ortan aurrea artzeko?
A zer nolako agintariak
errespetoa jartzeko,
agintzen duna bere anaia
labe batean sartzeko!

Lege ederrak jarri zituzten
gizon oiek beren ustez;
agintzen zeuden, baiña ez pentsa
erriaren borondatez.
Presoren batek anka egiten
bazuen noizbait suertez,
beste amabost iltzen zituzten
faltatzen zanaren partez.

Negargarria gertatu zana
kanpo konzentraziotan;
millaka kaso badira, baiña
bat esango det bertsoan.
Gizon osoak badira pranko
Kristoren artalde ortan,
batek bizia eskeiñi zuen
beste bat salbatzekotan.

Egun batean batek anka egin,
amabost iltzeko artu,
aien artean sarjento gazte
polako bat ere sartu;
iru aurtxoren gurasoa zan,
Kolbe-ri biotza lertu,
ta aren orde z bere bizia
uztea etzan beldurtu.

Aita Kolbe-ri etzaio palta
Jaungoikoaren grazia,
ta agintariei eskatzen die:
«Neri egin justizia!
Zuek nerekin egin zazute
gaur nai dezuten guzia,
baiña sarjento polako orri,
arren!, ez kendu bizia».

Martiriaren gisa il ziñan
zuk zerorrek ala naita,
zuk or egiña martiri batek
egiten duena baita.
Lagun urkorik era ortara
iñork ez lezake maita,
bizian truke salbatu zendun
iru aingerutxon aita.

O, Aita Kolbe, portatu ziñan
zu santu baten modura,
ejenploakin erakutsiaz
predikatzen zendun ura;
au ikusita pentsamentu bat
datorkit neri burura:
ori ezpada, zein joan ote da
mundu ontatik zerura?

La Voz de España, 1972-VII-22 eta 23.
Zeruko Argia, 1972-VII-30.

Añorgako *Jolas-etxea* urrezko eztaietan

Orain berriro bukatu dira
Añorgan Karmengo jaiak,
beste batzuek datoz orain da
berak zearo alaiak.
Poztu zaitezte, txoko ortako
arriba eta anaiak,
Jolas-etxea-k egiten ditu
bere urrezko eztaiak.

Jaiia danean jaiia egiñaz
ta lana danean lana,
ondo ibiltzeko ori da noski
emen egin bear dana.
Ta daukazuten industria da
txoko ortako afana,
mundu guztian gastatzen baita
or egindako porlana.

Jolas-etxea jarri zanetik
berrogeitamar urtera,
nork esango du pauso bakarrik
egin duenik atzera?
Ta erortzeko beldurrik gabe
ibiltzen danen antzera,
ematen duten pauso guztia
pixka bederik aurrera.

Lanean eta jaiak egiten
zerate berdingabeak,
neretzat iñun eztira egiten
Añorgan baiño obeak;
bertsolari ta pelotariak,
nunai dantzari-taldeak,
zer ikusia izaten du, bai,
inguratzen dan jendeak.

Orain ederki ikusten degu
zuen aita ta aitonak
gazte denboran etzirala, ez,
iñoiz geldirik egonak.
Aieri esker ez ote dauzka
Añorgak dituen sonak?
Orain badira, baiña len ere
izaten ziran gizonak.

Añorgan beti izan dezute
deporterako giroa,
bola, pelota, laisterkariak,
futbola eta tiroa;
seme bat bazan zure izena
goi-maillaraño igoa,
bere izenik nik ezin aztu:
au zan Silbestre Igoa.

Añorga beti kirol-kontutan
lendabiziko izana,
oraintxe ere ari da jartzen
bazterretan zer esana;
mutil koxkor bat alterarekin
amaika prueba emana,
gaur Cordobesa bezin famoso
jarri zaigu Castresana.

Beste gauza bat aitatu gabe
ni ez noa gaur uztera,
Añorgan gogor saiatzen dira
lengo giroai eustera.
Lenago zerbait atzeratua
egonagatik euskera,
orain gogotik indarberritzen
ari omen da ostera.

Nik deportea utzita orain
artu dezadan kultura,
bertako seme jator batzuek
emanak daude kantura.
Nor igotzen da orko seme bat
igoa zaigun lekura?
Ia munduko orfeoirikan
onen-onenan buru da.

Nik zorionak ematen dizkat
gaur emendik *Ertizka*-ri,
penak arintzen dabilrelako
gure erri maiteari.
Jarraitu beti beldurrik gabe
artutako bideari,
pakea eta askatasunen
gorantz an beti kantari.

Gaur Donostiko Orfeoia da
ia munduko onena,
ta Añorgako semea bere
buru egiten duena.
Zuk, Aiestaran, orretarako
nola daukazun almena,
goraldu beti zure txokoa
ta Euskal Errien izena.

Bolan da tokan amaika aldiz
or ibiliak gera gu,
ta zuek zerbait goraltzeko nik
badala uste det ordu.
Jolas-etxea-k eta Añorgak
orrenbeste merezi du,
zuen jaietan or izango naiz
gure Jainkoak nai badu.

La Voz de España, 1972-VIII-7 eta 9.
Zeruko Argia, 1972-VIII-20 eta 27.

Azken berdiña

Miren Jone asi zait
neri kargu artzen:
aspaldi eztedala
nik bertsorik jartzen;
norbaitek ezpaditu
aurretik botatzen,
zailla da eltzetikan
babak ateratzen.

Gizonaren bizitza
zearo da motza,
nun da nik lanerako
len nedukan poza?
Kolpe bi jo orduko
nekatu biotza,
inguratzen ari zait
neri eriotza.

Kalean ikusita
esan zidan neri
emana nengoela
alperkeriari;
Zeruko Argia'ren
zuzendariari
esango diot orain
zergatik dan ori.

Len lan egiten nuen
jaiaren pozean,
lotuta ezin eduki
ninduten etxean;
bertso, bola ta toka,
beti jolasean,
minutu bat ez nuen
galtzen otoitzean.

Eztit lotsik ematen
neri esateak:
buru, anka ta beso
daukazkit torpeak.
Laister utziko ditut
noski deporteak,
trankil pasa nai ditut
nik azken urteak.

Geien maite nituen
bola eta toka,
errero baten gisa
beti burni-joka.
Naiz Jaunak eman neri
lareunen bat kopa,
aitagure bat iñoiz
ez nion nik opa.

Bola ta tokarako
ni ez nintzan jaio,
naiz aspaldian egin
makiña bat saio.
Kristau aldetik ez tet
nik jokatu iaio,
Jaunari ere zerbait
eman bear zaio.

Kontatu ezin ala
ditut nik orduak,
sari oien atzetik
alperrik galduak;
nere fama pittiña
eta tituluak
aurki jango dituzte
noski zomorruak.

Kristau aldetik, beraz,
izan naiz kaikoa,
kopak irabaztea
ez baita naikoa.
Damuturikan nago,
nere Jaungoikoa,
Zurekin izandua
esker txarrekoa.

Geiena jota ere,
amabost bat urte
gelditzen zaizkidala
nik esango nuke.
Errege ta ministro,
konde eta duke,
paradero berdiña
eramango dute.

Urtien karga artu
arte bizkarrean,
ez gera konturatzen
gu, zoritxarrean,
naiz millaka titulu
eduki lurrean,
eztutela balio
Jaunaren aurrean.

Eztakigu egunez
edo gabaz lotan
atea joko duen
eriotzak: *tan-tan*.
Neronen azkenengo
ordu larri artan,
Jauna, ez utzi zure
laguntzaren paltan.

Zeruko Argia, 1972-XII-10.

Esker ona

Susto ederra eman nieten
lengo batean etxian:
sano ta ondo oiñez irten da
buelatu berriz kotxian.
Aspaldi ontan *barizarekin*
nenbillen baldar antxian,
amabost egun igaro ditut
gaixorik *Residentzian*.

Zaiña lertzea peligrosoa
dala askok nola dioten,
artu eta ni operatzera
laister eraman ninduten.
Berez berritxu xamarra dana
gaitz da ixilik egoten,
kirofanoan onoko bertso
karkar au bota nioten.

«Lasaitasun bat izugarria
daukat nere barrenean,
nere burua ikusten baitet
txit oso esku onean:
ordua da-ta, mediku jaunok,
asi zaitezte lanean,
bazkari eder bat egingo degu
ondo jartzen naizenean».

Pena bat daukat: jakintsu baten
eran idatzi eziña,
bear bezela nik eskertzeko
Perez Iñigo'k egiña.
Bultoz aundia etzera baiña
bai langillea ta piña,
ordubetea kendu dituzu
neronen ankeko miña.

Anka bat neukan txit itxusia,
baldarra eta astuna,
arrigarria ordubetea
berakin egin dezuna;
buru argia, esku bizkorrak,
ben-benetako zalduna,
zorionsua zure eskutan
ni jarri nintzan eguna!

Gauzak ederki kontatzen dira
emen ikusi ta gero,
ni ain ederki ipintzerikan
ez nuen beintzat espero.
Egia da-ta aitortu bear:
ni operatu ezkerok,
iruditzen zait ote nagoen
ogei bat urte gaztego.

Laguntzailletzat berekin dauka
Julen Bereziartua,
an Azpeitiko parajerikan
ederrenean sortua;
au ere dago Euskalerrian
fama aundia artua,
asko baigera jasotakoak
oien lanaren frutua.

Urte batzuek igaro bear
enfermera ikasteko,
ondorenean Jainkoak jakin
zenbat gauza ikusteko;
min daukanari miñak arindu,
triste dagona pozteko,
a zer nolako opizioa
zerua irabazteko!

Biok apalak ta langilleak,
biok sendagille onak,
au ao batez aitortutzen du
zuen eskutan egonak;
eztituzute zuek billatzen
tituluak eta sonak,
baizik zuentzat nekeak eta
besterentzat zorionak.

Gau-erdian or korrika datoz
gaixoaren ingurura,
al dan azkarren kendu naiean
daukan barruko tristura;
beti gogoan eduki nunbait
Kristoren agindu ura:
lagun urkoa maiteko dala
geure buruen modura.

Gaur enfermerak goraltzeko nik
uxatuak ditut lotsak,
toki gutxitan ikusi ditut
orrelako neska-motzak.
Leku oietan enpliatzeko
oiek dira aproposak:
aingeru baten irudia ta
danak oso kariñosak.

Bertso onekin ematen diot
gaurkoari bukaera,
ta kontseju bat noa oraintxe
gazteari ematera:
bear duenak neska umilla,
ona eta biotz-bera,
pentsatu gabe artu dezala
gaur bertatik enfermera.

La Voz de España, 1973-III-14 eta 15.
Zeruko Argia, 1973-IV-8.

Gazteak eta zarrak danak ez dira txarrak

Alperkeriak uxatu eta
ekiten diot lanari,
kastigutxo bat eman bearra
daukat nere buruari;
kristau artean badabil orain,
jaunak, zer esan ugari,
oroitu gabe danok gerala
mundu ontan pekatari.

Kristau batzuen jokaera nik
gaur billatzen det itsusi:
lagun urkorik ezin du askok
begien pintan ikusi;
gauza onikan iñoiz egin ez,
kontatu milla fantasi,
oiek ez dute Kriston dotriña
oraindik ondo ikasi.

Urte au ere aurreratu ta
lengo naigabe berdiñak,
ai zenbat negar sortzen dituan
alkar ikusi eziñak!
Gure barruan sartuta daude
pixti txarrenaren griñak,
gizonak gera emen askotan
animalirik aundiñak.

Neretzat berdin da eskubia
ta berdin ezkerrekoa,
bear bezela betetzen badu
daukagun egitekoa;
elizara maiz inguratzea
ez da izaten naikoa,
lagun urkoa maite duanak
arek maite du Jainkoa.

Gaur munduari begiratu ta
derrigor esan bear du
maitasunaren arrasto danak
ez ote ditugun galdu.
Alkarren aurka gabiltz egunak
dituan ainbeste ordu,
paradiso bat bear zuana
inpernu biurtu degu.

Apaiz gazteak txarrak dirala
entzuna naiz publikuan,
egi galantak nunbait esaten
oiek beti kulpituan.
Kristo ber-berak orduko itzak
orain esan bazituan,
komunistatzat artuko zuten
gizon askok segituan.

Aldakuntzarik nai ez dutenak
egiten diete traba,
argiak nunbait min ematen da
berak maite dute gaba;
Aita Santuen esanik ere
ez badigute nai laga,
emen norena entzun bear da
ori galerazten bada?

Pausoa franko emanak dira
aspaldian bazterretan,
danok dakigu, ia bi urte
igaro dira obretan.
Jaunari esker bukatu dira
naiz zerbait egon zorretan,
laguntzen faltik ez da izango,
seguru nago orretan.

Apaiz gazteak neretzat dira
langille purrukatuak,
ta berak daude langillearen
problemarekin lotuak.
Badakizkigu guk nola ziran
garai bateko kontuak,
orduana ere orain bezela
danak etziran santuak.

Maiatzerako aldatu dira
gure barrioko jaiak,
seguru nago, izan ditezke
lengoak bezin alaiak.
Berri on bat nik badet zuentzat,
arrebak eta anaiak:
lenengo meza emango digu
Gipuzkoako gotzaiak.

Milla tokitan esana naiz ta
ez naiz aspertzen esaten
apaiz gazteak ari dirala
ejemplo onak ematen.
Gure auzoan or ari dira
lana galanki egiten,
eliz berria zabalduko da
berairi esker Aieten.

Agur bero bat gure gotzaiak
txit merezia ez al du?
Aietearrak, al dezutenak
meza ortara azaldu.
Gure biotzak oso-osorik
berari bertan zabaldu,
ikusi dezan maitasun garririk
emen eztala itzaldu.

Zeruko Argia, 1973-V-20.

Seta gaiztoa

Pena aundi bat sartua daukat
biotzaren barruraño,
setak ekarri gaitula ia
izkuntza ondatzeraño.
Jakin bezate aurtxo txikitik
aitonik zarreneraño
setak uztea ohea dala
euskera galtzea baño.

O, Euskalerrri biotzekoa,
zugana nator kantuan,
ia pixka bat lasaitzen naizen
zedozer esandakuan.
Kezka batekin nabil neroni
etxean eta kanpuan:
gu euskaldunok era onetan
zeiñek ipiñi gaituan.

Deabruren bat buztan luzea
sartu da gure tartean,
nai eztuana gu euskaldunok
ibiltzerikan pakean.
Mundu triste au igaro bear
dozenerdi bat urtean,
ta ale oiek daramazkigu
burrukan anai artean.

Oso txorrotxak izango dira
deabru orren adarrak,
sakabanatu gaitu ederki
geran euskaldun bakarrak.
Perretxikuen gisa gaur nun-nai
sortzen zaizkigu batzarrak,
alkarren aurka enpliatzeko
al dira gure indarrak?

Bide txarretik goazela gu
gaur ezin gentzake uka,
atxe dala-ta anai guziok
emen gabiltza muturka;
gure etsaiak irriparezka
esanaz: «Au dek, au, mauka!»,
lau periodiku Euskalerrrian
ta denak alkarren aurka.

Milla euskaldun gauden tokian
daude milla oponiyo,
baiña alare ez aserretu
letra bat dala meriyo.
Guk gai onetan joka dezagun
gizonki eta seriyo,
ura pasata presa egiteak
eztualako baliyo.

Atxe zaleak zeratenak ta
ta etzeratenak berdin.
al dan guzia idatzi baiña
iñori eman gabe min.
Nai dezutenak *Zeruko Argia*'n,
besteak berriz *Goiz Argi*'n,
an edo emen neri berdin zait
baiña pakean lan egin.

Ur zikiñean pozik egiten
du deabruak arrantza,
ta euskerari kendu nai dio
lenbailen azken arnasa.
Ori gertatu baiño lenago
berari moztu isatsa.
ez dezan berak geiago nastu
euskaldunaren baratza.

Atxekin edo atxerik gabe
pakean ari gaitian,
al dan guztia beti idazten
gure euskera maitian.
Nik ondo dakit ezin dirala
gauzak konpondu kolpian,
denboraz noski sartuko dira,
bai, urak beren tokian.

Zerbait idazten degunak gera
ia bi milla euskaldun,
atxekin edo atxerik gabe
danok bear degu lagun.
Askatasuna ta justizien
alde beti gogor jardun,
ia onela erri zar au guk
pixka bat moldatzen degun.

Zeruko Argia, 1973-VII-15 eta 22.

Allenderen alargun eta Txileri

Zuen errian zer gertatu den
nik emen jakindakuan,
bertso batzuek jartzeko luma
laster artu det eskuan.
Zure biotza gaur egongo da
penakin ia lertuan,
gurutzetxo bat guztiontzako
bada gabiltzan lekuan,
pazientzian eraman zazu
Jesusen izen santuan.

Zuk motiboak badituzu, bai,
triste egoteko aiña:
gizona il da Txileri berriz
moztu diote mingaiña.
Gero santutzat beren buruak
jo dituzte alajaiña,
gezurra dana egi biurtu
naiean dabilta, baiña
denboraz noski izango dute
merezi duten ordaiña.

Txiletarraren naia izan da
oso denbora gutxiko,
nik banakien kapitalistak
etziotela utziko.
Auek ez dute langillearen
alde legerik jarriko,
baiña badakit ez dezutela
iñola ere etsiko,
bestela beintzat galdu zerate
zeon bizitza guztiko.

Agintari bat langillearen
alde emen jartzen bada,
berealaxe izango ditu
berak amar milla traba.
Allende jauna zerbait asi zan
baiña etzioten laga,
txuri ta gorri, ori ta beltza,
laikoa edo kristaba,
bi dituanai bat emateko
alperrik esatea da.

Allende jauna langillearen
alde jarri zan orduan,
berealaxe tratatu zuten
pixti txar baten moduan.
Jesus maitea, ark zure itzak
eduki zitun goguan:
zuzentasuna ta justizia
izan zitezen munduan,
bi zituanak bat emateko
zerorrek esan zenduan.

Asmo on oiek Allende jaunak
artu zituan gazterik,
langillearen joan-etorriak
ez diralako uskerik.
Mundu guztian neretzat etzan
gaur agintari oberik,
bere izenak ez du merezi
gorantza gabe uzterik,
etzualako lurean egin
Kriston esana besterik.

Txile aldean zer gertatu dan
guk ez jakin arren klaro,
zerbait gogorra izandu dala
oso sinistuta nago.
Ezker jendea artua dute
iñoiz baiño gogorrago,
talde ortatik ia geiena
giltzaperatua dago,
len erdipurdi baldin bazeuden
orain askoz okerrago.

Ur zikiñean pozez ibiltzen
zaizkigu arrantzaleak,
naiz langilleen odolarekin
berriro busti kaleak.
An ez dituzte irakurriko
nik jarritako aleak,
baiña alere jakin bezate
bertako indar-zaleak
aizea ereiten duenak biltzen
ditula denboraleak.

Petxua jo ta «Damu det, Jauna»
esanarekin bakarrik,
seguru egon, ez da zuzentzen
guk egindako okerrik.
Beste munduan ez dute artzen
urrerik eta zillarrik,
Kriston aurrean ez dutelako
arrokeriek indarririk;
lagun urkoa maite ez badu
beste guztiak alperrik.

Txile maitea, laguntzen dizut
nik eramaten lutua,
baiña berriro aurki joko du
askatasunen tutua.
Naiz zu gaur egon beso ta anka
soka gogorrez lotua,
mundu guztia zorionean
daukazu konturatua
il diran oien odolak ziur
emango dula frutua.

Zeruko Argia, 1973-X-14.

Abebe Bikila-ri

Jaio orduko gurutzetxo bat
artzen degu bizkarrean,
bizi guzian eraman bear,
ezin utzi baztarrean;
guk nai genduken zorion ori
ez dago noski urrean,
arrosa baiño arantza geio
izaten baita lurrean.

Jaio giñanok joan egin bear
naiz negar egin sendiak,
onuntzarako sortuak dira
errekak eta mendiak;
penaren penaz zotinka daude
Afrika aldeko jendiak,
azken arnasa emana baitu
beren Bikila aundiak.

Kontrariarik etzuan berak
aldapan edo ordekan,
eta nagusi egondua da
zortzi urtean errenkan;
gero txapela Wolde-ri utzi
an Mejjikoko lurretan,
orretxegatik bien izenak
daude urrezko letretan.

Ezbear batek menderatuta
mundu ontatik joan zera,
ainbeste doai eman zizkitzun
Jaungoikoaren aurrera;
irabazia izango dezu
zuk azkenengo karrera,
laisterka ainbat gizon izaten
baldin saiatu bazera.

Utzia dezu azken urtetan
exerita zeunden silla,
eta joan zera azkenik ez dun
zorion ederren billa;
agur, Bikila, kiroltzale on
leiala eta umilla,
nik opa dizut zure ametsa
egi biurtu dedilla.

Zeruko Argia, 1973-XII-2.

Basarrik aurretik: «Abebe Bikila, munduko korrikalaririk onenetakoa, il berria da. Auto batek jo eta bere azken urteak elbarriturik kurpillakiko aulki batean eseririk igaro ditu. Euskal Errian ere badaukagu orrelako zerbait gertatuta. Luziano Manterola, gure lurrean sortu dan arraunlaririk onenetakoa, Orioko semea, bere erria estropadetan ainbeste aldiz goi-maillara igo duana. Bientzat dira gaur Manuel Matxainek bialdu dizkigun bertsoak. .

Manterolari

Bertso batzuek jartzen dizkitzut
biotzen barren-barrendik,
oroigarri bat izan dezazun
zuk ere nerongandik;
gazte jatorrak zorionean
bazaude oraindik,
zer ikasia franko badegu
guk, Manterola, zugandik.

Nik egunero egiten diot
Jaungoikoari oroitza,
urte askuan eman deizula
zuri bizitzeko poza;
orretarako zu ondo zaude,
gazte daukazu biotza,
eta aingeru zoragarri bat
ondoan: Maria Rosa.

Ezbear batek zimeldu ziñun
lore bikain ta mardula,
baiña badakit pazientzian
guzia daramazula;
zauden tokian keja txiki bat
etzaizu entzun sekula,
iñork merezi badu bertso-rik
zuk bai merezi dezula.

Txit animoso zaudela zu
berriro egin det jakin,
apetitua bikaiña eta
oso umore onakin;
gizonak ez du izutu bear
Jaunaren laguntzarekin,
zoriontsua izango zera
zure aingeru orrekin.

Au negarrezko ballara zala
lenengo esan zuana,
aitortu bear etzegoala
burutik oso joana;
naiz gerontzat billa ibili
diru, aginte ta fama,
nere iritiz osasuna da
geien balio duana.

Zeruko Argia, 1973-XII-2.

Gabon tristeak

Periodikutan ugari datoz
oraintxe albiste beltzak,
alperrik dira emen askotan
egiten diran ametsak.
Urte au ere ia joan zaigu
ta neri iruditzen zat
Gabon tristeak ote ditugun
auntengoak askorentzat.

«Zu pekatari» esaten degu
danok aoa betean,
«Zu pekatari» esanaz gabiltz
ia bi milla urtean.
«Ni pekatari» biotz barrutik
irtetzen ez dan artean,
seguru nago gu ez gerala
emen biziko pakean.

Nik ez nuke nai minberatzerik
iñor neronen bertsoak,
nere asmoa ori ez dala
ondo badaki Jainkoak.
Naiz ta bidean iñoiz billatu
traba edo oztopoak,
nere barruan ez du indarrik
iñoiz artu gorrotoak.

Pekatariaik konde ta duke,
ministro eta errege,
ale bat ez da pekaturlkan
egin gabea beñiere.
Pekatariaik iñoren kontu
bizi diranak dotore,
pekatariaik beti lanean
aritzen geranok ere.

Gabon jaietan bederik beintzat
gu egin gaitezen kargu
gorroto eta zitalkeriaik
uzteko badala ordu.
Bertsolariaik askatasuna
eta pakea maite du,
bide ortatik jarraituko det
gure Jainkoak nai badu.

Argi ta garbi nik emango det
nere iritzi apala:
anka gaiñean gabiltzan danok
pekatariaik gerala.
Eta norbaitek esaten badu
bera errugabe dala,
azken orduan konpesatuta
Jaunak topatu dezala.

Jakin zazute, agintari ta
berdin gizon elizkoiak,
ejenplo gabe alper-alperrik
dirala orain sermoiak.
Goien zautenak entzun arretaz
bekoaren arrazoiak,
bestela nola konpondu emen
nagusi eta morroiak?

Nork bere maillan bete ditzagun
dauzkagun eginkizunak,
auxe eskatzen digu guzoi
kontu artuko digunak.
Agintariak mendekoekin
izan, bai, biotz bigunak,
iñoiz bada-ta oraintxe dira
orretarako egunak.

Alkar maitatuz bizi gaitezen
aberats eta pobreak,
emen orixe agintzen baitu
Jaungoikoaren legeak.
Naiz ta berdiñak ez izan gure
pentsakera ta ideak,
errespetatu ditzagun beti
alkarren eskubideak.

Mundu triste au oraintxe ere
beteta dago naigabez,
ez ote gera oraindik ase
inoxentien odolez?
Neri berdin zait itzegin txinoz,
euskeraz edo arabez.
Penagarria Gabon-jai danak
pasa bearra negarrez.

Kristorentzako berdiñak dira
txuria eta gorria,
berak gurekin ibiliko du
guk dabilkigun neurria.
Gogoan izan bein eman zuan
epai gogoangarria:
pekatu ez duan arek
bota dezala arria.

Kristo Aurtxoak jarri zituan
Eguarri eta Gabonak,
pake santuan igarotzeko
mundu guziko gizonak.
Itzak utzi ta asi gaitezen
ematen ejenplo onak,
Urte Berriak ekarri ditzan
pakea ta zorionak.

Zeruko Argia, 1973-XII-23.

Enbeita eta bertsolariak ispillu

Jaunari esker maiz sortzen dira
bertsoak sortzeko gaiak,
oraingo auek zorionean
dira zearo alaiak.
A zer aukera jarriko digun
Enbeita zarraren jaiak
biotz-biotzez besarkatzeko
Bizkai aldeko anaiak!

Euskaldun asko bilduko gera,
ori seguru badakit,
Enbeita eta bere lagunak
bertan entzuteagatik.
Zu lana pranko egiña zera
naiz ez atera zaratik,
merezi dezun omenaldia
egingo dizu Donostik.

Berandu baiña etorri zaizu,
Enbeita maitea, txanda,
lengo urteko omenaldian
ala aukeratu zan da.
Nik zure berri ondo badakit
ta ez lagunak esanda:
gerra denboran ibilli giñan
alkarri esku emanda.

Gizon jatorra jatorrik bada
ta bertsolari bikaiña,
egien alde dantzatu dezu
beti zerorren mingaiña.
Orain arteko lanak alperrik
izango zituzun, baiña
nekez bederik jasoko dezu
merezi dezun ordaiña.

Egun auetan asko datozkit
gure lantegi aldera,
eta geienak egiten dute
neronengatik galdera.
Nik lagun asko ditudala-ta
ez al nezaken atera
Astoriako jai ortarako
dozena erdi bat sarrera.

Etzait gustatzen neri sartzea
idazlearen lanetan,
nik ezer gutxi dakidalako
gramatikako gauzetan.
Baiña bi talde ikusten ditut
emen alkarrekin setan,
gure artean au gertatzea
negargarria benetan.

Danok dakigu emengo seta
guk noiz ezkeru daukagun,
eta onela jarraitzen bada
guziok gera errudun.
Bertsolarien bide jatorra
ia guk noiz artzen degun:
esan bearrak esan, bai, baiña
berriro len bezin lagun.

Setak utzi ta artuko dala
aurki bide bat zuzena,
egia esan, neronek beintzat
badaukat itzaropena.
Bi aldetatik ikusten det nik
borondaterik onena,
au ikusita ez konpontzeak
neri ematen dit pena.

Euskaldun asko jarriak gaude
egoskor eta kaskallu,
ta gaur gabiltza besa-tiraka
gure etsaien jostallu.
Ez litzake, ez, emen izango
dabilen ainbat istillu,
bertsolariak artu ezkeru
geronentzako ispillu.

Atxekin edo atxerik gabe
luma ibilli pakean,
arrazoi ori nundik dabilen
denborak esan artean.
Elizak ere asmo berriak
artu dituan urtean,
ez dezagula geronen kulpaz
euskeru sartu lurpean.

Bertsolariak ez dakit gauzak
nola artuko dituzten,
baiña ez dira beren artean
edozein moduz zapuzten.
Ta egunero ari zaizkigu
guziori erakusten
gizonak jakin bear duala
esaten eta entzuten.

Bakar batzuek gu ikusita
beti setan gabiltzala,
esaten dute gure izkuntzak
bizia motza daukala.
Baiña nik ere eman nai nuke
nere iritzi apala:
bertsolaririk bizi dan arte
euskeru biziko dala.

La Voz de España, 1974-I-?:
zenbait bertso.
Zeruko Argia, 1974-II-1.

Zorioneko futbola

Bertso auetxek irakurtzean
burutik joana nagola
bakar batzuek esanda ere
ez dit batere ajola;
beingoagatik aitatuko det
zorioneko futbola,
gaur badirudi beste problemik
Españian ez dagola.

Egia esan, ni ez nator bat
gaur emen dabillen modaz,
modak bezela au ere noski
aldatuko da denboraz.
Milloiak artu eta kanpora
futbolista billa goaz,
baiña erririk ez da altxatzen
pelota ostikoz joaz.

Futbola izan da egun auetan
periodikuen izkuntza,
eguneroko ogia nunbait
ortik etorri onuntza;
Yugoeslabia genduen aurka,
guk galdu bat eta utsa,
oraingo ontan faltatu zaigu
Jaungoikoaren laguntza.

Moda klase au nola demontre
begi onakin ikusi?
Futbolistentzat milloiak eta
beste batzuk ezin bizi.
Jakintsuk ere laguntzan faltan
badira joanak igesi,
au egiten dun erriak ez du
txalo aundirik merezi.

Zentzu pixka bat duan guziak
futbola zer dan badaki:
jendea zerbait distraitu ta
dirua bildu galanki.
Garai batetik aldatu dira
ementxe gauzak ederki:
deporte utsa lenago zana
gaur milla gauzen tapaki.

Danok dakigu Holandatikan
Cruyff ori etorri dala,
ta gure eun anai miñetan
an gogor ari dirala.
Ez derizkiot itxurazkoa,
ez derizkiot formala
emen bakarrak irabaztea
ango eunen jornaia.

Lau ostikon truk jasoak ditu
ziento bat milloi eskura,
berak artuta eramán ditu
bere lurreko bankura.
Ango bankuak alaitasuna
ta emengoak tristura,
erri pobrea gera gu baiño
aberatsaren itxura.

Gizon oiek guk artzen ditugu
zearo biotz zabalez,
ta berak berriz gure erria
maitatzen dute azalez.
Fitxaje oiek, nik galdetzen det,
egiñak al daude legez?
Ori ez al da esaten dana
evasión de capitales?

Ez du ajolarik gelditu arren
futbol kontuan kanpuan,
beste gauzetan baldin bagaude,
jaunak, bear dan lekuan.
Oraindik ere denboraz gaude
asi gaitezen tratuan,
ea lenbailen gu ere sartzen
geran Europa Batuan.

Baiña atear irekitzeko
Gaur Europa Batuari,
oker batzuek badauzkagula
esaten digute guri.
Emen geienok badakizute
zer degun, bai, oker ori:
politikako partidu gutxi,
futbolekoak geiegi.

Zeruko Argia, 1974-III-10.

Au mundua

Gure lenengo guraso zarrak
ziran Eba eta Adan,
mundu ontako martxa geroztik
badakizute nola dan:
gerra, burruka ta naigabea
bada emen ez bada an,
Aralar puntan dauden artzaiak
biziko dira patxadan.

Nekerik gabe bildu nai degu
emen geienok ezkurra,
baiña batzutan ez da izaten
nai degun bezin xamurra.
Geronentzako puska goxoa,
bestearentzat ezurra;
mundu ontako egia au da,
gaiñontzekoa gezurra.

Jesus maitea, au da mundua
gizonok egin deguna,
arrigarria atentadu bat
izaten ez dan eguna.
Bi xoxen truke saltzen degu gaur
anaia eta laguna,
labe gorria biurtu degu
zerua bear genduna.

Danok nai degu lujan bizi
diru artean igari,
baiña gizonak ez lezake egin
Jainkoak ainbat mirari.
Eskuarteau lau txanpon eta
bi tiro eman lanari,
gero gaiñetik iseka egin
lanean ari danari.

Kristok dotriña ipiñi zuan
gizonek bete zezaten,
gero pakea ta zoriona
zeruan izan dezaten.
Ao betean danok gabiltza
kristau gerala esaten,
baiña bear dan ejenplorikan
iñork ez degu ematen.

Gauza bat dago zoritxarrean
elurra bezin garbia:
ez degula nai iñork atera
kopetetik izerdia.
Ta danok berdin esaten degu
ez ote degun obia
iñoren kontu jatea emen
eguneroko ogia.

Gizon geienok nai degu emen
bapo janda ondo bizi,
bestearantzat izerdia ta
guretzat milla ganantzi.
Naiz egunero elizara joan
ta limosnatxo bat utzi,
Jaungoikoaren aurrean onek
ez ote du indar gutxi?

Danok dakigun gauza da eta
ez dago esan bearrik
gure kaltean dirala danak
bide txarretik etorrik.
Eta pakerik ez da izango,
gabiltza alper-alperrik,
gizonak emen ez duan arte
Jaungoikoaren beldurrik.

Gizaldi onak ipiñi ditu
emen aurrerapen pranko,
baiña beldur naiz ez ote diran
geienak kaltetarako.
Bistan dagona ezin ukatu
egi aundia dalako:
noiz izandu da orain ainbeste
sekuestro eta atrako?

Gure asmoak bide onera
lenbailen aldatu bitez,
zeru ederra irabazteko
gure izerdi ta nekez.
Gaurtik aurrera artzen ditugun
lan da ezbearren partez,
azken ordua datorrenean,
Jauna, errukitu zaitetz.

Zeruko Argia, 1974-III-17.

Zorioneko *streaking*

Nere lagun bat inguratu zait berebiziko kezakakin:
gaur ez dagola burutzerikan mutillak eta neskakin.
Moda berri bat sortu dala-ta izena ere bazakin:
danen aotan or omen dabil zorioneko *streaking*.

Egia esan, moda kontuan gu biok gera legoak,
auek zergatik sortuak diran esango digu geroak.
Baiña ekartzan baldin baditu gazteriaren beroak,
bertso batzutan emango ditut emen erremedioak.

Oraindik ez da asko azaldu gu bizi geran lurrera.
baiña nork esan emen berari egingo zaion arrera.
Neska gazteak larru gorrian ikusten asten bagera,
sasoi daukana igo diteke katedraleko torrera.

Aspaldi ontan or ari ziran gonak egunero mozten,
gaur bate gabe ikuste orrek ez nau ni geiegi pozten.
Ogibidea galtzen bait dute aritzen diranak josten,
sastrearentzat a zer oporrak oraingo martxan datozen!

Era ortara ibiltzen dira mundu ontan abereak,
oiek bezela ikustekotan, jaunak, egin du gureak.
Lau anakoen gisa lenengo ikusten diran aleak,
asunarekin ondo igurtzi kendu arte azkureak.

Udaran noski moda klase au egingo zaigu ugaldtu,
baiña oraindik, egia esan. ez da askorik zabaldu.
Bera indartu baiño lenago nai baldin badegu galdu,
larru gorrian ikusten dana Polo Norte-ra bialdu.


Odol beroak dauzkanari an
jarriko zaizka epelak,
eta gogoak joango zaizkio
erakusteko okelak.
Paraje aiek nola diran txit
preskoak edo mospelak,
bertan eduki gorputz guzian
atera arte ospelak.

Berdin baldarrak zeratenak ta
berdin tipo piñekoak,
modarengatik ez beintzat kendu
iñoiz zuen soiñekoak.
Oso ederki daude barrenge,
zer esan ez gaiñekoak,
larru gorrian etzaudete, ez,
jantziakin aiñekoak.

Polo Norte-ra egin ezkerro
aste beteko bisita,
laster ditugu modak dituan
txorakeriak utzita.
Ta armarioan baldin badauka
abriguren bat josita,
bueltarakoan ikusiko da
pozikan asko jantzita.

Gazte maiteak, etzaitzeltela
izan berde ta lizunak,
ta beti bete bear bezela
dauzkagun eginkizunak.
Oso gutxian irauten dute
modaren asmakizunak,
urteen kargak uxatzen ditu
gorputzen berotasunak.

Zeruko Argia, 1974-IV-7.



Ospakizunen batean.



Manuel Matxain, ezkontza batean, elizan bertso kantari
(Foto Jesus Marin, Donostia).

Pake urtea

Emen daukazu, Jesus maitea,
gaur Aieteko erria,
beti bezela gure jaietan
Zuregana etorria.
Emen daukazu kale gizona
ta emen nekazaria,
emen nagusi eta morroia,
emen txiki ta aundia.
Emen daukazu gaur egiten
zaienak omenaldia,
ainbat urtetan gure elizan
seroratzan ibilia.
Komeni bada, entzun iguzu,
Jauna, gure eskaria,
urte askoan gorde itzazu
Manuel eta Maria.

Zintzo betetzen ez degulako
zuk jarritako legea,
gure artean indartu zaigu
burruka ta aserrea.
Aserre dabil kale gizona
ta aserre abadea.
Galdu ote da garai bateko
gure euskaldun fedea?
Bakarra degu nere ustetan
pakeratzeko bidea:
errespetatu dezagun beti
lagun urkoen idea,
ez dezagula bein ere esan
onena dala gurea,
gu juzkatzeko naikoa da-ta
zeru ta lurren Jabea.

Erri batzuek ikusten ditut
danetik sobre dutela,
beste batzuek beti goseak
negarra dariotela.
Pake urtean gauden ezkerro
ezin jarraitu onela,
edo pakerik ez da izango
gure artean bestela.
Egizu, Jauna, erri aundiak
konturatu ditezela
gurutze ortan txintxilikan Zu
guziongatik zaudela;
eta azkenik indartu zazu
guzion fede epela,
lagun urkoa maita dezagun
gure burua bezela.

Zeruko Argia, 1974-VI-2.

Bertsoen aurreko itzak;
«Maiatzaren 26'an bukatu ziren
Aieteko festak. Beste gauza askoren
artean, herri-meza zoragarri bat eratu
ziguten aietearrek. Manuel Matxain
izan genuen mezatan bertsolari. Hona-
ko hiru hauek abestu zituen. Urte as-
koan eliz-lanetan jardundako Manuel
eta Mariari eskaintzen zitzaien meza
eta gorazarrea.

Jesus Eskisabel

Berri tristea periodikoan
gaur irakurri detena:
eskelatxo bat eta barruan
lagun on baten izena.
Bazirudian jo eta bota
bear zuala zezena,
baiña gutxien uste danean
etortzen zaigu azkena.

Preso geundela ezagutu nun,
gela batean tokatu,
sekula etzidan eskatutako
mesederikan ukatu.
Ta nai zuanak larrialditan
gizon oso bat topatu,
Legorretako Jesus zanakin
aldez aurretik kontatu.

Jainkoak egin ziñun zu, Jesus,
gizon ona ta jatorra,
lagun artean bromosoa ta
buruz argi ta bizkorra.
Baiña gauza bat ipiñi zuan
guziontzat derrigorra:
eriotzakin ordaindu bear
gure pekatuen zorra.

Orrelakoak ez daude asko
orain noski bazterretan,
erdia eginda aritzen dira
makiña bat berriketan.
Zuan pixua baiño geiago
balio zuan urretan,
piska bateko pena ederra
utzia du Legorretan.

Berak *etorri* esandakoan
anparorik ez iñundik,
gure animak atera bear
gorputz ustelen barrendik.
Alperrikan da guk esatea
ez degula nai oraindik,
milla gudari jarrita ere
joan egin bear emendik.

Ikusten nuan gazte askori
beti ejenplu ematen,
pakea eta beren erria
biotzez maite zezaten.
Nik bere berri badakit eta
ez naiz lotsatzen esaten:
gizon bezela kostako zaigu
bere laurdena izaten.

Arrosa baiño arantza geigo
dago gure zelaiean,
ta oiek kentzen saiatzen ziñan
beti bere garaiean.
Zuretzat etzan pozik izaten
astean eta jaiean,
anaien batek ogi koxkor bat
falta bazuan maiean.

Azken agurra egin naiean
joan giñan elizaraiño,
ainbeste jende etzan izandu
Legorretan egundaiño.
Erri guzien otoitzarekin
igo zera zeruraiño,
zu maiteago ziñuten nunbait
errege guziak baiño.

Negarrik zegon tokian etzan
Jesus izango aparte,
on egiteko nork ote zuan
berak ainbat borondate?
Jakín izan det ibiltzen zala
askotan aterik ate,
premian zeuden bere anaiak
piska bat lasaitu arte.

Zu bai ziñala euskaldun ona
ta gaiñera kristau piña,
asko ez giñan zuri zapatak
ankean lotzeko diña.
Orain etzazu damutuko, ez,
guziari on egiña,
Jaunak badaki ordaintzen eta
emango zizun propiña.

Naiz gutxi izan alere beti
beartsuari begira,
obe genuke asko dutenak
orrelakoak balira.
Ta orain, Jesus, joan zeranean
zeruko lorategira,
kendu zenitun arantza oiek
arrosa biurtu dira.

Pasea dezu guzientzako
jarria dagon barrera,
ikusten nago zero goietan
egin dizuten arrera.
Zure bidetik gu ere beti
emen ibiltzen bagera,
bildurrik gabe joan gintezke
Jaungoikoaren aurrera.

Zeruko Argia, 1974-VIII-4 eta 11.

Marmarrak

Lagun batzuek egin didate
neri batzuetan galde
nola ez detan emen idazten
gaurko Elizaren alde;
oien artean egongo dira
gutxienean bi talde,
baiña guziei guk laguntzeko
premi galantean daude,
apaizak ere ez dira ezer
gure laguntzarik gabe.

Bi milla urte, Jesus maitea,
jetxi ziñala zerutik,
zer esanaren faltik ez degu
gizonok izan geroztik.
Deabruaren antza barrutik,
santu itxura kanpotik,
lagun urkoak lur jota ere
ez digu guri inportik,
gure griña ta bizio txarrak
gelditzen badira zutik.

Aldakuntza asko egiñak ditu
urte auetan bizitzak,
ta berakin bat aldatu bear
pixka bat gure Elizak.
Sotana kendu, galtzak jantzita
ibilli arren apaizak,
lengoak dira emen legeak,
lengoak Kristoren itzak,
emen geiena mudatu dana
dira gizonen egintzak.

Elizan aurka ez det itzikan,
dakidala, aterako,
bataioakin bere seme ni
bein egin nindutelako.
Baiña bagaude katoliko
izena deguna pranko,
apaiz gazteak langillearen
alde asi ordurako,
komunistaren izena jartzen
diotenak sekulako.

Oponioa libre da eta
nik emango det nerean:
dudan jartzen det, egia esan
orrelakoen fedea.
Pobreen alde itzegiteko
badute eskubidea,
ta jakin danok ori ez dala
komunistaren legea,
baizikan Kristok berberak emen
ipiñitako moldea.

Gauza batzuek aipatu bear
gaur apaizak elizetan,
naiz gaizki egon len esandako
kristau batzuen ustetan.
Gaurko okerrak gai artuta
asten badira izketan,
esaten dute sartzen dirala
politikako gauzetan.
Elizan esan bear egiak
ezin duanak bestetan!

Egiak orain esaten asi
zaizkigu kulpitotikan,
orretxegatik daude batzuek
zearo arriturikan.
Arrazoiakin ez luke iñork
egon bear ixilikan,
orixe beintzat agintzen dute
gaur Erroma aldetikan,
Kriston dotriñaz ibiltzen dana
ez da sartzen politikan.

Elizak orain agintzen dauzka
gotzai argi ta azkarrak,
eta beraidi jarraitu zintzo
apaiz gazte eta zarrak.
Utzi ditzagun alde batera
ikamika eta marmarrak,
bi taldetako apaizak eta
mundu guziko seglarrak,
iñor bada-ta gu gaude emen
ejenplo eman bearrak.

Gaurko Eliza nola dagoen
goimaitasunez beterik,
ez du merezi iñola ere
laguntzik gabe uzterik.
Alde batera utzi ditzagun
gure arteko uskerik,
politikako kontu oiek eta
gaiñontzeko umekerik,
oiek ez dira egien aurka
dabiltzan batzuk besterik.

Asmo oiekin asi gaitezen
emendik aurrera beintzat,
ejenploakin indartuz beti
esaten ditugun itzak.
Berdindu bitez gure aurrean
ipintzen diran penditzak,
eskandalorik ez beza eman
geiago gure bizitzak,
urte alaiak ikusi ditzan
Jesukristoren Elizak.

Zeruko Argia, 1974-IX-8.

Mendaro Txirristaka

Bederatzi puntuko
sei o zortzi bertso
jartzeko asmoa nik
artu det atzo.
Erraz egin diteke
emen estrapozo,
puntuak ez baitira
billatzen eroso.
Orain goxo-goxo,
ta gustora oso,
lanari eraso,
naiz ibilli gaxo:
Mendaro zana nai det
piska bat jaso.

Orain berrogei urte,
nik daukat goguan,
Aieteko baillaran
ikusi nuan.
Bertso ederrik berak
an kantatu zuan,
aldamenetik ia
ezin giñan juan.
Guziok morduan,
ia bi orduan,
Mendaron onduan
igaro genduan;
jendea nunbait bertan
pozik zeguan.

Geroztikan nik beti,
egun eta gauez,
bertso eder aiekin
egin det amets.
Gizon atsegiña ta
paketsua berez,
irixten zan tokian
beti irriparez,
osatua fedez
eta gizalegez,
arrokeririk ez,
orain zoritxarrez
orlako bat billatzen
ez dago errez.

Mendaro Txirristaka
zanaren izenik
ez pentsatu aztuta
bizi naizenik.
Orain etzaigu sortzen
orlako gizonik,
iñoiz etzan agortzen
bere almazenik.
Egin zuan lanik
jatorra ez danik
esango duanik
bat bakarrik danik
Euskalerrian beintzat
ez det uste nik.

Batzuk alde batera,
besteak bestera,
emen bertsoak jartzen
saiatzen gera.
Bakoitzak artzen degu
nai degun jokera,
Mendarok sortzen zuan
gai xelehrera.
Gutxi gora-bera,
neronen usterá,
ziento bat papera
betea zan bera,
naiz gutxi irabazi,
nere antzera.

Bere bertsoarekin
makiña bat koro
entzuna naiz ni gerra
baiño lenago.
Gaur jendeak ez dauka
len ainbeste gogo
bertsoak kantatzeko,
edanaz bi trago.
Ontan ziur nago
ta esango det klaro:
probatua dago,
ona zan zearo
bertso berriak jartzen
gure Mendaro.

Beartsu jaio zan da
era ortan azi,
eta oso gazterik
lanean ezi.
Euskeraz ta erderaz
pixka bat ikasi,
gero bertso-paperaz
gure lurra josi.
Milla gozo-gazi
igaroz bizi,
gutxi irabazi,
mixerian kasi.
Iltzerikan etzuan
berak merezi.

Mendaro Txirristaka,
gizon xelebria,
ta bi izkuntzatako
bertsolaria.
Nork ez du ezagutzen
aren umoria?
Gaur ere bizi balitz
danontzat obia.
Jenioz noblia,
biotzez aundia,
ta buruz argia,
izketan garbia,
ondo merezi zuen
omenaldia.

Zeruko Argia, 1974-X-27.
Aldizkari onek 8/12 lerroa falta
du. Baiña Matxainek osatuta zeukan
etxean gordetako orrian.

Bizimodu estua

Ez dira alaiak egun auetan
zabaldu diran berriak:
komeri latzak pasa bearrak
ditula gure erriak;
obea dala danok aurretik
ondo artzea neurriak,
galtzak pixka bat estutuzeko
diote agintariak.

Ministroaren esanak neri
sartu didate dardarra:
berriro danok dadukagula
galtzak estutu bearra.
Jexten ari da pezeta eta
jexten ari da dolarra;
txiki ta aundi, guziontzako
dator emen negu txarra.

Mundua nola dagon berriro
dana zearo nastua,
ez da erraza izango noski
egiten danon gustua.
Gaur lanetikan bizi danentzat
txit bizimodu estua,
ogei durokin ez du beteko
orain konprako xextua.

Nere ustetan ari da jartzen
gauza oso seriua,
lenago juxtu dabillenentzat
auxe da alibiuia;
guzien kulpa zuana emen
omen zan petroliua,
gaur bere kulpaz igo al dira
azukre ta oliua?

Gu geienean eskax gabilta,
au bizimodu alua,
beti zerbait e badago emen
galdu arazteko lua.
Ez bedi beintzat emen azaldu
geiago estraperlua,
gutxienean izan dedilla
esnea eta talua.

Olioa ta azukrea gaur
emen daude eskaxian,
etzan izango dauzkagun lurrak
ondo dantzatu bazian.
Emen aurtxoak azukrerikan
gabe jateko trantzian,
ta besterentzat erremolatxa
biltzen gabilta Frantzian.

Gizonak zerbait egin bear du
premian dagoenean,
emen pagatzen etzaielako
joaten dira geienean.
Nekazariak oso gustora
aritzen diran lanean,
lana eginda zerbait probetxu
nunbait ikusten danean.

Ari diranak egunsentitik
gauean illundu arte,
ez al da ondo irabazian
pixka bat artzea parte?
Azukrerikan ez da izango
emen geiago sobrante,
nekazaria bear bezela
pagatzen ez dan bitarte.

Emen askotan egiten ziran
len millaka tonelada,
baiña saltzeko orduan beti
oztopoa eta traba.
Azkenerako danak nazkatu
ta egiteari laga,
gaurko azukre eskaxi ori
ortikan datorrena da.

Okerra au da nere ustetan,
agintari ta nagusi,
ni arritzen naiz orain artean
nola ez degun ikusi:
lana eginda ezin badira
itxura antzean bizi,
aurrera ere joango zaizkigu
estranjerira igesi.

Zeruko Argia, 1974-XI-10.

Urrezko eztaiak

Berrogeitamar urte joan dira
alkarri itza emanik,
ta ezin esan danak gozoak
zuentzat izan diranik.
Tarte orretan ez da faltatu
buruauste eta penik,
amar seme ta ezin osatu
guztientzako jatenik,
gaur arte ez da izan biontzat
egitazko zorionik.

Kriston dotriña ez dezute, ez,
iñoiz eduki aztua,
gose-urtetan azi dezute
pamili eder askua.
Jornal txiki eduki arren
eta aundia kastua,
zuen kabia ez det ikusi
nik beñere zapuztua,
bion artean zegoalako
maitasun egiazkua.

Aiton-amonak elbarriturik
ogei urte gutxienez,
etxean bapo zaitu ziñuzten
maitasunik aundienez,
bear zituzten gauza guztiak
oeraño eramanez;
eta guztia egiñaz beti
borondaterik onenez,
zarrerri eman eta konporme
naiz zeontzako izan ez.

Zoritxarrean moda berriak
badatoz gure errira,
an eta emen dibortzioak
gaur nunai ikusten dira.
Jarri gaitezen errebistetan
pixka-pixka bat begira,
non dago zuek gurasoentzat
izan zenduten kupira?
Maitasun paltan pranko badira
joanak Mixerikordira.

Etxe askotan oker dabilta,
iñola ezin zuzendu,
zuen artean orrelakorik
ez da beñere izandu.
Jornal txikitik amalau lagun
ezi, jantzi ta mantendu,
larrialdiak zetozenean
alkarri pozez lagundu,
ordu tristeak pasa, bai, baiña
beti pakean konpondu.

Mirari ederrak egiñak ditu,
Manuel, zure jornalak,
ixpillu ederra utzi dute, bai,
zuen seme ta alabak.
Zuek bezela etorri dira
umillak eta pormalak,
danak langille amorratuak,
gaiñera biotz zabalak,
iñola ezin txarrak atera
zugaitz onaren ezpalak.

Zuek ziñuzten eginkizunak
daude ederki beteak,
beste ainbeste egiten saia,
seme ta alaba maiteak.
Zabaldu beti gurasoeri
zuen etxeko atea,
bukatu bitez gaur oientzako
izerdi eta nekeak,
danen ondoan igarotzeko
gelditzen diran urteak.

La Voz de España, 1974-XI-30.

Zeruko Argia, 1974-XII-1.

Basarriren aurreko itzak:

«Aieteko berriekin gatoz gaurkoan. Manuel Zubillaga jaunak eta bere emazte prestu Maria Etxeberriak urrezko eztaiak ospatzen dituztela-ta, Manuel Matxain argiak zazpi bertso biribil moldatu ditu. Emen dijoaz».

Urrezko eztaiak

Urrezko eztaiak ustekabeen
orra zueri iritxi,
urteak laister joaten dira ta
aterikan ezin itxi.
Urtetan gora eta sasoi-az
naiz orain pixka bat jetxi,
edade ortan zuek bezela
ikusten ditut nik gutxi.

Zoragarria Abenduaren
aurreneko igandea,
jai aundietan bezela pozez
ikusten nuan jendea.
Eliz aurrean zuen gorantz
jardun dantzari taldea,
txarleston eta txotis oiekin
ederra dago aldea.

Bezperatikan jarria nengon
jai eder onen peskisan,
eta goizean bestetan baiño
lenago esnatu nintzan.
Festa ederrak ikusia naiz
ni Aieteko elizan,
esan dezaket orrelakorik
ez dala bein ere izan.

Amabietan meza santua
txit elizkizun bikaiña,
ta On Jesusek zuen gorantz
dantzatu zuan mingaiña.
Zuen ejemplo ederra pranko
ipiñi zituan, baiña
alere ezin zuen gorald
merezi zenduten aiña.

Elizkizunak bukatu eta
ia jateko garaia,
Fagolla aldera abitu giñan
or baigenduan bazkaia.
Egia esan, ni nola naizen
egundoko tripazaia,
aprobetxatu nuan ederki
zuen urrezko eztaia.

Aiton, seme ta illobatxoak
juntatu giñan mordoska,
guk jandakoa ala zankoa
etzan noski gutxi kosta.
Atera zuten kokotx, txangurro,
txuleta eta langosta,
etzan erraxa saltatzen noski
or egin genduan koska.

Nere artean pentsatzen nuan:
«Artuko ditek epela»,
Jaunari esker etzan izandu
nik uste nuan bezela.
Or ikusten da kontzientzia
garbi ibiltzen dutela,
esan zidaten egin zan koska
erraz saltatu zutela.

Orain onekin bukatzen ditut
gaurko neronen bertsuak,
badakizute zer izan diran
gure jaieko pausuak.
Aiton, amona, seme, alaba
ta berdin illobatxuak,
artu berriro zuek guziok
nere zorion sutsuak.

Zeruko Argia, 1974-XII-22.

Aurreko itzak:

«Manuel Zubillaga eta beronen emazte Mari Etxeberriak berrogei ta amar urte daramatzate ezkondurik. Abenduaren leenengo egunean ospatu dituzte urrezko eztaiak. Bertso batzuk jarri nituen leen ere bien gorantzan. Gaur beste zortzi dijoaz egun eder ortako pasadizo batzuekin».

Europa Batua ta gu

Nazio batzuk elkartu ziran
pozez Europa Batuan,
gauzik geienak zuzendu nairik
pake ta errespetuan;
gure erria ere or dabil
aspaldi ontan tratuan,
ia denboraz sartzen ote dan
besteak dauden lekuan,
Urte Berria iritxi da ta
oraindik gaude kanpuan.

Politikako gure jokera
orixe dala merio,
nere ustetan gure erriai
ateak itxi zaizkio.
Demokrazian bizi generala
guk esan arren serio,
aurrera ere elkarte orrek
atea itxiko dio,
gure erriak lengo bidetik
baldin jarraitzen badio.

Demokrazien itz ori dabil
orain gora ta beera,
geienarentzat txit gustokua
nunbait izango da bera;
inoiz bada ta oraintxe degu
zerbait egiteko era,
baiña beldur naiz ez ote degun
berriz egingo atzera,
itxas ertzean ibiltzen diran
karramarruen antzera.

Gauzak aldatu bearko dira,
ni seguru nago ontan,
gure erriak sartu nai badu
dalako elkarte ortan.
Ez dezagula oraiñ artean
bezela jarraitu lotan,
zer eratarara sartu gindezken
esan digute askotan,
bestela ezer ez generala gu
inoiz izango European.

Gauzak estuak ari zaizkigu
alde guztitara jartzen,
ez generalako *Mercado Común*
dalako orretan sartzen;
gure anaiak asiak dira
lur aietatik bialtzen,
geronen kulpaz ez ote gera
gu ari jokoa galtzen,
ez degulako gure jokera
pixka-pixka bat aldatzen?

Ordua da ta artu dezagun
lenbailen bide zuzena,
adarretikan elduta ez da
menderatuko zezena;
danok dakigu soka zergatik
daukagun emen etena,
ez da geiegi nere ustetan
andik eskatzen dutena,
kaso egitea ez al litzake
danontzat gauzik onena?

Askatasuna langille danak
komeni bada biltzeko,
askatasuna erabakiak
bildurrik gabe artzeko;
askatasuna politikako
partidu batzuk sortzeko,
askatasuna agintariak
botoan bidez jartzeko,
auxe eskatzen digute guri
elkarte ortan sartzeko.

Zeruko Argia, 1974-XII-29.

Zorionak, Iza

Irurogei ta bost urte bete,
oraindik alazankua,
lagun zar Iza, ematen dezu
zuk berrogei urtekua.
Ibilkari gogorra
ta euskaldun jatorra,
ez gizen ta ez plakua,
gizon jakintsu asko bezela
Bergaran jaiotakua.

Gaztea zala joan zitzaigun
Madrid aldera igesi,
mundu berriak nai zituan,
berak dionez, ikusi;
pelukeri batean
ogei ta bost urtean
lan asko egiñaz bizi,
erretiro on bat ez ote zuan
gure gizonak merezi?

Opizioz ba pelukerua,
lan ortan badu gogua,
Madrid aldian artuta zegon
izugarrizko gradua.
Zineko artistari,
markes ta kondesari
bapo apainduz burua,
lagun zar onek aseguratu
du ederki zartzarua.

Jende aundiaz aspertu zan da
etorri zan Donostira,
geroztik emen errege baten
moduan bera bizi da:
ondo jan eta edan
Anastasion Bodegan,
jaietan berriz mendira;
makilka ere etzaigu juango
ori geiago Madrira.

Jai batean Irun joko du
ta urrengoan Alkiza,
bere garaian ekartzen digu
guri makiña bat ziza;
nun da gaixo ez dagon
geldi ezin da egon
artzai zakurraren gisa,
gizon gogorra dago oraindik
gure Tiburtxio Iza.

Lagun zar Izak ez leike esan
nere ustetan iñola
erretiroa sasoi joan da
gero iritxi zaiola;
askok esaten dute
orain ogei bat urte
baño obeto dagola,
Urbiaraiño oiñez joateko
etzaio asko ajola.

Edade ortan danak eztute
izaten suerte berdiña,
geienak naiko ajiatuak,
zu berriz gizon gordiña;
txanpon batzuen jabe
eta ajerik gabe,
auxe suerterik aundiña;
egia ote da, Iza, zerala
orrenbeste lan egiña?

Zeruko Argia, 1975-I-19.

Pobreak eta aberatsak

Adan da Ebak artu ziguten
lenengo bide okerra,
geroztik emen badabilkigu,
jaunak, katramil ederra;
tiroz berdin guk iltzen ditugu
gizona eta eperra,
pake urtean gaudela baiña
bazter guzietan gerra.

Aundikeriak jota gaude gaur
tontoak eta listoak,
ezerez batzuk geranok eta
gerran dabiltzan kintoak,
Kriston ordezeko diran apaizak,
baita ere obispoak,
eta munduan agintzen dauden
errege ta ministroak.

Mundu triste au nola dagoan
guziok gera testigu,
alare Jaunak ez du bialtzen
merezi ainbat kastigu.
Danon onean lege batzuek
emen ipiñi dizkigu,
eta betetzen ez diralako
gerrak etortzen zaizkigu.

Danok nai degu al dan azkarren
bete geronen kartera,
naiz diru oiek gure anaien
kopetetikan atera,
aurrerapen da komodidade
danak ekarri etxera;
iñork ez degu emen bizi nai
Jesus Aurraren antzera.

Nik pentsatzen det aundikeriak
mendean artu gaitula,
eta barruko maitasun garra
berak itzaldu digula.
Gaur indartsuak mendekoari
egiten diote burla,
onelakorik kristau errian
ez zuan bear sekula.

Gure barrua gizon geienok
daukagu pipiak joa,
Kristoren ordezk maite deguna
dirua eta lujoa.
Nor oroitzen da goseak iltzen
dagon Afrika gajoa?
Janaren faltan milloika aurtxo
bertan lurpera dijoa.

Gure mundu au feri bat baita
egin ezkeru lau txanpon,
geientsuenak esaten degu:
«Portatu zaigu San Anton».
Zer ajola du goseak iltzen
egon Afrika ta Japon?
Gure zakua bete ezkeru
gaiñontzekoak or konpon.

Pekatua da jai egunean
mezatara ez joatea,
zer esanik ez Jaunaren aurka
itz larriak esatea.
Pekatua da lizunkerian
lokaztuta egotea,
ta aundiena sobre daukanak
pixka bat ez ematea.

Erri batzuek goseak iltzen
izugarrizko pobrezan,
ta kristau asko joiaz beteta
amabietako mezan.
Sobre daukanak ez badu ematen
ez daukan arrek jan dezan,
kristaua danik iñon aurrean
Jainkoagatik ez esan.

Gure diruak zabaltze orrek
gaur ematen digu miña,
baiña ez luke orrela bear
kristau zintzoak bagiña.
Amar aginduz osatuarren
Jesukristoren dotriña,
lagun urkoa maitatzea da
eginkizunik aundiña.

Zeruko Argia, 1975-III-9.

Bide berriak

Esan didate *Zeruko Argia*'n bertso batzuek jartzeko, Aste Santuan Aieten bildu giñan danak eskertzeko, ta guziontzat Jaungoikoari osasuna eskatzeko, berak nai badu urrengo urtean berriro emen biltzeko.

Kale-gizonak, asi zaitetze zedozer esaten aurtan, beti egon gabe or exerita gure sermoiak entzuten. Bi monjatxo ta seglarrak giñan aldaretik itzegiten, bide berriak urratu dira aurtengo ontan Aieten.

Lengo batean esaten zidan gure parroko azkarrak bide berriak danon onean daudela artu bearrak; Elizak nola premizko ditun gizon guzien indarrak, lanean gogor ekin bearra daukagula guk seglarrak.

Elizarentzat gaur egunean gauzak dabilta serio, baiña ez dute menderatuko Jaunak laguntzen badio. Gaur egunean itzak ez dute txakur txiki bat balio, lenago alde zituen pranko gaur kontra jarri zaizkio.

Erantzun nion: «Orain seglarrak nai al dituzu astindu? Nunbait ez gera bear zan ainbat gu lanean alegindu. Nere burua urteen kargak naiz-ta bastante arindu, ni zure mende naukazu eta nai dezun dana agindu».

Gaur Elizari bakar batzuek kendu nai die larrua, utzia baitu aspaldi ontan utzi bear zan karrua. Gizona beti pekatari da, aundinai eta arrua, Kriston dotriñak ez du utsegin, gurea izan da errua.

Oso zailla da txintxo ibiltzen
Jaungoikoaren legean,
oztopo asko billatzen baidu
gizonak bere bidean.
Tentazioen faltik ez dago
etxean eta kalean,
orrenxegatik erortzen gera
aundikerien sarean.

Pake urtean gauden ezker
orra zer eskatzen dedan:
ez dezagula burrukan segi
pizti gaiztoaren eran.
Ezker, eskubi, txuri ta gorri,
ez dit ajolik nor zeran,
bosteko ori luza eta ea
pakean bizitzen geran.

Zeruko Argia, 1975-IV-20.

Matxainen gorabeerak

Ni baldar xamar ibilia naiz,
jaunak, oraingo aldian,
orregatikan mututurikan
egona naiz aspaldian.
Lagun batzuek or ari dira
nola nagoen galdian,
nere berriak emango ditut
orain *Zeruko Argia*'n.

Izugarrizko barizak neuzkan
eta gaiñera ultzera,
lagun ederrak ez dira auek
gizonarentzat zartzera.
Anka moztuko ez bazidaten
nere aitaren antzera,
presaka xamar etorri nintzan
aje guziak kentzera.

Residentzian igaroa naiz
illabete bat bapua,
izorratuta eduki baidet
nik ezkerreko zankua.
Emen besterik ez da entzuten:
negarra eta lantua;
arro geranak umildutzeko
a zer nolako lekua!

Mundu onetan izango dira
noski milla gaitz klase,
batzuk gogorak eta besteak
sendatu berealaxe.
Guretzat nunbait egiñak dira
zorion eta oiñaze,
eta guziak igaro bear
guk datozen bezelaxe.

Etxe ontara asia nago
etortzen bastante maiz,
meniskoakin lenengo eta
barizarekin bi aldiz.
Lagunak ditut mediku jaunak,
enfermera ta apaiz,
baiña alere oraingo ontan
larririk ibilia naiz.

Nere zain denak ixtar gaiñetik
ateratzen banan-bana
pazientziaz aritua da
Bereziartua jauna.
Esan bearrik ez dago ori
sendagille ona dana,
baiña alere izango zuan
iru bat orduko lana.

Azpeitiko lur santutikan
zatozen izar argia,
sendagillerik onen-onenen
parean zaude jarria.
Ikusi gabe ezin sinistu
izan leikenik egia,
egun batzutan nere ankari
egin diozun aldia.

Oso maiteak zerate biok
dalako planta orretan,
or gaixo egon geran guziok
zuekin gaude zorretan.
Denborarekin, seguru nago,
Residentziko ormetan
bion izenak jarriko dira
urre gorrizko letretan.

Perez Iñigok eta zuk zaintzen
dezute bigarren planta,
gaur sala ori artuta dago
danean fama galanta.
Millaka gera gaur gabiltzanak
zuek primeran lagata,
ta bakarren bat juan bada ere
ez da izan zuen falta.

Aingeru batzuk esan didate
artu omen dutela min,
etxerakoan ez bainioten
danari agurrik egin.
O, enfermera biotzekoak,
egun batzuek itxoin,
tarta pare bat artuta aurki
azalduko da Matxain.

Zeruko Argia, 1975-VI-29.
La Voz de España, 1975-VII-2.

Pelota elkarteak

Bertso batzuek jartzera nua
borondaterik onenez,
gure lurrean jokatzen degun
joko zarrenen omenez.
Pelota eta bertsolaritza
errien muiña diranez,
gaur oso pozik ikusten ditut
elkarri esku emanez.

Lopetegi jaun agurgarria
ta Peña dauzkat goguan,
zorionean jarri ziranak
elkartearen buruan;
pelotariak ez ibiltzeko
ardi galduen moduan,
era ortako erabaki bat
artu bearra zeguan.

Bertsolarien sariketa au
jarri digute udaran,
lanez gaiñezka gabiltza eta
ezin idatzi patxaran.
Baiña pelota nola neronen
oso gustoko lana dan,
ale batzuek jarriko ditut
naiz saririk ez eraman.

Elkarte orri esker indartsu
dago pelota jokua,
kostata baiño ari da artzen
merezi duan lekua;
bere garaian egin zitzaion
bearrezko zan txertua,
gaur eten gabe ematen digu
mundu guzian frutua.

Berrogei ta amar urte juxtuak
elkartasun bat sortu zan,
bide berriak urratuz gure
pelotak jarraitu zezan.
Ordutik onuntz zer gertatu dan
bertsotan nai nuke esan,
len ere zerbait egiten zala
jendeak ikusi dezan.

Bat igotzeko ez det lurrera
botako beste jokorik,
kristau jatorrak ez du egiten
beñere orrelakorik;
baiña egia aitortzeko guk
ez degu bear lotsarik:
kirol bezela ez dago iñun
pelota bezelakorik.

Indartsu dator euskaldun batzuk
erein zuten azia,
bereganatu ditu pelotak
Amerika ta Asia;
kirol onena gurea dala
konturatutzen asia,
zorionean, ez ote dago
oraintxe mundu guzia?

Zerbait aparta berekin badu
gure pelota jokuak,
bestela nola ainbat lagundu
berari gure Jainkuak?
Emen lurrean ortan jostatzen
baldin baziran santuak,
gure jolasa nolakoa dan
ortik atera kontuak.

Gure joko au indartzen danok
egin bear alegiña,
bera dalako kristau askoren
poza eta atsegiña;
San Luis ere libre zanean
amaika saio egiña,
joko au baida izkuntzan gisa
iñun sortu dan garbiña.

Gaur deportista asko dauzkagu
jator da egiazkuak,
bapo goraltzen ari diranak
gure eztai urrezkuak.
Punta, remonte eta nola ez
pala eta eskuzkuak,
danen txapela ekarria du
aurten gure Gipuzkuak.

Egun batean galdetu zien
gure santu gazteari:
une artantxe ea bildurrik
al zion eriotzari;
erantzun zien: «Amar minutu
gelditzen bazaizkit neri,
oraintxe arte bezela nai det
pelotan jokatzan segi».

Beste amabi bertso jartzeko
nago asmoa artuta,
kezka aundi bat daukatelako
nere barruan sartuta.
Ta gauza onek nere biotza
dauka erditik lertuta:
pelota ere ez ote dagon
negozio biurtuta.

Gipuzkoako Pelota-Federazioak, 1975-an, bere urrezko eztaiak ospatze-
rakoan, bertso-paper leiaketa bat antolatu zuan, «pelota, euskal jokoa» gai ar-
tuta. Leen saria Xalbadorrek irabazi zuan; bigarrena, Matxainek bertso auekin.
Sail guziekin liburu bat atera zuan Donostiako Aurrezko-Kutxa Munizipalak,
Pelota, euskal jokoa izenarekin, 1975-ean.

Zeruko Argia, 1975-VIII-3.

Pelota, deporte, latíña

Bertso maiteak, irten zaitezte bildurrik gabe kanpora, iñoiz bada ta orain dalako orretarako denbora; sake batzuek joko ditut nik zabalera ta txokora, entzuten diran gauza batzuekin ez nagolako gustora.

Neri berdin zait Eibar, Bergara, Balda edo Galarreta, frontoi guziak ikusten ditut gaur leporaiño beteta. Arrigarria or diruakin egiten duten suketa, pelota partez orrek dirudi Montekarloko ruleta.

Egun auetan pelota dabil emen gora ta beera, ori dala-ta orain badegu zerbait esateko era; naiz gure jolas zarrena izan neronen ustetan bera, futbolan gisa gaur negozio gu biurtzen ari gera.

Neronek beintzat begiratuta gaur ematen diot traza gutxi dirala joaten diranak bertara denbora pasa; kasino gisa jartzen badute gure pelota jolasa, pena da baiña ez al du laister emango azken arnasa?

Gogoan daukat, amar bat urte izango nitun artean, pelota beste jolasik etzan izaten gure artean; gaur griña eta interes asko sartu zaizkio tartean, bildur naiz oiek ez ote diran izango bere kaltean.

Futbola eta kinielak dira gaurko askoren ametsak, ortik ez dator ezer onikan geronen erriarentzat; frontoitik ere kendu ezkerro korredore ta trabesak, akabo gure pelotari ta akabo gure enpresak.

Pelotan alde ibilli degu
danok mingaiña leguna,
baiña benetan esan al degu
garbi sentitzen deguna?
Etortzen bada korredoreak
kentzen dituzten eguna,
ikusiko da pelota zala
gutxien maite genduna.

Irakurri det ministro batek
berriro esan duala
deporte geio eta latiña
gutxiago bear dala.
Marx-ek esana relijioa
errien opio zala,
nik derizkiot gaur deporte
biurtzen ari gerala.

Naiz ezjakin bat izan neroni
ta idazten arlotea,
ez da erreza emen batzutan
ixilikan egotea.
Ministro jauna, ez ote dezu
aundi xamarra botea?
Gaur arte ondo etorri dira
kultura ta deporte.

Ordu pare bat igarora naiz
pentsatzen oso serio,
jakintsu batek ez ote duan
pirrik ainbeste balio.
Matxainek beintzat gazteriari
gaur auxe eskatzen dio:
pelota ere ez dezagula
egin errien opio.

Lo arazteko da opioa,
gazte maiteak, esnatu:
lenen jakintza da guzientzat,
gero pelotan jolastu;
ez dezagula kirol utsetan
gau eta egun pentsatu,
gure errian badagolako
oraintxe zertaz kezkatu.

Gu euskaldunok kirol kontutan
lenengo mailletan gaude,
ea denboraz ipintzen geran
jakintza gauzetan ere;
pelotan zerbait gu ibiltzeak
ez du kalterik batere,
baiña latiña kirolagatik
bartzartu gabe beñere.

Pelota, euskal joko liburua, Do-
nostiako Aurrezki Kutxa Munizipala,
1975.

Zeruko Argia, 1975-VIII-31.

Eriotza, politika eta Europa

Mundu ontara sortu giñanok
joan egin bear derrigor,
iguldadea jarria dago
dudik ez det egiten or.
Atzo zein il zan guk badakigu
ta biar ez dakigu nor,
Jaunan deiari erantzun gabe
ez da geldituko iñor.

Ez dauka iñork eriotz beltza
atzeratzeko dirurik,
gizonak ezin berari jarri
egunik eta ordurik;
bere segatxo bildurgarria
bizkar gaiñean arturik,
ez da munduan bera oraindik
iritxi ez dan lekurik.

Beti burrukan ikusten ditut
ainbat gizon da naziyo,
mundu ontako aberastasun
batzuk dirala meriyo.
Zertako dira urrezko joiak,
kotxe eta palaziyo,
azken orduan oik ez badute
ezertarako baliyo?

Orain ez dago garai batean
aiña santu eta santa,
emen gogotik ugaldu dana
degu gezurra ta tranpa.
Alkar maitatzen asi gaitezen
arrokeriak lagata,
eriotz beltza guzion billa
aurki etorriko da ta.

Il bear degu zibil, militar,
errege ta erregiñak,
guziok gera emendik pasa
ta zerurako egiñak;
jornalerorik eskasena ta
politikorik aundiñak
azken orduan Kriston aurrean
izango gera berdiñak.

Mundu triste au igaro bear
dozenerdi bat urtean,
eta guziak daramazkigu
burruka gogor batean;
aurrera ere ez gera noski
emen biziko pakean,
lagun urkoa errespetatzen
ikasten degun artean.

Diperenteak bear ditugu
gizon batzuen ideak,
diperenteak diran bezela
zelai bateko loreak.
Txit ondo dago guk maitatzea
geien bakoitzak bereak,
baiña beiñere zapaldu gabe
iñoren eskubideak.

Itxas arruan oso zaila da
ontzia ibiltzea bare,
naiz barruan mariñel onak
batzuk ipiñita ere;
gure erregeak lenen pausoak
eman ditu oso trebe,
ia portura irixten geran
odolik ixuri gabe.

Anai-arrebak, ez gaizki artu
iñork neronen esanik,
gure artean ez dago iñor
pekataria ez danik;
ta ez det uste auxe esanda
deskuidatuko naizenik:
munduan ez da beti arrazoi
izaten duan gizonik.

Agintarien indarra dago
erritarraren botuan,
ori ederki igartzen diat
neronek nere tontuan;
au da gauza bat beti eduki
bear deguna kontuan,
denborarekin guk nai badegu
sartu Europa Batuan.

Errepublikan aldekoa naiz,
egiten det aitormena,
baiña jarri dan erregeakin
badaukat itxaropena;
bere itzari begiratuta
dago oso nabarmena
berriro laster izango dala
presoentzat barkamena.

Agintariak bide ortara
bildu bearra daukate,
gaur ejenploak eskatzen dira,
itz danak daude sobrante.
Seguru egon: gu Europatik
egongo gera aparte,
demokrazi bat egiazkoa
ipintzen degun bitarte.

Zeruko Argia, 1976-I-4.

Lazkao Txikiri

Eratzalleak pasa dituzte
bi edo iru antzoki,
ederrak baiño iñun ez dago
bear dan ainbeste toki;
asmo berriak artu dituzte
nere ustetan egoki:
Balda frontoia izango degu
zure lagunen biltoki.

Lazkao Txiki biotzekoa,
zugana nator kantuan,
gaur itz batzuek barruan baiño
obeto daude kanpuan;
bultoz aundia etzera baiña
iritxi zeran lekuan
aundiak aiña luzitu dezu
beti oraindaiñokuan.

Esan bezela, bultoz aundia
etzera izango, baiña
gizatasunez ez da erreza
izaten zu zeran aiña;
egien alde bildurrik gabe
dantzatu dezu mingaiña,
orain erriak ematen dizu
merezi dezun ordaiña.

An eta emen zuk eman dezu
bear zanean arpegi,
batzuk beldurti jokatu degu
eta zuk berriz piñegi;
Euskalerrian zear esana
zera zu millaka egi,
bide jatorra ori da eta
luzaro bertatik segi.

Irakurri det bertso kantatzen
aspertu zerala ia,
ezin sinistu albiste ori
izan leikenik egia;
amets txar ori izan badezu
lenbailen egin berria,
zu entzuteko amurru biziz
dago-ta gure erria.

Andaluzian maite dituzte
kitarra eta zezenak,
bertsolariak guretzat berriz
iñungo jairik onenak;
an goiko maillan egongo dira
toreroaren izenak,
ta emen berriz –zertan ukatu?–
gure bertsolarienak.

Nik toreroak ikusten ez det
beñere gastatu xoxik,
egia dana aitortzeko guk
ez genduke bear lotsik;
igandean, bai, *Balda* frontoira
inguratuko naiz pozik,
euskaldunentzat ez dago iñun
orlako *plaza toros'* ik.

Bertsolariak beti beartsu,
toreroak aberastu,
baiña erriak biotzez maite
ta iñola ezin aaztu;
jaiean ere, seguru nago,
egingo nuke apustu,
txaloa pranko jotzen dizula,
naiz belarririk ez moztu.

Zeruko Argia, 1976-I-25.

Ez gaitu gustora utzi

Illabete bat pasa ondoren
itzaldi luze baten zai,
aitortu bear gutxi dirala
gelditu diranak lasai.
Demokrazia ogei bat aldiz
berak aitatu digu, bai,
baiña bear dan pausorik orrek
aurrera ez du eman nai.

Nik uste nuan gauzak garbi
azalduko zituala,
ta ikusi det len bezin illun
danak utzi dituala;
erriak zion oraingo ontan
zerbait egingo zuala,
argi dago, bai, *bunker* orretzek
oraindik indar duala.

Egia esan, *bunker* orretan
nik ez dakit nortzuk dauden,
baiña uste det oiek oraindik
agintzen dutela emen;
lenago dudik bazegon ere
ikusi degu nabarmen,
Arias jaunak eskeiñi digun
itzaldiaren ondoren.

Kuadrilla ortan ez dagoana
beretzako da gorria,
ta gauza onek ematen dio
berebiziko larria;
baiña oraintxe bi ezpataren
erdian dago jarria,
bietatik bat aukera bear:
bunkerra edo erria.

Bietatik bat aukera zazu,
ez dago beste biderik,
bien besotik ez dagolako
emen iñora joaterik;
itzaldi ontan etzaizu eman
nora zoazen tankerik,
ez dezu esan zuri komeni
zitzaizun ura besterik.

Guk ezin jakin gobernu ortan
zer asmo artu dituzten,
baiña guretzat ona danikan
bakar bat ez det ikusten;
orain bi urte kanta berdiñak
or erabilli zituzten,
eta erria aspertu zaigu
beti kontu bat entzuten.

Amnistia ta elezioak
guk nai ginduzke iritxi,
baiña beldur naiz ez ote diran
ateak berriro itxi;
Arias jaunen itzaldi onek
ez gaitu gustora utzi,
itz eder pranko esan du baiña
probetxukorikan gutxi.

Arias jaunak òri badaki
gaur iñork baiño obeto:
erri libre bat bear degula
besteakin bat joateko.
Ez ote dira bi gauza oiek
emen denboraz beteko,
guk ain maitea degun erri au
zoriontsu egiteko?

Bi gauza auek eskatzen ditu
orain Europa Batuak,
alde batera uzteko gure
burruka ta gorrotuak:
elezioak libreak eta
libreak sindikatuak,
eta erria gobernatzeko
erriak aukeratuak.

Nik gaur eskatzen dedana noski
ez da izango erreza,
orretxegatik agindu dizkat
San Antonioi bi meza:
sindikatoak ta presoak libre,
ta zer esanik ez prentsa,
orixe baita milloika askok
egiten degun ametsa.

Zeruko Argia, 1976-II-8.

Ala izan dedilla

Berriro ere zugana nator,
nere erri euskalduna,
eta lenengo opa dizut nik
pakea ta osasuna;
orixe baita nere ustetan
guziok bear deguna,
bear bezela igarotzeko
langillearen eguna.

Lege gogorrek ipini ziran
guretzat garai batean,
ta aien mende egondu gera
ia berrogei urtean;
txakurra ere iñoiz lotuta
egoten bada katean,
ortza zorrotzak azaltzen ditu
aldamenera joatean.

Nere bertsoak dijoazte gaur
borondaterik onenez,
ideagatik supritzen dauden
gure anaien omenez;
batzuk euskeraz mintzatzen dira,
beste batzuk katalanez,
guzientzako agur sutsu bat
naiz emengoak izan ez.

«Alkar maitatuz bizi zaitetze»
dio Kristoren dotriñak,
danok baigera orain edo len
zedozertan utsegiñak;
ez gaitezela beti ibili,
gizon gazte ta gordiñak,
txakurren gisa datorrenari
erakutsiaz agiñak.

Gizon askoren aurrean beti
kendu izan det txapela,
dakidalako ori ta geio
iñoiz merezi dutela;
langillearen alde borrokan
topatu dute kartzela,
orain berrogei urte guk ere
izan genduan bezela.

Pakean beti bizi gaitezen
morroia ta nagusia,
asarretzea beti izan da
oso gauza itsusia;
gorrototikan etortzen zaigu
alkar ezin ikusia,
ondorenean beti seguru
gerra ta ezin bizia.

Gaur badirudi egun biurtzen
asi ote zaigun gaba,
egun auetan ikusten danez
zerbait aldakuntza bada;
demokrazien billa dabilta
orain Areilza ta Fraga,
idazten beintzat orain ez dago
lenago ainbeste traba.

Amnistia da gure erriak
daukan amets nagusia,
aundia baita famili batzuk
daramaten gurutzia;
denboraz noski izango al da
erregearen grazia,
etxeratzeko berak nai badu
kulpik ez duan guzia.

Zeruko Argia, 1976-V-2.

Aieteri

Pixka-pixka bat pasa danean
nere buruko tontera,
bertso batzuek jartzeko artu
ditut luma ta papera;
eta lenengo auxe nua ni
Aieteri esatera:
merezi baiño askoz geiago
nerekin portatu zera.

Fede kontuan beti lenengo
nola izan dan *Galtzara*,
ez naiz arritzen ainbeste jende
biltzea erri-mezara;
arrigarria gure on Juanen
itzegiteko patxara,
arrigarriak beren sasoian
Lopategi ta Azpillaga.

Omenaldiak utzi ninduan
dana txurro bat egiñik,
barrioakin nolako zorra
eginda nagon jakiñik;
naiz ez eduki iñun ajerik
ta naiz ez eduki miñik,
aste guzia igaroa naiz
begirik itxi eziñik.

Naiko komeri bazan elizan
danak aulkietan jartzen,
alaere batzuk esaten dute
fedea ari dala galtzen;
barrio dana saiatu giñan
erri-meza ori edertzen,
funtzio ona danean ez da
elizan iñor aspertzen.

Gure auzoko gazteriak
badaukat nik esperantza,
jaiak egiten azaldu dute
beintzat piperra ta gatza;
or etzan falta bertsolaririk,
txistu, soiñu eta dantza,
egun oietan Aietek zeukan
zeru txiki baten antza.

Meza bukatu eta juan giñan
geienok jolas-tokira,
an egon giñan aurtxo txikien
dantza saioai begira;
emendik urte batzuetara
txapeldun izango dira,
orain bezela aurrera ere
gogor saiatzen badira.

Esan bezela, aurtxo guziak
andereñoaren jiran,
kantu ta dantza zoragarriak
egiten aritu ziran;
Euskal Erriko itxaropena
gaur nola gazteak diran,
nere biotza geien-geiena
jai onek ikutu zidan.

Bazkari onak ondorenean
bertso saioa dakarre,
jendea etzan ordubete
antxe egondu asarre;
auzoarentzat nere denboran
naiz ez egin nik ezerre,
bazkalondoan entzun nituan
makiña bat gorazarre.

Bear bezela ezin gorald
gaurko neronen bertsuak,
ain zoragarri dantzatu zuten
ikastolako aurtxuak;
era ortara jarri ditunak
auzoko aingerutxuak,
merezi ditu dudarik gabe
danon zorion sutxuak.

Alkate jaunak oroigarri bat
eman zidan garaiean,
mutu bezela gelditu nintzan
zuen aurrean maiean;
emozioak etzidan uzten
neri itzegiten jaiean,
orduko partez oraintxe nator
zuek eskertu naiean.

Ortik erten da gero genduan
danok bazkari bikaiña,
kupirik gabe ekarri zuten
pagatu zanen ordaiña;
egia esan nik apetitu
benetakua det, baiña
zuk, Azpillaga, jango zenduan
Lopategi ta nik aiña.

Naiz ezer gutxi neronek egin
nere auzoarentzako,
txit borondate ona azaldu
dezute neronentzako;
nere esker ona etzaizue, ez,
bizi guzian paltako,
merezi baiño askoz geiago
egin didazutelako.

Zeruko Argia, 1976-VI-20.

Dirua eta maitasuna

Bertsolari ta poeta asko
nik irakurri ondoren,
aitortu bear ederrarentzat
dirala gorantzak emen.
Au ikusita zoritxarrean
ez ote dago nabarmen,
edertasuna maite degula
birtute danak baiño len?

Nere andrean aita ta amak
ori pentsatuko zuten,
neronengana inguratzea
beintzat etzioten uzten;
beren alaba atzeratzeko
iñalak egin zituzten,
diruarekin itxutzen danak
ez baitu ezer ikusten.

Dama ederra beti izan da
poeta geienen musa,
zer ajola du, ederra bada,
izan txina edo rusa?
Nik naiago det itxusia ta
barrendik maitasun utsa,
ez ederra ta, andre bezela,
diranak zakurran putza.

Nerekin egon, etxean sartu,
amak errietan ekin:
«Ez ote dago karrerarikan
ume mukitzu auekin?
Pilar, iretzat zer komeni dan
amak ederki bazekin:
nola demontre bizi bear den
langille triste batekin?»

Mundu txar ontan zer esanikan
ez da beñiere paltako,
batak ederra eta besteak
itxusia dualako.
Neronek artu nuan garaian
bazan zer esana pranko,
nik itsusia artu nuala
diru duana zalako.

«Gure Jainkoak ipiñia da,
mundua mundu danetik,
gizona emen biziko dala
egiten duan lanetik;
ta Joxe oso langillea da,
ama, nik ori badakit,
eta berakin ezkonduko naiz
traba guzien gaiñetik».

Au entzun da erantzun zidan
amak al zuan azkarren:
«Pilar maitea, ire onaren
billa bakarrik natorren.
Ez al dion ik antzik ematen
Joxe zergatik datorren?
Ire aitaren ondasun danak
jateagatik zetorren».

«Ama maitea, etzaiteala
zu era ortara mintza,
aspaldi ontan Joxe eta ni
asmo batekin gabiltza;
nik ondo dakit nolakoa dan
berak daraman bizitza,
ta ziur nago beteko dula
zintzo emandako itza».

Pilarrek maite ninduala ni
dudarikan ezin izan,
etxeke ondasun danak utzita
neregana etorri zan;
illabete bat pasa baiño len,
Santo Kristoren elizan,
dirurik gabe, baiño gustora,
berakin ezkondu nintzan.

Ezkondu eta lendabizitik
bagenduan naiko neke,
etxe-bizitza pagatu arte
aritu nintzan jo ta ke;
Jainkoak beti laguntzen du ta
bat artu genduan merke:
«Gure aurtxoak nun lo egiña
gutxienean badauke».

Egia esan, nere barruan
nik ez neukan beste penik:
lau urte ontan ez ikusia
Pilarren aita ta amik;
bi aurtxo eder baditugu ta
etzaigu faltatzen lanik,
erri guzian ez dago iñor
zoriontsuago danik.

Jainkoak ala naiko zuan da
orra laugarren urtean
bi gurasoak topatu ditut
gure etxeke atean;
pozaren pozez esan nioten
ikusi eta kolpean:
«Ongi etorri zuen etxera
Jaungoikoaren pakean».

Bi gurasoak nere aurrean
erdi lotsaturik jarri,
esan zidaten: «Barkazioen
eskean gatoz Pilarri».
«Emen ez dago barkaziorik
zertan eskatu iñori,
ate guziak zabalik daude,
nai dutenean etorri».

Besotik artu aita ta ama
ta sartu nintzan barrura,
beren alaba aurtxoarekin
jostatzen zeuden lekura.
Bertsotan ezin adierazi nik
zer izan zan une ura,
bazirudien danok batera
igo giñala zerura.

Mokadutxo bat atera nien
gurasoeri jateko,
eta etxeko ardo zarrena
bildur gabe edateko;
itzikan ezin asmatu zuten
biak guri esateko
diru bearrik ez dala emen
zoriontsu izateko.

Zeruko Argia, 1976-VIII-29.

Esker onez

Gutxien uste nuan garaian
ernia txar bat atera,
amabi egun gaixo egon da
etorria naiz etxera;
alperkeriak utzi ta artu
ditut luma ta papera,
eskertu nairik Residentziko
mediku ta enfermera.

Zuek lanean badaukazute
jakinduria ta maiña,
orratz batekin egoki asko
zulatzen dezute zaiña;
farmako eta penizilinak
oso onak dira, baiña
oiek ez dute balio zuen
irripar goxoak aiña.

Len bigarrena zan bezelaxe
orain irugarren planta,
gaixo artean ari da artzen
danean fama galanta;
ni naiko triste etorria naiz
Residentzia lagata,
ia etxean baiño obeto
bat bertan egoten da ta.

Lagun urkoa zuek maitatzen
dezute noski benetan,
bere ondoan zintzo egonaz
egunan ordu danetan.
Mediku jaunak lasai lo egin
dezateke, bai, gauetan,
beren gaixoak dauzkatelako
zearo esku onetan.

Eskerrik asko, Fani ta Miren,
eskerrik asko, Loreto,
aingeru batzuk zerate danok,
ori badakit zierto;
marmarka iñoiz jardunagatik
bi edo iru paleta,
zuek gaixoa zaintzen dezute
etxean baiño obeto.

Perez Iñigo daukate buru,
gizon jakintsua bera,
ni lau alditan egona naiz ta
ondo ezagutzen gera;
beretzat berdin gibel da saiets,
ernia edo ultzera,
egun gutxian sendatu eta
bialtzen ditu etxera.

Perez Iñigok baditu noski
prueba ederrak emanak,
zer egin ondo jakiten baitu
talentuz osatzen danak.
Arrigarriak dira askotan
egin izan ditun lanak,
ori ederki dakigu bere
eskutan jarri geranak.

Bere laguna lanerako da
Bereziartua jauna,
Euskalerrian zear au ere
degu oso ezaguna.
Donosti, Kosta eta Azpeiti
aldean oso entzuna,
berari esker lortua baitu
gaixo askok osasuna.

Bildurrik gabe eltzen diozu,
Iñigo jauna, lanari,
zure laguntza eskeiñi nairik
premier dagon danari.
Zure labanak egiñak ditu
emen zientoka mirari,
gure Jainkoak gorde dezala
luzaroan esku ori.

Biak mediku apartak dira,
arrigarriak lanean,
bat trankil egon diteke oien
eskutan jartzen danean;
berdin gaitzikan ariñenean
edo-ta gogorreanean,
itxu-itxuan joan oiengana
zedozer datorrenean.

Zeruko Argia, 1977-III-20.

Ez ote partidu geiegi?

Nun demontretik sortu zaizkigu
emen orrenbeste *ista*?
Nere aurrean jarria daukat
nik berebiziko lista:
ta gauza onek nere buruai
kezka batzuk sortzen dizka:
ez ote dagon partidu asko,
baiña oso buru pixka.

Fraga ta Morak sortu digute
Alianza Popularra,
frankista eta bankero batzuk
da oiek duten indarra;
baiña lenengo politiko au
nola dan oso azkarra,
oien aurka guk borrokatzeko
daukagu batu bearra.

Gure erriak nere ustetan
pauso txarra eman digu:
ez ote ziran emen naikoak
izango bi edo iru?
Frankista oiek, gu ikusita
sortzen ainbeste partidu,
beti bezela disimuluan
parrezka ari zaizkigu.

Berrogei urte luzean emen
guri agintzen egonak,
gaur demokrata biurtu dira,
ala dira beintzat sonak.
Lenago txarrak baldin baziran
orain ezin izan onak,
ta gutxiago txaketa ola
aldatzen duten gizonak.

Partidu asko sortzea emen
frankistarentzako obe,
era ortara beti izango
gera gu oien mirabe;
oso zailla da, nere ustetan,
guziok alkartu gabe
iritxitzea gu izatera
gure buruaren jabe.

Itzegiten, bai, azkarrak dira,
ta lanerakoan tongo,
lukainkan ordeztatu digute
guri amaika mondongo.
Gure erria, esan bezela,
zaindu baziguten ondo,
orain ez giñan milloi askoren
zorrak eginda egongo.

Alperrik dira agintariak
egiten dituzten itzak,
ondorenean ez badituzte
esanak betetzen beintzat.
Zer gizon klase gauden gu emen
ederki daki Suizak,
ango bankuan baidaude emen
bear ginduzen dibisak.

Frankok zionez utzi ginduzen
guziok ondo lotuak,
kate oik aixa autsi ditezke
gu joan ezkeru batuak.
Utzi ditzagun sakabanatzen
gaituzten ume kontuak,
ta egiazko demokratari
eman geronen botuak.

Badakizute auteskundeak
aurki guk nola ditugun;
joaten bagera, gure indarrak
danok bat egin ditzagun;
ordua da ta asi gaitezen
gauzak egiten sosegun,
lurperatuta dagon erri au
pakean jaso dezagun.

Antifrankistak bildu gaitezen
danok partidu batean,
gero al dana egingo degu
oiek emendik joatean.
Batasunaren premia dago
oraintxe gure artean,
bestela ez da askatasunik
beste berrogei urtean.

Zeruko Argia, 1977-IV-24.

Aitondu naiz

Irurogei ta bat urte ditut,
oraindik sasoiko nago,
edade ontan asko dabilta
gaur ni baiño okerrago.
Bola ta tokan titulu batzun
jabe banintzan lenago,
seme-alabak eman didate
orain beste bat geiago.

Guraso asko zoritxarrear
ikusten ditut supritzen,
gaurko martxari begiratuta
ez naiz batere arritzen;
oso zailla da jornal batekin
itxurantzean bizitzen.
baiña zaillago seme-alabak
bear bezela ezitzen.

Titulu au da urteen bidez
bati etortzen zaiona,
ta orixe zan Jaungoikoari
beti eskatzen niona.
Nekez bederik gure etxera
etorri da zoriona:
bi aingerutxok aurki deituko
didate neri **aitona**.

Olatu txar bat gure artera
gaur badago etorria,
berdekeria da bata eta
bestea arrokeria;
bi gaitz aueri ezpadiogu
denboraz artzen neurria,
akabo gure gaztedia ta
akabo Euskalerrria!

Bi mutil koxkor zoragarriak
izan dira lenengoak,
gure Jainkoak nai duan ura
izan bitez urrengoak;
aita bezela baldin badira
argiak eta sendoak,
bolan da tokan jarraituzeko
baditut ondorengoak.

Gaur gazteeri begiratuta
eman didaten pena,
bizio txarrak ekar lezake
gorputzaren ondamana;
grña batzuek oso luzea
izaten dute aiena,
errukarria nere ustetan
mendean artzen duena.

Gaur gazte asko ikusten ditut
kolore txuri ta plako,
beren buruak bear bezela
zaintzen ez dituztelako;
zokorik zoko asko dabiltza
ardo, droga ta tabako,
oien artetik Perurenarik
ez da noski aterako.

Nere alaba biotzekoa,
gaur ama egin zera zu,
gaurtik aurrera eginkizun bat
izugarria daukazu;
zure aurtxoak zoriontsuak
ikusi nai badituzu,
Jesukristoren dotriñarekin
azi ta ezi itzazu.

Besteri «izan zaitte zintzoa»
oso errez da esaten,
zaila dana da nere ustetan
norbera ala izaten.
Saia gaitezen gu, gurasuok,
ejenplu ona ematen,
gure semeak zer esanikan
iñoiz izan ez dezaten.

Zure aurtxoak ondo ezitzen
etzazula iñoiz etsi,
ortara etzaizu damutuko-ta
zuri biar edo etzi;
bi gauza dira bearrezkoak,
ta nagikeriz ez utzi:
lagun urkoa eta erria
maitatutzen erakutsi.

La Voz de España, 1978-I-3.
Zeruko Argia, 1978-I-1 eta 8.

Geiago ez gorrotorik

Ez pentsa iñork igo naizenik frankotarraren karruan, bere aurka nik ia bizia utzi nuen Ondarruan. Naiz ta bizkarra maiz berotua preso nengoen orduan, ta metrallaren arrasto batzuk eduki nere larruan, gorrotoaren izpirik etzan gelditu nere barruan.

Nik gorrotoa bakarrik diot anai arteko gerrari, negarra pranko ekarri zion berak Euskalerrriari. Lagundu nairik gure izkuntza ta jaio nintzan lurrari, fazisten aurka boluntario ibili nintzan gudari, egun bat onik ez nuan pasa, negargarriak ugari.

Euskaldun onak baldin bagera ta gaiñera kristau piñak, aztu bearrak dauzkagu danok gerra denboran egiñak. «Alkar maitatuz bizi zaitzte» badio Kriston dotriñak, ez ditzagula berriro ere zorroztu gure ekiñak, naikoak dira len pasatako naigabe eta samiñak.

Berrogei urtez egon ondoren anka ta buru lotuak, zorionean bukatu dira garai artako kontuak; gure lurrean ez dezala, ez, indar izan gorrotuak, desegin bitez al dan azkarren dauden talde armatuak, eta aurrerantz agindu beza errotarraren botuak.

Askatasuna maite degunok ordu degu alkartzeko, gure etsaiak prest daudelarik daukagun pixka kentzeko; ainbeste urte pasa ondoren esklaboaren antzeko, ez ote gera kapaz partidu aundi eder bat sortzeko, gure erriak bear duana pake santuan lortzeko?

Noren kulpa dan ez dakit eta nik ezin eman epairik, etzait gustatzen ikututzea nereak ez diran gairik; gure erriak ez du aspaldi izan egun bat alairik, milla partidu sortu ditugu guztiok agindu nairik, ez al da iñun artalde baten bilduko gaitun artzairik?

Nik ezin esan gaur Kontseilluan
zer asmo darabilkiten,
oraintxe gauzak dauden bezela
ezpaita errez jakiten;
zarren odolak epelak daude,
gaztienak irakiten,
erdi-bidera bildu ta asi
gaitzean itzegiten,
urak pasata alperrik baita
astea presa egiten.

Anaia zeran eskubikoa,
anaia zeran gorria,
guztion kulpaz ez ote degu
gaiñezka jarri neurria?
Ikusirikan gure lantegi
ta langillien larría,
armak utzita denboraz artzen
ezpada bide berria,
akabo gure izen ona ta
akabo Euskalerría!

Beti negarrez dagon erri au
aurki ikusteko alai,
esku artetik armak uzteko
ez al da oraintxe garai?
Guraso asko daude kezkatu
etxean semearen zai,
nik Etakoak anaiak ditut
baiña guardiak ere bai,
geiago odolik ixurtzerikan
gure lurrean ez det nai.

Ikusirikan zer egoera
beltzean jarriak gauden,
ez ote degu bide berrian
sartzeko ainbeste kemen?
Nere ustetan gauza bat dago
argi, garbi ta nabarmen:
gorroto danak ezpaditugu
zokoratutzen lenbailen,
lengo moduan danok burrukan
aurki gerala gu emen.

La Voz de España, 1978-VI-21 eta 22.
Goiz-Argi, 1978-VII-8.

Alkate berria

Udaletxea degula eta
noa bertsoak jartzera,
gaur beartuak gaude guztiok
erabaki bat artzera;
oraingo ontan egingo degu
aurrera edo atzera,
jaioterrian ibili gabe
ardi galduen antzera.

Udaletxea aspalditxoan
alkaterik gabe zegon,
eta erri bat ezin diteke
orrela itxuraz egon.
Orain berria jarri zaigu ta
berari milla zorion,
nekez bederik ikusi baita
erria norekin dagon.

Nik ongi dakit Alkain jaun onak,
enkargu ori artzean,
asmo txarrikan bat bakarrikan
etzeukala biotzean;
Baiña alare ni bere alde
aritzen naiz otoitzean,
dakidalako zer gertatzen dan
askotan etxe utsean.

Batasunaren itz eder orrek
iñoiz jartzen nau kezketan,
bera ezpaitet iñon ikusten
periodikutan bestetan.
Asmo on danak alperrik dira
emen, neronen ustetan,
agintariak baldin badabiltz
ia ziento bat pusketan.

Emen alperrik izango dira
lantuak eta negarrak,
urte askoko okerrak daude
orain zuzendu bearrak;
orretarako bat egin bear
ditugu gure indarrak,
ez aztu iñork, lenengo beintzat,
gerala donostiarrak.

Alde batetik agintariak,
bestetik serbitzariak,
saiatu bear degu aritzen
gure arteko larriak;
orretarako bat egin bear
zuriak eta gorriak,
danon premia dauka oraintxe
Donostiako erriak.

Danok lanean saia gaitezen
iñork egin gabe tongo,
bestela ez gera gu donostiar
itxurazkoak izango.
Lengoak ere, esan bezela,
ibili baziran ondo,
orain ez giñan milloi askoren
zorrak eginda egongo.

Donostiak len mundu guztian
artua zeukan, bai, fama,
udararako leku atsegin
eta politena zana:
errege eta jende aundien
atsedentoki izana,
gaur goazen martxan aurki lur jota
ez al da egongo dana?

Berrogei urte diktaduraren
mende gera gu egonak,
ta ezin esan nora joan diran
udaletxeko txanponak.
Diruagatik ez utzi beintzat,
Alkain, zuen asmo onak,
larrialditan probatzen dira
erriak eta gizonak.

Larrialditan partidu danok
izan bear degu lagun,
badakizute Donostiari
zer promes egin diogun;
beraz lanean saia gaitezen
pakean gau eta egun,
lengo maillara ea berriro
lenbailen ekartzen degun.

*El Diario Vasco, 1979-V-8.
Goiz-Argi, 1979-V-12.*

Al danik eta azkarren

Oso txikiak dira neronen
bertsotarako almenak,
baiña aundiak bolara ontan
barruan dauzkadan penak;
nik bezin ondo badakizute
emen zaudeten geienak
zeiñen luzeak izaten diran
gorrotoaren aienak,
ta batez ere beren etxetan
zerbait gertatu zaienak.

Zergatik, Jauna, dago erri au
ain egoera tristean?
Negarra beste konturik ez da
batean eta bestean.
Gurutza santu onen aurrean
ta eliza bete-betean.
aietearrok apalki gatoz
gaur zuregana eskean,
zure laguntza bezelakorik
ezpaita, gure ustean.

Zergatik, Jauna, galdetzen dizut
gure errietan zear
ainbeste amak, ainbeste aurtxok,
egiten digute negar?
Zergatik, Jauna, berriro ere
ainbat lantu ta ezbear?
Zure dotriñak ez ote dauka
len zuan ainbeste indar?
Anai arteko burruka onek
ez al du bukatu bear?

Gizon batzuen biotza noski
biurtu da arrizkua,
bestela ezin diteke artu
eskutan arma suzkua.
Daramakigun bide au ez da
nere ustez legezkoa:
gerontzako bide zabala,
bestearentzat estua;
galdu baiño len, Jesus maitea,
luza zaiguzu eskua.

Modatik pasa dala diote
dotriña eta Eliza,
nunbait gizonok bizi nai degu
animaliaren gisa;
ori dalako etengabeko
burruka ontan gabiltza,
pozikan asko emango nuke,
Jauna, neronen bizitza,
ori eginda gure erri au
pakeratuko balitza.

Agindu eder bat eman zenduan
zure dotriñan bostgarren,
ez betetzeak gure artera
ai zenbat kalte dakarren!
Zure laguntzik ezpada, Jauna,
gu ibiltzen gera erren,
orregatikan gatoz eskean
ta entzun iguzu, arren,
Euskalerrria paketu zazu
al danik eta azkarren.

El Diario Vasco, 1979-IX-26.

Alkain jaunari irain-orde

Neurria zerbait artu bearra
dago bastante mingaiñi,
edozer gauzak beurek esaten
diote gaur edozeiñi.
Ori dala-ta dozenerdi bat
bertso nai ditut ipiñi,
iñongo tatxik ez duan gizon
apal bateri eskeiñi:
donostiarren esker beroa
merezi duan Alkaiñi.

Pakea zerbait egingo dala
eduki arren ustea,
beñere baiño gogorragoa
izan da lengo astea.
Alkateari «asesinoka»,
zer gertakizun tristea!
Erantzutea berriz nola dan
beren maillara jeixtea,
onen-onena egin zuana:
erantzun gabe uztea.

Itz larri ori esan zuanak
oraintxe jakin bear du
lagun urkoa errespetatzen
asteko badala ordu.
Alkate jaunak beste ametsik
ez du beñere izandu:
zu bezelako ezjakiñari
al dan guztia lagundu,
eta iraiña maitasunezko
irriparrakin ordaindu.

Gure lurrean gizonak iltzen
ari gera barra-barra,
arrazoiaren orde nagusi
jarri nai dute indarra.
Ni politikan ez naiz beñere
izandu gizon azkarra,
baiña uste det beldurrik gabe
dagola esan bearra:
bakar batzuek ez al dute nai
emen kolpe militarra?

Desagrabio bezela, Alkain,
esango dizkitzut bi itz:
gizatasun da errespetotik
orain urri xamar gabiltz.
Lenago ere esan izan det
neronek amaika aldiz:
neretzat berdin da diktadura
jantzi zuriz edo gorritz,
nik bere mende gure lurrean
ez nuke egon nai berriz.

Bazter guztiak nastutzen dabiltz
ementxe lau mingai zikin,
zer ikusirik ez daukatenak
errien batasunekin.
Asko poztu naiz Udaletxeak
azaldu duan notakin,
oraingo ontan bat egin dute
gure alkate jaunakin;
poztu zaitea, Alkain maitea,
erria dago zurekin.

El Diario Vasco, 1979-X-11.

Ernaniko Arrieta gazteari

Orra udazkenean
azaldu lorea,
gaur arte nun egondu
zera zu gordea?
Zuretikan gurera
badago alde,
baiña danok osatzen
degu artaldea,
naiz ta bakarra izan
guztion Jabea.

Bertso-jartzailletara
zatoz dizdiratsu,
bear diran doaiak
zeurekin dauzkatzu;
artu dezun bidetik
zuzen jarrai zazu,
baldin apiziorik
joaten ezpazaizu,
laister zera gazte ta
zar guztion maisu

Bertso ederrak jartzen
dituzu gazterik,
ez dago aurrekoak
ikusit besterik;
danak etxean dauzkat
ederki jasorik,
amar bat aldiz pasa
ditut nik osorik,
ta ez dizut billatu
utsen arrastorik.

Naikoa zartu naiz ni,
zu berriz gaztea,
Joxe, zure lanetan
badaukat ustea.
Gure garaia joan da
zearo tristea,
ez dit penik ematen
mundu au uztea,
espero dedalako
ondoren bestea.

Ez badegu geroa
aintzakotzat artzen,
kostako zaigu emen
zoriona lortzen;
gizonaren biotza
ari da gogortzen,
berri onik etzaigu
iñundik etortzen,
lan ederra daukagu
mundu au konpontzen.

Federik ez duana
beti dago gose,
munduko gauzaz ezin
gizonikan ase;
nola jartzen dituzun
milla bertso klase,
gure Xenpelar zanak
berak bezelaxe,
pakean alde beti
idatzi zuk, Joxe.

*El Diario Vasco, 1979-XII-19.
Goiz-Argi, 1979-XII-22.*

Naikoa da!

Beti bezela laguntzen badit
gure Jaungoiko altsuak,
pakean alde izango dira
gaurko neronen bertsuak.
Ez dira izango nik nai nituzken
bezin eder da gartsuak,
txukatutzeko gure lurreko
malko ta odol putzuak.

Neronentzako nik ez nuke nai
iñoiz armaren legea,
botoarena iruditzen zait
guztiontzako obea.
Guk nai badegu erri aberats,
anuncia eta librea, (*sic*)
armak utzita lana genduke
orretarako bidea.

Naiz ta neroni bertsoan izan
eskasa ta arlotea,
egun auetan ez da posible
ixilikan egotea;
negargarria asia degu
laroigeigarren urtea,
alkar iltzea da orain modan
jarri zaigun deportea.

Oker guztiak anaitasunik
ezak ekarri dizkigu,
gaur emen armak biotzen orde
izketan ari zaizkigu.
Zertako dira politikoak,
zertako ainbat partidu,
alkar il gabe gure okerrak
zuzentzen ezpadakigu?

Gogorkeria indartsu sartu
zaigu gaur Euskalerrira,
uso pasaran bezela emen
gizonak botatzen dira;
aurrerapen da askatasuna
orretarako badira,
joan gindezke olako gauzik
iritxi ez dan tokira.

Nik nai nukena gaur entzutea
kanpoko eta bertako
iñor iltzea izaten dala
geronen kaltetarako:
jakin zazute, ezker da eskubi,
auxe, egia dalako:
armak putzura bota artean
negarrik ez da paltako.

Zoritxarrean probatu nuan
anai arteko borroka,
iru urtean ibili giñan
alkarren aurka tiroka.
Orrelakorik ezin diogu
geure semeari opa,
len bezelaxe aulenetikan
etengo baizaie soka.

Kristau batentzat anaiak dira
Eta, Armada ta zibil,
ez dit ajola ala ez dala
esanaz norbait badabil.
Komeni bada, nere bizia,
Jauna, eskeintzen det umil,
gure lurrean ez dedin geio
tiroka anairikan il.

El Diario Vasco, 1980-II-20.

Goiz-Argi, 1980-III-15.

Aste beltza lengoa

Orainartean gure lurrean
nunbait okerrik etzan da,
orain aurtxoei tokatu zaie
bizia uzteko txanda.
Batzuk etxetik irtengo ziran
amari musu emanda,
beste batzuek «berealaxe
etorriko naiz» esanda,
Ortuellako deskalabrua
negargarria izan da.

Kantu tristeak beste gauzarik
ez datozkigu nunaitik,
berrogei ta amar aurtxo il ziran
berria dator Bizkaitik.
Bertso auekin nik nola poztu
il diran aurtxoen aitik?
Onelakotan ez da izaten
berriketarako gaitik,
neroni ere paper gaiñera
malkoak erortzen zaizkit.

Propano onek izan bear du
biurri xamarra berez,
naigabe latzak ematen ditu
batzutan pozaren orde.
Neurriak ondo artu bearra
daukagu berari aurrez,
bestela laister galduko ditu
gizonaren milla amets,
deskuidorik txikienean
sutuko baizaigu errez.

Agintariak oker onekin
eskarmenta ditezela,
ez dedin geio okerrik pasa
gaur Ortuellan bezela.
Gogoan izan norbaiten erruz
bizia galdu dutela,
eta oraindik millaka aurtxo
ikaratuta daudela,
Santa Barbara baiño lenago
piztu dezaten kandela.

Oker batzuek gertatzen ziran
lenago ala bearrez,
baiña oraintxe inguratuta
gabiltza su eta garrez.
Aurrerapenen kulpaz batzutan
ta bestetan zoritxarrez,
gure lurrean zabaldu zaigun
gorrotoaren indarrez,
lur maite ontan, jaunak, noiz arte
bizi bear da negarrez?

Aspaldi ontan beraz etzaigu
palta notizi tristerik,
ainbeste dira, ia ez dago
kontatzen ere asterik.
Bi edo iru il gabe orain
ez da pasatzen asterik,
batzuk urtetan aurreratua,
beste batzuek gazterik,
Jainkoagatik ez ote dago
ilketa auek uzterik?

Bizia kentzen diotenean
anai bati otz-otzean,
bere animan alde ni beti
aritzen naiz otoitzean.
Neri berdin zait eskubikoa
edo ezkerra, iltzean;
derrigor pena artu bear du
kristau batek biotzean,
era ontako oker bat emen
gertatzen dan bakoitzean.

El Diario Vasco, 1980-XI-1.

Barberito il da!

Nork ez du entzun milla alditan
Barberitoren izena?
Erriojatik iñoiz sortu dan
pelotaririk onena;
danen ixpillu bezela bera
nunai jarriko nukena,
ta irudi bat plaza guztitan
ondo merezi lukena.

Deportista bat izan nai bada
lenengo galtzen ikasi,
karraxi eta maldizioka
ematen baitu itxusi;
era ortara Barberito nik
ez nuan iñoiz ikusi,
gizon umillik ez da arrotzen
galdu edo irabazi.

Abel San Martin bere izenez,
Barberitoz ezaguna,
gu bizi geran arte gogoan
beti izango deguna;
gizon jatorra eta umilla,
paregabeko laguna,
ia bertako seme bat baiño
geiago maite genduna.

Pelotan marka ederrak emen
egin izan dira baiño,
Tolosakoa bezelakorik
izan al da egundaiño?
Sake, bolea ta iñoiz berriz
jota erreboteraiño,
lau tantotatik gelditu gabe
joan zan ogei ta biraiño.

Neurriz txikia genduan baiña
pelotaria jatorriz,
doble ziranak mendean artzen
zituan amaika aldiz.
Anka azkarrak, gerri biguna,
geiena aiña pikardiz,
orrelakorik etzaigu noski
urtetan sortuko berriz.

Kontrarioak tanto bat palta,
artzen du berak sakea,
nork espero du lau tantotatik
ogei ta bira joatea?
Tapia-Ogeta ez izan arren
nolanaiko bikotea,
gogoan dute Tolosan biak
artu zuten zipotea.

Gizon gordiña zegon oraindik,
etzuan asko usteko
ordua zala sendi ta lagun
guziak emen uzteko.
Gure Jainkoak deitua dio
bere ondora joateko,
mundu triste au utzi eta an
zoriontsu izateko.

Pelotari ta gizon bezela
zituan milla birtute,
egunkariak egun auetan
garbi azaldu digute;
Matxainek berriz azken bertsoan
auxe eskatzen dizute:
Barberitoren animan alde
otoitz bat egin zazute.

El Diario Vasco, 1980-XI-21 eta 22.

Joxe Errasti jaunari

Badakit, Joxe, bizi zerala
zu Loiolako partean,
zure emazte, seme-alaba
ta billobakin batean.
Iñoiz pentsatzen egoten naiz ni
nola izan ditekean:
zu enkargatu, ni berriz morroi,
ogei ta amabi urtean,
aurpegi txar bat ikusi gabe
beñere gure artean.

Zu jartzen ziñan zure tokian,
ni berriz neronenean,
ta gauzak beti egiten giñun
al zan modu onenean;
etzan buillaka ari bearrik,
dana ondo esanean;
nagusi eta morroi artean
anaitasuna danean,
jaten da edaten bezin gustora
aritzen da bat lanean.

Ez nuan uste ikusterikan
emen olako mudantzik,
esaten dute ez omen dala
galdu bear esperantzik.
Maldiziorik bota gabe gaur
ez degu egiten itzik,
etxetik ere ateratzeko
ez dizu ematen pozik,
Euskalerriak ez dauka orain
eun urte aurreko antzik.

Esan bezela, urte mordo bat
lanean paseak gera,
ea orain guk izaten degun
zerbait goxatzeko era.
Billobatxoaz, ni bezelaxe,
zu ere ibiltzen zera,
giro txarretan etxean egon,
ona danean atera,
gauza oberik zer da guretzat,
Joxe, emendik aurrera?

Asko poztu naiz, larunbatean
Basarrik jartzen zuanez,
urrezko eztaiak dituzutela
Milagrosaren egunez.
Dibortzioa laister omen da
emen, esaten dutenez,
baiña Bernardak eta zuk orren
bearrik noski izan ez;
oraindik ere kristau zintzoak
baditugu zorionez.

Juramentua emen ain errez
egiten dan gauza al da
bi egunean lurperatzeko
gaiñean artzen dan karga?
Zuek patxaran pasa dezute
gizaldi erdiko malda,
orretarako grazi aparta
nere ustetan bear da,
milla zorion biotz-biotzez
aurrez, Joxe ta Bernarda.

El Diario Vasco, 1980-XI-27 eta 28.

Ez naiz politikoa

Ni politika kontu auetan
nola naizen arlotea,
etzait tokatu alderdi bati
itz emanda egotea;
baiña bertsoan sentitzen dana
orain emen esatea
gerta diteke batzuentzako
pekatua izatea.

Biotzez maite degulako guk
geronen erri kuttuna,
gaur ontzat artu bearra dago
guri ematen zaiguna.
Ez gaitzela presaz ibili,
etorriko da eguna,
zorionean gure lurrean
geuk aginduko deguna.

Poztu gaitzen ezker-eskubi,
moldatua da legea,
erri zar oni ematekoa
lendik zuana berea.
Gizon azkarrak badauzkagu ta
badet oiekin pedea
denboraz emen egingo dala
pakeatzeko bidea.

Gaurtik aurrera ez da izango
oraiñarte ainbat traba,
pixka-pixka bat lasaituzeko
ordua etorria da.
Laneko tresna artu ditzagun,
alkar iltzekoak laga,
beti negarrez dagon erri au
zerbait alaituko bada.

Gu sokatiran gabiltz aspaldi,
komeni da bukatzea;
zentralismoa indartsu dago,
alperrik da ukatzea;
danok nai degu Euskalerrria
bein betiko askatzea,
baiña oraingoz ez da posible
guk geiago eskatzea.

Ez degu noski errez beteko
langillearen patrika,
oraingo martxan ixten badira
emen ainbeste pabrika;
pistola eta bonbak ez dira
guk bear degun botika,
ez ote gera geroni ari
geure etxera arrika?

Ez dezagula ezer txikitu,
len dagoanari eldu,
japonesaren gisa lan egin,
sobratzen zaiguna saldu.
Burruka eta diskusiotan
ez denborarikan galdu,
Euskalerrria salbatuko da
orixe egiten badu.

Euskalerrria ontzitxo bat da,
gu bertan jaio ta azi,
ontaz aurrera emen geienok
pakean nai degu bizi.
Nagusi jaunak lana billatu,
mutillak lanean asi,
bestela laister gera urpean
geren ontzi eta guzi.

El Diario Vasco, 1981-I-31.

Beldur naiz!

Gogo aundirik ez du ematen eskutan luma artzeko, naiz-ta gaiaren paltik ez egon orain bertsoak jartzeko. Zer pekatu da gure lurrean ainbat gorroto sortzeko, eta alkarri errespetoa modu onetan galtzeko?

Nai duten dana esanaz dabiltz oraintxe zientoka mingain, sekula ez det neronek entzun gaur emen ainbeste irain; bakoitzak bere danboliñari nai duan eran eragin, gizatasunak ez du indarrrik, ikusten degunez, orain.

Partidu danak, ikusten danez, dabilta alkarren aurka, gauza onek ni, egia esan, oso kezkatuik nauka. Beñiere ez da ezer konpondu desapioz ta birauka, auxe bai dala, nere ustetan, ez buru eta ez anka.

Setak utzita partidu danak artu arraunak batera, sartuta gauden zurrunbillotik nai baldin bada atera. Ez dezatela semeak esan emendik ogei urtera geronen paltaz ontzi ta guzti joanak gerala lurpera.¹

Pakea eta lana bear du nai bada aurrera irten, zoritxarrean bi gauza oien paltta izan degu aurten. Gradu askoko jirabira bat ez baldin bada ematen, laister gera gu ardien gisa geienok belarra jaten.

Ez dezagula, beraz, aurrera jokatu len bezin arin, ea denboraz gure zerua jartzen dan zearo urdin. Setak utzita errian alde gau ta egun lana egin, Matxain zar onek daukan beldurra egi biurtu ez dedin.

El Diario Vasco, 1981-IX-4.

¹ Agian *urpera* bearko luke emen.

Txakurra salgai

Txakur txiki bat daukat etxean
guk deitzen dioguna *Dik*,
lengo batean erosi nuan
Tolosako perian nik;
saldu zidanak aitortu zidan:
«Griña txar bat berak badik:
ingurutikan mokadu goxo
pranko etxeratuko dik».

Nolakoa zan jakitearren,
erosi nuan kasuan,
libre utzita or ibili da
etxean eta auzuan.
Tranpa jartzeak ez du balio,
ez da erortzen lazuan,
atzo ortzetan kapoi ederra
etxera ekarri zuan.

Begiak erne, illeak tente,
errez egiten du lana,
aitortu bear *Dik* erostea
tratu ona izan zana.
Txikia baiña ikaratuta
dauka berak auzo dana,
berari esker gure etxean
beti badago zer jana.

Txakur au baiño lapurragorik
mundu guztian bai ote?
Merezi duan pagua noski
laister emango diote.
Derrigor jarri bear dizkiot
grillu bat eta bi kate,
gaur goizetikan ekarri dizkit
oillo bat eta bi ate.

Txakur txikiak, egia esan,
nauka oso arriturik,
bere ortzetan ez det ikusten
arratoi eta katurik.
Gauza piñetan enpliatutzen
ditu bere jakindurik,
oroitu gabe badanik ere
zazpigarren agindurik.

Nere txakurra lapur aundi bat
dala dagola nabarmen
esanaz neri gaur etorri zait
auzoan bizi dan Karmen;
gutxienean pakea beintzat
bear degula guk emen,
eta *Dik* ori eramateko
lengo lekura lenbailen.

Auzo guztian ixildu gabe
marmarrean ari dira,
azienda ori eramateko
ekarri nuan tokira.
Bost milla pezta pagatu nuan,
nik jetxiko det erdira,
iñork nai badu, astelenean
joan Tolosako perira.

El Diario Vasco, 1982-III-14.

Alberto Muñagorri

Etzait gustatu Errenterian
asmatu ziguten pesta,
or gertatu zan ezbearren
kulpante nor zan galdezka.
Nere ustetan etzan, ez, zailla
galderaren errespuesta:
bonba kalean jarri zuana
beste kulpanterik ezta.

Ez dakit bertan zauden, anaia,
edo joan zeran urruti,
baiña barruan kezka ederra
eramango dezu beti.
Zuk jarritako bonbak gorputza
egin dio milla zati,
bost xentimorik kulpik etzuan
aurtxo zoragarri bati.

Inoxente bat eraman dezu
zuk ia eriotzera,
ezpata latza ondo sartuaz
gurasoen biotzera.
Seguru nago, gaur damututa
Madalenaren antzera,
etzerala zu geiago joango
iñora bonbak jartzera.

Anai arteko burruka onek,
o biotzeko mutiko,
elbarrituta or utzi zaitu
zeure denbora guztiko.
Egia bada anka moztu ta
ez dezula ikusiko,
Euskalerriak laguntzik gabe
etzaitu noski utziko.

Bertsotan ezin adierazi
pamiliak daukan pena,
era orretan gaur ikusita
beren aurtxo maitiena.
Baiña alare ama on orrek
au da eskatzen duena:
«Gure Alberton odola izan
dedilla emen azkena».

Gorputz guztia elbarrituta,
oiñazetan erdi illa,
gure arteko burrukan kulpaz
zazpi urteko mutilla.
Entzun dezagun ama on orren
eskaera txit umilla:
«Odol-ixurtze bildurgarri au
lenbailen buka dedilla».

El Diario Vasco, 1982-VII-7.

Bordariri

Gu azkeneko alkar ikusi
giñanean zeunden sendo,
ta orain berriz esan didate
ez ote zabilzan ondo.
Esan zidanak etzidan noski
neri gezurrik esango,
baiña geroztik kezketan nago,
nere lagun zar Fernando,
askok bezela zuk erri-miña
ez ote dezun izango.

Erri-miñ ori badakit dala
pazientziz artzekoa,
ortatikan zu ondo zabilza,
lagun zar biotzekoa.
Nik dakidanez, zera gizon bat
ispillutzat jartzekoa,
erri guztian daukazun pama
ez da atzo goizekoa,
askok diote Bordari dala
Job santuan antzekoa.

Bizi guztian lanean gogor
altza gabetan bururik,
etxerik ez da ez daukatenik
ziur zure libururik.
Lan geiegiak zure biotza
dauka zerbait nekaturik,
baiña, Fernando, etzazu izan
egindakoen damurik,
gure Jainkoak alperrarentzat
etzuan egin zerurik.

Zure *Goraintzi* zoragarria¹
irakurri det goizean,
negar malkorik etzait paltatzen
artzen dedan bakoitzean.
Seguru nago, oraindik ere
Enrietaz oroitzean,
eten gabe zu asten zerala
bere alde otoitzean;
erri-miña ta oroitza ori
dauzkatzu zuk biotzean.

Zu pakezale porrokatua
beti nola izan zeran,
gure arteko burrukak meilla
egin zure biotz beran.
Esango dizut bakardadean
iñoiz zer pentsatzen dedan:
gure Jainkoa probak egiten
gurekin asi ote dan,
bialtzen digun gurutzeakin
gu nola ibiltzen geran.

Gauza bat beti eduki bear
degu gizonok goguan:
gurutzetxo bat eraman bear
degula danok munduan.
Kristok berea Kalbariora
eraman zuan moduan,
gure au artu bizkarrean da
berak nai duan orduan
kenduko digu, zoriontsuak
izan gaitezen zeruan.

El Diario Vasco, 1982-VIII-25.

¹ *Goraintzi Bordarik* bere emazte zanari eskeiñitako olerki-liburua da.

Eltzeak gaiñez?

Goizean goizik zazpiretako
zabaldu ditut leioak,
egunsentian egiten ditut
neronen bertso saioak.
Zail da izaten Lasarte eta
Basarri bezin iaioak,
danok ez gera mailla ortara
iritxitzeko jaioak.

Gure Jainkoak jarri zituan
danontzat amar agindu,
ta nere ustez gauza txarrikan
etzuan ezer agindu.
Gizon guztiok bakar batzuek
zintzo beteko bagindu,
gure artean ez legoke gaur
ainbeste biotz samindu.

Goizean jeiki, beti bildurrez
periodikoa artzeko,
berri tristeak etortzen dira
beti biotza lertzeko.
Zer gertatu da gure lurrean
ainbat gorroto sortzeko,
ta gizonari piztien gisa
tiroz bizia kentzeko?

Gorrotoa da ia munduko
pekaturikan zarrena,
gure artera ainbeste negar
egunero dakarrena.
Lur maite oni begiratuta
nork ez du artuko pena?
Ia inpernu biurtu degu
zerua bear lukena.

Urte auetan etzaigu palta
ementxe berri tristerik,
ezin konpondu ditugulako
gure arteko uskerik.
Armaren bidez ez da altzako
ez erri ta ez euskerik,
auk dabiltzan tokian ez da
negar samiña besterik.

Atzo Irunen, gaur Billabonan,
pena bada egunero,
Jainkoak daki zenbat erori
ote diran onezkero.
Lur maite ontan ez dezagula
gauza onikan espero,
Madridentan sutan dagon eltzeak
gaiñezka egin ezkerro.

El Diario Vasco, 1983-XI-11.

Nere naia

Joan-etorri bat egin dezadan
bi erri anaien jiran,
bertsoen bidez esateko nik
zer gauza gertatzen diran.
Erri asko gaur ikusten dira
alkarrekin soka-tiran,
ispillutzako bi jartzen ditut,
dira Irak eta Iran,
lengo batean gasak botata
lareun kixkali ziran.

Egia esan, etzait gustatzen
bi erri oien ibilik,
ta gutxiago mundu guztia
gaur gelditzea ixilik.
Oientzat noski alperrik dira
Aita Santuen omilik,
eskerrak berak eztaukatela
zorigaiztoko misilik,
bestela laister lirake bertan
danak erre ta kixkalik.

Aspalditxotik sartua daukat
neronen buru zarrean
zerbait aldatu bear ko dala
munduan derrigorrean.
Ez al litzake pake geiago
izango gure lurrean,
gerra zaleak jarri ezker
frentean danen aurrean,
beren etxetan purua erreaz
lasai egon bearrean?

Agindu naiak ez ote ditu
gure biotzak gogortzen,
ta bere mende ez ote gera
emen geienok erortzen?
Griña txar ori utzi ta saia
maitasun giroa sortzen,
da ez lotsatu pekatariak
danok gerala aitortzen,
arrokeritik ez baita iñoiz
gauza onikan etortzen.

Bi milla urte gizonarentzat
amar agindu daudela,
esan diteke diranik ere
oso aztuta gaudela.
Gaur eguneko kristautasuna
dago naikoa epela,
pena da baiño aitortu bear
neroni aurren naizela:
lagun urkoa nork maitatzen du
bere burua bezela?

Gogoan izan danok gaudela
Kriston morroi edo maizter,
ta nai edo ez guk beregana
joan bear degula laister.
Aundi ta txiki, pobre, aberats,
berdin langille ta alper,
millaka milloi eduki arren
ibiltzen bagera oker,
beste munduan diruarekin
ez degu lortuko ezer.

Geronen erri maitea ere,
ain fededun izandua,
zoritxarrean ez ote dago
gaur naikoa atzendua?
Nere ustetan oraindik ere
ez litzake berandua
pena artetik ateratzeko
negarrez dagon mundua,
Kriston dotriña da ortarako
bear degun okendua.

Indartu bedi gure artean
betiko maitasun garra,
iñoiz bada ta bada oraintxe
emen zerbaiten bearra.
Gure artetik uxatu bitez
lantua eta negarra,
berriro gure ezpañetara
datorrela irri-parra,
alai ta pozez ikus dezagun
gure Euskalerra zarra.

Jesus maitea, gaur natorkizu
zuregana erreguka,
ea lenbailen bukatzen zaigun
anai arteko burruka.
Konbeni bada mesede ori
etzaiguzula zuk uka,
ondo dakit nik danok degula
gertatzen danaren kulpa,
zuk agindua guk ankapean
beti ibilli degu ta.

Bertso auetxek jarriak dira
Pazko jaiaren bezperan,
nere guraso zarretatikan
ikasi nuan euskeran.
Zoritxarrean eskolan gutxi
nola ibiliak geran,
ez dakit nere asmoa garbi
emen nik azaldu dedan,
baiña ea gaur esandakoa
laister egi biurtzen dan.

Egin, 1984-VI-16.

Eskerrak emanez

Bertsolariak alkartu dira
Donostin ostatu baten,
El Diario Vasco-k gonbidatuta,
bazkari eder bat jaten.
Olako egunak, zoritxarrean,
ez dira asko izaten,
gaur musu-truka iñork ezpaitu
ezertxo ere ematen.

Bertso jartzeak uste gabean
zer sari eder dakarren!
Egunkari au portatu zaigu
al zuanikan jatorren.
Or zuekin ni ez egotea
barka zaidazute, arren!
Aurrezki-Kutzak gonbidatuta
izandu naiz Benidorren.

Leku ederrak badira emen
ta gauza berriz aukeran,
etortzen danak ekartzen badu
naiko dirua karteran.
Gu gutxirekin ibili gera
millionarioen eran:
itxas-ertzean pasiatu ta
otelean jan da edan.

Egia dana aitortzeko guk
ez degu bear lotsikan,
gauzak esango ditut garbiro,
diran bezela, pozikan.
Urte guztian ez egonarren
eguzkiaren paltikan,
nai dute baiña ez dute artzen
Donostiaren pamikan.

Benidorren nik ikusi ditut
zarrak bezela gaztiak,
lotsak utzita, erakutsiaz
ipurdi eta titiak.
Nunbaite sobra dauzkate orain
garai bateko zapiak,
erropa jaten lan geiegirik
ez dute emen pipiak.

Bertso auetxek bialtzen ditut
orain Benidor aldetik,
amabost egun bapo igaro
ditugun otel batetik.
Jaten ederki eman digute,
gaiñera gauza onetik,
eskerrik asko, Aurrezki-Kutxa,
jubilatuen partetik.

El Diario Vasco, 1985-VII-14.

Jaun Mariano Arrazola

Gasteizko jaiak gaur izanarren
ni goizean txit goizetik
erdi negarrez danak utzita
abiatu naiz etxetik.
Klinikaraiño iritxi gera,
bildurrez jetxi kotxetik,
il edo bizi operatzeko
buruko *tumor* batetik,
Jaunak nai beza ateratzea
sartutzen naizen atetik.

Nik bezin ondo badakizute
iñoiz basoan arbola
kanpotik berde eta barrendik
pipiak jota dagola.
Nork esango zun neroni ere
era ortara nengola?
Sengagille bat, onen-onena,
artu bearra zegola,
ta loterian atera zaigu
Mariano Arrazola.

Olako gaitzak operatzea
sendatzeko derrigorra,
bildurrarekin iñork joan nai ez,
orai bai dala gogorra!
Don Marianok neri kendu dit
sei bat orduan tumorra,
ta martxan jarri bi urte ontan
geldirik zegon motorra,
tratua egin det pagatutzeko
gizentzen badet zekorra.

Pama aundia emanda daude
aspalditikan jendeak,
ara nundikan probatu duen
egia dala norberak.
Esku azkarrak baditu aitak,
zer esanik ez semeak;
mendean aixa artzen dituzte
kaso latz eta grabeak,
danen onean gorde ditzala
zeru ta lurren Jabeak.

Nolabait jaso nai zenduke zuk
berriro Euskalerra,
Madrid aldetik etorri zaigu
lengo batean berria.
Jakin orduko nere barrura
sartu zait neri larria,
pentsa ezazu nolakoa dan
Himalaiako arria,
naiago nuke zu ikustea
anka gaiñean jarria.

Berriz zapaltzen baldin badezu
Tibet aldeko zelaia,
nere partetik izan dedilla
Aiete bezin alaia.
Or gelditua lenago bada
gure amaika anaia,
sinistu gero gaur litzakela
Matxainen gogo ta naia
zuen kuadrilla ere igotzea
bajik gabe Himalaia.

El Diario Vasco, 1985-IX-26.

Gaixozaiari agindua

Enfermerari agindu nizkan
bertso batzuek brometan,
aingeru aiek artu zidaten
nere esana benetan.
Oietako bat orain kalean
ikusten dedan danetan
au esaten dit: nik bertso lana
zearo utzi al detan.

Lotsaturikan nik esan diot:
«Entzun zazu nere itza:
oiek jarriak izango ziran
ni gauza izan banintza».
Bertso jartzea batzuek uste
bezin erreza balitza,
nik sarriago artuko nuke
papera eta lapitza.

Goizean goizik egunsentian
asten danean argitzen,
berealaxe etortzen dira,
iñork ez die agintzen.
Itz goxo eta laztanak beste
gauzik etzaie aditzen,
ez da erreza lagun urkoa
maitatzen oiek berdintzen.

Udaberriko lorean gisa
jantzirikan txuri-txuri,
ez dira oiek iñoiz gelditzen
laguntzeagatik guri.
Garbitu eta miñak arindu,
danok jarri guri-guri,
diruarekin ez da pagatzen
egiten dezuten ori.

Arrigarria neskaxa oiek
lanean duten ardura,
itzikan etzait zuen gorantzan
etortzen neri burura.
Danak gogoan dauzkat nik baiña
geien Osintxuko ura,
Nekane etzait neri aztuko
jun arte beste mundura.

Illabetean igaro ditut
zuekin egun ederrak,
kendu ondoren nere buruan
zeuden min eta okerrak.
Txalogarriak zerate danok,
mediku ta enfermerak,
artu guztiok Matxain zarraren
goraintzi eta eskerrak.

El Diario Vasco, 1986-II-20.

Gure bixkieri

Kukuan kanta alaiarekin
esnatu naiz gaur goizean,
berriro ere Jaunan laguntzaz
sartu gera Maiatzean.
Illobatxoen jaunartze ori
gaur degula oroitzean,
neurri gabeko poza nabaitu
det neronen biotzean.

Gaixoaldiak utziak ditut,
gaurko egun ontarako
eskerrak, Jauna, osasunakin
iritxia naizelako,
merezi baiño askoz geiago
ematen didazulako,
ta esker txarra zuk onarekin
ordaintzen diguzulako.

Egun aundia dute benetan
gaur gure illobatxuak,
bere besotan artzen baititu
gure Jaungoiko altsuak.
Aitonak berriz pozaren pozez
nola jarri ez bertsuak,
ikusirikan etxean danok
gerala zoriontsuak?

Iñigo ta Ion, zuek zerate
oso mutiko majuak,
eta gogoan eduki beti
aitonaren kontsejuak.
Beiñere ez maite mundu ontako
aundikeri ta lujuak,
baizik gaixo ta erdi goseak
dabiltzan gizarajuak.

Jauna zuekin edukitzeak
gaur zenbat balio duan,
ori neurtzeko tresnarik ez da
oraindik sortu munduan.
Kriston dotriña gure errian
indartsu zegon orduan,
zorionean gaur baiño askoz
pake geiago genduan.

Ezpazerate izaten ere
gizon argi, jakintsuak,
gutxienean izan zaitezte
kristau leial da zintzuak;
biotza zabal da lagun maiteak
ta euskaldun itzekuak,
zuen amatxo eta aitatxo
dituzuten antzekuak.

El Diario Vasco, 1986-V-1.

Esker ona

Gure aitonak seguru nago
begira daude goitikan,
arriturikan zer aldakuntzak
izan ditugun lendikan.
Amabi ordun lanean jardun
minetan edo pabrikan,
eduki gabe zartzarorako
iñungo bizi-pozikan,
erretirua etzutelako
ipiñia oraindik.

Arri labrantzan langille aiek
nai ta osasuna galdu,
kejak etzuten ezer balio
ta ezin ezeri eldu.
Aientzat etzan errukirikan
naiz ta birikak usteldu,
len lanerako gauza etzana
bere etxera bialdu,
eta iñungo laguntzik gabe
kandelan gisa itzaldu.

Bukatu dira zorionean
garai aietako penak,
Residentzira joaten dira gaur
erdi gaixorik daudenak.
Berriro ezin ekarri noski
garai bateko kemenak,
baiña eustera saiatzen dira
sendagillerik onenak,
gaur oriekin zorretan gaude
jubilatuta gaudenak.

Jubilatuak lengo aldean
ondo ikusiak gaude,
geientsuenak gobernutikan
zedozer jasotzen daude.
Oso kontentu gabiltza orain
berdin gizon ala andre,
Donostin libre ditugu danak
automobil, tren da tranbe,
gure inbiriz bizi dira gaur
amaika markes da konde.

Lanean ari ondorenean
gazte denboran jo ta ke,
orain ordaintzen ari zaizkigu
orduko ainbeste neke.
Noiznai gabiltza eskursiotan
ta gaiñera oso merke,
jubilatua mundu ontako
zoriontsuna litzake,
urte askoan orain bezela
gu biziko bagiñake.

El Diario Vasco, 1986-VI-4

Pakea lenengo

Denbora asko ez da oraindik
entzun niola norbaiti
oraingo martxan gure erria
egingo dala lau zati.
Nola ez dio miñik emango
pakea maite dun bati,
ikusirikan anaiak nola
burrukan gabiltzan beti?

Gure errien egoerak gaur
galanki kezkatutzen nau,
ia lorikan egin eziñik
emen nabil egun da gau.
Len bi burrukan baldin bagiñan
oraintxe bagabiltza lau,
Euskalerrriak merezi zuan
propiña ote degu au?

Naigabe pranko igaroa naiz
ni nere denboran zear,
baiña beiñere ez naiz egiña
oraintxe ainbeste negar.
Gure lurrean ikusirikan
ainbat lantu ta ezbear,
ez ote degu pakezaleok
egundo alkartu bear?

Gogorkeriak bein egin zuan
biurri xamar sarrera,
ni arritzen naiz bertako batzuk
egin dioten arrera.
Guk nai badegu Euskalerrria
ateratzea aurrera,
saia gaitetzen pakea ekartzen
geu jaio giñan lurrera.

Garaiko, Gimon, Arzallus, Viana,
Benegas ta Esnaola,
badakizute erri guztia
zuei begira dagola.
Lengo bidetik ezin diteke
aurrera segi iñola,
naikoa baita oraiñartean
ixuri zaigun odola.

Gaur zuengana begira daude
gure lurrean begiak,
ea pakea ekartzen duan
onuntz gobernu berriak.
Gutxienean artu ditzala
premiako diran neurriak,
emen paketsu bizi ditezen
gizonak eta erriak.

El Diario Vasco, 1986-XII-27.

Barka utsegitea

Oker txiki bat nere bertsotan
eginda nago lenguan,
Bandres jaunaren partidua nik
aztuta utzi bainuan.
Seguru egon, une aretan
eduki banu goguan,
pozikan asko jarriko zala
beste seiraren onduan.

Fede txarretik etzan izana,
neronen lagun maitea,
alde ortatik beiñepenean
zu lasai egon zaitea.
Sinista zazu nere biotza
dagola penaz betea,
argi ta garbi utzi artean
orduko utsegitea.

Agintariei eskatzen nien
nik dalako bertso ortan,
ez ditekela luzaro segi
oraiñarteko borrokan.
Berriro ere bide ortatik
aurrera segitzekotan,
iñoiz pakerik ez dala izango
gure erri maite ontan.

Politikoak, asi zaitezte
kupira gabe lanean,
ori gustora egiten baita
erria maite danean.
Ta gero berriz Parlamentuan,
garaia datorrenean,
ea portatzen zeraten danok
modurik jatorrenean.

Or zabilzate sortu eziñik
zuek gobernu berria,
botoa eman gendunok berriz
asperturik gaude ia.
Alde batera utzi zazute
zuen alderdikeria,
danen gaiñetik dagoalako
geronen Euskalerrria.

Oraindik ere ez da berandu
ateratzeko kontuak,
eta betiko uzteko zuen
setak eta gorrotuak.
Ori egiten ezpadezute,
nola ez geran tontuak,
beste batean jakingo degu
nori eskeiñi botuak.

El Diario Vasco, 1987-I-2.

Antxon Aiestaran zanari

Gure munduan jarria dago
oso justizi zorrotza:
batzuentzako luzea eta
beste batzuentzat motza.
Emen berdin da ministro izan,
musiko edo arotza,
uste gabean etortzen zaigu
guregana eriotza,
naiz ta urratu eriotz orrek
erri guztian biotza.

Abenduaren ogeitalauan
entzun genduan runruna:
istripu baten gure lagunik
onena galdu genduna.
Gazte jakintsu ta sasoikoa,
munduan oso entzuna,
kantuan bidez Euskalerrria
ainbat goraldtu zenduna,
kostako zaigu ondo betetzen
berak utzi dun utsuna.

Antxon maitea, zure bizia
izan da oso laburra,
gutxien uste danean dator
onuntz eriotz lapurra.
Gizon umilla, umillik bazan,
ta oso biotz xamurra,
Gabon egunez egin diguzu
zedorren azken agurra,
otoitzen bidez lagundu bear
al genezaken apurra.

Jainkoak naita sortu giñanok
egun batean mundura,
berriro ere jira bear guk
Berak nai duan lekura.
bertsoak jartzen ari naizela
etorria zait burura:
aurretik junda anima asko
dagon leku eder ura
alaitu nairik, jun ote zaigun
gure laguna zerura.

Nik azkenengo agurtu nuan
Donostiako kalean,
beti bezela zeramakian
irriparra axalean.
Apaltasuna ikasi zuan
bere aman magalean,
ara ta onuntz ibiliarren
gure mundu zabalean,
pamak etzuan iñoiz arrotu
nere uste apalean.

Millaka lagun egin zituan
Antxonek bere bizitzan,
orixe garbi ikusi gendun
guk Añorgako elizan.
Andre ta gizon, danak negarrez
aurtxo txikiaren gisan;
zertan ukatu?, neroni ere
alaxe egondu nintzan,
Antxon erriak maite zuala
garbi antxe ikusi zan.

Meza denboran an Orfeoia
asi zanean Kreduan,
biotz-biotzez «sinisten degu»
danok aitortu genduan.
Sinisten degu, Antxon maitea,
oraindik odol beruan,
bere anima an joango zala
ez jakin zenbat leguan,
merezi zuan sari ederra
artu bitarte zeruan.

Laguntzen dizut atsekabea
nik, Añorgako auzua,
Donostiako Orfeoia ta
bere pamili osua.
Jaiο giñanok eman bearra
daukagu azken pausua,
neroni ere ia bete zait
jarria dagon plazua,
une aretan erruki zait,
nere Jaungoiko altsua.

Sail ontako 2, 3. 5. 6 eta 7-garren bertsoak *El Diario Vasco* egunkarian, agertu ziran, 1987-VIII-13-an; eta 1, 4 eta 8-garrena palta. Baiña sail osoa Manuel Matxain zanaren paperetan azaldu da, makinaz idatzita.

Uliako *Gimnástica*-ri

Korrikarako apizioa
izan det gaztetandikan,
zedozer noski egingo nuan
ezpalitz izan gerrikan.
Amasei urte nituanean
sartu nintzan Gimnastikan,
esker on asko jasoak ditut
etengabe geroztikan.

Txoko ortako sozio danak
daukate biotz aparta,
ainbeste urte pasa ta gero
gutaz oroitzen dira ta.
Urtero oiek gure etxera
bialtzen didate karta,
karrera ikusi ta bazkaltzera
guk ez dezagula palta.

Errege egunez izaten degu
Kurtsal ondoan karrera,
arrigarria emen jendeak
berari dion arrera.
Askok kostata munduko onenak
etortzen dira onera,
toki ederra ikusteko ta
debalde berriz sarrera.

Gerra aurreko laisterkariok,
oitura zarra degunez,
pozikan asko alkartzen gera
danak Errege egunez.
Umore onez bapo bazkaldu
inguratuak lagunez,
Donostiako *otxote* bati
kantu ederrak entzunez.

Irurogei ta amaika urte
txoko ori sortu zala,
diamantezko eztaiak zuek
dituzute bereala.
Jaungoikoari egiten diot
nere errezo apala,
komeni bada, aurtengo danok
berriz alkartu gaitzala.

Urte guztian ari zerate
zuek lanean ixilka,
donostiarrak ikus ditzaten
munduko onenak korrika.
Zuen izena zabaldua da
Europa eta Afrikan,
gora kirolak, gora Donosti
eta gora Gimnastika!

El Diario Vasco, 1987-XII-24.

Eskerrik asko

Nere arreba biotzekoa
joan zait lengo egunean,
ainbat urtean bizitakoak
alkarren aldamenean.
Era ontako ezbearren bat
gugana datorrenean,
Jaunaren naia artu bear guk
modurik jatorrenean.

Seguru gaude orain zaudela
santu ta santen onduan,
on egitea beste ametsik
etzendulako buruan.
Lagun urkoa maitatu dezu
etxeke baten moduan,
gure Jainkoak ate aunditik
artuko zindun zeruan.

Gerra denboran bi anai preso
ta gurasoak zartuta,
lanikan pranko izandu zuan
danak berekin artuta.
Santa batena izan zan beti
bere munduko konduta,
seguru gaude orain dagola
betiko zeruratuta.

Arrigarria ezbearretan
azaltzen zenduan kalma,
orregatikan artu zenduan
andre jatorraren fama.
Premi geiena genduanean
gure Jainkoak darama,
mundu onetan izandakoa
neronen bigarren ama.

Otoitz egiñaz aritua naiz
gau eta egun neroni,
baiña bizia luzatutzea
nunbait ez ala komeni.
Gauza batekin seguru nago:
aurki Nikolas eta ni
zure ondora joango gerala
pozikan asko, Antxoni.

Barrua triste daukat nik baiña
alare nator kantari,
esker beroak eman naiean
guk baillara guziari.
Berdin kanpotik illetetara
etorri ziñatenori,
famiariaren partez eskerrik
biotzkorrenak danori.

El Diario Vasco, 1988-I-7.

Oporretan kontuz

Langille askok izaten ditu
lan neketsu ta gogorrak,
ta ordaintzeko jarriak daude
lege batzuek jatorrak.
Alde batera utziaz emen
eskulan eta motorrak,
ez dira gaizki etortzen noski
illebeteko oporrak.

Kontseju batzuk emanaz nator,
nai dituanak aditu,
oporretara etzaitzela
zuek nolanai abitu.
Kotxe ta moto ezin zaizkigu
kamioetan kabitu,
zientoka dira or illak eta
beste ainbeste zauritu.

Beraz kamio danak beteta
daude kotxez eta motoz,
periodiku ta irratitikan
txit berri tristeak datoz.
Ixtripuakin osatzen gera
emen naigabe ta malkoz,
asto gaiñean ibiltzea guk
obea genduke askoz.

Ikaratzeko ez ditut jartzen
gaurko neronen bertsoak,
baizik legeak errespetatzen
izan gaitezen zintzoak.
Zurrut geiegi egindakoan
gertatu dira kasoak,
kulparik gabe nola ondatu
diran pamili osoak.

Igaro bear baldin badira
aste bat edo bi aste,
zurrutarekin kontuz ibili,
ta batez ere zu, gazte.
Gertatzen dana badegu noski
ikaratzeko ainbeste,
biziak asko balio du ta
kontuz ibili zaitezte.

Oporrak lasai igarotzeko
joan zera itxas-ertzera,
nik opa dizut berriro ondo
etortzea zu etxera.
Esan bezela, bidean zuzen
ibiltzen baldin bazera,
berriz egingo dituzu noski
emendik urtebetera.

El Diario Vasco, 1988-VIII-13.

Setaren aurka

Bertso batzuek jartzeko, jaunak,
orain artu det nik beta,
emen gertatzen ari danakin
txit saminduak gaude ta.
Entzun zazute, agintariak,
ta entzun zazute, ETA,
ea lenbailen bukatzen zaigun
alkarren arteko seta.

Etzazutela tranpikan jarri
geiago bide ertzean,
iñoxenterik ez erortzeko
tresna txar ori lertzean.
Era ortako gogorkeriak
lenbailen utzi ezean,
zuen mutillak egongo dira
preso denbora luzean.

Zazpi urtean ikasia naiz
nolakoa dan kartzela,
iruditzen zait orko berri nik
zedozer badakitela.
Probatua naiz beroa eta
baitere neguko jela,
baiña ez daukat gorrotorikan
neretzat zuten bezela.

Ez nuke nai nik nere esanak
gaur iñork gaizki artzerik,
eta kalean pasatakoan
aurpegi txarra jartzerik.
Pakezalea naizen ezkerok
ez det eskatzen besterik:
ez nukela nai anai-arrebak
geiago lutoz jazterik.

Guk nai badegu preso daudenak
kartzelatikan atera,
gogorkeriak utzi bearrak
dauzkagu alde batera.
Gauza oiekin, nere ustetan,
egiten zaie galera,
bide ortatik ez diralako
iñoiz irtengo kalera.

Pakea eginda jarri ditzagun
buelbaka gure kanpaiak,
adieraziz badatozela
berriro egun alaiak.
Danok etxean eta pakean
pasa Eguberri jaiak,
sinistu gero auek dirala
aitona zarraren naiak.

El Diario Vasco, 1988-IX-27.

Egun eder bat

Altza gaiñean pake santuan
dagon baserri batera,
lagun Bixentek gonbidatuta
etorri giñan jatera.
Toki gutxitan billatu det nik
era artako aukera,
aitortu bear andik etzala
iñor goseak atera,
bizirik degun arte gogoan
izango degu Garbera.


Etxe ortako familiakin
ondo etortzen geranez,
ongi-etorri egin ziguten
alkarri esku emanez.
Gure erriko oitura onak
gorde bearrak diranez,
guk asiera eman genion
naiz orain modan egon ez,
jan-edariak on egiteko
aitagure bat esanez.

Ogei bat lagun bildu giñan or
nola aiton ala gazte,
baiña alare ekarri zuten
gu asetzeko ainbeste.
Jan-edateko gauzik onenak
emen ipiñi dituzte,
errege aundi batzuen gisan
Garberan artu gaituzte,
kilo pare bat irabaziak
gera danok batez-beste.


Zoragarria izan genduan
guk orko bazkalondua,
ez giñan asko gogoratutzen
nola dabillen mundua.
Or bazegoan bertsoarako
ta bromarako gogua,
ustekabeen etorri zaigu
etxeratzeko ordua,
beste munduan ez dakit baiña
an bai zegola zerua!

Une batean egatu ziran
pena ta estuasunak,
guztiak noski uxatu zitun
an zegon alaitasunak.
Beste gauzarik ez genduke nai
zuen *Vallés*-ko lagunak:
urte askoan iraun dezala
pakea ta osasunak,
berriro ere igarotzeko
era ortako egunak.

El Diario Vasco, 1989-X-15.



Manuel Matxain, andrea eta alabarekin, eta berak irabazitako sari batzuekin.



Manuel Matxain, lagun-talde batekin. (Foto Arturo Delgado, Donostia).

Burrukarik ez

Ala bear da, izan ditugu
guk auteskunde berriak,
lau urterako zeñek agindu
aukeratu du erriak.
Kolare pranko bagenituan
aukeratzeko jarriak,
nai zituanak txuriak eta
nai zituanak gorriak.

Nik ezin esan nori esaten
dioten txuri ta gorri,
nere denboran kaso aundirik
ezpaidiot egin orri.
Bola ta toka dira nereak,
ta gaztetan berriz korri,
pakean billa zetoztenori
biotzez ongi etorri!

Gauza bat bada gure artean
gaur ezin deguna uka:
indar erdia izaten dala
egin ezkeru bi puska.
Oraindik ere badira batzuk
maite dutenak burruka,
ta dabilzanak ixildu gabe
alkarri kukurrukuka.

Pakean alde saia gaitezen
guztiok al dan azkarren,
setakeriak ondorenean
badakigu zer dakarren.
Anai-arrebok, joka dezagun
al degunikan jatorren,
lendikan ere ondo dakigu
burrukatik zer datorren.

Pakea egiten saiatu bitez
orain aurrean daudenak,
ea denboraz kentzen ditugun
erri maite onen penak.
Ta batez ere bi aldetatik
zerbait aginte dutenak,
nor diran danok dakigu eta
zertako esan izenak?

Erria maite badegu eta
baldin badegu biotzik,
geronen kulpaz ez dedilla, ez,
izan emen eriotzik.
Ori egiñaz nik derizkiot
biziko gerala pozik,
iñun ezpaita pakeak ainbat
ontasun dakarren gauzik.

El Diario Vasco, 1989-XI-19.

Amar agindu

Dударик gabe, anaiak gera
zuriak eta gorriak,
Euskalerrian jaiok eta
kanpotikan etorriak.
Ez ugaltzeko gure arteko
naigabe eta larriak,
amar agindu paregabeak
Jaunak baditu jarriak,
pake santuan bizi gaitezen
gizonak eta erriak.

Danok anaiak izan arren guk
ez degu pentsatzen berdiñ,
eta kandelak jartzen ditugu
bakoitzak geren alderdiñ.
Gizonen kulpaz ez dezala, ez,
munduan iñork artu miñ,
Urte Berria lengoa baiño
alaiago izan dediñ,
geronentzako nai ez degunik
beste iñori ez egiñ.

Panamá eta Rumaniatik
ez datoz, ez, berri onak,
apenas ondo pasa dituzten
Eguberri ta Gabonak.
Nere burura etortzen dira
oso galdera sakonak:
zertako dira aurrerapenak
ta zertarako ormonak,
kale ertzean tiroka gero
iltzen badira gizonak?

Agindurikan danikan ere
jendea aztuta dago,
bide ontatik nora goazen
ni oso kezkatu nago.
Emen gauza bat utzi nai nuke
orain argi edo klaro:
bizi guztian naiago det nik
izan iñoren esklabo,
neronen kulpaz nere anai bat
iltzea baiño lenago.

Agindu oiek ez diralako
bear bezela beteak,
gure munduan ez dira palta
naigabe eta nekeak.
Asmo berriak ekarri bitza
asi berri dan urteak,
galdu artean ez da jakiten
zer balio dun pakeak,
berak bakarrik zabal lezazke
zorianaren ateak.

El Diario Vasco, 1990-I-13.

Pakean bizitzeko

O Euskalerra biotzekoa,
mundu guztiko garbiña,
nolanaikoa ezta, ez, izan
zu egin zindun argiña.
Soro ta zelai danak orlegi,
zerua urdin-urdiña,
bertan pakean gu bizitzeko
gure Jainkoak egiña.

Pakezaleak izanak gera
beti gu, entzun degunez,
baiña eztakit esan gentzaken
orixe gaurko egunez.
Zeru urdiña beteta dago
oraintxe laiño illunez,
berri txar asko entzuten dira
eta onikan iñun ez.

Jesus maitea, biotz-biotzez
egiten dizut erregu,
iñoiz bada-ta zure laguntzan
premian orain gaude gu.
Anai artean burrukan gabiltz
beti udara ta negu,
zeru txiki bat bear zuana
inpernu biurtu degu.

Penagarria egindakoa
Villamudria-tar Korori,
eztakit nola euskaldun batek
egin dezakean ori.
Kulpik gabeko aingerutxo bat
tamaña ortan erori,
barkatu, baiña orrelakorik
etzaio egiten iñori.

Ezin ukatu aingeru ori
inozentea zanikan,
berak etzula gure artean
gertatzen danan kulpikan.
Gure lurtean eztegu bear
pistola eta bonbikan,
len ere negar pranko utziak
ditugu oiek Gernikan.

Ainbeste illak, ainbeste preso
eta ainbeste elbarri,
etxera arrika ari dirala
ezin diote igarri.
Pakea eta zoriona guk
nai baditugu ekarri,
lendabiziko errespetua
bear diogu alkarri.

El Diario Vasco, 1991-IV-28.

Kezkati nago

Gaur, adiskide maitea,
jotzen det zure atea,
sail eder ontan bertso auentzat
nai nuke tartea.
Ontzi aundi bat betea
malkotan badet botea,
ikusirikan darabilkigun
jokera torpea.

Emen dauzkagun larriak,
geronen kulpaz jarriak,
gauza onikan eztu ekartzen
egoskorkeriak;
txuriak eta gorriak
artu ditzagun neurriak,
beti pakean bizi ditezen
gizon da erriak.

Kezka bat daukat nerekin,
zer gertatu da gurekin?
Erri au ola nola jarri dan
lenago zanakin?
Burrukari gogor ekin
anaiak anaiarekin,
asi bai baiña nola bukatu
Jaungoikoak jakin!

Burrukak utzi ditzagun,
gero itzegin sosegun,
gu euskaldunok gizon gerala
azaldu dezagun.
Lanean gau eta egun,
alkarri egiñaz lagun,
erri eder au merezi duan
maillan jartzen degun.

Zergatik ainbeste antsi
ta jendea lutoz jantzi?
Orain biziak ez ote dauka
len ainbat garrantzi?
Lantokiak asko itxi,
jendea kalean utzi,
bide ortatik erriarentzat
itxaropen gutxi.

Nik esan dizutet klaro,
gaur oso kezkati nago,
gizonak emen gabiltzalako
nastuta zearo.
Jauna, egizu anparo,
erria premian dago,
bestela emen ezta izango
pakerik geiago.

El Diario Vasco, 1991-XI-17.

Eskerrak emanez

Oso gazterik asi nintzan da
zearo aitondu arte,
gure erriko jolas batzutan
artu izan det nik parte.
Ori dala-ta, lagun batzuekin
omen bat egin didate,
biotz-biotzez eskerrik asko,
erri-gizon da alkate,
egun eder au guk ezin aztu
bizirik gauden bitarte.

Donostiako Udaletxeak
daukan gela ederrian,
omendu danok gertatu giñan
zerbait esan bearrian.
Nerbioekin ankarik ezin
geldi eduki lurrian,
agintari ta ministro jauna
guri begira aurrian,
ez gendun uste ainbeste maite
ginduztenikan errian.

Une artan nik esandakorik
ezer eztaukat goguan,
barkatu beraz utsegiten bat
naigabe egin banuan.
Alkate jaunak guri medalla
ipiñi zigun orduan,
ainbeste lagun, ainbeste txalo
entzunik gure onduan,
zeruko ate danak zabaldu
zirala uste genduan.

Bakar batzuek ikusia naiz
mundu ontako bazterrak,
baiña iñon ez guk txoko ontan
dauzkagun bezin ederrak.
Erria zuzen eramateko
eztu balio alperrak,
orretarako bear ditugu
punta-puntako txoperrak,
ea lenbailen konpontzen diran
gure arteko okerrak.

Alkate jauna, zuri begira
dago gaur erri guzia,
sutan jartzian probatzen baita
nolakoa dan eltzia.
Zure eskuetan daukagu bera
itxaropentsu utzia,
portu onera eraman zazu
danok goazen ontzia,
munduko erri paketsuena
izan dedin Donostia.

El Diario Vasco, 1992-II-15.

Larogei urte Basarrik

.Pozaren pozez bustita dauzkat,
jaunak, neronek begiak,
ala bear da esango ditut
bildurrik gabe egiak;
neurri ortara iritxi gabe
gelditzen dira erdiak,
bertso batzutan nik esango det
jakin dezaten guztiak,
larogei urte bete ditula
Basarri bertsolariak.

Basarri ta ni geren denboran
lagunak izan geranez,
lendabiziko asi nai nuke
gaur zorionak emanez;
une onetan bertsotarako
abildaderik izan ez,
erdi gaxorik nabil ni eta
oso eskaxa almenez,
dakidan pixka dijoakizu
borondaterik onenez.

Jaio orduko zu asi ziñan
eten gabean lanean,
gure izkuntza paregabea
kolokan egon zanean;
zuk Uztapide aztu eziña
arturik aldamenen,
bertso kantari ibili ziñan
gure probintzi danean.
»Habla en cristiano» agintariak
esaten zigutenean.

Zure denboran egiña zera
makiña bat joan-etorri,
nik dakidala beiñepiñian,
faltatu gabe iñorri;
zerorren luma berdingabea
besteen parean jarri,
apaltasuna erakutsiaz
ainbeste gizon baldarri,
diruarekin ez da pagatzen
egin dezuna, Basarri.

Ziur badakit badatorrela
guztiontzako eguna,
Jaungoikoaren aurrean danok
azaldu bear deguna;
zuk badakizu, Iñaki maite,
non dagon zure laguna,
egun onetan biotz-biotzez
zu zoriontzen zaituna,
desiaturik gaur zuretzako
pakea ta osasuna.

*Manuel Matxain
Aieten, 1993-ko azaroak*

Bertso auek Manuel Matxain zana-
ren paperetan agertu dira, makinaz
idatzita. Iñon argitaratu ote ziran ez
dakigu

Indurain

Atarrabin sortu da
mutiku bizkorra,
zerbait itzegitea
orain derrigorra.
Nolakoa ote da
daraman motorra,
orren errez austeko
munduko *rekorra*?

Prantzes ta italiano
alperrikan dabiltz,
Tourra zaildu naiean
aldapa ta mendiz.
Irabazia badu
lenago lau aldiz,
kontuz izan berekin
joaten bada berriz.

Rominger joango dala
deritzait urrena,
bera dagoelako
ustetan onena.
Marka jartzeak emen
au da dakarrena:
guk danok jakitea
nor dan bizkorrena.

Danok ikusi degu
ondo telebistan
lengo markari zenbat
metro kendu dizkan.
Erritik joan ziranen
jendearen bistan,
marka jarri du berak
Burdeosko pistan.

Txit ondo osatua
buru, beso, anka;
bestela nola jarri
orrelako marka?
Urrena joaten danak
egiañaren aurka,
nere ustetan beintzat
lan ederra dauka.

Ez nun uste munduan
gaur iñor zegonik
ain mutil jator eta
ain ziklista onik.
Ez nuke bukatu nai
asitako lanik,
Migeli eman gabe
nere zorionik.

El Diario Vasco, 1994-X-19

Segi aurrera, Iñaki!

Gizaldi onen amairuan,
urtea ia joanean,
izar eder bat agertu zaigu
danontzat zorionean,
azaroaren azken aldera,
Milagrosa egunean.
Etzuan asko jendeak uste,
aur ura jaio zanean,
gau eta egun ariko zanik
errian alde lanean.

Granada-errekan jaioa degu
eta Zarautzen azia
mutikotatik izan deguna
bertsolari nagusia.
Gure izkuntza egon zanean
naikoa galerazia,
bera izan zan disimuluan
lanean gogor asia,
eta orrela darama berak
bere bizitza guzia.

Kantatu gabe etzuan utzi
ia erri bat bakarrik,
alaitu nairik gure kaleak,
mendiak eta baserrik.
Zepoa pranko jarriagatik
izandu ziran alperrik,
nik dakidala etzuten iñoiz
iñun izandu okerrik,
zer esan ondo zekitelako
Uztapide ta Basarrik.

Bakar batzuek jartzen zituzten
tente beren belarriak,
nagusiari eramateko
entzuten ziran berriak.
Zorionean len esandako
gure bi bertsolariak,
orkorikan gerta etzedin
artzen zituzten neurriak;
gure izkuntza bestela nola
entzungo zuan erriak?

Biak ederki eraman zuten
urte askoan konpasa,
bestela nola ibili oiek
bertsotan plazarik plaza?
Iñoiz etsairik agertzen bazan
bereala eman traza;
biak torero onak ziran da
lasai arturik arnasa,
kapa zabaldu goxo-goxo ta
zezena aurrera pasa.

Gure Manuel zerura joan da,
ta Basarri emen dabil,
errian alde lana egiñaz
len bezin jator da umil.
Baiña badakit triste dagola
ta ez dala bizi trankil,
anai artean ikusirikan
orain ainbeste iskamil;
ez dakit bera penaren penaz
oraindik nola ez dan il.

Bizi guzian eman dezu zuk
errian alde arpegi,
naiz eta ori ez estimatu
bakar batzuek geiegi.
Periodiku ta erradiotik
esanaz amaika egi,
bide zuzena daramazu ta
bertatik aurrera segi,
guztiontzako komeni dana
lenbailen gertatu bedi./

Bertso auek ere Manuel Matxain zanarenak dirala uste degu: baiña ez dakigu non eta noiz agertu ziran.

Naparroako Aurrezki-Kutxaren berri

Lagun zar onek zerbaiten berri
gaur asi nai du ematen,
beren erritik urruti dauden
mutillak jakin dezaten;
diru pixka bat egiteatik
Naparrutik juan ziñaten,
lenengo beintzat jakin nai nuke
zer moduz bizi zeraten.

Beste lanetan ere badira
oso mutiko abillak,
nekazaritzan, etxe egiten
da berdin automobillak;
ta lan-tokian nola zeraten
zintzuak eta umillak,
mundu guzian gaur nai dituzte
Naparruako mutillak.

Lenengo agurra egin ondoren
orain goazen arira,
maite dezuten dana utzita
joan zerate urrutira;
oso gazterik jarri zerate
zartzaroari begira,
napar mutillen trebetasuna
zabalduz mundu guzira.

Gogoratzea komeni zaigu,
osasuntsu gaudenean,
eziña nola etortzen zaigun
gutxien uste danean.
Zer balio du irabaztea
txanpon batzuek lanean,
ez badakigu gero ipintzen
lekurikan onenean?

Mundu guzia arritu dute
Naparroako gaztiak,
ardi-kontuan batzuek eta
piñu botatzen bestiak;
zuen gorputzak neke gogorraz
izardiak bustiak,
langillearen diru apurrak
dira ederki kostiak.

Zuen diruak gaur ez badaude
leku seguruan jarrik,
onena zein dan, lagun maiteak,
ez dago esan bearrik:
Naparroako *Caja de Ahorros*-ek
asmo bat dauka bakarrik,
anparo gabe ez utzitzea
premian dagon naparrak.

Berreun milla bertan badira
beren diruak jarriak,
da oraindikan espero ditu
gu laguntzalle berriak;
oraingo eran aurrera ere
laguntzen badu erriak,
guziontzako izango dira
bentaja izugarriak.

Karidadea gutxi kostata
orra nola egin leikian,
zure diruak korritun jarritz
bear dituzun artian;
irabaziak beartsuentzat
dira bien-bitartian,
orra bi txori zuk nola iltzen
dituzun tiro batian.

Aspaldi ontan egiñak ditu
berak obra eder pranko,
eskola-urtetan dauden aurtxo ta
aitona zarrarentzako;
beartsuari laguntze ori
artua dute aintzako,
nere txalorik biotzkorrena
kristau zintzo oientzako.

Lanaren truka gaur egin zera
diru pixka baten jabe,
komeni dana konprenditzeko
badezu naiko edade;
lantxo au ez det nik bukatu nai
kontseju bat eman gabe:
Bankuak onak dira, bai, bañan
Caja de Ahorros'a obe.

Garai batean, *Auspoa*-ren bertso-liburu bana bialdu oi zien Naparroako Au-
rezki-Kutxak, Gabon-opari bezela, Ameriketan ziran napar euskaldunei. Auei
bialketa ori zer zan adierazteko, bertso auek moldatu zituan batean Manuel
Matxain adiskideak.

Bertso berriak

Manuel Matxainek jarriak

Munduak ditun bost zatietan
euskaldun onak badira,
portuna billa juanak emendik
batzuk oso urrutira;
Gipuzkoako *Caja de Ahorros*-a
lanean gogor ari da,
euskal liburu ederrik bada
gaur ateria argira,
oroigarri bat bialtzen dizue
zuek zaudeten tokira.

Euskaldun askok zapaltzen dute
gure mundu borobilla,
iñork eztaki seguru baña
badira bastante milla;
asko eskutan konpasarekin,
besteak artzai-makilla,
beste batzuek gurutzeakin
anima galduen billa,
osasuna ta pakea beintzat
zuekin izan dedilla.

Gipuzkoa lurrez txikia baña
eman du frutu ugari,
gaur nork eztitu errespetatzen
Azpeiti eta Getari?
San Inazio bat milla mesede
zor dioguna berari,
Elkano berriz lenen emana
buelta gure munduari,
ta Iparragirre euren gorantzan
gitarrarekin kantari.

Gaur munduari buelta ematia
izanagatik jolasa,
garai artako ontziarekin
etzan izango erraza;
berreun gizon gelditu ziran
emanda azken arnasa,
baña Elkanok etzuan galdu
eskuetatik konpasa,
erakutsiaz nolakoa zan
gure euskaldun arraza.

Gaur ere asko dira emendik
juan zaizkigunak lanera.
mariñel oiek iriki zuten
bide oietan aurrera;
Gipuzkoako *Caja de Ahorros*-a,
guraso baten antzera.
pozikan dator gaur zuregana
bere laguntza eskeintzera,
edozer gauza erosteko zu
iñoiz biartzen bazera.

Bertso batzutan ezin nik esan
Caja de Ahorros-en ametsak,
lan geiegi ta talentu gutxi
duan bertsolarientzat;
colonia edo jolas-tokiak
gure aurtxo txikientzat,
beca ugari ta eskola ederrak
mutiko beartsuentzat,
Ahorrua-ren irabaziak
izaten dira guretzat.

Lengo urtian errepasso bat
eman degu liburutan,
da zazpi milla milloi pezeta
bertan badaude dirutan;
lareun milla kartilla dira
atera diran kontutan,
langilleari laguntzeko guk
beti dirua eskutan,
etxe ontara etorri danik
ezta bueltatu damutan.

Ahorro-a da mundu ontako
gauza on danen sustraia,
Ahorro-tikan izango dezu
zure etxe ta zelaia;
entzun, kalean ari zerana,
entzun, mendiko artzaia,
baldin igaro nai badezu zuk
gero zartzaro alai,
kontuak ondo ateratzeko
oraintxe dezu garaia.

Lanean gogor ari zerate
batzuek jai eta aste,
irabazteko zartzaro on bat
igarotzeko ainbeste;
bañan alare premian egon
diteke bat edo beste,
olakorikan gertatzen bada,
berdin da zar edo gazte,
bildurrik gabe etxe ontara
danok etorri zaitezte.

Txanpon batzuek egin naiean
zartzarorako lanetik,
euskaldun ona, urruti zabiltz
oraintxe gure lurretik;
Gipuzkoako *Caja de Ahorros*-ak
Donosti maite ontatik
oroigarri bat bialtzen dizu
gaur konturatzeagatik
zuk eztezula beñere izango
bere laguntzaren paltik.

Urruti zauden anai-arreba,
urruti zauden laguna,
badatorkizu zure izerdik
txukatutzeko eguna;
jakingo dezu, euskaldun jator
ta gañera zentzuduna,
Gipuzkoako *Caja de Ahorros*-a
dala emen txapelduna,
korritun jartzen, zuk nai badezu,
ortik bialtzen dezuna.

Bertso auek, Manuel Matxainen esku-idazki batetik ditugu. Gipuzkoako Aurrezki-Kutxaren enkarguz moldatu zituan, etxe onek ere liburu bana bialtzen baitzien atzerrian bizi ziran gipuzkoarrei, Gabon opari bezela.

Aitorpenak

Gizonak jaio egin bear dik!

Gu mutikoak giñala, larogei urtetara alderatutako baserritar bati auxe entzun genion sarritan: «Gizonak jaio egin bear dik!».

Garai artan goiko mallan baizebillen Paulino Uzkudun ukabilkaria.

Zarautzen bizi zan errezildar bat zan dalako baserritarra; Uzkudun gora ta Uzkudun bera ari bear zuenetakoa. Ta, Uzkudun, bat eratxi ta bestea bota, bozeo barrutian ain urruti zijoala ikusirik, «Gizonak jaio egin bear dik» irteten zitzaion baserritar zarrari.

Ezertan nabarmenduko danak berezko aundia bear duela esan nai zukean. Artarakoxe jaioa zala Uzkudun; zuen guzia berezkoa zuela.

Gaur gure saill ontan irakurle zintzoen aurrera dakarkigun gizona ondo ezaguna da Gipuzkoan zear.

Manuel Matxain dezute, ta beratzaz itz bi egin bearrean gaituzute.

Asten diran lanean asten dirala, ekiten dioten lantegiari ekiten diotela, berezko egokitasun aparta duten gizonak baditugu an da emen. Oietako bat dezute Manuel Matxain.

Aurrekaldean ikusten dezuten erretratu ortan kopa dizdiratsuz inguraturik arkituko dezute gure gizona. Ez pentsa, ordea, etxeratutako kopa guziekin agertzen zaigunik. Beste berrogei palta zaizkio oraindik.

Ara ta onera zabalduak dauzka palta zaizkion berrogei kopa oiek. Eskari asko izan du Matxainek bere denboran. Baita emateko borondatea ere. Or dira batean eta bestean sakabana-tuak.

Donostiko Aiete ballaran jaio, azi ta bizi dana da Manuel Matxain.

Mutiko gazte zalarik, korrikarako zuen zaletasuna. Gazte-txoen sallean korritzen zuan, eta parte artu zuen guzietan bera iritxi zan lenen arraira. Pilla aundi ortako bospasei kopa korrika irabaziak ditu, beraz. Pelotatik etxeratuak ere baditu beste bakar batzuk.

Ta... zer esan dezakegu Matxain tokalariatzez? Eguzkiaren azpian eztala sortu oraindik bere mallakorik. Matxain tokan ikusi duten guziak ao batez aitortzen dutena da.

Matxainek, tokan, pentsatutako guzia egin izan du beti. Onak asko izan dira, ta badira oraindik ere. Matxain danen gañekoa; danen erregea. Onen pulstua bezelakorik ezta izan burnia billatzeko ta zanpatzeko. Urrera, erdipurdi bidera edo urrutira, Matxainek ezta bere galgako kontrariorik ezagutu. Matxainek parte artzen duen norgeiagokotan, gañontzeko tokalariak laister artu izan dute etsipena.

«Bigarren edo irugarren sariaren billa saiatu bearko diagu—esan izan diote alkarri—, lenengoa orri etzegok kentzerik eta».

Boletan ere, berriz, ortxe ibiltzen da Matxain onenen parean. Jaungoikoak jakin bolan irabazitako kopak zenbat dituen.

Asten dan erara asten dala, egokitasun berezia du berekin.

Lagun arterako ere gutxi dira Matxain bezelakoak. Argatik dute ain maitea ta ixtimatusa berekin zerbait tratatu duten guziak; bera ezagutzen duten guziak, alegia. Iztun dotorea, apala ta serbitzala baita Matxain.

Oraindik oraintsu beste zaletasun bizi bat nabaitu du bere baitan: bertsoak moldatzeko zaletasuna. Egokia eztanik ezin esan ortantxen ere. Matxainek jarritako bertsoak lenen puntako sariak irabazten dituzte.

Pulamentuz egindako bertsoak oi dira. Neurrira ondo errenditzen diranak; kantatu errezak, eta ikasi errezak bide batez.

Lengo egun batez eman zizkigun eskuetara azkena biribildutakoak. Amabi dira guzira, ta ementxe eskeintzen dizkitzute-gu, zuen gogozko izango diralakoan.

Zarautzen bizi zan errezildar zarrak esaten zuena, iñori bada-ta, Matxaini erantsitzeko dator aukerakoa: «Gizonak jaio egin bear dik».

Basarri

(*Zeruko Argia*, 1965-IV-11)

(Manuel Matxain *Amari entzunak* izeneko saillaren aurretik).

Manuel Matxainen omenaldia

Bertsoan bidez astera noa,
Manuel, zerbait esaten,
zu lan askotan zerala ona
guziak jakin dezaten.
Birtute ori ez dute, Matxain,
munduan danak izaten,
maite zaituzten zure lagunak
ara zer pentsatu duten:
merezi dezun omenaldi bat
eskeintzea gaur Aieten.

Oso gazterik egiña ziñan
pelotariekin lagun,
ontan ere zu ona ziñala
danok aitortu dezagun.
Oñak arin da begiak erne,
gerri ta besoak bigun,
esan bearrik ez dago noski,
Matxain, zer egiten zendun:
sari politak irabazita
askotan irten txapeldun.

Korrikarako ere etzendun
afizioaren paltik,
erbian gisa gora ta bera
ibiltzen ziñan gogotik.
Onenarekin parte artuta,
gaztea izanagatik,
maixuak utzi atzera eta
askotan Matxain aurretik,
lendabiziko sari ederren
jabe egiteagatik.

Lagun zar Matxain, gogozko dezu
bolatokita joatea,
zeure denboran izango dezu
millaka brilla botea.
Bein baña geiagotan arturik
onen danekin partea,
entzun dedanez gertatu zaizu
marka onak egitea,
ta uste gabe lendabiziko
saria eramatea.

Errerrotzako lantegi ori
Matxaintzat erosua,
burnia jotzen asten danean
aterazten dio sua.
Ontan ere zu amaika txalo
ta sari eder jasua,
makiña batek artuko luke,
Manuel, zure besua,
ezin ukatu zu zaitugula
tokalarien maixua.

Esan bezela, zuk lan askotan
daukazu erreztasuna,
bertsoak jartzen ere, Manuel,
zera ondo dakizuna.
Nere ustetan merezi dezu
gaur emen egin zaizuna,
ta zure lagun Sebastianek
auxe da opa dizuna:
pake gozoan urte askoko
bizia ta osasuna.

Sebastian Salaberría

Zeruko Argia, 1965-X-3. *Auspoa*, 172, 1984.

Manuel Matxain

1967-ko Maiatzaren 16-garren egunean. Donostiko *Ollagorra* bazkunak (soziedadeak) omenaldi bat eskeñi zion Manuel Matxain jaunari. Gure irakurleak ondo ezagutzen dute gizon au. Apari bukaeran bertso auk kantatu nituan, gutxi gorabera, Matxain adiskidearen goratarrez.

Iñola mutu ezin egonik
astera nua kantuan,
Matxain maitea ikusten baitet
lenengo begiratuan.
Arrats eder au ezta iritxi,
jaunak, berealakuan,
erleak lorategian bezin
pozik gu zure onduan,
eskeintzen zaizun omenaldi au
ondo merezi zenduan!

O lagun Matxain, nik galdetzen det
barren ortan zer dezu?
Gure Jainkoak ainbat birtute
batera eman dizkitzu:
bertso-jartzalle txit egokia,
buruz argi ta jakintsu,
bolarietan lenengo mallan,
tokan errege ta maixu,
txalogarririk iñon badago
txalogarria zera zu.

Danekin lagun, beti paketsu,
irriparra ezpañetan,
ate guziak zabal-zabalik
zabiltzan leku danetan.
Lanean berriz neurri gabea,
arrigarria benetan!
Etzaitezela aldatu, Matxain,
zuk jarrai zazu orretan,
apaltasuna bezelakorik
ezpaita mundu onetan.

Ollagorra-ko zure lagunak
bazeukaten borondate,
gaurko billera zure omenez
argatik eratu dute.
Eztakienik iñor badago
laister emango det parte,
Matxain, ondratzen dituzu bapo
zuk Donosti ta Aiete,
euskal oiturak biziko dira
zuk bizirik dezun arte!

Basarri

La Voz de España, 1967-V-18.

Zeruko Argia, 1967-VI-4.

Auspoa 112, 1972.

Alkarrizketa

Txe Gebara-ri jarritako bertsoarekin Matxain bertsolari iaioak Xenpelar sariketa irabazi du. Tokan, boletan eta bertsotan 200 kopa irabaziak dauzka.

Euskaltzaindiaren *Xenpelar* sariketa irabazi berria degu Manuel Matxain, Aieteko bertsolari trebea.

–Noiz asi ziñan bertsoetan?

–Orain dala iru urte bakarrik.

–Eta nolaz? Ez al zekizun lenago ortako balio zendula edo...?

–Bertsolaria jaio egiten omen da. Baño 1965-garren urte arte ez nuan beñere pentsatu orrelakotan sartzea. Urte ortan tabernan apustua egin nun lagun batekin, Loinaz-ekin, baietz Akademiako premiotara nere bertsoak bialdu. Esan eta egin. Eta baita ere bigarren saria artu.

–Noiz egiten dituzu bertsoak?

–Aldapa gora eta aldapa bera, lanetik, Donostiko kaletik etxerakoan. Oñez joateko oitura det eta orduntxe gogoratzen zaizkit bertsoak. Buruan gordetzen ditut eta noizbait, bear danean, idatzi egiten ditut.

–Diozun apustua nolakoa izan zan?

–Iru txuleta jokatu giñuzen.

–Eta nolako bertsoak egin zituzun lenbiziko aiek?

–Arantzazuko Ama Birjiñari egin nizkion. *Zeruko Argia*-n azalduak dira.

–Eta ordundik onera sari geiago ere alkartu dituzu, ba.

–Bai; 1966-garrenean Aita Mitxelenari egin nizkion eta Euskaltzaindiaren lenbiziko saria artu nun. 1967-garrenean, bi-

garrena; eta aurten, *Txe Gebara*-ri egindakoakin, lenbiziko saria.

–Zorionak. Sari aundia izaten al da au?

–Amabi milla pezetakoa.

–Bertsotatik ezin bizi, ordun...

–Ez. Dirua baño aundiagoa izaten da ematen duten poza.

–Aurrez aurre ibiltzen al zera bertsoetan?

–Orain arte ez.

–Zer iruditzen zaizu: oraingo gazteak lengo gizonak aña ba al dira, bertsolari bezela?

–Erantzun zalla eskatzen didazu. Orain len baño arrazoi-bide geiagokin jartzen dirala bertsoak esango det.

–Beste gauza bat, Matxain. Nola irabazi dituzu orrenbeste kopa, orrenbeste sari?

–Neronek ba al dakit? Gaztetxo nitzala, 1933-garrenean, korrika apustua irabazi nun: Gipuzkoako Aurraren Txapelketa. 1934-garrenian ere korrika egin nuan. Gero tokan asi eta ortan ere txapelketa asko irabaziak ditut. Eta bolatan ere berdin.

–Nunbait begi argiak dituzu edo pultso izugarria edo... Zenbat kopa dauzkatzu irabaziak?

–Berreun bat.

–Asko dira. Zorionak berriz. Eta orain, bukatzeko, botako diguzu noski bertsoen bat gure irakurleentzako.

–Ara:

Esker sutsuak ematen dizkat
gaur *Zeruko Argia*-ri,
bere bitartez jasoak ditut
nik iru edo lau sari.
Bertsolariak ixildu gabe
ariko gera kantari,
milla zorion iritxi arte
gure Euskal Erriari.

Ala agurtu gaitu gizon pizkor onek, bere 51 urtekin gazte baño gazteago iraun dun Manuel Matxainek.

M. J

(*Zeruko Argia*, 1968-IV-14).

«Gaur, irakurle maiteok...»

Gaur, irakurle maiteok, gure lagun zintzo Manuel Matxain degu izketa-gai.

Nork ez du ezaguna, edo nor ez du bere entzuerarik? Tokalari, bolari, bertsolari, korrikalari, pelotari... zer ez da Matxain?

Berezko egokitasuna du Matxainek berekin, eta sail askotara banatzen dan egokitasuna, ain zuzen.

Gure tokalari, bolari ta bertsolarien jatorrizko eskola sagardotegia izan da.

Urte onen barruan beteko ditu Matxainek irurogei urte.

Amabost urte zituan garaian zortzi sagardotegi ziran Aieterko baillaran. Zortziretan zan toka-jokoa. Errondak jokatzen ziran etenik gabe. Amaika baso sagardo eder edana da Matxain iñoren kontura. Galtzailleak ordaindu bear erronda, zortzi edo amar lagun, ziranak zirala, ta Matxainek ez galtzen iñoiz.

Bolatokiak etziran sagardotegi danetan, baiña bai lau edo bostetan.

Matxainek aurrekoetan ezagutu dituan tokalaririk onenak, «Xarpa», Altuna anaiak, Zezilio Aranburu, «Lokate», Anabitarte ta abar.

Au da ordea danek ao batez aitortzen dutena: Matxainen pareko tokalaririk ez dala izan egundo. Amasei urte zituan ezkerroztik onentzat jo izan da beti. Txapelari gogor eusten dio oraindik. Bolari modura ere titulu danak eskuratu ditu.

Donostiko txapeldun, Gipuzkoako txapeldun, Espaiñiko txapeldun, jarraitasuneko (*regularidad*) txapeldun, naiz banaka ta naiz biñaka, ta al dakit nik zenbat geiago!

Gaztetxo zala, amasei urtetan, parte artu zuan korrika leia-keta danetan lenen sartu zan arraira. «*Gimnástica de Uliá*» ize-nekoaren babespean korritzen zuan.

Aurrera jarraitzeko erabakia artu izan balu, entzutetsua izango zan Matxain korrikalari modura.

Pelotan ere, zenbaiten jorik ez izan arren, burutsua ta arte-tsua omen zan gogotik, eta askotxori naigabe latzak emana.

Bertsojartzaille bezela zer neurri duan nik bezin ondo daki-zute. Sari askotxo ditu irabaziak, eta onenetako bat degula aitortu bearra dago. *Zeruko Argia*-n argitaratzen ditu bere ale bikaiñak.

Aieteko baillararak urtero omentzen du baillarako gizaki bat. Zerbaitean nabarmentzen dana izan bear ortarako.

Aurten Matxainen aldi da.

Gaur, igandea, garagarrillak sei, egitarau au eramango da aurrera Aieten:

Goizeko amarterdietan, Erri-Meza.

Amabiterdietan, Artzai ta Iñudeen agerpena.

Ordu bat eta erdietan, Lopategi ta Azpillaga bertsoan.

Ordubiterdietan, omen bazkaria.

Eratzaille: Aieteko Alkarte edo «Soziedadea».

Erbiñudea baiño bizkorragoa da Matxain: aizea ikusten duan oietakoa, berezko argitasunaren bidez.

Iñoiz ez dezu umore txarreko ikusiko. Parre-irririk etzaio paltako ezpaiñetan.

Sinistekoa al da tokalari bat emendik Japoneraiño eraman lezatekela tokan egitera?

Matxain eraman zuten, eta bai burniari otzak kendu ere.

Basarri

Goiz-Argi, 1975-VI-5

(Aldizkari ontan Basarriren idazlan onek izenbururik ez du. Emen daukana, guk erantsia da.)

Eskerrak, Matxain

Zuretzako bertsoak
emen dauzkat gertu,
Matxaindar Manuel, nai
zinduzket eskertu.
Baiña nola ez jakin,
mesedez, ulertu;
nere izen kaxkarra
geiegi edertu,
eta lotsaren lotsez
biotz dana lertu.

Zure bertso goxoak
ditut irakurri,
bein bear da etzaude
talentutik urri;
aberats bezin zuzen
puntu eta neurri,
bertso ederrak ditun
mendiko iturri,
egarritu naiz eta
zugana etorri.

Zuk berpiztu didazu
neri adorea,
alajaiña, itx goxoz
esan dit "lorea".
Ez dezu gutxi jaso
nere umorea;
usai pixka bat igual,
baiña dotorea
ez pentsatu danikan
dedan kolorea.

Zure izen aundiak
egitean talan,
nunai entzuten degu:
emen bezela an;
bertso jartzen txukuna
exeririk gelan;
tokan maixua, berriz,
ta... zer esan bolan?
Siniste utsak ere
ez al du naiko lan?

Aietetik kantuan
ari zeran txori,
pakezalea zera,
aundia da ori;
naiz-eta izan beltza,
zuri edo ori,
gizatasunez baldin
bagabiltza lori,
gerrarik ezin opa
munduan iñori.

Istoriaren zear
zarta eta dale
artu arren, ez gera
gerraren maitale,
baizik egi, justizi
ta lanaren zale;
aldegin zuk, kanpoko
otso ardi-jale,
bertan bazegok naiko
putre eta bele.

Gosaltzeko lana ta
bazkaltzen nekea,
apaltzeko zer ote
ta... esker merkea.
Bazter guztietatik
deia ta eskea,
batzuek su goxoa,
besteentzat kea,
au al da justizia,
au al da pakea?

Joxe Mari Arrieta

El Diario Vasco, 1979-XII-23.

Auspoa 162, 1883.

Manuel Matxain zanari, Ernaniko Joxe Mari Arrieta bertso-jartzaille gaztearen leenengo emaitzak irakurritakoan, oso atsegin izan zitzaizkion eta bertso-sail bat eskeiñi zion, *El Diario Vasco*-n, 1979-XII-19-an, goralpenak eta zorionak emanez. Ordaiñetan eta esker onez, Arrietak bertso aukeratu zituan egunkari berean, *El Diario Vasco*-n, 1979-XII-23-an.

Manuel Matxain adiskideari

Nere lagun zintzoa dan Manuel Matxain jauna, edozeñi noiznai mesede bat egiteko prestu dagoan gizon atsegin bat da. Neroni ere askotan egin izan dit mesede; kalterik beñere ez. Ez dakit, gañera, nai ta ere egingo luken.

Donostian edo beste nunbait bertsolari-txapelketaren bat baldin bada, berari esan izan diot neretzat sarrera artzeko; eta, nola edo ala, beti oroitu izan da nitaz. Urte onetan ere berari esan nion bertso auen bitartez, eta bai zintzo asko portatu ere.

Manuel, guri Ama
zaiguk gogoratzen,
bañan zenbait euskaldun
ez dek konturatzen.
Oitura zarrak nola
ari diran galtzen,
alegindu gaitezen
euskeraren indartzen.

Beartutzen gera ta
mintzatzen gerade,
baña ni ez naiz izan
erderaren zale.
Edozeñek egingo
balirake galde,
esango diot: «Saia
euskeraren alde».

Euskaldunak gaur naiko
lanakin gabiltzak,
bañan ez dek galduko,
alperrik zebiltzak.
Manuel, biotzean
ondo gorde ditzak
amatxori lenengo
entzundako itzak.

Au etzaidak aztutzen,
Manuel, sekula:
Bertsolari-Eguna
badatorkigula.
Jainkoak osasuna
eman dezaigula,
ta uste dit ederrik
entzungo degula.

Manuel, beti lana
badit iretzako,
gaur ere prestu niok
zerbait agintzeko.
Badakik zer bear dan
barrena sartzeko,
bai al dek modurikan
sarrerak artzeko?

Joan zan urtean ere
batzuek badituk,
sartzerik izan ez ta
kanpoan geldituk.
Onezkero sarrerak
saltzen asi dituk,
nitaz oroitu ari,
konponduko gaituk.

Sebastian Salaberria

Nere soroko emaitzak,

Auspoa 172, 1984.

Matxain vuelve a la toka, a los bolos y a sus bertsos

Tras la convalecencia que ha guardado a causa de una operación quirúrgica, de la que ya se ha recuperado plenamente.

Pedro María¹ Matxain Ezpeleta, tras casi un año de convalecencia a causa de la operación quirúrgica a la que fue sometido, se encuentra perfectamente recuperado y dispuesto a seguir con las aficiones que tantos éxitos y premios le han proporcionado a lo largo de su vida, o sea, la toka, los bolos y, por supuesto, sus bertsos.

Matxain cumplirá en octubre setenta años. Desde hace seis está jubilado. Trabajó prácticamente toda su vida en la fábrica de baldosas de José Luis Caballero. Y tiene ahora, como principal distracción en sus horas libres, el cuidado de la huerta del caserío Ramonane, de Ayete. En realidad, Ayete ha sido, y es, el barrio de toda su vida, donde nació y donde aprendió las difíciles estrategias de la toka, actividad de la que ya era todo un campeón a los quince años. Los bolos llegaron más tarde, tras las guerra, y los bertsos mucho después, por medio de una apuesta.

Matxain es miembro por derecho propio de la tertulia de los martes del Vallés, o como él mismo la denomina, de «egizaleak» (amigos de la verdad), entre cuyos componentes cabe citarse Basarri, Joaquín Zubiría y Gárate. «El año pasado —explica— también formaban parte de la tertulia Pellizar, Eusebio Zubillaga y Víctor Idiazábal, los cuales han fallecido». Y en la tertulia de los martes —que se viene celebrando desde hace nada menos que veinticuatro años— se habla de todo un poco: de los deportes rurales, del estado de los probaderos, de cómo van las apuestas... «Nosotros hablamos de todo, aunque para no arreglar nada».

La toka

Fue el primer juego que dominó. La toka le proporcionó los primeros trofeos, de los cientos que guarda, y las primeras txapelas bordadas. La toka fue también el conducto por el que Matxain entró en el mundillo del deporte autóctono. De joven era raro el domingo que no andaba de un lado para otro de Guipúzcoa para medir su habilidad con otros campeones locales y, de paso, si se terciaba, ganarse unos dinerillos. Antes, dice, había más afición y el problema de que se haya reducido el número de adeptos a este juego es que «ahora hay cuatro o cinco figuras que se llevan todos los concursos y no hay quien se atreva a enfrentarse con ellos».

La toka le ha proporcionado a Matxain innumerables satisfacciones, entre éstas, la demostración que hizo en Japón ante las cámaras de televisión niponas.

Los bolos

La afición a los bolos de Matxain fue más bien tardía y cultivada en tristes circunstancias, entre los muros de la cárcel tras la guerra civil. En 1944, ya en libertad, comenzó a apuntarse en los torneos que se organizaban en toda Guipúzcoa y no tardó en conquistar el Campeonato Provincial, al que siguieron títulos de más competitividad hasta llegar el Campeonato de España. Según explica, no le fue difícil aprender las técnicas de los bolos, una vez que dominaba la toka.

Cientos de premios, trofeos, reconocimientos y muestras de afecto se amontonan en las vitrinas de su casa. Y no piensa que sean los últimos, porque, tras la delicada operación quirúrgica a la que fue sometido el pasado mes de agosto, que le obligó a una buena temporada de convalecencia, ahora está dispuesto a volver a este mundillo. «El mes que viene –afirmo– tengo la intención de comenzar a tirar a los bolos en algunos de estos torneos y me parece que va a ser el primero el que se celebre con motivo de las fiestas de Amara».

Bertsolari

Aunque Matxain tiene publicado un libro de bertsos y material suficiente para otro más, se confiesa no demasiado apasionado, por lo menos en lo que se refiere a la parte de la recitación. «La verdad es que comencé a escribir bertsos ya de mayor, tras una discusión por la Parte Vieja con unos amigos. Me aposté unas chuletas para todos a que participaba en el Premio Xenpelar. Y así lo hice». Fue en el año 1965 y la experiencia fue todo un éxito, porque entonces obtuvo el segundo premio. En este torneo recuerda Matxain haber conquistado un primer premio con unos bertsos dedicados al Che Guevara. «Fue curioso y muy comentado –afirma–, porque entonces no se podía hablar, ni mucho menos elogiar, al Che Guevara».

Matxain ha preferido siempre el refugio discreto de la pluma y el papel para hacer sus bertsos. No ha sido muy amigo del micrófono y la improvisación. Todos los temas eran buenos para darles forma de bertso y publicarlos de vez en cuando en la atalaya diaria de Basarri».

El Diario Vasco, 1986-VI-4.

¹ Manuel bear zuan emen.

Manuel Matxain

¿Quién no ha oído hablar de nuestro gran amigo Manuel Matxain, de Ayete? Está unánimamente reconocido que ha sido el mejor “tokalari” de todas las épocas, además de “bolari” de primerísima calidad.

Hace la friolera de ventiséis años que nos reunimos semanalmente en San Sebastián. Tendrá que haber un motivo de gravedad para que el bueno de Manuel no asista a la cita.

Antes nos reuníamos en el Bodegón Anastasio. Su hijo, el popular Plácido Eceiza, nos acogía cariñosamente. Imposible hallar mejor trato en parte alguna.

Pero cuando el citado bodegón se convirtió en comedor, nosotros mismos nos dimos cuenta de que perjudicábamos al establecimiento.

Aquello estaba montado para servir comidas y no “amai-ketakos” de ínfima importancia.

Con hartó sentimiento, nos vimos obligados a cambiar de lugar. No porque nos recomendara el simpático Plácido, sino porque nos dimos cuenta de que no era aquél el lugar que nos correspondía.

Nos trasladamos al Bar Vallés, en las proximidades de la catedral del Buen Pastor, donde todos los martes de cada semana celebramos nuestra tertulia. Nuestra cuadrilla lleva la denominación de “Egizaleak”, y hay plena unanimidad en nuestros criterios. Es que los amigos de la verdad están llamados a entenderse, lo que no es nada frecuente en nuestros días. Impera el confucionismo en todas partes, pero, a Dios gracias, no sucede lo mismo entre nosotros.

Va disminuyendo el número de los contertulios.

Dejaron de existir los renterianos Víctor Idiazábal, Eusebio Zubillaga y el donostiarra Victoriano Anabitarte. Pero permanecerán siempre en nuestro recuerdo. Nunca los olvidaremos.

Manuel Matxain, el 6 de agosto de 1985, fue sometido a una operación muy delicada. No emplearemos términos científicos. Tuvo un tumor en la cabeza. Todos los lectores se harán cargo de lo que esto supone. La operación le fue practicada por el doctor Arrázola, con resultado bien satisfactorio.

Manuel Matxain, de entonces acá, sigue practicando sus aficiones favoritas: la "toka" y los "bolos".

A pesar de haber cumplido los setenta años de edad, sigue en la palestra.

Este mismo año de 1987, Manuel resultó vencedor en los concursos de bolos en Añorga y Lasarte.

Confiesa con toda sinceridad que, como "tokalari", no es el mismo de antes; que acusa los efectos de la operación; que ha bajado mucho, dicho en una palabra.

Es un conversador amenísimo y posee una memoria privilegiada. Matxain, para nosotros, se parece mucho a un "Lazkao-Txiki". Cuando da suelta a su repertorio de chistes y sucedidos, el tiempo vuela.

Qué duda cabe que Matxain es polifacético. Nos consta que fue buen corredor, y que jugaba bien a la pelota. Todos nuestros lectores saben que es un bertsolari literario de alta calidad; que las estrofas que escribe merecen el beneplácito de todos los entendidos.


¿Los mejores "bolaris" para Matxain? Txertubi, de Ayete; los hermanos Ugarteburu, de Ezkio-Itxaso; e Izaguirre, de Hernani. Hoy en día, el mayor disfrute de Matxain consiste en cultivar la huerta, trabajando en ella incansablemente.

Basarri

El Diario Vasco, 1987-III-12.



Donostiako *Vallés* ostatuan, asteartero biltzen ziran lagunak.



Donostiako Udalak *Medalla al Mérito Ciudadano* saria ematerakoan, 1992-an.

Basarriren iritziak

Manuel Matxain zanak bere bertso-saillik geienak Basarri bialtzen zizkion, eta onek egunkari eta aldizkarietara pasa, argitarara atera zitezen. Makinaz idatzi ere berak egiten zituala uste det.

Baita aurretik lerro batzuk erantsi, bertso aien aurkezpena egiñez eta aiei buruz bere iritzia emanaz. Basarri gizon zuri oietakoa etzanez, ez det uste alakoetan losintxarik egiten zuanik, benetan eta biotzez sentitzen zuana adierazi baizik. Komentario oiek merezi dute, beraz, onera aldatzea.

Matxainen bertsogintzaren doai eta alderdi onak aitortzeaz gain, bidenabar beste zerbait ere egiten du lerro oietan Basarrik: berak bertsoari zer eskatzen zion adierazi; bere ustetan bertsoaren eredia nola bear zuan azaldu; bertsoari buruzko teorika eta *preceptiva* bat sortu.

Ori egiña zuan bere *Bertsolaritzari buruz* liburuan (*Auspoa*, 178); gai ori ikuitzen duan bere idazlanen bilduman alegia. Baiña Manuel Matxainen eta beste bertso-jartzaille askoren sailen aurretik jaulki zituanak ez dute, guk uste, bazterrera uzterik merezi, naiz eta guk emen Matxainentzat idatzi zituanak bakarrik eskeiñi.

Ala, 1965 urteko estropadak jokatu ondoren Matxainek jarritako bertsoen aurretik onela zion:

«Ez da atzo goizeko oitura. Estropada sonatu batzuren ondoren bertsoak jartzekoa, alegia. Ondarrabi ta Pedreña'ren artean aurten jokatuak sonatuak etzirala, nork esan?»

Manuel Matxain, tokalari, bolari ta bertsolari iaioa danak amar bertso moldatu ditu, au dala-ta. Egokiak, bere guziak oi diran bezela». (*Zeruko Argia*, 1965-X-17).

Lerro oietan egokitasuna aitortzen dio, beraz. Ala zan bere izatez Aieteko bertso-jartzaille ura: egokia, zer egiten eta zer esaten zuan ondo zekiana.

Aita Salvatore Mitxelena 1965-XII-20-an il zan. Berri goibel ori ikasitakoan, bertso batzuk jarri zituan Matxainek. Sail orri sarrera ematearren, onela idatzi zuan Basarrik:

«Emen degu berriro Manuel Matxain. Bertso biribill, giartsuak dakazki, beti bezela. Ondo neurtuak; exkaxirik eta sobrerik ez tutenak. Argatik dira ikasten errezak Matxainen bertsoak. Neurritan ez tatorren bertsoak ez tu ematen ikasteko gogorik; kantatu eziñezkoa izaten da, ta bertsoak kantatzeko egiñak dira.

Matxain oso ondo dabill neurrian eta baita puntutan ere. Orretzaz kanpo, Matxainen bertsoak esan egiten dute zerbait. Bertsolariaren egitekoa ori da; al dan txukunen moldatutako bertsoan al danik geien esatea.

Laguna zun Matxainek il berri degun Aita Salvatore Mitxelena. Garbiro ikusiko degu au bere bertsoan zear». (*Zeruko Argia*, 1966-I-23).

Matxainen sail ortan meritu asko ikusten ditu Basarrik; eta oietxek nai lituzke edozein jartzaileren bertsoetan ere.

1966-an, estropadak jokatu eta Matxainek bertsoak jarritakoan, onela idatzi zuan Basarrik bere sarreratxoa:

«Emen datorkigu berriro gure Matxain bizkorra. Gaurkotasunez jantzitako bertsoekin etorri ere. Itxas zabalean Ondarrabik eta Pasai San Juanek jokatutako estropada gogoangarriak merezi zuan onelako zerbait. Nor Matxain baño egokiagorik egun artako goraberak itz neurtuz adierazteko?». (*Zeruko Argia*, 1966-IX-23).

Beste batean onela zion, il-berri bat entzundakoan:

«Uriona, bizkaitar ziklista trebeak bukatu du bere mundualdia. Danok dakizute bizikletako erori baten bidez il zaigula. Manuel Matxain erne egoten da beti, garaian garaiko gaiak erabiltzeko». (*Zeruko Argia*, 1967-VIII-20).

Bai; Matxainen beste doai eder bat orixe zan: ernetasuna. Eiztari lotiak ez du usorik botako; bertso-jartzailleak ere esna eta arretatsu bear du izan, bertso-gai egokiak egan dijoazela eskua luzatu eta arrapatzeko.

Txe Gebara-ri jarritako bertsoekin *Xenpelar Saria* irabazi zuan 1967 urtean. Sail ori argitaratutakoan, onela zion Basarrik:

«Emen degu gure Manuel Matxain! Gaurkotasunez betetako bertsoekin etorri ere. Gogoz irakurri ta kantatuko dituzute jaulkitzen ditunak. Matxainek gauzak esaten daki; egoki esaten. Neurrian ere eztu akatsik. Sobrerik eta paltarik ezta somatzen bere lanetan! Itz bakoitzak or du bere toki». (*Zeruko Argia*, 1967-XII-24.).

Epai mamitsua da ori. Itz gutxitan asko esaten duana, eta bete-betea asmatuz gaiñera.

Beste batean:

«Joxe Migel Maiz-en igandeko jokabide bikaña ikusita. Matxain ezin egon luma dantzatu gabe. Ikus dezagun Aieteko bertso-jartzalle argia nola mintzatzen dan». (*La Voz de España*, 1968-II-3).

Argia esaten dio emen Basarrik, eta bein baiño geiagotan erabiliko du itz ori Matxainengatik ari dala. Arrazoi osoz, gaiñera, gure iritzirako beintzat

Leen ere esan bezela, Japoi aldean ibili zan bein batez Matxain. Berak azalduko zigun gero nola eta zeintzuk joan ziran araiño. Ondoren bertsoak jarri zituan, eta Basarrik aurretik:

«Manuel Matxain zintzoa Japon aldetik ibilia da, dakizutenez. Erri ixill, langille ta eskolatua arkitu du an. Euskaldunok ezer izan nai badegu, aien bidea artu bearrean gaudela pentsatzen du Matxain-ek. “Ardo gutxiago ta eskola geiago” esango digu. Bertso biribill eta giartsuak, bere guziak oi diran bezela. Laister konturatuko dira *Zeruko Argia*-ren irakurleak».

Ibillaldi orren sailleko bost bertso *La Voz de España* egunkarian azaldu zituan Basarrik, aurretik beste gai garrantzitsu bati buruz zerbait esanez:

«Bertsolari artean ez dagola poesirik esaten digu Mitxelena jaunak. Gaurko poesian ez dagola bertsoarik esaten det nik. Desberdiñak dira bertsolariaren eta poetaren egitekoak.

Bakoitzak bere gustoak ditu. Zerbait esaten dun bertsolaria naiago det nik ezer esaten ez dun poeta baiño. Esatekoak ondo esanak izan ditezela; puntuz eta neurriz dabillega ondo bertsolaria.

Izan ere, bertso anka-luzeak edo beso-motzak dituna ezpaita bertsolaria. Lege ta arau batzuk daude. Aietara errenditu bear da. Matxainek badauki nundik nora dabilen».

Auzi ori aspalditik dabil gure artean. Bertsolari artean poesirik ez dagoala? Leenengo, bere iritzirako poesia zer dan adierazi bearko luke Mitxelena jaunak; eta, ondoren, euskal bertso-

ak euskal bertsoen barrutik begiratu eta epaitu; ez erdal kultura eta estetikaren ikuspegitik. Ez-eta bertsolari guziak otar berean sartuta. Bestela, Bilintx, Otaño, Xalbador eta beste askoren bertsoetan poesirik ez dagoala esatea da. Sarritan gu gerok gera, euskaldunak, geren teillatura arrika jarduten geranok.

Silbestre Igoa, Añorgako semea eta futbolista trebea izana, il zanean ere, bertsoak moldatu zituan Matxainek, eta Basarrik onela zion asieran bertso-tarteetan eta bukaeran:

«Illun eta goibel dago Donostiko Añorga ballara. Utsune aundi bat utzi du bertan ain maitea ta ixtimatua zan Silbestre Igoa gizon gazteak. Ostikolari (futbolista) entzutetsua izan zan bere garaian. Bat-bateko gizona; gizon osoa, ezagutu zuten guziak aitortzen dutenez...

Eriotzak ez du begiratzen zein eta nolakoa dan. Beretzat ez dago aundi, txiki, aberats, beartsurik. Jaungoikoa bakarrik dala betikoa agertzen digu Matxainek...

Kupira gabe lanean ari zan Igoaren ama alarguna, familia aurrera ateratzeko. Silbestre Igoak, Valencia-ko ekipoan lenengo txanponak irabazi zitunean, danak amaren izenean jarri zitun. “Ez da olako asko gaurko egunean” esaten digu Aieteko bertsolariak...

Gure azken egun eta orduaren berri Jaunak bakarrik dakila adierazten digu oraingo ontan...

Askotan, guri begiratuta, gure jokabideak ikusita, ez dirudi iltzeko jaio giñanik. Orretzaz ondo aztuta ibiltzen gera zenbait bolaretan.

Matxainek erabaki egiten du bertsoa; esan egiten ditu gauzak, eta txukun esan ere...

Len eta orain, oso konta-alak ditugu Matxain bezelako bertsojartzaileak. Ondo konturatuak daude ontaz *Zeruko Argia*-ren irakurleak». (*Zeruko Argia*, 1969-VI-22).

Afrika aldeko gerraren bat bukatutzat eman zanean, gure aietearrak bertsoak jarri zituan, eta onako au izan zan Basarriren itzaurretsoa:

«Manuel Matxain, Aieteko bertso-jartzaille bizkorra, adi-adi egoten da nun zer gertatuko. Orain bukatu berria dan Biafrako gerra gai artuta, bertso biribil batzuk moldatu ditu». (*La Voz de España*, 1970-II-17, eta *Zeruko Argia*, 1970-III-29).

Aurreko batean, *erne-erne* egoten zala esan du; beste batean *argi-argi*. Emen, berriz, *adi-adi*. Gauza bera da, noski.

Aieteko festak gai artuta ere jarri zituan Matxainek bertsoak. Basarrik komentario auek egin zituan:

«Kanpotik jende asko etorri, ta bakar batek ez aldegiten. Bertan goxo danak. Zenbat eta jende geiago, orduan da etxe premi aundiagoa. Danentzat egin bear tellatupeak. Gaur amabosteko *Zeruko Argia*-n Manuel Matxainek dotore ikuitzen zun gai au. Gaurkotasunez (aktualidadez) gañezka dagon gaia da. Edozein modutan, arin-arin, erabili ezititekena. Euskaldun modura, era batera ikusi ditzazkegu gauzak; kristau modura, beste era batera.

Donostiren auzone bat da Aiete. Urte auetan aldakuntza aundiak izan dirala Aieten dio bertsolariak. Nun eztira izan? Matxainek Aietetzaz diona noranairako ondo datorrela pentsatzen det». (*Zeruko Argia*, 1970-X-5).

Sail ortako bertso bat eskeiñi ondoren, onela jarraitzen du:

«Ogi koxkor baten billa datozen familientzat badu errukia bertsolariak. Kristaua baita Matxain, beste gorabera danen gañetik. Kristau bezela jokatu nai izan du bertsoak moldatzeko denboran».

Beste bertso bat urrena, eta ondoren onela segi:

«Atzean utzi dituzten jaioterritan nolako bizimodua zeramaten agertzen digu oraingo bertsoan:

Gerri makurka, itaia artu,
egun guzia garitan,
an itzal gutxi izaten da ta
ari bear eguzkitan.
Burua zerbait altxa orduko
maiorazkoa erritan,
auxe zan oien bizimodua
len bizi ziran erritan».

Bertso au emen ere eskeiñi bear izan degu, leenago bere tokian badago ere, Basarrik segidan esaten dituanak ulertuko badira:

«*Erritan* bukaera bi aldiz agertzen da bertso ontan. Letra berdiñak izanarren, zein esanai (sentidu) desberdiña! Or bai eztagola poterik.

Irakurle danak eztute ontzat artuko Matxainen gauzak ikusteko modua. Auxe bear luteke gogoan. Gaur Gipuzkoa industriz eta lanez aberats badago ere, ondo arlotea zan denborak izan zirala. Millaka euskaldun askok izan zutela al zuten tokitara ogi billa jo bearra.

Zenbat euskaldun famili dira senide arteko bat Amerikan ez tutenak? Kastillako ainbat eleiz eta katedral ez al dira euskaldun argiñen izerdiz egindakoak?

Kanpoan ogia jan bearrean gerta izan geranean, bizitzen giñan parajetako izkuntza ta oiturak errespetatu izan genitun guk. Ogi koxkor baten billa onuntza datozen oieri eztegu besterik eskatzen: gure izkuntza, jolas, oitura ta izakera begi onez ikus ditzatela.

Gure erria zapaldu ta ito asmoz ezтитеzela asi. Esker oneko agertu ditezela; ezaguera ta gizatasuna erakuts dezatela. Artaraka askoz zoriontsuago izango dira gure artean. Gizonki jokutzen danak izango ditu bere lagunak. Ala jokutzen eztana, begi txarrez ikusia izango da».

Beste batean, bertsoen aurretik eta atzetik egiten du Basarrik bere azalpentsua. Aurretik:

«Manuel Matxain, Aieteko bertsojartzailleak amar ale moldatu ditu. Emazte baten naigabeak azaltzen dizkigu. Moskorkeria zigortzen bertsolariak andrezko kupigarri orren bidez». (*La Voz de España*, 1971-V-1).

Eta atzetik:

«Sermoi kutsua, moralista kutsua aurkituko dute batzuk zure bertsoetan, Manuel.

Ar-eme arteko askatasuna, “amor libre”, “proletariotza” ta modu ontatsuko gaiak ez darabizkiena, atzeratua da gaur egunetan.

Atzerapenik aundiena nun dagon ez jakin. Aurreragi joan nai izatea da, nerretzat, atzerapenik aundiena.

Itzal, errespetu ta gizabide guziak erabat puskatzen eta birrintzen ditugunean, ez dut uste gaur baiño zoriontsuago izango geranik. Ta... ortaraxe goazela dirudi». (*La Voz de España*, 1971-V-2).

Itz auetan, Matxainena ez-ezik, bere burua ere zuritzen ari da Basarri. Onengatik askok esaten zuten moralista eta fraile kutsua zuala. Ala ote zan edo ez ote zan utzi dezagun alde batera. Baiña berak ala nai bazuan, askatasun osoa zeukan ortarako. Bai irakurleak ere aren esanei muzin egiteko.

Gizona illargira iritxi zanean ere bertsoak jarri zituan Matxainek. Baiña onela galdetuz: «Ta beartsuei laguntzeko zer? Ortarako ezer gutxi».

Orri eldu zion Basarrik, bertsoen atzetik onela esateko:

«Bidegabekeri bat, injustizi bat ikusten duen tokian ikusten duela, salatu egiten du Matxainek. Eta gure egunetan ainbeste injustizi dagolarik, sarritan izaten du lanerako gaia». (*La Voz de España*, 1971-XII-12).

Gerraz geroztik Frantzian bizi zan anaiari bertso batzuk jarri zizkion Matxainek. Eta Basarrik aurretik:

«Ogeitamar urtez etxetik kanpo Frantzian bizi dan anaia, gazte denborako izakera, ildako senide bi ta abar, asko esaten duten bertsoak dira Matxainenak.

Eta au da bearrekoa: asko esatea, ta al dan egokienik esatea. Ondo neurtutako itzak dira beti Matxainenak, ark jarritako bertso guzietan errez ikus ditekenez».

Bertso egokiak ez-ezik, mamitsuak izatea eskatzen du emen Basarrik; eta atzetik onela jarraitzen du:

«Anai arteko gerra zitalak ekarritako ondoren negargarriak aitatzen dizkigu. Gure partez gure semeak pakean bizitzea nai luke Aieteko bertsolariak; guretzat izan etzana aiek gozatzea.

Kristauki mintzatuko zaigu beti, lagun urkoa maitatzen ikasten eztegun bitartean munduan gerrarik ezjala paltako esanaz». (*La Voz de España*, 1972-VI-4).

Orra or Matxainen beste alderdi bat: kristautasuna. Batzuetan bere fede ori aitortu egiten du; besteetan, berriz, nabaitu egiten zaio, ikusi gabe ere loreen usaia gure sudur-zuloetatik igurtzi gozo baten antzera sartzen zaigun bezela.

Klinikatik pasa bearra izan zuan Matxainek, eta bai ondoren bertsoak jarri ere. Basarrik sarreratxo au egiten zion:

«Zain-aunditu edo “barizetatik” operatu berria dute Manuel Matxain bertso-jartzaille bizkorra. Perez Iñigo ta Bereziartua jaunak izan ditu sendalari. Eskertsu dago bertsolaria jaun agurgarri oiengana. Ta esker ori, ondoren irakurriko dituzuten bertsoetan agertzen da garbiro». (*La Voz de España*, 1973-III-14).

Ez gaitu batere arritzen Matxain esker oneko izatea, alako biotza zuan eta.

Andik bi urtera klinikatik berriro pasa bearra izan zuan, eta bai orduan ere bertsoak jarri. Argitara ematerakoan, Basarrik komentario batzuk erantsi zizkien, bai aurretik eta bai tartetean ere. Guk danak segidan eskeñiko ditugu:

«Manuel Matxain illebeta bat eta geiagoan klinika batean egona da, “Residencia” deitzen diogun gaixotetxean. Zain bilduak (*varices*) zituan Matxainek eta aietatik operatu dute. Etorria da bere onera, zorionez. Gaixotetxeko egonaldiak on egin diola dirudi, tokako ta bolako saria an da emen irabaziaz asi da-ta. Zu zera ganadua, zu!

Matxainen aita zana anka moztua izaki. Ari gertatua zuan gogoan se-meak, eta zerbait nagitasun nabaitu zuanean, adoretzu artu zuan klinikarako bidea. Gaitzari aurea artzea zala onena pentsatu zuan.

Bereziartua jauna, azpeitiar sendagille ospetsua, Matxaini atzaparrak bota dizkiona. Etzan makala ark egindako garbitasuna!

“Arro geranak umiltzeko ez dala gaixotzea bezelakorik” esango digu oraingoan. Ez da gezurra. Bezperan mundua puskatu bearrean iñork errenditu eziñik, eta biaramonean txita baten laurdenik balio ez degula. Onelakoxeak gera gu». (*La Voz de España*, 1975-VII-2).

Moldatzen zituan bertsoak bere izen-abizeneguz argitaratzen zituan beti Matxainek; baiña batean, zergatik ez dakigula, *Galtzaratik* izenordea erabili zuan. Sail orren aurretik onela zion Basarrik:

«*Galtzaratik* izenordean estaltzen dan bertsojartzaille bizkor trebe bateg, ondoren irakurriko dituzuten aleak bialtzen dizkigu. Badago or gogoan artzekorik». (*La Voz de España*, 1978-VII-21).

Eta zazpi bertso eskeiñi ondoren:

«Auek moldatu dituanak berekin du bertsolari ezpala. Ez nolanaikoa gaiñera. *La Voz*-eko nere orrialdea zeure mende daukazu. Beti egingo zaie toki zure bertso marduleri. Eta berdin Olea, Kalonje, Mondragoiko kalezaia, Etxezarreta, Manterola ta beste ainbatek. Jendeak ez du gustorik galdu. On-do jarritako bertsoak errez estimatzen dira oraindik ere. Eta askoz geiago, jendeak bear ainbat euskera baleki». (*La Voz de España*, 1978-VI-21).

Basarrik bai ote zekian *Galtzaratik* izenordeko ori nor zan? Bearbada bai, bertso-jartzaille trebeen zerrendatxo ortan Matxainen izenik ez da ageri eta; baiña ezjakiña egiten du.

Ona Basarriren urrengo komentarioa:

«Santakutzetan jaiak izaten dira Donostiko Aiete baillaran, Lezon eta beste toki batzutan bezelaxe. Manual Matxain, Aieteko bertsojartzaille bikaiñari, ango elizan bertso batzuk kantatzeko erregutu zioten eliz-gizonak. Egin det Matxainek jaulkitako aleak eskutaratzeko modua. Gauzak txukun eta dotore esaten daki Matxainek, eta gai sakon eta mamitsuak erabiltzen, bide batez» (*El Diario Vasco*, 1979-IX-26).

Donostiako Alkain alkate jaunari, bear ez dana egin edo esan egin zioten batenbatzuek. Bai Matxain bertso batzuetan aren alde atera ere. Onen saillaren ondoren onela esaten zuan Basarrik:

«Eskertzekoak dira, Alkain begiragarria, Matxainek eskeintzen dizkitzun ale auek. Askok itzez eta beste askok kartzegertuko zuten zu iraindu zinduztenenganako asarrea. Matxainek bertso borobilletan gaitzesten ditu gaizki ezitako seme baztergarriak. Gizatasun apur bat duan guztiak txalotuko ditu Matxainen bertsoak, zu txalotuko zaituan bezelaxe». (*El Diario Vasco*, 1979-X-11).

Bertso-jartzaille berri bat agertu zan urte aietan Ernanin: Jose Maria Arrieta. Gerora ixildu bazan ere, bertso-sail eder asko argitaratu zituan garai artan, guk *Auspoa*-ren 162 zenbakian, *Nere ondar alea* izenburuarekin plazaratu genituanak.

Bertso bikaiñak Arrietarenak. Ez det uste Mitxelena jaunak irakurriak zituantik; egin balitu, ez det uste esan zuana esango zuantik.

Matxainek bertsoak jarri zizkion, bertso-jartzaille berriari ongiatorri bero eta maitekorra egiñez. Eta Basarrik sarreratxo au egiten zien:

«Bertso-jartzaille egoki bat sortu zaigu Ernanin, dakizutenez. Manuel Matxain aietarrari oso gozozko izan zaizkio Joxe Mari Arrietak *El Diario Vasco* ontan argitaratutako bi bertso aldiak. Eta Matxain bizkorrak bultzada bat eman nai lioke, artutako bidetik aurrera jarrai dezan» (*El Diario Vasco*, 1979-XII-19).

Eta ondoren:

«Geroko bizitza aiatatuta parre egingo dute gaurko askok. Egin dezate-la nai badute, baiña itxaropen ori degunok aitortu egiten degu, Matxainek gaurko bertsoetan bezelaxe. Fedea galtzen duanak itxaropen danak galtzen ditu. Ez dakigula olakorik gerta. Errukarri giñake artaraka». (*El Diario Vasco*, 1979-XII-19).

Ziur nago leen aiatatu degun *moralista* itza irakurleari berriro bururatu zaiola.

Berdin gertatuko zaio, Matxainen *Naikoa da* izeneko saillaren ondotik Basarrik erantsitako lerroak irakurritakoan:

«Gaurko okerra, lagun Matxain, kristau gerala aitortzen ere lotsatu egiten gerala. Kristoren agindurik ez degula aintzat artzen. Kristautasuna ez dago, ez, modan gure lurrean.

Aren utsunerik ez degu beteko, ordea, ler egiten badegu ere. Kristautasunarekin batera galdu ditugu errespetu ta lotsa guztiak. Gabiltzan bezela ibiltzearekin ez degu batere arritu bear. Guztiok gera pekatari, ta guz-

tiok ordaindu bear geure utsegiteak. Izena ta izana ezpaitira berdiñak». (*El Diario Vasco*, 1980-II-20).

Ixil xamar egon zan bolara luzetxea ere izan zuan Matxainek. Bertso jartzeari berriro ekin zionean, Basarrik txalo beroak jo zizkion:

«Ixillaldi luze baten ondoren, Manuel Matxain Aieteko seme argiaren sei bertso agertu ziran atzo sail ontan. Ederrak, bikaiñak, bete-beteak, bere danak oi diran bezela. Gutxik bezelako bertsolari ezpala du Matxainek, eta bertsozaleak zai egoten dira aren aleak noiz azalduko.

Sarritan aitortzen digunez, ezertarako gogorik gabe dago Matxain. Erruz supritzen dun gizona da gure erriaren egoera negargarri au ikusita. Odolez bazterrak betetzen diran bitartean, nork dauka bertsoak jartzeko zaletasunik?

Gaur daukagun baiño giro ohea nai litzake ortarako. “Nik ezin det –aitortzen du Matxainek–. Barrenak ez dit agintzen». Arrazoi osoa du gizonak. Olako zerbait gertatzen zaigu guri ere.

Moldatzen degun baiño ondotoxoz bertso geiago molda genezake, baiña ixiltasuna nagusitzen zaigu, naigabearen naigabez. Kaso berean daude beste bertsojartzaille askotxo. Egoak moztutako egaztiak bezela, egarik egin ezin dutela.

Ongi etorri, Manuel, eta, derizkiotzun guztirako, *El Diario Vasco* onen ate ta leioak zabalik dauzkatzu. Eguraldi on eta txarrean, errez ezpada ere, balio dutenak egin bear dute lan. Eta zuk asko balio dezu. Zure bertso bakoitzak ematen du dezun balioaren berri». (*El Diario Vasco*, 1983-XI-12).

Zain-aundituena baiño operazio zaillagoa egin bear izan zioten Matxaini. Zer izan zan Basarrik adierazten du, bere *Nere bordatxotik* atalean:

«Atzoko alean sei bertso bikain agertu ziran Manuel Matxain jaunak izenpetuak. Gure irakurleetan ba ote da iñor Aieteko tokalari, bolari ta bertsojartzaille argi onen entzuerarik ez dunik?

Buru dana askatu bear zioten Matxaini. Sei ordu pasako operazio la-tza “tumor” bat kentzeko. Jun dan asteartean izan gendun lagun Matxain agurtzeko egokiera. Bere denbora bearko du zearo oneratzeko, baiña txoria bezin alai aurkitzen da. Zu besarkatzeak egundoko poza eman zigun, Manuel. Oso premizko gizona zaitugu, ta... eutsi goiari». (*El Diario Vasco*, 1985-IX-17).

Matxainek *Amar agindu* izeneko saila ere atera zuan. Basarrik komentario au egiten zion atzetik:

«Gure bertsojartzaille jatorrak jaulkitzen dute egi sakonik, gaur Matxainek egiten dun bezelaxe. Biarko alean Aiako Joxe Mari Lertxundirenak irakurtzeko egokiera izango degu. Alperrik izango bada ere, egizko bide zuzenaren alde agertu bear bertsolariak, euskerarik errezen eta errikoienean. Bertsoak diotena ulertu gabe ezpaita iñor geldituko. Au da gaur eman diteken pausorik bikaiñenetako bat, izkuntzaren aldetik begiraturik». (*El Diario Vasco*, 1990-I-13).

Basarriren lerro oietan danetan zera ageri zaigu, beraz, argi eta garbi; arek Matxainen bertsozaintzari zer irizten zion. Denbora berean, bertsoa nola eta zer bear duan esaten digu. Ortik leen esan deguna: aitopen oiek ere emen azaldu bearrak zirala.



Manuel Matxain bertsotan.

Elkarrizketa

Donostiarra, Aieteko “Txabola” etxekoa dugu Manuel Matxain. Berari buruz aritzerakoan, ezinbestekoa bilakatzen da toka, bola, musa eta Euskal Herriko zenbait bazterretan urte frangotan dibertimendurik zabalduenak eta kasik bakarrak ere izen diran “kirol” edo joko herrikoiak aipatzea. Horietan txapel-dun eta maisu ospetsua bait da Matxain. Bertsolari eta bertsozale ezaguna hamaikanaka garaikur eta sari bereganatu dituen tokalari eta bolaria, gogotik jarraitzen die aurten 75 urte egingo dituen aietetarrak betidanik zaletasuna izan ditueni.

Apaletan biltzen diren makinaka garaikurrek bisitalarien arreta ekartzen dute Manuel Matxainen etxera iritsitakoan. Askotxo bait dira, bai apalak, baita horien gainean pilatzen diren hamaikanaka txapel, bandeja, omenaldi-opari eta gainerako errekonozimendu zeinuak. Zalantzarik gabe, jokalari ona, eta pertsonaia ezaguna bezain estimatua daukagu Manuel Matxain Ezpeleta.

–**Deia:** *Ikusi gabe, ezin da sinetsi pertsona bakar batek hainbeste trofeo irabaz dezakeenik. Inoiz kalkulatu al duzu zenbat sari eta plaka zeureganatu duzun bizitzan zehar?*

–**Manuel Matxain:** Ez dakit seguru, baina trofeo, erregalu eta gainontzeko objetuen artean mila inguru-edo izango dira. Etxeko toki eta bazter guztietan daude, apaletan batzuk, baina baita gordeta ere, bestela ez bait da posible. Kontutan hartu garai batean bi eta giru sarirekin ailegatzen nintzela etxera egun askotan.

–**D.:** *Oker ez banago, tokan edo bolan baino, korrikalari lez nabarmendu zinen mutiko zinelarik.*

–**M. M.:** Bai. Lehen korrika hamasei urtekin, 1933ko martxoaren 27an, korritu eta Gipuzkoako txapelketa *infantila* irabazi nuen. Urte hartan, maiatzean, Berazubín, gauza bera gertatu

zitzaidan 1200 eta 3000 metrotan. *Gipuzkoako Campeonato de debutantes y neófitos*-en, baita ere *kros*-en, eta Euzko Gaztediren kanpeonatoan. 17 urtekin *Gimnástica de Ulía*-ko partaide nintzen, baina lehen kategoriara pasa eta gero gauzak aldatu egin ziren, maila horretan aritzea askoz ere gogorragoa bait da. *Gimnástica*-koak, garai hartakoak, hiru geratzen gara. Periko Iradi, Emilio Iriarte eta ni. Urtero gomitatzen gaituzte ekintza eta bazkari batera.

–D.: “El acaparador de victorias” *deitzen omen zizun ordungo Noticias kirol egunkariak.*

–M. M.: Bai, baina...ez zazu aipatu, aipatzeak ez du merezi.

–D.: *Aipatu dezagun orduan toka. Nola ekin zenion; izan ere, noiz jaso zenuen zure lehen toka txapela?*

–M. M.: Donostian izan zen, Txingurrin. Gero, handik aurrera, zeozer antolatzen zuten toki guztietara joaten nintzen. Orduan ez nenkien bolan, baina, bolariei begiratzen haspertzen nintzelarik, hasi nintzen. Kategoria guztietan hartu izan dut parte: *individual, por parejas, veteranos...* Parejatan, Inazio Ugarteburu eta Zelestino Izagirrerekin gehien bat.

–D.: *Zenbaiterainoko afizioa dago Euskal Herrian toka, bola eta, oro har, joko herrikoiak deitzen direnetara?*

–M. M.: Lehen, izugarria. Sagardotegi asko zegoen eta sagardotegien inguruan makina bat jende jokoan. Donostiako Antiguon bakarrik, ba ziren bospasei sagardotegi; gaur egun bat ere ez. Toka, adibidez, gainerako joko hauek bezala, dibertsio moduan sortu eta, gero, jende asko ari zenez, Lopetegi eta beste batzu etorri eta araudiak sortu eta idatzi zituzten. Apostu ere asko egiten zen.

–D.: *Toka txapelketan, esaterako, zenbat partaiderekin eza-gutu izan dituzu?*

–M. M.: Ehun eta piko pareja izaten ginen eta banakakoan, berriz, berrehun lagun. Orain, aldiz, larogei lagun-edo biltzen gara banakakoetan eta berrogei-edo parejatan. Nire ustez, ordea, lehengo arteko diferentziarik handiena, lehen gauza benetan herrikoia zela da. Lehen sagardotegi gehiago zegoen eta jendeak berez jokatzeko zuen, herriak ere askoz gehiago hartzen zuen parte. Orain, aldiz, *oficialmente*-edo mantentzen da; lehengo indar edo bizitasun hori galdu da.

–D.: *Ba dira 22 urte Japoniara joan zinela tokan jokatzera. Kontaiguzu ondo nola izan zen bidaia hura.*

–M. M.: Japoniar batzu etorri ziren herrialde desberdinetako joku herrikoiak ikustera, gero japoniar telebistara eramateko eta Euskal Herriatik Usategieta eta Soarte harrijasotzaileak eta ni eraman gintuzten. Gogoratzen dut Soartek 160 kilotako harria jaso zuela eta nire kontra beisbol tiratzaile bat jarri zutela. Beisbol jokalaria ez zen behin ere tokan ibili eta gaizki aritu zen oso. Esperientzia polita, hura.

–D.: *Zein da zuk egindako markarik onena edo zuk egindako zein marka gogoratzen duzu hobekien?*

–M. M.: Ez dakit... ez ditut markak aipatu nahi... tokan... behar bada 60 ointara (16,8 metro) 6 zentimetroko zabala eta 30 zentimetroko alturako burdinarekin Lizaso bertsolariaren etxean egin nuena, 81 aldiz jo nuen, 20 tiradatan (tirada bakoitza sei fitxa). Inor ez da arrimatu ere egin marka horretara. Gehiago ere baditut, baina, tira, nahiago dut ez aipatzea.

–D.: *Orrialdea pasa dezagun, orduan, eta aipa dezagun bertsolari arloa.*

–M. M.: Egia esan, ez naiz beste munduko bertsozalea izan. Oso mutil koskorretik zalea, baina hasi 64rarte ez nintzen hasi, apostu bat medio. Hiru txuleta jokatu nituen, bertso hobeak nork jarri. Jueza, *Xenpelar Saria* antolatzen zutenak behar zuten izan, sarira aurkeztu behar genituen-eta. Ni Arantzazuko Ama Birjinari jarri eta bidali nituen, bigarren saria irabaziz. Harek ez zituen bidali, beraz apostua irabazi nuen. Baina, bestalde, Txomin Garmendiarekin ere egina nuen apostua. Berak, bertsoak irakurriak zituen eta apostu egin zidan sariren bat baietz lortu. Batekin irabazitako txuletak, beraz, bestearekin galdu. Baina irabazi nituenak zein galdu nituenak, oraindik jateke ditugu. Txomin Garmendia ikusten dudanean esaten diot: «Ari al aiz txekorra gizentzen?».

–D.: *Txe Gebarari ere jarri izan dizkiozu bertsoak.*

–M. M.: *Xenpelar Saria* irabazi zuten. Beste batean, Salbato-re Mitxelenari jarri nizkion. Geroztik sari batzu atera eta *Zeruko Argia*-n, *La Voz*-en eta *El Diario Vasco*-n, plazaratu izan ditut.

J. E.

Deia, 1991-III-17.

Manuel Matxain, tokalari sonatua

Gure garai bateko gizon ospetsu asko dijoazte mundu ontatik bestera. Aspalditxoan ortaz ongi konturaturik egongo zera zu ere noski, irakurle. *El Diario Vasco* egunkarian eskela pranko agertzen da, ta ez gezurraz jarriak, egizkoak baizik. Aurtengo negu zitalak ainbat naigabe triste eman duela baztarretan ez dago ukatzerik iñolaz ere.

Orain aipatzera nijoan gizon ospetsuetako bat auxe da: Manuel Matxain, Donostin bizi zana, Aiete inguruko seme jatorra, bere izatez.

Nik neronek dexente tratatu nuen eta izugarri gustatzen zitzaidan lagunarterako aren irikitasuna.

Basarri bertsolari zanarekin zuen konfiantza aundia Manuel Matxain gure adiskide zintzo ta leialak, biak adiñez berdintsuak izanik; eta gaitz-klase berberak menperatu omen zituen azkenen: perlesi edo *trombosis* esaten zaion erregalo eder orretzek, adibidez, ni oso oker ez banago beintzat.

Basarri il zan lenengo, eta andik laixter Matxain. Baiña egun gutxiren barruan ezkutatu zitzaizkigun bi gizon garrantzitsu, euskeraren maitale amorratu utsak.

Manuel Matxain tokalari sonatua zan. Zenbat sariketa irabazi ote zituen batean eta bestean? Ortantxe ibili oi zan eten gabe erriz erri. Nik neronek sarritan ikusi nuen zorionez tokan jokatzen. Pultsu ona, bista argia ta beso zuzena aretxek zeuzkala iduritzen zitzaidan beti.

Au ez det esaten nere kasa gauzak neurtuta bakarrik, jende jakintsu askoren aotik entzunda baizik.

Leen, pestak antolatzerakoan, erri txikietan batez ere, toka eta bola-jokoak ez zituzten aaztuta baztarrean utziko deskuidoz ere. An agertuko ziran erriko jaien egitaruan, garbi asko, bola bezelaxe toka.

Gaur ez dakit seguru esateko, baiña ez det uste leen aiñako apiziorik dagoenik joko-klase oietarako. Aldaketak ekarri dizki-gu gure munduko bizitzak, arritzekoa ez danez.

Diodan Manuel Matxain au bolan ere oso ederra omen zan. Nik neronek bein edo bitan ikusiko nuen geienaz ere; baiña jendeak famatzen zuela badakit.

Guk artista asko ezagutu genituen suertez, eta ainbat modutakoak, urte aietan Euskal Errian alde batetik bestera bertsotan genbiltzala; ta eskerrak eman bearrean aurkitzen naiz bertsolaritzari. Bestela, balore aundiko gizon oien berri jakiteraiño ez bai-giñan sekulan iritxiko.

Ta beste arrazoi bat ere badago tarte ontan aipatzea merezi duena: pertsona inportanteak ongi ezagutu aal izateko, beraien inguruan ibili ta bertatik bertara tratatzea dala onena esango nuke nik, batere dudarik gabe; ta guri aukera zoragarri orixe etorri zitzaigun eskuetara, nundik zetorren ez genekigula, gaiñera.

Manuel Matxain zanaren aldemenean bazkaldu edo afaldu prankotan egiña naiz ni, gustora asko. Uraxe zan gizon gozoa ta izlari atsegiña, neretzat beintzat. Arrokeriz ez zuen iñor aspertu araziko berealakoan.

Egun batez kontatu zidan pasadizo polita, erriren batean gertatua noski; baiña ez dakit nun eta noiz. Dana dala, berdintsu da kasorako.

Diodan erri artan, bai omen zan gizon aberatsen bat, jan, edan eta paseatu besterik egin gabe bizitzen zana; ta, eguraldi ederra ikusirik, esan du:

–Gaur mendi aldera jo bear diat, urruti antzeko baserrietara begiratuz, ea nolako itxura daukaten.

Alaxe, badijoa esku batean bastoia eta bestean txapela artuta, kamioan gora *taka-taka*, ta entzun du negar-otsa.

–Nor ote da emen supritzen dagoena? Ikusi bearko diat, badaezbada ere.

Ta an billatzen du gizon buru-txuri txiki bat kamio-baztarrean negarrez, eta galdetu dio:

–Zer pasa zaizu, gizon? Min artu edo bestelako zerbait?

–Ez det miñik artu kanpoan, baiña etxean bai, nere aitak jo nau ta.

–Bueno! Zergatik jo zaitu, ba, aitak? Zenbat urte dauzkazu?

–Irurogei ta bost.

–Nun da orain aita ori?

–Ortxe etxe-atarian ari da egur txikitzen sutarako.

–Ezagutu bear det –esan da badijoakio beragana; ta onela asi da izketan kaletar gizon aberatsa:

–Zuri galdera bat egingo nizuke pozik, erantzun nai bazenida, nagusi jauna. Or, kamio-ertzean, gizona bat negarrez dagoela ikusi det; eta, zer pasa zaion galdetu diodanean, aitak jo duela esan dit. Zu al zera bere aita?

–Bai, Ni naiz.

–Bapo! Zergatik jo dezu, ba, adin-modu ortako semea?

–Bere aitonari obeditu ez diolako.

–Bueno, bueno! Orrela baldin baziran gauzak, or konpon eta agur!

Ori esan da aldegin omen zion kaletar jauntxoak. Emen bu-rua nekatu arazi lezakeena arrazoi bakarra dago: irurogei ta bost urte zeuzkan billobaren aitonak, zer adin ote zeukan ordurako?

Gure lagun Matxaiñek kontatu zidan pasadizo zelebren au. Gizon alaia ta prestu utsa zan bere izakeraz Manuel Matxain, eta bertso-jartzaille ederra ere bai, nere gustorako.

Berandu asi omen zan paperean bertsoak idazten; baiña kendu zion zumua langintza orri ere. Buru argia duena alde askotara irixten dala ez da gezurra, ta ez legoke nik esan bearrik ere.

Baiña Euskal Erriak gizon garrantzitsu ta artista aundi bat galdu zuela esan genezake, Manuel Matxain il zitzaigun egun triste artan: tokan maixu izandakoa ainbat urtetan, ta bolan ere onenetakoa. Jakin nai nuke zenbat kopa ta sari dauden aren etxean oroigarritzat jaso ta gordean, berak irabazi ta eramanak.

Nik eskertzen dizkiot den-denak Manuel Matxain zanari.

Manuel Lasarte

(El Diario Vasco, 2000-V-27)



Manuel Matxain, bertso kantari.

Aurkibidea

Itzaurrea	7
Manuel Matxain, nere aitona	17
Bertso berriak Manuel Matxain-ek Arantzazuko Amari jarriyak	21
Aiton-amonen festa Oñatin	24
Pedro Aiestaran zanari	28
Kennedy zanari	29
Pernandori	31
Basarri, Uztapide ta Lazkao-Txiki	33
Amari entzunak	37
Kontuz, gazteak, nola batzuk ala besteak	39
Ondarrabi ta Pedreña	42
Tripazaiak	44
Polipaso ta Errekalderen jokua	46
Aita Salvatore Mitxelena zanari	48
Xenpelar zanari	50
Auster-egun bat	52
Ondarrabi ta Pasai San Juan	54
Isidoro Fagoaga jaunari	57
Florencia-ko ondamena	59
Erromako bixitari	61
Lasarteko laisterketa	63
Morroi baten arrenkurak	65
Errerako festak	67
Uriona zanari	69
Aieteko berri	71
Txe Gebara	73
Au mundua (Nagusia ta morroia)	75
Jose Migel Maiz-i	77
Uztapideri omenaldia	78
Urtain	80

Robert Kennedy-ren eriotza	82
Meza berri batean.....	84
Jose Artetxe, idazle argiari	86
Jacqueline.....	88
Bertso berriak Japoi aldean.....	90
Silbestre Igoa futbolistari.....	94
Maiorazko baten kontuak.....	95
Aieteko jaietan	97
Mineroen bizitza	99
Eskerrak emanaz	101
Bertso berriak: ~Esaera bat bada...»	103
Gerraren aurka	105
Bertso berriak Endañetari	107
Lagun baten eskeintza.....	109
Jose Lopetegiri.....	110
Luzianori	111
Don Zezilio Agirre apaiz jaunari.....	113
Egindako ametsa	114
Manuel Lasarteren omenaldia.....	116
Emazte baten samiñak.....	118
Eskudero prokuradoreari.....	120
Donostiako Txoko polit bat.....	124
Artetxe joan zaigu	126
Pakea	128
Euskaldun berri dan Pedro Maria Okariz-i	130
Pakean bizi ditezen.....	132
Manuel Zubillagari.....	134
Aita Kolbe martiriari	136
Añorgako <i>Jolas-etxea</i> urrezko eztaietan	138
Azken berdiña	140
Esker ona.....	142
Gazteak eta zarrak, danak ez dira txarrak	144
Seta gaiztoa	146
Allenderen alargun eta Txileri	148
Abebe Bikila-ri.....	150
Manterolari.....	151
Gabon tristeak	152
Enbeita eta bertsolariak ispillu.....	154
Zorioneko futbola.....	156
Au mundua.....	158

Zorioneko <i>streaking</i>	160
Pake urtea.....	164
Jesus Eskisabel.....	165
Marmarrak.....	167
Mendaro Txirristaka.....	169
Bizimodu estua.....	171
Urrezko eztaiak.....	173
Urrezko eztaiak.....	175
Europa Batua ta gu.....	177
Zorionak, Iza.....	179
Pobreak eta aberatsak.....	181
Bide berriak.....	183
Matxainen gorabeerak.....	185
Pelota elkarte.....	187
Pelota, deporte, latina.....	189
Eriotza, politika eta Europa.....	191
Lazkao Txikiri.....	193
Ez gaitu gustora utzi.....	195
Ala izan dedilla.....	197
Aieteri.....	199
Dirua eta maitasuna.....	201
Esker onez.....	204
Ez ote partidu geiegi?.....	206
Aitondu naiz.....	208
Geiago ez gorrotorik.....	210
Alkate berria.....	212
Al danik eta azkarren.....	214
Alkain jaunari irain-orde.....	215
Ernaniko Arrieta gazteari.....	216
Naikoa da!.....	217
Aste beltza lengoa.....	219
Barberito il da!.....	221
Jose Errasti jaunari.....	223
Ez naiz politikoa.....	224
Beldur naiz!.....	226
Txakurra salgai.....	227
Alberto Muñagorri.....	229
Bordariri.....	230
Eltzeak gaiñez?.....	231
Nere naia.....	232

Eskerrak emanez	234
Jaun Mariano Arrazola	235
Gaioxaiari agindua	236
Gure bixkieri	237
Esker ona.....	238
Pakea lenengo	239
Barka utsegitea	240
Antxon Aiestaran zanari.....	241
Uliako <i>Gimnástica</i> -ri.....	243
Eskerrik asko.....	244
Oporretan kontuz.....	245
Setaren aurka.....	246
Egun eder bat	247
Burrukarik ez	250
Amar agindu.....	251
Pakean bizitzeko.....	252
Kezkati nago	253
Eskerrak emanez	254
Larogei urte Basarrik	255
Indurain	256
Segi aurrera, Iñaki!.....	257
Naparroako Aurrezki-Kutxaren berri	259
Bertso berriak Manuel Matxainek jarriak	261

Aitorpenak

Gizonak jaio egin bear dik!	265
Manuel Matxainen omenaldia.....	268
Manuel Matxain	269
Alkarrizketa.....	270
« Gaur, irakurle maiteok...»	272
Eskerrak, Matxain	274
Manuel Matxain adiskideari	276
<i>Matxain vuelve a la toca, a los bolos y a sus bertsos ...</i>	278
Manuel Matxain	279
Basarriren iritziak.....	285
Elkarrizketa	297
Manuel Matxain, tokalari sonatua.....	300

Auspoa-ren azken liburuak:

- 265 B. Barandiaran: *Tratabideak*
- 266 Sor Justina Aldalur: *Ama Birjiñaren bizitza*
- 267 Ataño: *Ondaretzat gorrotoa*
- 268 M. Ostolaiz: *Senda-belarrak*
- 269 T. Gerrikagoitia: *Arantza eta larrosa*
- 270 A. Basterretxea: *Ene Ondarru*
- 271 Ataño: *Jesusen bizitza*
- 272 M. Aizpurua: *Hasi, Azpillaga*
- 273 E. Larre: *Ene artzain etxolak*
- 274 J. M. Aranalde: *Xalbadorren barrua*
- 275 Joxe Lizaso: *Ene aldiko kronika*
- 276 Jose Insausti: *Beti bertsoa buruan*
- 277 Manuel Matxain: *Uste gabea*



Manuel Matxain (1916-1999) Aieteko Txabola etxean jaio zan. Donostiarra genduan, beraz. Ala, beraren izena Gipuzkoako iriburuak eman dituan bertso-jartzailleen zerrenda luzatzera dator: Bilintx, Ramon Artola, Iraola, Arzak, S. Irure, Pepe Artola, Segundo Kalonje eta abar, oietako batzuk Donostian jaiok ez izanagatik, bizitzarik geiena bertan egin zutelako.

Matxain 1963-an asi zan bertso jartzen, eta ogei ta amar urtean etzuan langintza ori eskutik utzi, bitarte ortan eunka eta eunka bertso papereratuz. Beraren bertso-bilduma eskeintzen diogu gaur irakurleari. Ez da agian oso-oso izango; baiña bai aal izan degun osoena. Ia milla eta berreun bertso dituana.

Aietear ura bertso-jartzaille bikaiña zan. Bertso-gintza dotorea eta euskera garbia zuan. Gizatasunez jantzitako sailak eskeintzen zizkigun, oso gai ezberdiñak erabiliz eta garai artako testigantza egiñez. Ala, bertso-bilduma au orduko gizar-tearen ispillu edo kronika biurtzen zaigu.

Gaurko liburu au, gizon umil eta alai, biotz oneko eta leial bati zor diogun altxorra da, beraz.

ISBN 84-95378-58-2



9 788495 378583

